



Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa

Behin Betiko Onarpena V. Dokumentua. Ingurumen azterketa estrategikoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
 Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas



2018ko apirila

BEHIN BETIKO ONARPENA – Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa

I. Dokumentua	Memoria I. Eranskina – Hiri plangintzarekiko afekzioak
II. Dokumentua	Dokumentazio Grafikoa
III. Dokumentua	Araudia
IV. Dokumentua	Azterketa ekonomiko-finantzarioa
V. Dokumentua	Ingurumen azterketa estrategikoa

V. Dokumentua - Ingurumen azterketa estrategikoa (Behin Betiko Onarpena)

Ingurumen azterketa estrategikoa - Aurkibidea

1.	Aurrekariak eta xedea.....	1
1.1.	Aurretiko kontsulten izapide fasean jasotako erantzunen azterketa laburra eta horiek kontuan hartzea	3
1.1.1.	URA	4
1.1.2.	Eusko Jaurlaritza – Osasun Saila.....	5
1.1.3.	Eusko Jaurlaritza – Ingurumen Sailburuordetza	5
1.1.4.	Urola Kostako Mankomunitatea	6
1.1.5.	Urola Erdiko Mankomunitatea	6
1.1.6.	Eusko Jaurlaritza - Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza	7
1.1.7.	IHOBE – Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa.....	8
1.1.8.	Hernani, Oartzun eta Usurbilgo Udalak.....	8
1.1.9.	Eusko Jaurlaritza – Kultura Ondarearen Zuzendaritza	11
1.1.10.	Errenteriako Udala.....	11
1.2.	Hasierako Onarpenaren jendaurreko informazioaren emaitzaren balorazioa	11
2.	LAP aldatzeko beharra eta helburuak Interakzioa beste plan eta programa batzuekin.....	13
2.1.	Plangintzaren helburuak eta justifikazioa	13
2.1.1.	Planaren oinarritzko helburu eta garapen-irizpide orokorrak eta espezifikak, eta Planaren etorkizuna.....	13
2.1.2.	Plana aldatzeak ase behar dituen beharren justifikazioa	15
2.1.2.1.	Zaborrak ontzeko planta	15
2.1.2.2.	Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan.....	15
2.1.2.3.	Transferentzia-estazioak	17
2.1.2.4.	Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinen plantak	18
2.1.2.5.	Hondakin solidoak uzteko hondakindegia. Hondakinak isurtzeko jarduera bukatutzat eman duten hondakindegia	19
2.2.	Jarduketa-eremua. LAPen aldaketaren irismena	19
2.3.	Planak izan lezakeen garapena.....	20
2.4.	Interakzioa beste plan eta programa batzuekin.....	20
2.4.1.	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHKPO) eta haren Aurrerapen Agiria	20
2.4.2.	EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020	21
2.4.3.	Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020). Ingurumen Esparru Programa 2020	24
2.4.4.	2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko estrategia.....	26
2.4.5.	2020rako Europako Ingurumen eta Osasun Estrategia	27
2.4.6.	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).....	28
2.4.6.1.	Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (1997)	29
2.4.6.2.	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa. Aurrerapena (2016)..	29
2.4.7.	Gipuzkoako lurralde-plan partzialak (LPP).....	31
2.4.8.	Lurraldearen arloko planak.....	33
2.4.9.	Zortasun aeronautikoak eta aireko segurtasuna. Arloko esparru aplikagarria	35
3.	Hautabideak sortzea eta aztertzea helburuak erdiesteko	37
3.1.	Abiapuntuko baldintzatzaile orokorrak kokapenak hautatzeko.....	37
3.1.1.	Ingurumena babesteko lurraldearen arloko planak	37

3.1.2.	Eremu degradatuak – Inbentarioetan, kutsatuta egon daitezkeen espazioak.....	37
3.1.3.	Balitzko arkeologia-guneak eta gune megalitikoak. Euskal Kultur Ondarea	37
3.2.	Kokapen-hautabideak aukeratzeko abiapuntuak baldintzatzaileak: transferentzia-estazioak eta konpostaje eta/edo biometanizazio-planta	38
3.2.1.	Lurraldekoak	38
3.2.1.1.	Kokapenaren oinarritzko baldintzatzaileak	38
3.2.1.2.	Ezartzenaren oinarritzko baldintzatzaileak	38
3.2.1.3.	Aukera-sinergiak	38
3.2.2.	Ingurumenekoak	39
3.2.2.1.	Kokapenaren oinarritzko baldintzatzaileak	39
3.2.2.2.	Kokapenaren azterketa xehatua aintzat hartu beharreko ingurumen-aldagaiak	39
3.2.3.	Tekniko-ekonomikoak	41
3.2.3.1.	Kokapenaren oinarritzko baldintzatzaileak	41
3.3.	Beharrezko aldaketak. Aurreikusitako jarduketak.....	41
3.3.1.	Zaberrak ontzeko planta	41
3.3.2.	Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan.....	45
3.3.2.1.	Aurrekariak	45
3.3.2.2.	Kokapen-hautabideak.....	47
3.3.3.	Sasieta Mankomunitateko Transferentzia-estazioa	55
3.3.3.1.	Aurrekariak	55
3.3.3.2.	Proposatutako azpiegituraren deskribapen orokorra	57
3.3.3.3.	Kokapenerako hautabideak.....	57
3.3.4.	Debarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioa	67
3.3.4.1.	Aurrekariak	67
3.3.4.2.	Elgoibarko Transferentzia-estazioa	70
3.3.5.	Txingudiko Mankomunitateko Trukatze-plataforma	71
4.	Ingurunearen deskribapena eta haren ezaugarriak.....	72
4.1.	Lurraldeko ingurumen- eta paisaia-unitate homogeneoen definizioa.....	72
4.2.	Aztertutako hautabideen ingurumen-inbentarioa.....	72
4.2.1.	Zepak heltzeko plantarako ingurumen-inbentarioa	72
4.2.2.	Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje-planaren ingurumen-inbentarioa	78
4.2.2.1.	1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea Triangelua, ingurumen-inbentarioa	79
4.2.2.2.	2. hautabidea: Eskuzaitzeta, ingurumen-inbentarioa	82
4.2.2.3.	3. hautabidea: Loistegikogaina, ingurumen-inbentarioa	82
4.2.3.	Sasieta Mankomunitateko Transferentzia-estaziorako ingurumen-inbentarioa	90
4.2.3.1.	1. hautabidea: Altuna industrialdea (Olaberria), ingurumen-inbentarioa	91
4.2.3.2.	2. hautabidea: Alegi auzoko lurzatie (Ormaiztegi), ingurumen-inbentarioa	95
4.2.3.3.	3. hautabidea: Sasieta Zabortegiko lursaila, ingurumen-inbentarioa ..	98
5.	Teknikoki zentzuzkoak diren hautabideen ingurumen azterketa. Erabakitako hautabidearen justifikazioa	104
5.1.	Sarrera	104

5.2.	Hondakinak kudeatzeko azpiegituren LAPEko hautabideetan jasotako jarduketaren definizioa	104
5.3.	“0” hautabidea edo ez jarduteko hautabidea definitzea.....	105
5.4.	Aldaketa honen helburuetatik ondorioztatuko diren ingurumen efektuak baloratzea	106
5.4.1.	Hautabide desberdinak baloratzeko erabili diren irizpideen deskripzioa	106
5.4.2.	Zepak heltzeko planta ezartzeko proposatu den hautabidearen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa	106
5.4.3.	Donostialdea-Bidasoa esparruan konpostatzeko edota biometanizatzeko planta ezartzeko proposatu diren hautabideen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa	110
5.4.3.1.	Erabakitako hautabidearen justifikazioa	122
5.4.4.	Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioa ezartzeko proposatu diren hautabideen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa	126
5.4.4.1.	Erabakitako hautabidearen justifikazioa	134
5.4.5.	Elgoibarko (Debabarrena mankomunitatea) transferentzia-estazioaren balorazio orokorra.....	136
5.4.6.	Arasoko (Txingudi mankomunitatea) trukatzeko-plataformaren balorazio orokorra	137
6.	Aukeratutako hautabideen ingurumen eraginak identifikatzea eta baloratzea. Ingurumenean izan ditzaketen ondorio nabarmenak.....	139
6.1.	Inpaktu kritikoak eta egoera ez-ohikoak ezabatzeko jarduketak	140
6.2.	Kausa-efektu matrizeak	140
6.2.1.	Sortutako inpaktuak aztertzeke erabili diren irizpideak	141
6.3.	Zepak heltzeko plantak eta konpostatzeko edota biometanizatzeko plantak ingurumenean eragin ditzaketen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea	143
6.4.	Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea.....	145
6.5.	Elgoibarko (Debabarrena mankomunitatea) transferentzia-estazioak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea	147
6.6.	Trukatze-zabaluneak (Txingudi mankomunitatea) ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea.....	149
6.6.1.	Donostiako Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoak.....	150
6.7.	Jada badauden edo indarreko LAPEan aurreikusita dauden azpiegiturak ezabatzeak eragingo dituen inpaktuak baloratzea	150
7.	Ingurumenean integratzeko neurriak.....	152
7.1.	Obren fasea	154
7.1.1.	Obrako jarduketa egoki orokorrak	154
7.1.2.	Babestu beharreko elementuak aldeztu aurretik balizatzea	155
7.1.3.	Lurrak eta berezko landaretza babestea eta zaintzea	155
7.1.4.	Fauna babestea.....	156
7.1.5.	Jarduketaren egutegia	156
7.1.6.	Zarata minimizatzea	156
7.1.7.	Ukitutako eremuak leheneratzea.....	157
7.1.8.	Makinen eta obrako etxolen kokalekua	157
7.1.9.	Hautsa ez barreiatzeko neurriak.....	157
7.1.10.	Hondakinen kudeaketa.....	158
7.1.11.	Paisaia leheneratzea	158

7.2.	Ustiapen fasea	158
7.2.1.	Kudeatu behar diren Hiri Hondakin Solidoen konposizioaren kontrola	158
7.2.2.	Instalazioetan sortutako hondakinen kudeaketa	159
7.2.3.	Lur gaineko urak babestea	159
7.2.4.	Lurpeko urak babestea	159
7.2.5.	Zarata maila handiko instalazioetan hartu beharreko neurriak	160
7.2.6.	Erregai ezberdinak eta, oro har, produktuak gordetzea	160
7.2.7.	Atmosferarako igorpenak kontrolatzea. Efizientzia energetikoa	160
7.3.	Oraingo hondakindegia zigilatze eta ixteko proiektua	160
7.4.	Kokalekuak xehetasunez ikertzea eta arakatzea	161
8.	Ingurumen arloko ikuskapen programa	162
8.1.	Kontrolatu beharreko helburuak zehaztea	162
8.2.	Ukituko diren eta segimendua beharko duten ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea	162
8.3.	Ikuskapen metodologia	163
8.4.	Adierazleak definitzea eta horien segimendua egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea. Gehieneko edo erreferentziako mailak ezartzea	164
8.5.	Plangintzaren gerorako faseetan edo plana garatzeko ingurumen arloko izapideetan xehetasunez aztertze eta utzi behar diren alderdiak	165
9.	Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena	166
10.	Laburpen ez-teknikoa	169
10.1.	Aurrekariak	169
10.2.	Azpiegiturak ezartzeko lurraldea zehazteko irizpide orokorrak	171
10.3.	Jarduketa esparrua. LAParen aldaketaren helmena aukeratu diren hautabideak	173
10.4.	Ingurumenean integratzeko neurriak	175
10.4.1.	Obren fasea	178
10.4.2.	Ustiapen fasea	180
10.4.3.	Oraingo hondakindegia zigilatze eta ixteko proiektua	181
10.4.4.	Kokalekuak xehetasunez ikertzea eta arakatzea	182
10.5.	Ingurumen arloko ikuskapen programa	182
10.5.1.	Adierazleak definitzea eta horien segimendua egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea. Gehieneko edo erreferentziako mailak ezartzea	183
10.5.2.	Plangintzaren gerorako faseetan edo plana garatzeko ingurumen arloko izapideetan xehetasunez aztertze eta utzi behar diren alderdiak	185

Eranskinak - Aurkibidea

I. Eranskina – Dokumentu grafikoak

II. Eranskina – Ingurumen-adierazpen estrategikoko zehaztapenak txertatzea

Irudiak - Aurkibidea

1. irudia. Zaborrak ontzeko planta kokatzeko proposamena.	42
2. irudia. Eskuzaitzeta industrialdeko D lurzatia.	42
3. irudia. ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialean aurreikusi den antolamendua. Iturria: 6. planoa – ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialaren zonifikazio xehatua (2010eko azaroa)	43
4. irudia. Konpostaje eta/edo biometanizazio-plantarako irtenbidea Donostialdea-Bidasoan: Zaldunborda. Hala ageri zen 2009ko uztailan onartutako LAPen.	47
5. irudia. Kokapen-hautabideak Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako.	48
6. irudia. 1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea triangelua, Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako.	49
7. irudia. 2. hautabidea: Eskuzaitzeta, Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako.	50
8. irudia. ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialean aurreikusi den antolamendua. Iturria: 6. planoa – ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialaren zonifikazio xehatua (2010eko azaroa)	51
9. irudia. 3. Hautabidea: Loistegikogaina, Donostia-Bidasoako konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako kokapenerako.	53
10. irudia. Sasietako Zabortegiaren kokalekua (Sasietako Mankomunitatea)	55
11. irudia. 1, 2 eta 3 kokalekuak, Sasietako Zabortegiaren barnean (Sasietako Mankomunitatea)	56
12. irudia. Sasietako Mankomunitateko TE: 2009ko LAPen aukeratutako hautabidea – Sasietako Zabortegiaren ondoko eremua	57
13. irudia. 1. hautabidea: Olaberria kokapena (Sasietako Mankomunitateko TE).	58
14. irudia. 2. hautabidea: Ormaiztegi kokalekua (Sasietako Mankomunitatearen TE)	61
15. irudia. Debarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 1. hautabidea: Elgoibar, 2009ko uztailan onartutako LAPen	67
16. irudia. Debarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 2. hautabidea: Eibar, 2009ko uztailan onartutako LAPen	68
17. irudia. Debarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 3. hautabidea: Urruzunoko Zabortegia, 2009ko uztailan onartutako LAPen	69
18. irudia. Txingudiko Mankomunitateko Trukatze-plataforma	71
19. irudia. Zepak heltzeko planta kokatzeko proposamena	72
20. irudia. Eskuzaitzeta industrialdean egindako lur-mugimenduen aurretik zegoen Lurgaineko hidrologia	75
21. irudia. D lurzatian egindako ibar-hondoaren drainatzea (Iturria: "ZU.08 Eskuzaitzeta" Hirigintzako Arloko Proiektuko 6. planoa. B, R, W, C eta D lurzatiak berdintzeko lur-mugimenduen lanak, 2010eko azaroa, Ikaur)	76
22. irudia. Donostialdea-Bidasoako konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta eraikitze hautabideak.	78
23. irudia. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantaren 1. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)	81
24. irudia. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantaren 3. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)	89
25. irudia. Sasietako Mankomunitateko Transferentzia-estaziorako aztertu diren hautabideen kokapenak	91
26. irudia. Sasietako Tere 2. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)	97
27. figura. Zepak heltzeko planta ezartzeko proposatu den kokalekua	107

1. Aurrekariak eta xedea

Diputatuen Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorra (GHHKPO); hartara, babestu egin zuen Gipuzkoako zortzi hondakinak mankomunitateen arteko zazpiren iritzia, eta hala herritarrek nola eragile sozial eta ekonomikoek parte hartzeko zenbait fororen bidez eginiko proposamenak txertatu zituen. Plan horren xedea da hiri-hondakinak etorkizuneko kudeaketak herritarrei ahalik eta kalitatez eta kosturik homogeneoa duen zerbitzua ematea Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan, eta ingurumena ahalik eta gehien babestea, indarrean dagoen araudiko eskakizunak eta garapen iraunkorraren printzipioak betetzeko.

GHHKPO onartu ondoren, mankomunitateen borondatea zehaztu behar zen GHHKPOn jasotako zenbait oinarritzko alderdi direla eta, mankomunitateak tokiko erakunde eskudunak baitira hiri-hondakinak kudeaketan. Hori dela bide, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak Plana garatzeko eta ezartzeko lanak abiarazi zituen, beharrezkoak diren azpiegituren kopurua, ahalmena, kokapenak, kudeaketa-tresnak eta erakundeen barruko artikulazioa finkatzeko, eta Gipuzkoako gizarteari errealitate horren berri emateko.

GHHKPO onartu eta bost urtera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurrerapen Agiria idazteko lanari ekin dio, honako helburu hauekin: Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeaketari buruz eskura dauden datu berriak biltzea eta aztertzea; etorkizunean sortuko diren hondakinak gainera aurreikuspenak eguneratzea; araudi eta estrategia berrietan hondakinak prebentzioari eta kudeaketari buruz jasota dauden zehaztapenak txertatzea; hondakinak kudeaketa dela-eta indarrean dagoen plangintzako edukiak ebaluatzea; bere garaian onartutako kudeaketa orokorreko helburuak berrikustea; antolakuntzarekin eta gizarteak parte hartzearekin lotuta zirriboratu diren alderdiak garatzea; eta kudeaketarako hautabideak proposatzea (azpiegiturak barne), politikaren, gizartearen eta erakundeen esparruetan eztabaidatzeko.

Hartara, abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bidez (2008ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 250. zk.), Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartu zuten. Horregatik, plangintza guztia agiri bakar batean biltzeko, GHHKPO Aurrerapen Agiriaren eranskin gisa jaso zen, hartara, Aurrerapen Agiriak jorratzen ez dituen alderdietan GHHKPOk indarrean jarrai dezan.

Aurrerapen Agiria idazteko lana abian zegoela, Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana izapidetzen hasi zen, agiri hori arloko plangintzan aipatutako kudeaketa-irtenbideen oinarria baita lurraldean.

Hala, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana (aurrerantzean, LAP) 2009ko uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen, Gipuzkoako hiri-hondakinak etorkizuneko kudeaketa egiteko beharrezkoak izango diren azpiegituren kokapenari buruzko aurreikuspenak jasotzeko, Europako, estatuko eta EAEko arauzko dokumentuetan xedatu diren iraunkortasun-irizpideei jarraituz; eta halaber, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean (GHHKPO) eta haren Aurrerapen Agirian jasotako helburuei erantzuteko.

Laburbilduz, honako hau zen azpiegituren kokapena:

- Transferentzia-estazioak
 - Urola Kostako Mankomunitatea: 1. hautabidea – Urtetako hondakindegia.
 - Urola Erdiko Mankomunitatea: 2. hautabidea – Lapatxeko hondakindegian, ibilgailuetan mantentze-lanak egiteko eraikinaren parean.
 - Debagoieneko Mankomunitatea: 3. hautabidea – Epeleko hondakin inerteen hondakindegia erantsitako lursaila.
 - Debabarrenako Mankomunitatea: Eibar eta Mutriku. Kokapen berria zehazteko dago, Eibarren transferentzia-estazio berria egitea (2. hautabidea) baztertu baitzen arazo geoteknikoengatik.
 - Sasieta Mankomunitatea: 2. hautabidea – Sasietako (Beasain) hondakindegia erantsitako gunea.
- Konpostaje-plantak
 - Konpostaje-planta Lapatxeko hondakindegia eremuan: 3. hautabidea – Inausketa metatzen den gunea, Lapatxeko hondakindegia eremuan dagoen baserriaren parean.
 - Konpostaje-planta Debagoieneko Mankomunitatean: 3. hautabidea – Epeleko hondakin inerteen hondakindegia erantsitako lursaila.
 - Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan: 2. hautabidea – Zaldunborda (Hondarribia).
- Eraikitze- eta eraiste-lanetako hondakinak hartzeko azpiegitura, hondakin inerteen Aizmendiko zabortegean (Donostia).
- Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa, Arzabaletan (Zubieta gaina).
- Hondakindegia
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatxeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Sasieta: Sasietako hondakindegia (Beasain)
- Ontziak bereizteko plantak:
 - Sasieta: Legazpiko planta
 - San Marko: Urnietako planta

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2012. urtean, administrazioarekiko 1352/2009 auzi-errekurtsoari buruzko 50/2012 epaia eman zuen. Errekurtso horretan, Aizarnabalgo, Lezoko eta Oiartzungo udalak ageri dira auzi-jartzaile gisa, eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak, demandatu gisa. Hala, errekurtso horretan aurkaratu egiten da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 21eko

24/2009 Foru Dekretua, eta horrez gain, zeharka aurkaratzen da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra (GHHKPO) eta GHHKPOren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartzen duen abenduaren 23ko 7/2008 Foru Araua. Errekurtso hori zati batean baietsi zen, eta beraz, LAPen sartuta dagoen Arzabaletaren eremuko antolamendua indargabetu egin zen; hortaz, Plan Berezia onartu behar zen eremu hori antolatzeko. Plan Berezi hori Donostiako Udaleko 2016ko abenduaren 20ko osoko bilkuran onartu zen behin betiko, eta 2017ko urtarilaren 17ko GAOen argitaratu zen. Plan Bereziaren bitartez, tratamendu mekaniko biologikoko planta eta balioztatze energetikorako planta hirigintzaren arloan ezartzeko antolamendua bideratu zen.

LAP eta GHHKPO onartu zirenetik aurrera igaro den denboran, kokapen jakin batzuk aldatzeko beharra ikusi da; izan ere, xehetasun-azterlanak landan egin direnean, kokapenak desegokiak direla ikusi da, irizpide geotekniko-geologikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta kudeaketa arlokoak oinarri hartuta.

Hori dela eta, Hondakinen Kontsortzioak (aurrerantzean, Kontsortzioa) indarrean dagoen LAP aldatzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuari, indarrean dagoen GHHKPOn aurreikusitako azpiegiturak ezartzen bukatzeko eta aurreikusita daudenetako batzuk aldatzeko.

Era berean, honako hau xedatzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2017. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauko zortzigarren xedapen gehigarrian:

«GHHKPO 2002-2016 eta haren Aurrerapen Agiria 2008-2016, 2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bidez onartu zirenak, erabat aplikatu beharrekoak izango dira bi dokumentuetan jasotako zehaztapenak eta azpiegiturak exekuzio osoa guztiz bete arte».

Xedapen hori betetzeko, LAPen aldaketa honek osatu egiten du GHHKPOn aurreikusitako azpiegituren multzoa.

1.1. Aurretiko kontsulten izapide fasean jasotako erantzunen azterketa laburra eta horiek kontuan hartzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak 2017ko apirilaren 12an emandako Foru Aginduen bidez, erabaki zen Gipuzkoako Hiri Hondakinen Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapena lurraldeko administrazio publiko interesdunei igortzeko agintzea, bi hilabeteko epe emanez egoki iritzitako ohar, iradokizun, hautabide eta proposamenak aurkezteko.

Era berean, eta kontuan hartuta plan eta programetako ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoa, egun horretan bertan kontsulta egin zitzaion planak ukitzen dituen administrazio publikoei eta publiko interesdunari, honako alderdi hauei buruz: planaren hedapena, xehetasun maila, ingurumen jasangarritasuneko txostenaren zehaztasun maila, eta aplikatzekoak diren ingurumen helburuen eta jasangarritasun irizpideen adierazleak eta ingurumen irizpide estrategikoak.

Bi prozedura horiek desberdinak eta independenteak badira ere, erantzun gehienek bi prozeduren inguruko ekarpenak bildu dituzte. Horregatik, jasotako iradokizun eta ohar guztiak batera balioesten dira. Ondorioen atal bakoitzean zehazten den bezala, iradokizun eta ohar horietako batzuk onestea eta agirian txertatzea proposatu da.

Emandako epean entitate hauen oharrak jaso dira:

1. URA
2. Eusko Jauriaritza – Osasun Saila
3. Eusko Jauriaritza – Ingurumen Sailburuordetza
4. Urola Kostako Mankomunitatea
5. Urola Erdiko Mankomunitatea
6. Eusko Jauriaritza - Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
7. IHOBE
8. Oiartzungo Udala
9. Hernaniko Udala
10. Usurbilgo Udala
11. Eusko Jauriaritza – Kultur Ondarea
12. Errenteriako Udala

1.1.1. URA

Uraren Euskal Agentziak bi idatzi aurkeztu ditu. Horietako batean dioenez, uraren arloko eskumenak kontuan hartuz, txosten eskaera Kantauriko eta Ebroko konfederazio hidrografikoei helararazi die, erreferentziazko gaiaren inguruko txostenen bat igortzea komeniko balitz.

Bestalde, adierazten dute ez dela aurreikusten proposatutako esku-hartze bakar batek ere eragin adierazgarriarik sorraraziko duenik jabari publiko hidraulikoan eta haietako babes zonaldean, eta horietako bakar bat ere ez dagoela Plan Hidrologikoko babes zona batean kokatuta, ezta uholde zonaldean ere. Edozein kasutan, jabari horretan eragina duten esku-hartzeek baimena beharko dute.

Hornidurari dagokionez, adierazten da proiektu espezifikoek dagokien soluzioa jaso beharko dutela, ur eta hornidura eskari berriei dagokienez. Zentzu horretan, administrazio hidrauliko eskudunaren iritziaz gain, entitate kudeatzailearen txostena ere beharko da, justifikatzeko baduela eskariak asetzeko adina azpiegitura eta gaitasun. Baliabiderik badagoen edo ez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak xedatutakoa beteko da.

Saneamenduari dagokionez aipatzen du azpiegiturak saneamendu sarera lotzeko aukera lehenesten dela, jabari publiko hidraulikora isuriak dakartzan bakarkako arazketaren aurrean.

Balorazioa:

Lurraldearen Arloko Planaren Ingurumen Azterlan Estrategikoak berariaz adierazten duenez, administrazio hidraulikoaren baimenaz gain, planaren aldaketan proposatutako jarduketei dagokienez garatu beharreko proiektu espezifikoetan jaso behar da ur eskari berriei eta ur horren

hornidurari erantzuteko aurreikusitako soluzioa, lehendik dauden sare orokorretara lotuz egingo dena.

Zentzu horretan, aipatu behar da kontsulten izapide horretan kontsulta orokorrak egin zaizkiela, URA erakundeaz gain, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari eta Gipuzkoako uren hornidura eta saneamendua kudeatzen dituzten entitateei (Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea, Añarbeko Urak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa), eta horietako inork ez duela erantzunik bidali.

Hala eta guztiz ere, LAP hasierako izaeraz onartu ondoren zabalduko den jendaurreko entzunaldian zehar, kontsulta espezifiko eta zehatza egingo zaie administrazio hidrauliko eskudunari (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa) eta gehien eragindako lurralde esparruetako hornidura kudeatzen duten entitateei (batez ere Añarbeko Urak eta Ur Kontsortzioa), eskariak bermatzeko nahikoa azpiegitura eta gaitasun dagoen ziurtatzeko.

Saneamenduari dagokionez, LAPea espresuki jasoko da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 Plan Hidrologikoaren 56.4 artikuluari jarraituz, jabari publiko hidraulikora isurtzen diren banakako arazketei baino lehentasuna emango zaiola industrialdeetako isurketak –baldin eta biodegradagarritasun ezaugarriengatik administrazio autonomikoei, tokiko administrazioei edo haien mendeko entitateei kudeatzen duten saneamendu sistemetako instalazioei onar baditzakete- saneamendu publikoko sarera husteari.

Era berean, azpiegitura baten proiektu espezifiko izapidetzerakoan eskatzaileak bere isurketak lehendik dagoen saneamendu sare batean hustu nahi baditu, entitate kudeatzailearen txostena beharko du. Txosten horretan ziurtatuko du proposatutako lotura bateragarria dela eremu horretan dagoen saneamendu soluzioarekin, eta lotura egiteko punturik egokiena zein den zehaztuko du.

1.1.2. Eusko Jaurlaritza – Osasun Saila

Osasun Publikoaren eta Adikzioaren Gipuzkoako zuzendariordetzak informazioa eskatu du, hainbat gairi buruz: ingurumen zaintzako programa, soinu, usain eta argi kutsadura, ere mu elektromagnetikoak, airea iragazteko, arazteko eta desodorizatzeko sistemak, eta legionellosiaren prebentzioa eta kontrola.

Balorazioa:

LAPen xede nagusia da 2008ko abenduaren 28ko 7/2008 Foru Arauaren bidez onartu zen hondakinen kudeaketako ereduaren definitutako azpiegiturak lurraldean kokatzea. Beraz, LAPei aurreko xedapenei dagokien zehaztasun mailaren arabera ingurumen alderdiak bilduko ditu. Hori horrela, ezin zaizkio eskatu aldaketan sartuta dauden azpiegitura guztien exekuzioa eta garapen proiektu zehatzei aplikatu behar zaizkien ingurumen neurriak. Nolanahi ere, sartuko dira Planaren ondoriozko proiektuetan jasoko diren neurri zuzentzaileen inguruko aurreikuspenak.

1.1.3. Eusko Jaurlaritza – Ingurumen Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak positiboki balioesten du LAPen aldaketak kontuan hartzea EAEko Hondakinen Prebentzio eta

Kudeaketarako Planean (2010) instalazioak kokatzeko ematen diren irizpideak, eta baita ere egungo premia eta datuetan oinarrituz beharrezkoak ez diren azpiegiturak kentzeko aukera izatea.

Natur ondarearen gaineko eraginari dagokionez, adierazten du zepak heltzeko plantaren kokapena egokia dela, jada eraldatuta dagoen lurzoru batean baitago. Arrazoi beragatik, Donostialdeako biometanizazio plantaren kokapena ere egokia da, eta Sasietako transferentzia estaziorako hautatutakoa (Sasietako zabortegea), berriz, onargarria da, nahiz eta Olaberriako aukera hobeto balioetsi. Azkenik, eskatu dute argitzea funtzionatzeari utziko dioten azpiegitura horiek okupatzen duten lurra zertarako erabiliko den, eta zehaztea ingurumena leheneratzeko jarduketarik aurreikusten den.

Balorazioa:

Erabiliko ez diren azpiegiturak, hala nola hondakinen tratamendurako instalazioak, LAPen esparru materialetik kanpo geratuko dira eta, beraz, LAPen araubide juridikoaren mende egoteari utziko diote. Hori horrela, lurzati horien titularrek erabakiko dute lur horiek zertarako erabiliko dituzten, aplikatzekoa zaien hirigintza araubideari jarraituz.

1.1.4. Urola Kostako Mankomunitatea

Urola Kostako Mankomunitateak uste du LAPen aldaketaren parte diren dokumentuetan ezin dela honako baieztapena jaso: “Gipuzkoako hiri-hondakinen zabortegeiak (Urteta, Lapatx eta Sasietak) itxi egin dira dagoeneko; horrenbestez, gaur egun, lurraldean itxita dauden gainerako zabortegeien kasuan bezala, itxi osteko kontrol eta zainketa fasean daude”. Hala, eta Urtetako zabortegeiari dagokionez, adierazten du dagoeneko ez direla bertan hondakinak botatzen baina ez direla oraindik zabortegei guztia zigilatze lanak amaitu eta, horrenbestez, ez daudela “itxi osteko kontrol eta zainketa fasean”. Horren ordez zera adieraztea proposatzen du “hondakin-isurketaren jarduna eten duten zabortegeiak”.

Aurrekoa kontuan hartuz, 1481/2001 Errege Dekretuari egindako erreferentzia ere kentzeko eskatu du. Halaber, eskatu du dokumentazioan “hiri-hondakinen zabortegeekin” lotuta dauden aipamenak alda daitezela, araudiaren arabera zuzenagoa den “hondakin ez arriskutsuen zabortegei” ipiniz.

Balorazioa:

Egokitzen jo da zabortegeien izena aldatzeko iradokizuna, eta hemendik aurrera “hondakin-isurketaren jarduna eten duten zabortegeiak” izango dira. Hala eta guztiz ere, hondakinen tratamendurako instalazio gisa jardunean ez dauden azpiegiturak direnez, LAPen esparrutik kanpo geratzen dira eta, beraz, planoetan jasota egoteari utziko diote. Azkenik, aipatu den arau erreferentzia ere kenduko da.

1.1.5. Urola Erdiko Mankomunitatea

Mankomunitate honek adierazi du LAPen aldaketa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eskatuta egiten dela. Halaber, adierazi du aztertutako dokumentazioak justifikatu egiten duela,

nolabait, Lapatxeko transferentzia estazioa, argudio gisa aipatuz ez litzatekeela jasangarria izango, Mankomunitate horri zerbitzua eman diezaieketen beste azpiegitura batzuk hurbil daudelako distantzian. Hala ere, planak ez du aztertzen Mankomunitateari hondakinak kanpoko transferentzia gunee batera garraiatu beharrak dakarkion kaltea. Horri dagokionez, adierazi du, alde batetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Lapatxen kokatzera derrigortu zuela bere burua eta, beste alde batetik, LAP aldatzeak ez duela justifikatzen horri buruzko irizpidea aldatzea. Izan ere, egungo LAPen mankomunitate bakoitzerako transferentzia gunee bat aurreikusten da, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentrolik (egun Gipuzkoako Ingurumen Gunea) 25 kilometro baino gutxiagoko erradioan kokatutakoen kasuan izan ezik.

Aurrekoa kontuan hartuz, Mankomunitateak ulertzen du aldaketa ez dagoela justifikatuta, eta aldaketa sustatu duen administrazioak hartutako konpromisoak ez direla betetzen; gainera, Mankomunitateak dio urratu egiten direla lurralde-koehesioaren printzipioa, berdintasun-printzipioa, tarifa bakarraren printzipioa eta indarrean dagoen lurralde eta hirigintza antolamendurako araudia, eta ez dela legezkoa, 7/2008 Foru Araua eta 24/2009 Foru Dekretua alde bakarreko erabakiaz indargabetzen baitira. Horrenbestez, Lapatxen aurreikusitako transferentzia gunee finkatzea eskatzen dute.

Balorazioa:

Lehenik eta behin, foru administrazio hau ez dago Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hirugarrenekin sina ditzakeen itun edo hitzarmenetara lotuta; aitzitik, azpiegiturak lurraldean kokatu behar ditu, lurralde osoasunean hartuta, 7/2008 Foru Arauan ezarritako printzipioei jarraituz. Beraz, ez dugu uste aldaketa honek printzipio horiek urratzen dituenik, Mankomunitatearen iritzi urratu egin diren printzipio horiek -tarifa bakarra, berdintasuna eta abar- "altako" hondakinen kudeaketaren testuinguruan kokatzen baitira, eta Mankomunitateak aipatzen dituen kostuak, berriz, "beheko sareko" bilketaren ondoriozkoak dira.

Altako kudeaketaren eta horretarako azpiegituren ikuspegitik, aipatu arauan jasotako printzipio guzti-guztiak bete egiten dira. Beste gauza bat da arrazoi geografikoengatik, orografiagatik edo komunikazioengatik aipatu Mankomunitateak edo besteren batek gertuago dauden eta hobeto komunikatuta dauden mankomunitateek baino kostu altuagoak izatea, transferentzia guneraino egiten den bilketan, baina hori beste kontu bat da, eta ez da LAP honetan jorratzen.

Hain zuzen, Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Orokorraren aurrerapen dokumentuak, transferentzia guneen behin-behineko kokapena erabakitzeko gomendio teknikoak egin ondoren, "irtenbide egokienak zein diren erabakitzeko xehetasun azterketak egin behar direla" jaso du. Arau hori jarraituz, aldaketa honetan transferentzia guneeentzat proposatzen diren kokapenak erabakitzeko oinarritzat hartu da Gipuzkoa osoaren ikuspegitik egin den azterketa logistikoa, kontuan hartuta zein izango den hiri hondakinen tratamendurako instalazioen behin betiko sareak. Ondorioz, ez dugu uste goragoko plangintza urratzen denik; aitzitik, garatu egiten du.

1.1.6. Eusko Jaurlaritza - Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi du ez dela aurreikusten inolako eraginik nekazaritzako lurzoruen gainean; izan ere, aldaketak eta azpiegitura berriak dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen gainean egiten dira. Egokitzen

jotzen du LAPen aldaketa honetan kontuan hartzea Nekazaritzako eta Basozaintzako LAPean ezarritakoa bi plangintzen arteko koordinazioari daogkionez.

Balorazioa:

Azpiegiturak lurraldean kokatzeko erabilitako hasierako irizpideetan nahiz LAPen aldaketarako hasierako dokumentu estrategikoak egiten dituen azterketetan, kontuan hartu dira Nekazaritzako eta Basozaintzako LAPen ezarritako xedapenak.

Zuzendaritzak dion bezala, planteatutako aldaketak eta azpiegitura berriak jadanik artifizializatuta dauden lurzoruen gainean kokatzen dira, eta ez da aurreikusten Nekazaritzako eta Basozaintzako LAPen ezarritako antolaketa kategoriatan eraginik izatea. Beraz, Nekazaritzako eta Basozaintzako LAPen araudiaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ez da lurralde plangintzarako bi tresna horien arteko koordinazio espezifikorik behar.

Azkenik, Nekazaritza eta Basozaintzako LAPen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da beharrezkoa izango nekazaritza arloko afekzioen ebaluazioa egiteko protokoloa jarraitzea.

1.1.7. IHOBE – Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa

IHOBE sozietateak aipatzen du LAPen aldaketaren dokumentaziotik kendu egin behar direla EAEko Hiri Hondakinen 2010eko Plangintzarako Jarraibideei egiten zaizkien erreferentziak, EAEko Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako 2020ko Plana izeneko dokumentuak ordeztu baititu. Era berean, eta aplikagarri den erkidegoko arau-esparruaren barnean, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aipatu behar da, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzekoa.

Balorazioa:

IHOBEk adierazitakoak zuzendu eta LAPen aldaketa honen agirietan sartuko dira.

1.1.8. Hernani, Oartzun eta Usurbilgo Udalak

Udal horiek antzeko idatzia aurkeztu dute, alegazioak argudio hauetan oinarrituz:

a) GHHKPOren Aurrerapen Dokumentuan ezarrita dago Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Gunea hiru azpiegiturek osatzen dutela (balorizazio energetikoko planta, tratamendu mekaniko-biologikoko planta eta zepak heltzeko planta), eta AD dokumentuak arauzko izaera duenez, LAPen aldaketak ezin du tratamendu bat ezabatu, ezta tratamendu horretarako instalazioa ere (zepak heltzeko planta). Izan ere, hori ezabatu ahal izateko ezinbestekoa da, lehendabizi, Plana onartzen duen 7/2008 Foru Araua aldatzea.

Balorazioa:

Lehenik eta behin, 7/2008 Foru Arauak ez du ezartzen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Gunea -egun Gipuzkoako Ingurumen Gunea- esparru berean egongo diren azpiegitura multzo

zehatz batek osatzen duenik, hain zuzen ere LApek xedatu behar baitu azpiegitura horiek non kokatuko diren. Hala ere, ingurumen arrazoiak daudelako eta logikak agintzen duelako komeni dela instalazioak elkarrengandik gertu egotea, Gipuzkoako Ingurumen Guneak gune bakar batean biltzen ditu azpiegitura horiek, alboz albo dauden bi lursailetan (Arzabaleta eta Eskuzaitzeta), eta bi fasetan egingo da.

Beraz, ez da egia LAPen aldaketak tratamendu bat eta zepak heltzeko instalazio bat ezabatzen dituenik; alderantziz, GHHKPO garatzeko egingo den aldaketa honen bidez ahalbidetzen da instalazio hori Balorizazio Energetikoko Plantatik eta Tratamendu Mekaniko-Biologikoko Plantatik distantzia gutxira ezartzea, eta azpiegitura hori ere Gipuzkoako Ingurumen Gunearen parte izatea. Aldaketa hori beharrezkoa da, aldaketaren agirietan behin eta berriz azaldu den bezala, geologikoki ea materialki ezinezkoa zelako aipatu azpiegitura Arzabaletan kokatzea.

Beraz, LAPen aldaketa honek aurreikusten du zepak heltzeko planta Eskuzaitzetan kokatzea, Arzabaletarekiko mugan, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasetik 300 metro eskasera. Horrela, GHHKPOren Aurrerapen Dokumentuak onartutako kudeaketa ereduan definitzen diren azpiegiturak exekutatu eta burutuko dira.

b) Halaber, adierazi dute LAP aldatzean Arizmendiko zabortegia desagertu egiten dela eraikuntza- eta eraispen-hondakinen zabortegi modura, argudiatuz hondakin mota horren kudeaketaz enpresa pribatuak arduratzen direla, eta, beraz, horretarako inbertsio publikoak egitea ez dagoela justifikatuta. Haien ustez ez da hondakin mota horren fluxuaren gaineko azterketarik egin eta ez da kontuan hartzen 22/2011 Legean (3 eta 12.5 artikulua) eta 112/2012 Dekretuan (2.b eta 9.b artikulua) xedatutakoa. Horrenbestez, uste dute LApek barruan hartu beharko lituzkeela garbiguneetara isurtzen diren eta modu pribatuan kudeatzen ez diren obra txikietako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak.

Balorazioa:

LAPen aldaketak ez du ezabatzen Arizmendiko zabortegia eraikuntza- eta eraispen-hondakinen zabortegi gisa; ezabatzen duena da zabortegi horretan aurreikusita zegoen "eraikuntza- eta eraispen-hondakinentzako planta". Hondakin mota horrek Gipuzkoan izan duen bilakaerak eta ekimen pribatuak arlo honetan izan duen garapenak hala aholkatu dute.

Ondorioz, indarrean dagoen legediaren arabera etxekoak diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinek, hots, obra txikietako hondakinek, xede bera izaten jarraitu dezakete, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen 2012ko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoa betez. Jada adierazi den bezala, ekimen pribatuko planta finko eta mugikorrek daudenez, planta horiek erantzuna ematen diote hondakin fluxu horren tratamenduari, eta, beraz, ez dago baliabide publikoak horretara bideratzea justifikatuko lukeen masa kritikorik.

c) Adierazi dute LAPen kontuan hartu behar dela Eskuzaitzetako industrialdean ezarriko den plantak, zepak heltzekoak, kostu handi xamarra duela ingurumenari dagokionez, eta ingurumen kostu hori neutralizatu egin behar dela, proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena eginez, hala xedatzen baitu 21/2013 Legeak (7.2 artikulua). Era berean, ulertzen dute gauza bera esan daitekeela, baita ere, Eskuzaitzetako industrialdean bertan kokatzen den konpostatze edo biometanizazio plantari dagokionez.

Balorazioa:

HDEn aipatzen den bezala, LAPen aldaketak kontuan hartu du, noski, bai Plan Partzialak bai Eskuzaitzeta eremuko hiritartze proiektuak aurreikusten dutela lurzati-tako bat Arzabaletako hiri hondakinen balorizazio plantaren instalazioen osagarri izango den plataforma eraikitze-ko erabiliko dela, eta badituztela dagozkien ingurumen baimenak (ingurumen adierazpen estratetikoa edo ingurumen memoria Plan Partzialarentzat, eta ingurumen inpaktuaren adierazpena Hiritartze Proiektuarentzat). Baimen horietan, gainera, tresna baten zein bestearen ingurumen eraginak aztertu dira.

Zepak heltzeko plantaren proiektuari eta konpostatze edo biometanizazio plantaren proiektuari dagokienez –Eskuzaitzeta industrialdean kokatuko dira-, ikusi da ez direla ematen ingurumen ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2 artikuluan zehaztutako baldintzak edo inguruabarrak, zeintzuek inplikatu-ko bailukete artiku-ku horretan arautzen den ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedura sinplifikatuaren mende jarri beharra.

Nolanahi ere, proiektu horiei aplikatu behar zaien Ingurumen Baimen Integratuaren prozeduraren bidez bermatuta dago ingurumen eraginak eta horien prebentzioa eta zuzenketa behar bezala kontuan hartzen direla.

d) Adierazi dute, baita ere, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen Aurreproiektuan jasotzen denez, Balorizazio Energetikorako Plantatik datozen eta 40 mm-tik gorako granulometria duten zepak zabortegira isurtzen direla eta, GHHKPOren Aurrerapen Dokumentuan, aldiz, abiapuntu modura ezartzen dela sortzen diren zepa guztiak herri lanetan erabiliko diren azpiproduktua direla, horientzako zabortegirik aurreikusi gabe. Beraz, LApek hondakin mota horrentzako aurreikuspenen bat jaso beharko luke.

Aurreko guztia kontuan izanik, LAPen aldaketa bertan behera utzi eta ondoriorik gabe uztea eskatzen dute, eguneratu eta aldaketaren helburuak GHHKPOn bertan jasotzen ez diren bitartean.

Balorazioa:

Balorazio energetikoko plantako zepei dagokienez, bai GHHKPOk bai Aurrerapen Dokumentuak proposatzen dute horiek birziklatzera bideratzea, hondakinen balorizazio maximoaren printzipioari jarraituz. Ondorioz, plan batek zein bestea- k zepak heltzeko planta bat aurreikusten dute, Balorizazio Energetikoko Plantatik datozen zepak birziklatzeko, eta hori izango da, hain

zuzen, egingo den instalazioa. LAPen aldaketa honen helburuetako bat da erabakitzea zein izango den azpiegitura horren kokapena, eta Eskuzaitzetan ezartzea aurreikusi da.

Ez dugu ikusten, beraz, espediente honen xede den LAPen aldaketan inolako desadostasunik dagoenik, ezta garapen okerrik ere, aldaketak erabat errespetatzen baitu erreferentziazko plangintza sektoriala, eta harekin bat egiten baitu. Izan ere, plangintza horrek kudeaketa ereduaren printzipiotzat ezartzen du lehen mailako hondakinen zero isurketa, eta instalazio honek printzipio hori betetzea ahalbidetzen du.

1.1.9. Eusko Jaurlaritza – Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du zepak heltzeko plantari eta biometanizazio plantari dagokienez, Donostialdearen lurralde eremuan Done Jakue Bideko Monumentu Multzoaren trazaduraren gaineko eragina aztertu behar dela.

Balorazioa:

LAPen aldaketari dagokion dokumentazioan zepak heltzeko plantarentzat eta biometanizazio plantarentzat ezarritako kokapenaren arabera –Eskuzaitzetako D lurzatia-, eta kontuan hartuta 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa, azpiegitura hauek ez dute ukitzen Done Jakue Bidearen trazatua (barnealdeko bidea, Hernani-Bidania zatia).

1.1.10. Erreenteriako Udala

Erreenteriako Udalak adierazi du San Markoko transferentzia gunea jende asko erakartzen duen espazio natural batean kokatzen dela (Lau Haizeta parkea), eta LAP aldatzeko behin betiko dokumentuan transferentzia gunen itxi eta berehala kentzea jaso dadila eskatzen du, horretarako GIG funtzionamenduan jartzeari itxaron gabe.

Balorazioa:

Udalak ez du argudiorik azaltzen, ezta hautabiderik proposatzen ere, aipatu azpiegitura kentzea defendatzeko. Instalazio hori kenduko balitz, hondakinak beste transferentzia gunen batetara bideratu beharko lirateke, eta horrek areagotu egingo lituzke kostu ekonomikoa nahiz ingurumenekoa. Beraz, ez da arrazoizkoa eta ez dago justifikatuta aipatu planta ixtea, are gehiago behin-behineko instalazio bat denean, eta GIG funtzionatzen hasten denean LAPen xede materialetik kanpo geratzeko denean behin betiko.

1.2. Hasierako Onarpenaren jendaurreko informazioaren emaitzaren balorazioa

Euskal Herriko Lurralde Antolaketari buruzko 1990eko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Foru Diputatuaren 2017ko irailaren 27ko foru aginduaren bidez, Aldaketa honi Hasierako Onarpena eman zitzaion, jendaurrean ikusgai jarri zen eta lurraldeko administrazio publiko interesatu guztiei entzunaldia eman zitzaien, planaren aldaketari buruzko oharra eta iradokizunak aurkez zitzaten.

Epe hori igaro ondoren, Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatetik bakarrik jaso dira alegazioak, non Lapatzeko Transferentzia Estazioa konsolidatzeko eskaten duten. Alegazio horiek ezetsi egin dira.

2. LAP aldatzeko beharra eta helburuak Interakzioa beste plan eta programa batzuekin

2.1. Plangintzaren helburuak eta justifikazioa

2.1.1. Planaren oinarrizko helburu eta garapen-irizpide orokorrak eta espezifikoak, eta Planaren etorkizuna

LAPen helburu orokorra da Gipuzkoako Lurralde Historikoan interes orokorreko azpiegitura publikoak non kokatuko diren aurreikustea, hiri-hondakinen kudeaketa dela-eta GHHKPOn jaso den kudeaketa-ereduan zehaztu direnak; horretarako, Europako, estatuko eta EAEko arauzko dokumentuetan xedatu diren iraunkortasun-irizpideei jarraitu zaie. Halaber, beste asmo bat arloko plangintza autonomikoan eta arloko foru-plangintzan jasotako helburuei erantzutea da.

LAP aldatzea dakarten azpiegiturak ezartzeko lurralde-irizpideen abiapuntua dugu lurraldearen plan partzialen, lurraldearen arloko planen, lurraldearen antolamendurako EAerako gidalerroen eta EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 deritzon finkatutako irizpideen azterketa.

Aztertu beharreko azpiegituren hautabide bakoitza lantzen denean, zentralizazioa eta homogeneotasuna hartzen dira kontuan, ordena eta egonkortasuna eman diezaioten hondakinen kudeaketaren plangintzari. Aldaketaren ingurumen-helburu estrategikoen jatorria antolamendu iraunkorra lortzeko irizpideak dira, eta horiek honako dokumentu hauetan daude jasota: Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Esparru Programak, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, eta haiek garatzeko hainbat dokumentu. Hona hemen laburpena:

1. **Azpiegituren kokapenen** ikuspuntu orokorretik begiratuta, xedea da azpiegiturak eraikitzeak, abian egoteak eta lotuta dagoen garraioak ahalik eta eragin gutxien izatea. Horretarako, irizpide hauek erabiliko dira:

- Eskema zentralizatua hondakinak kudeatzeko eta azpiegiturak kokatzeko tratatu behar diren hondakinak ekoizteko grabitate-zentroetan. Hondakinak garraiatzeko distantziak murriztea.
- Eskala orokorreko plangintza-eremuen lurralde-zehaztapenetara egokitzea.
- Distantzia egokiak eta behar bezain luzeak azpiegituren eta biziguneen artean, eragina gizartean txikia izan dadin. Kokapenak hiri-garapeneko eremuetatik kanpo. Kokapenak hautatzean, giza osasunerako baldintza egokiak ziurtatzea eta egoitza-inguruetako ingurumenaren kalitatea bermatzea; beraz, instalazioen funtzionamendua dela-eta herritarrei sor dakizkiekeen arazoak ahalik eta gehien txikitzea: trafikoa, zarata, usainak...
- Zerbitzuak erabilgarri egotea, eta sinergiak hondakinak kudeatzeko beste azpiegitura batzuekin, azpiegitura berriak sortzeko beharra txikitzeko.

- Ahal dela, jada artifizializatuta dauden lurzorua erabiltzea, lurzoru hondatuak edo kutsatuak lehengoratzu eta berrerabiliz, baldin eta horrek ez badakar azpiegitura eraikitzeke ziurgabetasunik, izan denbora aldetik izan alderdi teknikoari edo ekonomikoari begira.
 - Gune babestuei, flora eta faunarako interesgarriak diren habitat naturalei, haien arteko loturei, paisaiaren kalitateari eta kultura-ondareari ahalik eta gutxien eragiten dieten kokapenak eta diseinuak hautatzea. Ur-lasterrak errespetatzea, eta nekazaritza-lurzorua eta lurzoru naturala zaintzea lehentasuntzat jotzea.
 - Arrisku naturalen (urez bete daitezkeen eremuak, malda zorrotzeko guneak...) edo arrisku teknologikoen (suteengatik ureztatze-sistema duten jarduerak, ihesak...) pean egon daitezkeen kokapenak saihestea.
 - Zorrotz aztertzea estali behar diren beharrak, eta aurreikusitako planten gaindimentsioa ez gertatzeko eta lurzoruaren baliabidea behar bezala baliatzeko.
2. Kudeaketa-instalazioak **eraikitzeke eta urbanizatzeko** arauak eta irizpideak finkatzean, iraunkortasun-irizpideei jarraituko zaie. LAPen xehetasun-maila dela eta, hurrengo faseetan ezin da garapen-maila horretara iritsi (oinarrizko proiektua, eraikitze-proiektua...). Hala, alderdi hauek hartuko dira kontuan:
- Plantak diseinatzeke lehen faseetan hasita, babesteko eta zuzentzeko neurriak txertatzea, planten funtzionamenduaren ondoriozko ingurumen-inpaktua txikitzeke.
 - Plantak diseinatzean, trinkotasuna bilatzea. Erabilerarik gabeko espazio libre gehiegi ez egotea, eta funtsean, gainazalean modu masiboan ez aparkatzea.
 - Eraikuntzak eta instalazioak diseinatzean, energia eraginkortasuna areagotzeko neurriak hartzea.
 - Eraikuntzetan edo espazio libreetan energia berriztagarria sortzeko sistemak sustatzea.
 - Euri-ura modu naturalean iragaz dadila erraztea, ingurunera itzultzeko, berrerabiltzeko eta uholdeak ez gertatzeko.
 - Eraikinetan bertan euri-ura biltzea berrerabiltzeko; urtegiak edo biltegiatze-tangak sortzea ureztatzeke, etab.; bereizteke sareak garatzea; eta edan ezin den uretarako sare espezifikoko sortzea, industrian erabiltzeko.
 - Inpaktu negatiboa murriztea baliabideen (ura, energia eta materialak) eta hala eraikitzeak berak (eraikinak, egiturak, urbanizazioa...) nola funtzionamenduak eragindako hondakinen eta kutsatzaileen balantzean, eta bidea zikloak ixtea izan dadila.

- Eraikuntza iraunkorra sustatzea.
- Paisaiaren faktorea aintzat hartzea azpiegitura diseinatzean.
- Lurren eta landare-lurren soberakinak eta, hala badagokio, eraispeneren ondoriozko produktuak ondo kudeatzea, eta berrerabiltzea.
- Birziklatutako edo berrerabilitako materialak erabiltzea.
- Sareak diseinatzean, gairak berrabiltzea.

2.1.2. Plana aldatzeak ase behar dituen beharren justifikazioa

Jarraian, LAP aldatzeko beharrak azalduko eta justifikatuko dira 24/2009 Foru Dekretuko 4. artikuluan (Planaren xedeak) jasotako lau kudeaketa-mota hauetan: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa (orain, Gipuzkoako Ingurumen Gunea – 1. fasea –GIG1–), konpostaje-eta/edo biometanizazio-plantak, transferentzia-estazioak, eraikitze- eta eraiste-lanetako hondakinak hartzeko plantak, eta hondakindegia.

2.1.2.1. Zaborrak ontzeko planta

Zaborrak ontzeko prozesua plataforma batean diseinatu zen, +142,00ko kotan, Arzabaletako eremuan. Plataforma horren inguruan, masa irristakorren eta faila baten gainean egindako lur-erazketak zeuden; haatik, azterlan geologikoak egin ostean ikusi zen ez zutela % 100 bermatzen lur-erazketen egonkortasun geologikoa. Ezarpen hori sakon aztertu ondoren, Kontsultazioak plataforma hori baztertzeko eta zaborrak ontzeko beste kokapen bat bilatzea erabaki zuen 2010eko martxoan; horrenbestez, lehentasuna eman zion egonkortasun geologikoari eta hala inpaktu nola lur-mugimendua murrizteari, eta gainera, nabarmen txikitu zen inbertsio ekonomikoa.

Beraz, beste kokapen bat bilatu behar da azpiegitura horretarako. GIG1eko hondakinen ekoizpen-zikloa amaitzen dela ziurtatzeko, aukeratzen den hautabideak premisa hauek bete behar ditu:

- GIG1etik gertu egotea zaborrak plantara garraiatzeko lana txikia izateko.
- Lurzati horretan, jarduera ezarri ondoren, eraginik ez izatea ingurumenean eta gizartean, eta ekonomikoki bideragarria izatea.

2.1.2.2. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan

Azken urteotan, Gipuzkoak ahalegin handia egin du herritar guztien biohondakinak gaika biltzeko eta konpostaje- edo biometanizazio-plantetan gaika tratatzeko, eta jarraituko du ahalegin horrekin.

Biohondakina kudeatzeko, Kontsortzioak bi planta erabiltzen ditu: Lapatxekoa (Azpeitia), 3.000 t-ko edukiera nominala duena; eta Epeleko konpostaje-planta, biohondakina kudeatzeko 10.000 t-ko edukiera nominala duena. Alabaina, gaur egun 36.119 t biohondakin biltzen dira, eta aurreikusten da 44.233 t biltzea 2020an; beraz, planta horiek ez dira nahikoa hori guztia kudeatzeko. Hori dela eta, azpiegitura berriak behar dira.

Abiapuntu gisa, zenbait premisa aztertu dira:

- Gipuzkoan sortzen den biohondakinari buruzko aurreikuspenen azterketa, AD oinarri hartuta eta bilketaren gaineko egungo eta etorkizuneko datuekin alderatuta: GHHKPO-ADren aurreikuspenak eguneratzea, 2015eko abendua.
- Planta dimentsionatzea benetako datuekin eta zabaltzeko aukerarekin bat etorrira: diseinu modularra.
- Gipuzkoako biohondakin-kantitate antzekoekin probatutako teknologiak eta esperientziak.
- Instalazioaren kokapena: sinergiak beste instalazio batzuekin, kostuak, garraioa, etab.

Nahiz eta laurak oso garrantzitsuak diren, premiazkoa da azpiegiturak egiteko lana eta kudeaketaren beharrak bateragarriak izatea, eta horrek esan nahi du Kontsortzioak laugarren premisan bereziki jarri behar duela arreta: kokapen jakin bat zehaztea, jakinda azpiegitura bertan eraikiz herritarrei zerbitzua emango zaiela bermatzen duten baldintzetan egoteko moduan, hirigintza, ingurumena, teknika eta ekonomia aintzat hartuta, eta batez ere, denbora.

Indarrean dagoen LAPen, biometanizazio- eta konpostaje-planta Zaldunbordan (Hondarribia) kokatuta dago, baina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak egindako katalogazioaren arabera, lursail hori kutsatuta egon daiteke, eta horren ondorioz, administrazio-izapide konplexuak eta luzeak egin behar dira azpiegituraren kudeatzailea lurzoru horietan lanean hasi aurretik.

Hala, 2010ean, Kontsortzioak sakon ebaluatu zituen lursailaren egoera eta lurrak egokitzeko obra zibila egiteko beharra, eta horrez gain, biohondakina mankomunitateetatik Zaldunbordara nola garraiatu aztertu zuen, garraioan ahalik eta inpaktu txikiena izateko, horrek dakartzan kostuak eta kokapeneko sinergien azterketa kontuan hartuta. Besteren artean, xedeetako bat aurreikuspenak egitea zen, lurzoruaren kalitate-adierazpena emateko prozesuaren bilakaera neurtzeko eta aldeztu aurretik ebaluatzeko plataforma prestatzeko eta konformatzeko lanen eta ezarpen horretan egongo den azpiegiturako etorkizuneko eraikuntzak zimendatzeko lanen izaera eta garrantzi ekonomikoa.

Ebaluazio horren ondorioek agerian ipintzen dute neurri zuzentzaileak gauzatu behar direla, eta zaila da haien iraupena zehaztea. Horrez gain, alderdi ekonomikoari eta denborari begira, arriskua antzematen da, lurzoruaren kalitate-adierazpena emateko espedientea izapidetzea dela-eta aipatutako arriskua alde batera utzita. Beraz, ziurgabetasun handia dago gauzatu beharreko jardueren kronogramari buruz.

Bestalde, biohondakinak azken urteotan biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko esperientziak agerian ipini du biohondakina tratamendu-plantara garraiatzeko kostuak duen garrantzia, eta beraz, biohondakina sortzen den puntuen eta tratamendu-plantaren arteko distantziak

optimizatzeko beharra. Kasu honetan, Zaldunborda Lurraldeko ipar-ekialdean dago, eta urrun samar dago biohondakina kudeatzeko sistemaren grabitate-zentrotik.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoan biohondakinaren kudeaketa nahitaez eman beharreko zerbitzu bat denez, ezin da egon denbora aldetik bideragarritasuna baldintzatzen duen zalantzen mende. Biohondakina sortzeari buruzko datuak eta garraioaren kostuak eguneratu behar izan dira, eta nabarmendu behar da hondakinen kudeaketa teknikoki zentralizatzeko eta lurraldean zentralizatzeko beharra; hori dela medio, hori baino egokiagoa den kokapen bat bilatzea erabaki da, Gipuzkoan biohondakina kudeatzeko dauden benetako beharrei erantzungo diena.

2.1.2.3. Transferentzia-estazioak

Indarrean dagoen LAPen, lurraldean zehar dauden transferentzia-estazio hauek jaso dira (batzuk eraikita daude eta beste batzuk aurreikusi dira):

- Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
- Urola Erdia: Lapatxeko hondakindegia (Azpeitia)
- Debagoiena: Akei (Arrasate) eta Epeleko hondakin inerteen hondakindegia ireratsitako lursaila
- Sasieta: Sasieta (Beasain) hondakindegia ireratsitako lursaila
- Debarrena: Mutriku eta Eibar. Zehazteko dago, Eibarren ezartzea (2. hautabidea) arazo geoteknikoengatik baztertu baitzen.
- San Marko: San Markoko transferentzia-estazioa

Gipuzkoako Lurralde Historikoko hondakinen goi-hornidurako garraioak dakartzan beharrak egokitze, Kontsortzioak egungo estazioak eta aurreikusita daudenak, fluxuak, garraiatutako tona-kopurua eta hondakinen behe-horniduraren bilketa GIGra zuzenean garraiatzeko aukera aztertu zituen.

Plangintza egitean eta beharrez hausnartzean, gainera, hondakinen goi-horniduraren garraioari eragiten dioten beste alderdi batzuk hartu behar dira kontuan; adibidez, errefusaz gain, biohondakina eta ontziak. Horien eraginez, proposatutako eta LAPen jasotako transferentzia-estazioetan toberak beharko dira etxeko hondakin horiek kudeatzeko, garraioaren kudeaketan pixkanaka txertatu behar baitira. Horixe gertatu da udalek eta mankomunitateek biltzen duten hondakin organikoarekin, eta epe ertainera, horrelaxe jokatu beharko da gaika bildutako ontziekin. Hortaz, toberak eta behar beste espazio aurreikusi behar dira bitarteko materialetan eta garraiatzeko bitartekoetan, transferentzia-azpiegiturak dimentsionatzen direnean.

Hori dela eta, Kontsortzioak azterlan globala egin du, indarreko LAPen proposatu diren azpiegiturak eta hondakinak garraiatzeko beharrak aztertzeko. Hona hemen ondorioak:

1. GIG erabat martxan dagoenean, ez da justifikaziorik egongo gaur egun operatibo dauden bi transferentzia-zentro hondakinen goi-horniduraren garraioarekin lotuta egoteko, azpiegituren arteko gertutasuna eta puntuen arteko kilometro-kopurua direla eta; beraz, egun duten erabilera baztertu egingo litzateke. Zentro hauek dira: San Markoko transferentzia-estazioa eta kuxak trukatzeko Arasoko transferentzia-zentroa edo plataforma, Txingudin.

2. Urola Erdia, Urola Kosta eta Debagoieneko mankomunitateen harira, proposatzen da eskualde horietan transferentzia-estazioak egiteko plangintza eta aurreikuspena LAPetik kentzea, ez bailukete iraunkortasunik izango mankomunitate horiei zerbitzua eman diezaieketen azpiegituren distantziak eta gertutasuna direla eta.
3. Sasietaren kasuan, transferentzia-zentro bat eraikitzea proposatzen da eskualdeko udalerriei estaldura emateko, eta hala badagokio, gertutasuna dela-eta zerbitzu hori behar duten Tolosaldeko udalerriei ere bai. Indarreko LAPen, TE hori Sasietako zabortegeari erantsitako eremu batean kokatzea proposatzen da (2. hautabidea). Alabaina, biohondakinak TE-etatik GIGra kudeatzeko behar berriei erreparatuta, azpiegitura horrek azalera handiagoa beharko du. Hortaz, zabortegean kokatzea proposatzen da, baina bertako beste eremu batean.
4. LAPen sartzeari 2013ko uztailaren 12an jarri zen Elgoibarko transferentzia-estazioa (Debabarreneko Mankomunitatea). Gaur egun, mankomunitate horren kudeaketa-beharrei erantzuten die, eta horrez gain, transferentzia-zerbitzuak ematen dizkie Urola Kostako, Debagoieneko eta Urola Erdiko mankomunitateei.
5. LAPetik kentzea Akeiko (Debagoieneko Mankomunitatea), Mutrikuko eta Eibarko (Debabarreneko Mankomunitatea) transferentzia-estazioak.

Horrenbestez, honako aldaketa hauek egin behar dira, zehazki:

- LAPetik kentzea Akeiko (Debagoieneko Mankomunitatea), Mutrikuko eta Eibarko (Debabarreneko Mankomunitatea) transferentzia-estazioak; eta Urola Erdiko, Urola Kostako eta Debagoieneko mankomunitateetan transferentzia-estazioak eraikitzearen plangintza eta aurreikuspena egitea.
- Sasietako Mankomunitaterako proposatu zen transferentzia-estazioaren kokapena aldatzea.
- Plangintzan jasotzea Elgoibarko transferentzia-estazioa (Debabarreneko Mankomunitatea).
- Plangintzan jasotzea Arasoko transferentzia-estazioa edo trukaketa-plataforma (Txingudiko Mankomunitatea), GIG martxan jarri arte.
- San Markoko Mankomunitateko transferentzia-estazioa interes orokorreko hondakin-kudeaketako Gipuzkoako azpiegitura publikoen mapatik, GIG martxan jartzen denean.

2.1.2.4. Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinen plantak

Kontuan izanik lurraldean jada badaudela etxeko hondakinen parekotzat jotzen diren eraikuntza eta eraipen lanetako hondakinak –obra txikiak hondakinak, alegia– tratatzeko premiarik erantzuten dioten ekimen pribatuko planta finkoak eta mugikorak, planifikazioaz arduratu den organoaren iritziz ez dago baliabide publikoak era horretako azpiegitura batera bideratzea justifikatzen duen izaera horretako behar beste hondakinik.

2.1.2.5. Hondakin solidoak uzteko hondakindegia. Hondakinak isurtzeko jarduera bukatutzat eman duten hondakindegia

Gipuzkoako hiri hondakinen zabortegeak (Urteta, Lapatz eta Sasieta) bukatutzat eman dute hondakinak isurtzeko jarduera, eta zigitatze fasean daude. Hondakinak tratatzeko instalazio gisa ez diharduten azpiegiturak izanik, jada ez daude LAParen xedeetan eta, hortaz, planoetan ere ez dira islatuko.

Alabaina, hondakinen kudeaketari gagozkiola, Europan eta estatuan nahiz erkidego mailan ezarriak dauden eta GHHKPOean bertan jasota dauden iraunkortasun irizpideei jarraituz –giza osasuna eta ingurumena babesteko printzipioa, autosufizientzia printzipioa, hurbiltasun printzipioa, administrazioaren subsidiarotasunaren eta eragile guztiek partekatutako erantzukizunaren printzipioa–, beste elementu bat ere aurreikusi beharra ikusi da. Eta aurreikusi beharreko hori da, zabortege hauen erabileren artean, eta apartako kasuren batean Lurraldearen interes orokorrak hala eskatzen duenean, azpiegitura horietakoren bat berrireratzeko ahalmena izatea, aldi baterako betiere, GIG martxan jarri arte, hain zuzen; izan ere, une horretan bertan, azpiegitura zeharo desagertuko baitira bai LAParen xedeetatik, eta Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegituren mapatik.

2.2. Jarduketa-eremua. LAPen aldaketaren irismena

Aldaketa honetan ukituko diren bakarrak Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauek izango dira:

- Zepak heltzeko planta
- Konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta Donostialdea-Bidasoa esparruan
- Transferentzia-estazioak:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Debagoiena: Akei (Arrasate) eta Epeleko (Bergara) hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
 - Sasieta: Sasietako (Beasain) zabortegearen ondoko eremua.
 - Debarrena: Mutriku, Eibar eta Elgoibar
 - San Marko: San Markoko transferentzia-estazioa
 - Txingudi: Arasoko trukatzeko-zabalgunea
- Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak hartzeko plantak:
 - San Marko: Aizmendiko hondakindegia (Donostia)
- Zabortegeak:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Sasieta: Sasietako hondakindegia (Beasain)

Aldaketa honek ez du inolako eraginik izango indarreko LAPan jada finkatuak dauden azpiegiturretan:

- Arzabaletako tratamendu mekaniko eta biologikorako eta energia balioztatzeko planta (GIG-1). Arzabaletaren antolamendua, Donostiako Udalbatzak 2016ko abenduaren 20an behin betiko onartutako Arzabaletako Plan Berezian definitua dago.
- Konpostatze plantak:
 - Urola Erdia: Lapatxeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Debagoiena (Bergara): Epeleko hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
- Ontziak bereizteko plantak:
 - Sasieta: Legazpiko planta
 - San Marko: Urnietako planta

LAP Aldaketaren jarduketa esparrua, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak –lehendik badaudenak edo aurreikusitakoak– aldatuko dituzten mankomunitateetara mugatu da.

2.3. Planak izan lezakeen garapena

LAParen aldaketak izan lezakeen garapena aurkeztuko dugu jarraian, ezarriko diren azpiegiturak oinarritzat hartuta:

Azpiegitura	Obren hasiera	Obren iraupena
(GIG-2): Zepak heltzeko planta eta konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta	2018ko ekaina	12 hilabete
Sasietako transferentzia estazioa	2018ko uztaia	8 hilabete

2.4. Interakzioa beste plan eta programa batzuekin

Analisi honetan, LAPen aldaketaren helburuekin eta zehaztapenarekin lotu samar dauden estrategietan, planetan eta programetan garatutako gidalerroak, irizpideak, xedeak eta ingurumenaren arloko konpromisoak identifikatu nahi dira, bai eta gogoan hartu ere plan eta estrategia horiek aintzat hartu direla LAPen aldaketaren edukietan eta prestaketa-lanean.

2.4.1. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHKPO) eta haren Aurrerapen Agiria

Hala GHHKPOn nola abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bidez onartutako Aurrerapen Agirian, Gipuzkoan sortutako hiri-hondakinak kudeaketaren plangintza jasotzen da, eta amaierako kudeaketarako behar diren azpiegiturak proiektatzen dira haietan. Hortaz, bi dokumentuak dira LAPen eta haren aldaketaren oinarri, azpiegiturak lurraldean ezartzeko.

2.4.2. EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020

Plan honen helburua da zenbait zuzentarau indargabetzen dituen 2008ko azaroaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentzaraua (Hondakinen Esparru Zuzentzaraua, HEZ) betetzea, hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak egiteko betebeharraren harira. Horrelakoak idaztean, hondakinak sortzeak eta kudeatzeak dakartzan ingurumen-inpaktuak kontuan hartu behar dira, baita *hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea* ere; horren arabera, autonomia-erkidegoen zeregina da hondakinak prebenitzeko programak eta hondakinak kudeatzeko autonomia-erkidegoetako planak egitea.

Egungo egoera, aplikagarria den arauzko esparrua, aipatu diren printzipioak eta antzeman diren erronkak aintzat hartuta, honako helburu estrategiko hauek jaso dira Planean:

1. Sortzen den hondakin-kantitate osoa % 10 txikitzea 2020rako, 2010ean sortutako kantitatearen aldean; orobat, hondakin horiek dakarten arriskua murriztea.
2. Hondakinen bilketa eta gaikako bereizte-lana, gutxienez, % 75era arte handitzea 2020rako, eta bilketa-sistemak finkatzea arazo ugari sortzen dituzten korronteetan.
3. Bitarteko gehiago prestatzea hondakin berrerabilera, birziklapena eta balorizazioa % 60koa izan dadin 2020an, EAEko arazo nagusiak konpontzeko.
4. Hondakinak desagerrarazteko lana optimizatzea, eta horretarako, jatorrizko hondakinak ez isurtzea, isurpenak txikitzeke tresnak garatzea (hondakinak balioztatzeke eta desagerrarazteke prozesuan gertutasun- eta autosufizientzia-printzipioak erabiltzeke eskatuz, baldintza baliokideetan egin badaiteke), eta jada badauden zabortegeen inpaktua txikitzea.
5. Hondakin arloko informazioa eta gardentasuna hobetzea; hondakin arloko administrazio-kudeaketa erraztea eta arintzea, hondakinei buruzko araudiak ematen dituen aukerak oinarri hartuta; eta merkatu berdea eta lanpostua sor daitezela sustatzea, Plan hau garatuz eta ezarriz.

Bestalde, Planean bost jarduketa-programa finkatu dira, adierazi diren bost helburu estrategikoetako bakoitzari erantzuteke:

- Prebentzio Programa
- Gaika Biltzeko eta Bereizteko Programa
- Berrerabilera, Birziklapena eta Balorizazioa prestatzeko Programa
- Desagerrarazteko prozesua Optimizatzeke Programa
- Administrazioa Eredugarria izateke eta Egoki Gobernatzeke Programa

Planean, hiri-hondakinak lurralde historiko bakoitzean biltzeko eta tratatzeko sarea aztertzen da, lurralde bakoitzak duen hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko foru-planaren pean. Gipuzkoaren kasuan, Planaren ondorioa hau da: «(...) oraindik ez dira azpiegitura guztiak garatu, baina planifikatuta daude. Aipatutako plangintzarekin, 2016an, proposatutako helburuak beteko lirateke».

Hondakinei buruzko Plana 2020 dokumentuan, ez da modu aktiboan sustatzen hondakinak kudeatzeko instalazio berriak egitea; alabaina, ezin da alde batera utzi plangintza-esparrua izango litzatekeela aurrerago horrelako instalazioak garatuko balira, beharrezkoak izan baitaitezke indarreko araudian eta Planean bertan finkatuta dauden helburuak erdiesteko.

Hori jakinik, Hondakinei buruzko Planean zenbait ingurumen-irizpide zehazten dira, eta horiek aintzat hartu beharko dira hondakinak kudeatzeko instalazio berriak egiteko, ingurumen-inpakturik sor ez dadin, edo sortuz gero, ahalik eta txikiak izan daitezen. Irizpide horiek aintzat hartu beharko dira:

- Hondakinak kudeaketarekin lotuta dauden instalazio berrietarako kokapenak zehaztean (LAPen helburu nagusia).
- Instalazio horiek egiteko aukera ematen duten planak onartzeko prozeduretan sortzen den ingurumen-arloko analisia egiten denean (LAP hau horrelako plan bat da), bai eta xede horrekin aurreikusten diren proiektuek baimena eskuratzeko prozeduretan sortzen den analisia egitean ere.

Jarraian, LAP honetan adieraziko diren azpiegitura berriak diseinatzeko eta kokatzeko irizpideak azalduko dira.

Instalazioak diseinatzeko irizpideak, dimentsionatzea barne

a) Hondakinak kudeatzeko instalazioen proiektuak egiten direnean, eskura dauden teknikarik onenak erabili behar dira; hots, gutxien kutsatzen duten teknologiak, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izateko moduan.

b) Instalatzeari aurreikusten den prozesu teknologikoak, ahal den heinean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeko 8. artikuluan hondakinak kudeaketa dela-eta jasotako hierarkia bete behar du.

c) Denboraren harira, sustatuko diren instalazioetan aintzat hartu behar da EAEko egungo eskaria eta aurreikusten den eskaria; horrez gain, tratatu nahi den hondakin-korrontearekin lotuta dauden egungo eta etorkizuneko lege-betebeharrak ere kontuan hartu behar dira, hondakin jakin batzuek dituzten helburu espezifikoek muga zehatzak baitituzte denbora aldetik.

d) Ez da baimenik emango zaborteak egiteko baldin eta EAEko zaborteetan jalkitze bidezko desagerrarazpena hurrengo 10 urterako % 200 handiagoa bada aldi horretarako kalkulatu den isurpena baino.

e) Hautabideak alderatzeko ingurumen-analisietan, lehenetsuna emango zaie honako ezaugarri hauek dakartzaten instalazioei:

- Balorizazio-forma berriak, edo finkatutako dauden balorizazio-prozesuen dibertsifikazioa handitzea.
- Hobekuntza teknologikoa jada finkatuta dauden balorizazio-prozesuetan.
- Instalatuta dagoen balorizazio-ahalmena handitzea, jada finkatuta dauden instalazioek ahalmen nahikoa erakusten ez duten hondakinak kudeaketako korronteetarako.
- Mugikortasun txikiagoa, analisi logistikoa baten bidez justifikatua.

Irizpide horiek LAP honen irismenetik kanpo daude; izan ere, hondakinen kudeaketaren plangintzan (GHHKPO eta eguneratze-agiriak) edo azpiegitura bakoitza garatzeko proiektuan hartu behar dira kontuan.

Instalazioak kokatzeko irizpideak

a) Soil-soilik, behean adierazi diren babes-araubideak dituzten eremuen araudi espezifikoetan debekatzen ez bada kokatu ahal izango dira hondakinak kudeatzeko instalazioak. Azken kasu horretan, behar bezala justifikatu beharko da ezin dela beste eremurik erabili edo ez dagoela beste eremurik.

— Parke Naturalak

— Biotopo babestuak

— Zuhaitz bereziak

— Natura 2000 Europako Sarean sartuta dauden eremuak edo lekuak: EAEko Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).

— Izapidetze bidean dagoen baliabide naturalen antolamendu-plan batean jasotako eremuak, EAEko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen baldintzetan.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldeko Sektore Planeko II. taldean sartuta dauden hezeguneak.

— Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea (5/89 Legea, EKPE, PADAS).

— Txingudiko Plan Bereziaren bidez antolatutako eremua.

— EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatutako Lurralde Plan Sektorialean, babes berezi zorrotzaren kategoria eta babes berezi bateragarriaren kategoria.

— LAGetako Natura Intereseko Eremuen zerrendan eta EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian jasota dauden eremuak.

— Lurralde-plan partzialen bidez babestuta dauden eremuak, interes natural handia dela eta.

— Hirigintza-araudiaren bidez babestutako eremuak, interes natural handia dela eta.

— Mehatxupean dauden flora- edo fauna-espezieen kudeaketa-planetan, interes bereziko eremu edo banaketa-gune natural gisa identifikatutako eremuak; espezie horiek, kategoria hauetan jasota daude Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan: galtzeko arriskuan daudenak, babes berezia, kaltebera, bakana, edo interes berezia.

— Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoetako eremu babestuen erregistroko guneak, eta erregistro horietako bilketak babesteko perimetroen barruan dauden eremuak.

— Akuiferoak kutsatzeko arrisku handia dagoen eremuak.

— Urez bete daitezkeen eremuak, 500 urteko itzulera-aldia dutenak.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean, Balio Estrategiko Handia kategorian jasota dauden lurzorua.

— EAEko Kultura Ondareko ondasuntzat hartzen diren edo inbentariatzen diren monumentuak, multzo monumentalak eta kultur guneak.

b) Hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazioen sustatzaileek, ahal duten heinean, ez dituzte balizko arkeologia-guneetan kokatuko; horrelako gunean zehaztuta eta mugatuta daude balizko arkeologia-guneak finkatzeko araudia ezartzen duen urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren esparruan. Aurreikusten bada hondakinak kudeatzeko instalazio bat ezartzea horrelako gune batean, bete egin beharko da Euskal Kultur Ondarrari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 49. artikuluan eta 234/1996 Dekretuan finkatutako babes-araubidea.

c) Hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazio berriak, ahal dela, airearen kalitatea ontzat edo oso ontzat jotzen den udalerrietan kokatuko dira, osorik edo zati batean, eta soilik airearen kalitatea horrelakoa bada urteko egunen % 90ean, instalazioa aurreikusi aurreko 2 urteetan (plan bat izapidetzen hasia edo proiektu bat baimentzeko eskatzea), beheko taulari jarraituz.

Estado calidad del aire	NO ₂ (µg/m³)	SO ₂ (µg/m³)	CO (µg/m³)	O ₃ (µg/m³)	PM ₁₀ (µg/m³)	PM _{2,5} (µg/m³)
Muy Buena	0-50	0-42,5	0-5.000	0-90	0-25	0-16
Buena	50-100	42,5-83,75	5.000-7.500	90-160	25,1-50	16-33
Mejorable	100-200	83,75-125	7.500-10.000	160-180	50,1-65	33-39
Mala	200-400	125-166	10.000-20.000	180-270	65,1-82,5	39-50
Muy mala	>400	>166	>20.000	>270	>82,5	>50

d) Hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazio berriak kokatzeko lanean, sustatuko da eta lehentasuna emango zaie lurzoru antropizatuak erabiltzeari, lurzoru naturalak edo urbanizatuta ez dauden aldean. Zabortegi izango diren desagerrarazte-instalazioak, ahal dela, aktibo ez dauden zabortegietan kokatuko dira.

e) Uretara isurpenak egin behar dituzten instalazioak badira, eta haien inpaktua nabarmena izan badaiteke karga kutsatzailea dela eta, sustatuko da eta lehentasunezkoztat joko da isuri industrialak onartzen dituzten kolektoreetatik edo HUAE-etatik gertu kokatzea.

Irizpide horiek guztiak kontuan hartuko dira honako atal hauetan: 3.1 Abiapuntuko baldintzatzaile orokorrak kokapenak hautatzeko, eta 3.2 Abiapuntuko baldintzatzaileak kokatzeko hautabideak aukeratzeko: transferentzia-estazioak eta konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantak.

2.4.3. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020). Ingurumen Esparru Programa 2020

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) xedea euskal gizarteak erdietsi beharreko ingurumen-helmugak finkatzea da, bizi-kalitatea egokia izan dadin egungo eta etorkizuneko belaunaldietarako. Xede horrekin, jarduteko gidalerro berak finkatzen dira herritarrentzat, eragile produktiboentzat eta administrazioarentzat. Horretarako, Estrategiaren egiturari, ingurumen-helmugak, lehentasunezko xedeak eta epe luzera (2020) hartu beharreko konpromisoak lantzen dira, behar diren baldintzak aintzat hartuta.

INGURUMEN-HELMUGUAK:

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea.
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea: balio paregabea da eta indartu egin behar da.
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

BEHARREZKO BALDINTZAK:

- Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan kontuan hartzea.
- Indarrean dauden legeak eta haien aplikazioa hobetzea.

- Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea.
- Herritarrak, administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzunkide bihurtzea eta haien jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzea.
- Ingurumen-alorreko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren 2. helmuga natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua da. Helmuga horren barruan, 2. helburua azken hondakinen sorrera murriztea eta, sorburuan prebenituz, hazkunde ekonomikoa eta hondakinen ekoizpena bereiz daitezen lortzea. Hona hemen helburu hori, zehatzago adierazita:

- Hondakinen ekoizpena eta kaltegarritasuna murriztuz, sorburuan prebenitzea eta minimizatzea.
- Berrerabilera eta birziklatzea sustatzea, baita balorizaziorako eta zikloak ixteko beste edozein modu ere.
- Desagerraraziko diren azken hondakinen sorrera eta arriskua murriztea.
- Iraunkorrak ez diren kontsumo-ohituren aldaketa sustatzea.

Bestalde, 2. helmugako 3. helburuan, azken hondakinak segurtasunez eta berehala kudeatzea aipatzen da, eta zehatzago:

- Hondakinak biltzeko eta ezabatzeko EAEko azpiegituren sarea hobetzea.

LAPen helburuekin lotuta dauden alderdien harira, hau da, aintzat hartuta non egon beharko luketen azpiegiturak hiri-hondakinak arestian adierazitako helburuekin eta konpromisoekin bat etorritik kudeatzeko, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiako 4. helmugan (*Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna*) hau adierazten da: «lurralde orekatuagoa eta hurbiltezaragoa finkatzea; lurralde horrek interes orokorreko gizartearen eta ekonomiaren arloko jardueren bideragarritasuna ahalbideratu behar du eta, aldi berean, nekazaritzako, hiriko eta itsasertzeko guneen ondarea, aniztasuna, aberastasuna eta natur eta kultur erakargarritasuna gordeko duen lurraldea finkatu nahi da». Hartara, 4. helmugako 1. helburua lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea da; honela, zehatzago:

- Lekuaren banaketa eta lurraldeko jarduera sozioekonomikoen banaketa orekatua hobetzea.
- Hirigintzako plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetara eta iraunkortasunaren irizpideetara egokitzea.

Dena den, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiako helmuga, helburu eta konpromiso horiek zehatzago islatzen dira epe laburrera eta ertainera Ingurumen Esparru Programako (2002-2006, 2007-2010, 2011-2014 eta 2020) konpromisoetan eta ekintza-ildoetan.

IV. IEPn, denbora aldetik finkatzen den muga 2020. urtea da; hala, ordurako, egoerak bat etorri beharko luke Europar ingurumenaren arloan dauden erreferentziekin, eta bereziki, 2020ra arteko Europar Batasunaren Ingurumen Arloko VII. Ekintza Programa Orokorrearekin: «Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz». Orobat, Euskadin aurrean ditugun ingurumen-erronka berriak deskribatzen dira. Hala, 2020ra bitarteko helburuak eta jarduketak nagusiak finkatuta daude bertan, eta administrazioari, herritarrei eta enpresei argi eta aurrerapen nahikoz azaltzen zaizkie ingurumenarekin lotutako aukerak.

Azpiegiturak lurraldean kokatzearen harira, IEP 2020 agiriko 1. helburu estrategikoa hau da: gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzeko, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatuko. Jarduteko lerroen ondoriozko jardueren xedea da, besteak beste, lurzoruen okupazioa iraunkorra izatea, plangintzaren bitartez:

- 1.1. jarduteko lerroa: Ingurune naturalaren kontserbazioa politika sektorialetan eraginkortasunez txertatzea
 - 1. jarduera: Plangintza eta arautegi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrokatzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Ildo horretatik, ingurumenaren aldagaia erabakitzeke irizpide gisa txertatuta dago LAPen, hautabideak egokiak ote diren aztertzen denean.
- 1.3. jarduteko lerroa: Lurzoruen okupazioari galga jartzea, erabilera-nahasketa eta espazio degradatuen eraberritzea eta berrerabilpena erraztuz
 - 9. jarduera: Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzea, populazio-dentsitate handiagoak saritu ditzan, eta erabileren konbinazioa (lana, aisialdia, etxebizitza) eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indartu ditzan, lurzoru horren berrerabilpena eta lehengoratzeko lehenetsiz. LAPen, hautabideak aukeratzeko irizpideen artean, lehentasuna ematen zaie, ahal den neurrian, lehenera daitezkeen kokapen degradatuei (ikusi atal hau: 3.1.2. Eremu degradatuak – Inbentarioetan, kutsatuta egon daitezkeen espazioak).

2.4.4. 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko estrategia

Euskadiko ekonomia lehiakorra da, karbono gutxikoa, eta klimaren eraginetara egokitu da. Klima-aldaketari buruzko politika sendotzearen ondorio da hori, eta horren oinarria ezagutza da; horren bidez, hain zuzen, baliatu ahal izan da berrikuntzak eta garapen teknologikoak eskaintzen dituzten aukerez.

Klima Aldaketaren Euskadiko estrategian, hots, Klima 2050 agirian, Euskadik 2050ean izango lukeen ikuspegia zehazten da, eta horren funtsa bost premisa dira, klima-aldaketari buruzko politikan aintzat hartu behar diren oinarritzko baldintzak:

- Plangintza publikoan klima-aldaketa arintzea eta hari egokitzea txertatzea.
- Administrazioaren ekintza eredugarria eta koordinatua bultzatzea, karbono gutxiko eta egokitutako gizarte baterantz eraldatzea lortzeko.
- Berrikuntza eta garapen teknologikoa bultzatzea, BEG emisioak murriztea eta klima-aldaketarekiko lurraldearen zaugarritasuna murriztea ahalbidetuko dutenak sektore guztietan.
- Euskal gizarteko eragile guztien erantzukidetzak erraztea arintzearen eta egokitzearen arloko ekintzetan.
- Klima-aldaketari buruzko tokiko ezagutza egokitzea erabakiak hartzera.

Nazioarteko konpromisoekin bat, eta zenbait agertoki aztertu ondoren, hipotesi sozioekonomikoak eta energetikoak oinarri hartuta, honako helburu hauek zehaztu dira estrategian:

1. helburua: arintzea

- Euskadiko BEG emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030erako eta gutxienez % 80 murriztea 2050erako, 2005. urtearekin alderatuta.
- 2050. urtean lortzea energia berriztagarrien % 40ko kontsumoa azken kontsumoarekiko.

2. helburua: egokitzea

- Euskadik klima-aldaketaren aurrean erresilientzia izan dezan bermatzea.

Helburu horiek erdiesteko, honako 9 helmuga eta 24 jarduera-lerro zehazten dira Planean:

1. H. Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea.
2. H. Emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitea.
3. H. Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea.
4. H. Natura ingurunearen erresilientzia handitzea.
5. H. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea.
6. H. Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea trataerarik gabe.
7. H. Arriskuei aurre hartzea.
8. H. Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea.
9. H. Euskal administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketaren arloan.

Hala, 1. helmugaren harira, LAPen irismentetik kanpo dago; alabaina, hondakinen kudeaketarako azpiegiturak diseinatzeko irizpideen barruan, prozesuak energia eraginkortasunaren ikuspegitik ebaluatzeko eskatuko da, hautabide teknologikoak aztertzen direnean.

Bestalde, 3. helmugaren barruan (Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea), Planean proposatzen da lurralde-estrategian zaurgarritasunaren analisia eta klima-aldaketarako egokitzapena txertatzea. Hori dela eta, LAPen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan klima-aldaketaren ondorioak hartzen dira kontuan, LAP aplikatzeak dakartzanak.

2.4.5. 2020rako Europako Ingurumen eta Osasun Estrategia

Ingurumenaren arloko Europako Erkidegoko seigarren ekintza-programan, honako helburu hau finkatu zen: laguntzea herritarrek bizi-kalitate eta gizarte-ongizate handiak izan ditzaten, eta horretarako, ingurumenak ez izatea giza osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak izan daitezkeen kutsadura-mailak.

Ilido horretatik, Europako Ingurumen eta Osasun Estrategia 2003an prestatu zen, eta haren helburu nagusia da bi alderdi horien arteko harreman konplexua sakonago ezagutzea eta ingurumen-faktoreek osasunean dituzten ondorioak txikitzea.

Hori garatzeko, Batzordeak *Kutsadura atmosferikoari buruzko estrategia tematikoa* izeneko komunikazioa onartu zuen 2005ean. Estrategia horretan, zenbait helburu adierazten dira 2020rako, pertsonen osasunerako mesedegarriak izango direlakoan. Estrategian, EBko kutsadura atmosferikoarekin lotuta dauden zenbait helburu finkatzen dira, eta zenbait neurri proposatzen dira horiek erdiesteko; besteak beste, neurriak hartzea ingurumenarekin lotutako

gaiak gainerako programetan eta politiketan txertatzeko, eta giroko airearen kalitatearen arloko legeria berraztertzea, kutsatzaile nagusien igorpenak pixkana murrizteko moduan.

Osasunari eragiten dioten faktore horiei guztiei erreparatuta, eta LAPen aldaketak nolako zehaztasun orokorra duen aintzat hartuta, lehen hurbilketa orokorra egin da aztertutako kokapenetako airearen kalitateari eragiten dioten baldintzatzaileen gainean, eta proposatu diren azpiegiturekin duen harremanaren gainean ere bai, alderdi hori oro har ere kontuan izateko. Horrezaz landa, neurri zuzentzaileen kapituluan, hautatzen diren azpiegiturak garatzeko proiektuetan ezinbestez txertatu beharko dira osasunerako eragin negatiboak saihestu edo murrizteko azterlanak, baldintza operatiboak eta eskakizun tekniko zorrotza; nolanahi ere, aplikatu beharreko araudian xedatuta dauden igorpen-mugak bete beharko dira, gutxienez.

Ingurumenaren arloko Europako Erkidegoko seigarren ekintza-programa (VI. IEP) 2012ko uztailan amaitu zen, baina oraindik ere programa horren barruan abiarazitako neurri eta ekintzetako asko martxan dira. VI. IEPren azken ebaluazioa egin zenean, ondorioa izan zen programa hori positiboa izan zela ingurumenerako, eta norabide estrategiko orokorra izan zela ingurumen-politikarako. Lorpen horiek gorabehera, oraindik ere iraunkortasuna ez dakarten joera batzuk ikusten dira VI. IEPn finkatutako lehentasunezko lau eremuetan: klima-aldaketa, natura eta biodibertsitatea, ingurumena eta osasuna eta bizi-kalitatea, eta baliabide naturalak eta hondakinak.

VII. IEPko lehentasunezko 1. helburua hau da: Europar Batasuneko kapital naturala babestea, kontserbatzea eta hobetzea. Hainbat neurri proposatzen dira horretarako; besteren artean, hauek: zerbitzu ekosistemikoen biodibertsitatearen galera eta degradazioa geldiaraztea; uren gaineko presioaren inpaktua murriztea, ingurumenaren egoera ona lortzeko edo horri eusteko; eta lurzorua iraunkortasunez kudeatzea plangintza-politiken bitartez.

Alderdi horiekin lotuta, LAPen aldaketa helburu hori erdiesteko lagungarria izango da; izan ere, ahal den heinean, lehentasuna emango zaie kokapen degradatu edo industrialei, kokapen naturalen aldean. Ingurumenaren aldagaia ere hautabideak aukeratzeko aintzat hartzen da (biodibertsitatea, urak, lurzorua, erabilerak, atmosferaren kalitatea, etab.). Hortaz, arloko plangintza garatzeko bidean, lagundu egiten da klimaren eta ingurumenaren arloko helburuak eta helmugak erdiesten (7. helburu estrategikoa).

2.4.6. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren (28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa). Hala, 1997tik aurrera, indarreko LAGak aldatzeko zenbait prozesu abiarazi dira, baina bizitegi-kuantifikazioarena bakarrik amaitu zen izapidetzen (4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez).

Bestalde, Gobernu Kontseiluak, 2015eko uztailaren 27an eginiko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berraztertzeke prozedura abiarazteari buruzko erabakia onartu zuen; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, zehazki, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bitartez onartu ziren.

LAGak berraztertze prozedurak 3 urte iraungo du, gutxi gorabehera. Hartara, une bertsuan antolatu nahi izan dira izapidetze administratiboaren mugarri nagusiak (hasiera, aurrerapena, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) eta Euskal Hiria Kongresuaren hurrengo hiru bilkurak, azaroan egiten baitira urtero. Hala, 2015eko Euskal Hiria Kongresuan, parte hartzeko prozesuari hasiera eman zitzaion; 2016ko Euskal Hiria Kongresuan, aurrerapena aurkeztu zen; 2017ko Euskal Hiria Kongresuan, hasierako onarpena aurkeztea aurreikusi da; eta 2018ko Euskal Hiria Kongresuan, behin betiko onarpena.

2.4.6.1. Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (1997)

LAGen 15. atala hondakin solidoei buruzkoa da, eta bertako 6.3 zatian, hondakin horiek erabat ezabatzeko sistemak antolatze Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana idaztea aurreikusten da; era berean, 6.5 zatian finkatzen da hondakin-mota hori (inerteak eta inertizatuak) birziklatu eta aprobetxatzeko azpiegiturak exekutatzeko ahalbidetuko dela.

Bestalde, 22. atalean (LAGak aplikatzeko arauak), izaera loteslea edo orientatzailea aztertzeari buruzko zatian, LAGen lurralde-ereduaren gaineko II. puntuan, d) zatian xedatzen da 15. ataleko edukiak orientabideak eta erreferentzia-puntuak direla arloetako administrazioentzat, lurraldearen arloko planak idazteko lanean ari direnerako.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren (28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa), eta garai hartan zaborteak ziren Euskadiko hiri-hondakinen kudeaketaren zentroa. Haatik, azkar eta etengabe aldatu da hondakinen arloko ingurumen-araudia, baita tratamendurako irizpideak eta sistemak ere. Horren ondorioz, LAGei buruzko 15. ataleko 6.5 zatia eta 8. ataleko 5.3.d.1 zatia, lurraldearen arloko planen gainekoak, hondakinak kudeatzeko azpiegitura guztietara hedatu behar dira, ezin zaizkie zaborteak soilik aplikatu.

2.4.6.2. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa. Aurrerapena (2016)

Gobernu Kontseiluak, 2015eko uztailaren 27an eginiko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berraztertze prozedura abiarazteari buruzko erabakia onartu zuen; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, zehazki, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bitartez onartu ziren. Erabaki horren hitzaurrean, LAGak berraztertze prozesua abiarazteko arrazoiak azaltzen dira, eta laburbilduz, bi xede nagusi hauek dituzte: alde batetik, lurraldea antolatze politikak eta tresnak berraztertzea; eta beste aldetik, lurraldearen politikaren kudeaketan eta garapenean parte hartzeko kultura eta gobernantza ona sustatzea.

Hartara, berrikuspen horren aurrerapen-agiriak 2016ko azaroan onartu zuten, eta horietan aipatzen da Gipuzkoako hiri-hondakinen LAP dagoela:

“LAGetan aurreikusitako 20 LPSetatik 9 onartu dira. Onartutako LPSak honako hauek dira: ibai eta erreken ertzen antolamendua, trenbide-sare berria, energia eolikoa, hezeguneak, jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoru publikoa sortzea, itsasertza babestu eta antolatzea, nekazaritza eta basogintza eta Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen plan orokorra. Bestalde, lurralde historikoaren eremurako beste LPS batzuk ere onartu dira: Gipuzkoako bizikleta-bideen LPSa eta **hiri-hondakinen LPSa, hori ere Gipuzkoakoa**, eta Bizkaiko errepideen LPSa”.

Hala, 4. kapituluan (Hondakin-biltegia), haxe adierazten da: «Hondakin solidoen garraioaren, biltegitratzearen, tratamenduaren eta kontrolaren kokapen eta kudeaketarako erreferentzia-esparrua EAEko Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala izango da. Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorial horrek edo, halakorik ezean, udal-plangintzak honako hauek bildu beharko ditu:

...

Hondakinak tratatzeko instalazio berrietarako kokaleku egokiena adierazi behar du, eraginpeko lurak Azpiegituren Sistema Orokor gisa kalifikatuta».

Ikusten denez, EAEko LAGen Berrikuspenaren Aurrerapen agirian, Lurraldearen Arloko Plana hartzen da hondakin solidoen kokapena eta hondakin solidoak garraiatzeko, biltegitratzeko, tratatzeko eta kontrolatzeko orientabidezat.

Ekonomia zirkularraren alorrean, eta zehazkiago hondakinak kudeatzeko alorrean, lurralde-ereduaren lurralde-gidalerroek proposamen-izaera dute (hots, ez dira zertan bete ezinbestez), eta honako hauek dira:

1. EAEko hondakinen azpiegiturei buruzko Lurralde Plan Sektoriala idaztea, Lurralde Historiko, mankomunitate eta toki-erakunde bakoitzaren hondakinak kudeatzeko politiken artean beharrezkoa den koordinazioa eta integrazioa bermatzeko.
2. Hondakinak instalazio egoki hurbilenetan tratatzea, azpiegitura-sare nahikoa ezartzea eskatuko duena.
3. Lehendik dauden azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuen erabilera optimizatzea.
4. Plangintza egitean hondakinen gaikako bilketarako eta birziklatzerako helburu batzuk zehaztea, helburu horiek kudeatzeko behar diren erreserbak zehaztuz, haien banaketak udalerrri osoari zerbitzu bikaina eta orekatua bermatzeko moduan.
5. Industria-sektoreak, eraikuntza-sektoreak, eta, bereziki, eraipen-obren sektoreak sortutako hondakin-bolumenaren haritik etorritako problematika aintzat hartzea, plangintzan erreserbatuz erabilitako materialak identifikatzeko, gaika sailkatzeko, berreskuratzeko eta berrerabiltzeko behar diren hornidurak.
6. Eraikuntzako eta urbanizazioko udal-ordenantzen bitartez, material iraunkor eta birziklagarrien erabilera sustatzea, baita biologia-jatorriko materialen erabilera ere, baldin eta haien diseinuan, produkzioan eta ondorengo birziklatzean, ingurunearen gainean sortutako inpaktuak minimizatzen badira.
7. Proiektu eta obren kontratazioan, ingurumen-alderdiak, diseinua eta material ekologikoen erabilera sustatzea eta balioestea, baita material horien beste zenbait alderdi ere, hala nola iraunkortasuna, inpaktua eta ingurumen-portaera, eta birziklatzeko eta berrerabiltzeko erraztasuna.

2.4.7. Gipuzkoako lurralde-plan partzialak (LPP)

Gaur egun, honako lurralde-plan partzial hauek daude indarrean Gipuzkoako LHn:

- Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.
- Arrasate-Bergarako (Debagoiena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, apirilaren 12ko 86/2005 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.
- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, otsailaren 21eko 32/2006 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena. Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren 1. aldaketa, Trukutxo eta Amue eremuei dagokiena (2009ko urtarrilaren 27ko 14/2009 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko).
- Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, irailaren 29ko 534/2009 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.
- Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala, uztailaren 27ko 121/2016 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.

Eibarko (Debabarrena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana

Honako hau xedatu da 47. artikuluan (Hiri-hondakinak):

«Honako jarduketa hauek hondakin solidoen arloko esku-hartze estrategikotzat xedatu dira:

- Hondakin Solidoen Planeko irtenbidea jasotzea: birziklatzea gaikako bilketa eginez, eta birziklatu gabeko hondakinak biltegitratzeko zabortegei kontrolatuak erabiltzea.
- Azpeitiko Lapatx zabortegea finkatzea eskualdeko zabortege gisa, Urola Kostako Mankomunitatearekin partekatuta. Hondakinak Mutrikuko eta Eibarko transferentzia-estazioetatik eramango dira.
- Elgoibarko Albitzuri eta Mallabiko Betearte hondakin inerteen zabortegeiak instalatzeko, ingurunera egokitzeko eta finkatzeko obrak egitea».

Arrasate-Bergarako (Debagoiena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana

Honako hau xedatu da 31. artikuluan (Hondakinen tratamendua):

«Honako azpiegitura hauek daude hondakinen tratamendurako:

1. Hiri-hondakin solidoen transferentzia-estazioa. Akeiko garai bateko erraustegian dago, eta Sasieta zabortegea transferitzen ditu hondakinak.
2. Hondakin toxikoen eta arriskutsuen transferentzia-estazioa. Hondakin solido inerteak biltzeko eta isurtzeko zerbitzuekin koordinatuta, transferentzia-zerbitzu hau (Epele) sortzea xedatzen da.

3. Hondakin inerteen zabortegia. Epeleko egungo instalazioak jaso dira hondakin inerteak isurtzeko.
4. Hondakinen biltegi alternatiboa. Ibarreñako (Arrasate), San Kristobalgo (Bergara) eta Urrutxuko (Oñati) biltegiak, eta kokapen berria sortu da Esteibarren (Eskoriatza).
5. Basoko eta zurezko hondakinak kudeatzeko zentroa».

Zarautz-Azpeitiko (Urola Kosta) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana

Honako hau xedatu da 2.31.7. artikuluan (Hondakinen tratamendua): «Planak Eremu Funtzionalan finkatzen du ezarri den hondakinen tratamendurako sistema; alabaina, berregituratzeko beharra dago, eta lehentasuna eman behar zaio birziklatze-kota altuagoak lortzeari, baita teknika berriak finkatzeari; adibidez, hondakinak balorizatzeko plantak».

Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planaren 1. aldaketan, Trukutxo eta Amue eremuei dagokienean, ez da hiri-hondakin solidoak kudeatzeko azpiegiturarik zehazten.

Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana

29. artikulua, zerbitzuen azpiegituren ereduari buruzkoa:

«1. Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionaleko LZP honetan, administrazioaren departamentuen planak eta proiektuak onartu eta xertatu dira lurralde-ereduan, batik bat hondakin solidoen hornidura, saneamendua eta tratamendua, uholdeak prebenitzea eta energia-arloko nahiz telekomunikazioetako azpiegiturak kontuan hartuta.

Hona hemen oinarritzko azpiegitura-sistemako ekintza eta osagai nabarmenenak edo lurraldean eragin gehien dutenak:

...

- d.- Hondakin solidoak:
 - Sasieta Mankomunitateko zabortegia
 - Mutiloako inerteen zabortegia

...

3. Aurreko puntuan adierazi den zerrenda irekia da; beraz, interes orokorreko osagai eta esku-hartze berriak sar daitezke, LZP honetan proposatzen den lurralde-ereduekin bat datozenak.

4. Zerbitzu-azpiegiturak Eremu Funtzionalan ezartzeko, plan bereziak edo proiektuak egingo dira, honako irizpide hauek oinarri hartuta:

Koordinazio-irizpidea, dagozkion lurraldearen zatiko planen bidez

Integrazio-irizpidea, zatiko proposamenen artean

Betetze-irizpidea; zehazki, Lurraldearen Zatiko Plan honetako oinarritzko zehaztapenak eta garapen berriak antolatze eta diseinatzeko orientabide espezifikoak betetzeko».

Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala

19. artikulua, Hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak:

«Kuestio honi buruz, Lurralde Plan Partzialean bakarrik batze puntua den Arzabaletako eremua, Zubietan Goialdean, ordezkatzeko ideal eta eskuragarri gisa aukeratzen da etorkizuneko Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa Zentroa izateko moldatu daitekeen konfigurazio funtzionalaren arabera (ikusi 4. Planoa)».

Ikusten denez, lurralde-plan partzial horietan guztietan, lurralde-ereduaren azpiegituren barruan jasotzen dira hondakinak tratatzeko zerbitzuak; hartara, jarduketan kokapen fisikoa udal-plangintzan edo arloko plangintzan zehaztuko da proposamen bakoitzerako. LPP horietan ez daude jasota indarreko LAP-GHHAn bildutako hiri-hondakinaren azpiegiturak, LAP onartu aurretik onartu zirelako eta aldatu ez direlako, Donostialdea-Bidasoako LPP izan ezik. Dena den, Arzabaletan finkatu beharreko hondakinaren kudeaketako azpiegitura soilik jasotzen da bertan; hots, gainerako artikuluetan ez dira txertatu indarreko LAPn Donostialdea-Bidasoan kokatzen diren hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak. Zehazki: Zaldunbordako konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta (Hondarribia), San Markoko transferentzia-estazioa, eta eraikitze- eta eraiste-lanetako hondakinak hartzeko Aizmendiko planta (Donostia-San Sebastián).

2.4.8. Lurraldearen arloko planak

Azpiegiturak prestatzean, plan hauetako zehaztapenak aintzat hartuko dira:

Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko LAP eta haren aldaketa

Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) onartu zen. Bestalde, LAPen aldaketa (Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak) azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko.

LAPen jasotako araudian, atzerapen espezifikoak finkatzen dira (eraikuntzarena, urbanizazioarena edo bestelako esku-hartzeak) ibilguen kategoriaren arabera, eta kategoria horiek ingurumen-osagaiak, hirigintza-osagaiari eta osagai hidraulikoari erreparatuta zehazten dira.

Hondakinak kudeatzeko azpiegitura gisa proposatu diren kokapen-hautabideetan aintzat hartuko dira LAPen eta haren aldaketan xedatutako antolamendu-arauak.

Era berean, EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko LAPeko E.1 atalean uholdeak eragiteko arriskuaren harira, hondakinaren azpiegiturak lurraldean kokatzeko irizpidea izango da azpiegitura horiek 500 urteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuetatik kanpo egotea.

Hezeguneen LAP

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko (222 zenbakiko EHAA, 2004-11-19koa). Dekretu horren indarraldian, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak agerian ipini zuen zenbait aldaketa egin behar zirela EAE Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean, eta zenbait akats material zuzendu behar zirela, Dekretua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean antzeman ez zirenak. Aldaketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzeko Dekretua aldatzeko den urriaren 30eko 231/2012 Dekretuan jaso dira.

Azpiegiturak lurraldean kokatzeko abiapuntuko irizpidetzat joko da Hezeguneen LAPetik datozen zehaztapenak eta jarduerak errespetatzea; hori dela eta, hautabideak ez dira kokatuko plan horren antolamendu-eremuaren barruan, ezta Ramsar hitzarmenean jasota dagoen Gipuzkoako hezegune bakarrean ere (Txingudi).

Nekazaritza eta Basozaintzako LPS

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. LPS horretako zenbait helburuk lotura zuzen samarra dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren LAPen helburuarekin. Horien artean, behar hau aipatzen da: jarduteko bitarteko baliagarriak eta onargarriak planteatzea, haien bidez sektorea eta sektorearen baliabideak defendatzeko nekazaritzarako ez diren beste erabilera batzuen aurrean (batez ere azpiegiturak, eta etxebizitza eta industria-erabilerak), bateratasun-zonetan.

LAPen, lurzoruen kategoria hauek aipatzen dira: nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoria (estrategikoa eta trantsizioko paisaia), mendia goikategoria (basoa - mendi barbana kategoria, basozaintza kategoria, mendi larreak kategoria, eta mendi larreak - harkaitzak kategoria), ingurumen-hobekuntza kategoria, eta gainazaleko uren babesa kategoria. Honela arautzen dira erabilerak kategoria horietan: egokiak, onargarriak edo debekatuak. Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak A motako zerbitzuen instalazio teknikotzat jotzen dira, eta taula honetan ikusten da nola dauden araututa LPSn:

Antolamendu-kategoriak							
Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala		Mendia				Ingurumen-hobekuntza	Gainazaleko uren babesa
Estrategikoa	Trantsizioko paisaia	Basoa - mendi barbana	Basozaintza	Mendi larreak	Mendi larreak - harkaitzak		
2a	2a	2a	3a	3	3	3	-

2a: Onargarria. Nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egingo da, eta neurri zuzentzaileak jasoko dira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jarduntresnak»).

3a: Erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan. Salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSto «Jardun-tresnak»).

3: Debekatua

Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LAP

Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bitartez onartu zen.

Planaren arabera, Kostaldeari buruzko Legeak ezarritako eragin-eremua da antolamendurako eremua (500 metro, itsasertzeko barruko mugatik neurtuta). Planean finkatzen den zonifikazioan, LAGetan xedatutako antolamendurako mailak zein lurzoruaren erabilerak eta ekintzak zehazten dira.

Horren harira aipatu behar da hiri-hondakinen azpiegiturak kokatzeko ez direla kontuan hartuko plan horren antolamendu-eremuan dauden hautabideak.

2.4.9. Zortasun aeronautikoak eta aireko segurtasuna. Arloko esparru aplikagarria

Jarraian, LAP planaren aldaketari dagokion indarreko araudi aplikagarriaren zerrenda barneratzen da:

- Aire nabigazioko uztailaren 21eko 48/1960 Legea, zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzko abenduaren 29ko 55/1999 Legeak aldatua.
- Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea.
- Zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legeko 166. artikulua.
- Zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretua, egungo idatzia.
- Interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu-eremuaren antolaketari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua, egungo idatzia.
- Donostiako aireportuaren zortasun aeronautiko berriak ezartzeko martxoaren 18ko 792/1976 Dekretua.
- Donostiako (Gipuzkoa) DVOR eta DME aireko nabigazioari laguntzeko irrati-instalazioaren zortasun aeronautikoak ezartzen dituen urriaren 11ko 2057/2004 Errege Dekretua.

- Sustapen Ministerioaren 2006ko uztailaren 13ko FOM/2617/2006 Agindua, Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzekoa.
- Sustapen Ministerioaren 2001eko uztailaren 17ko Agindua, Gasteizko Aireportuko Plan Zuzentzailea onartzekoa.
- Martxoaren 11ko 377/2011 Errege Dekretua, Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak eguneratzekoa.
- Apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretua, Zortasun Aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretua aldatzekoa eta interes orokorreko aireportuen eta haien zerbitzu-eremuaren antolaketari buruzko abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretua aldatzekoa, Zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legeko 166. artikuluan xedatutakoa betez.

Ikerketa-eremuaren zati bat Donostiako Aireportuari eta Gasteizko Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonaldean barneraturik dago. Arrazoi hori dela medio, LAP plana aldatzeko Araudian zortasun aeronautikoekin lotutako zenbait xedapen eta dokumentazio grafikoa barneratzen da, aireportuen antolaketari dagokion Araudia betetzea ziurtatzekoak.

3. Hautabideak sortzea eta aztertzea helburuak erdiesteko

Jarraian, 2.1.2 atalean zehaztutakoa oinarri hartuta, kokapenak hautatzeko abiapuntuko baldintzatzaileak azalduko dira, baita proposatu den azpiegitura bakoitza kokatzeko hautabideak ere.

3.1. Abiapuntuko baldintzatzaile orokorrak kokapenak hautatzeko

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ezaugarrietako bat oparotasun natural handia da; ez alferrik, badira bertan parke natural ugari, baita balio ekologiko eta natural handia dela-eta babestuta dauden beste eremu batzuk ere. Aldaketa honek, LAPek bezalaxe, ingurumen- eta iraunkortasun-politikekin bateragarria izatea ziurtatu behar du, ingurumen-balio handiko ingurune fisikoak babesteko.

Azpiegiturak kokatzeko hautabideak aukeratzeko, **EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020** agirian zehaztutako kokapen-irizpideak hartuko dira aintzat (ikusi 2.4.2 atala, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020). Lehenik, ingurumenaren hauskortasunari eta kalitateari buruzko irizpideak kontuan hartuta, zenbait eremu baztertuko dira LAP honetan jorratutako azpiegituretarako kokapen gisa, osorik utzi behar baitira kontserbaziorako eta gozamenerako.

Ingurumenaren hauskortasunak dakartzan baldintzatzaileez gain, honako hauek ere kontuan hartuko dira hondakinak kudeatzeko azpiegituren hautabideak aukeratzeko:

3.1.1. Ingurumena babesteko lurraldearen arloko planak

Azpiegiturak aukeratzeko, kontuan hartuko dira 2.4.8 atalean (Lurraldearen arloko planak) adierazi diren zehaztapenak, lurraldearen arloko planetan jasota daudenak.

3.1.2. Eremu degradatuak – Inbentarioetan, kutsatuta egon daitezkeen espazioak

Aldaketa honetan, LAPen bertan bezala, azpiegiturak kokatzeko irizpideetako bat izango da eremu degradatuak aztertzea, eremu horiek birgaitzeko eta lehengoratzeko. Horrenbestez, ebaluazio berezia egingo da zabortegei, hondakindegiei eta kokapen degradatuetan kokatzeko eta integratzeko aukerei buruz, baldin eta denborazko garapena bat badator Gipuzkoako Hondakinak Kontsultazioaren plangintzarekin eta azpiegiturak martxan jartzeko atzerapena ez badakar.

3.1.3. Balizko arkeologia-guneak eta gune megalitikoak. Euskal Kultur Ondarea

LAPen aldaketan aurreikusi diren azpiegitura guztien ezarpena Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen oinarritzko xedapenen mende egongo da; hortaz, kokapenak aukeratzeko direnean, ez zaio inoiz Euskal Kultur Ondareari eragingo, eta bateratuko da kultur ondarea babesteko aurreikusita dauden obrek.

Horrenbestez, hau izango da Gipuzkoan sortutako hondakinak kudeatzeko behar diren interes orokorreko azpiegitura publikoak lurraldean kokatzeko eta ezartzeko erreferentziatzko irizpide orokorra: **azpiegituren eta lotutako garraioaren eragina txikitzea; horretarako, aukeratzen diren kokapenek eta diseinuek ahalik eta gutxien oztopatuko dituzte eremu babestuak, florarako edo faunarako interesgarriak diren habitat naturalak dauden eremuak eta haien arteko konexioak, ingurumen-aldetik ahulak diren eremuak, paisaia-kalitatea duten eremuak, kultur ondarea dagoen eremuak, arriskuan dauden eremuak (uholdeak eta inguru maldatsuak), etab. Hortaz, edozein kasutan ere, baldintza egokiak ziurtatuko dira giza osasunerako eta ingurumenerako, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea bermatuko dira, airea, ura eta lurzoruak garbiak eta osasungarriak izango dira, eta horien guztien arteko interakzioak ere ziurtatuko dira.**

3.2. Kokapen-hautabideak aukeratzeko abiapuntuko baldintzatzaileak: transferentzia-estazioak eta konpostaje eta/edo biometanizazio-planta

3.2.1. Lurraldekoak

3.2.1.1. Kokapenaren oinarritzko baldintzatzaileak

- **Kokapena komunikazio-saretik gertu**

- Kokapena Gipuzkoako errepide-sare nagusiko osagairen batetik gertu egongo da, hori baita lurralde historikoan sortutako hondakin solidoen multzoa garraiatzeko euskarririk onena.

- **Eskala orokorreko plangintza-eremuen lurralde-zehaztapenetara egokitzea**

- Onartuta dauden lurralde-plan partzialetatik datozen zehaztapenak betetzea.
- Erabilerak eta jarduerak baztertzeko lurralde-zehaztapen garrantzitsuenak betetzea, onartuta edo izapidetze bidean dauden ingurune fisikoa babesteko lurraldearen arloko planetatik datozenak; hauetatik, alegia: Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeneko LAP, Hezeguneen LAP, Nekazaritza eta Basozaintzako eta Ingurune Naturaleko LPS, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020.

3.2.1.2. Ezarpenaren oinarritzko baldintzatzaileak

- **Zerbitzuak eskuratu ahal izatea**

- Azpiegiturretan behar diren harguneak eskuratu ahal izatea, modu tekniko arrazoizkoan eta onartzeko moduko kostuen truke. Zehazki, hargune elektrikoa, konexioa ur-hornidurarako sarearekin, eta konexioa saneamendu-sare nagusiarekin.

3.2.1.3. Aukera-sinergiak

- Zaborteziak, harrobiak eta, oro har, erauzte-jarduerak egoteak ekar ditzakeen ezarpen-aukera guztiak bereziki aztertu behar dira, horrelako kokapenek aukera eman baitezakete ingurumenaren ikuspegitik lehengoratzeko prozesu integratuak abiatzeko.
- Azpiegiturak jarduera ekonomikoen eremu berri baten barruan garatu daitezke, eta bertan, instalazioa antolamenduaren multzoan txerta liteke.

3.2.2. Ingurumenekoak

3.2.2.1. Kokapenaren oinarrizko baldintzatzaileak

- **Gune babestuetatik kanpoko kokapena**

- Instalazioak gune babestuen mugetatik kanpo ipiniko dira; adibidez, honako hauek daude babestuta: Natura-gune babestuak (Euskal Herriko Natura babesteko Legea), biotopo babestuak, zuhaitz bereziak, Natura 2000 sareko guneak, Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeari jarraituz izapidetze bidean dagoen natura-baliabideen antolamendu plan batean jasotako eremu geografikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldeko Sektore Planeko II. taldean sartuta dauden hezeguneak, Txingudiko Plan Bereziaren barruan antolatuta dagoen eremua, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko babes berezi zorrotzaren kategoria eta babes berezi bateragarriaren kategoria, LAGetako Natura Intereseko Eremuen zerrendan eta EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian jasota dauden eremuak, interes natural handia dela-eta lurralde-plan partzialen bidez babestuta dauden eremuak, interes natural handia dela-eta hirigintza-araudiaren bidez babestutako eremuak, mehatxupean dauden flora- edo fauna-espezieen kudeaketa-planetan interes bereziko eremu edo banaketa-gune natural gisa identifikatutako eremuak (espezie horiek kategoria hauetan jasota daude Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan: galtzeko arriskuan daudenak, babes berezia, kaltebera, bakana, edo interes berezia), Kantauri Mendebaldeko, Kantauri Ekialdeko eta Ebroko demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoetako eremu babestuen erregistroko guneak, eta erregistro horietako bilketak babesteko perimetroen barruan dauden eremuak, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean, Balio Estrategiko Handia kategorian jasota dauden lurzoruak, EAEko Kultura Ondareko ondasuntzat hartzen diren edo inbentariatzen diren monumentuak, multzo monumentalak eta kultur guneak.

- **Urez bete daitezkeen eremuetatik kanpoko kokapenak**

- Instalazioak 500 urteko errepika-denborako uholdeek har ditzaketen eremuetatik kanpo egongo dira.

3.2.2.2. Kokapenen azterketa xehatuan aintzat hartu beharreko ingurumen-aldagaiak

- Atmosfera
- Airearen kalitatea¹
- Klima-aldaketa(*)
- Geologia
- Geomorfologia
- Edafologia
- Hidrogeologia

¹ Hondakinen kudeaketarekin lotutako instalazio berriak, ahal dela, airearen kalitatea ontzat edo oso ontzat jotzen den udalerrietan kokatuko dira, osorik edo zati batean, eta soilik airearen kalitatea horrelakoa bada urteko egunen % 90ean, instalazioa aurreikusi aurreko 2 urteetan (plan bat izapidetzen hasia edo proiektu bat baimentzeko eskatzea), 2.4.2 ataleko (EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020) taulari jarraituz.

- Gainazaleko hidrologia
- Landaredia eta lurzorua erabilerak
- Fauna
- Paisaia
- Ondarea
- Trabak, lasaitasuna eta osasun publikoa

(*) Klima-aldaketa:

Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldearen arabera, honako hau izan daiteke klima-aldaketaren definizioa: aldaketa estatistiko handia klimaren batez besteko egoeran edo aldagarritasunean, denbora luzez irauten duena (oro har, zenbait hamarkada, edo gehiago). Klima-aldaketa barneko prozesu naturalek edo kanpotik behartzeko jarduerak aldatzeak eragin dezakete, edota aldaketa antropogeniko iraunkorrek atmosferaren konposizioan edo lursailen erabileran. Hartara, klima-aldaketa eta klima-aldagarritasuna daude. Klima-aldaketa giza jardueren egozten zaie, eta klima-aldagarritasuna, kausa naturalei. Lurraldearen eta hirigintzaren plangintzan neurriak txertatu behar dira klima-aldaketari aurre egiteko, batetik, nazioarteko konpromisoak bete behar direlako, eta bestetik, arrisku ezezagunei aurre egiteko, gero eta maizago gertatzen baitira.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak honako txosten hau argitaratu zuen 2010eko abenduan: Espazioaren plangintzan klima-aldaketari egokitzeko eta ondorioak arintzeko estrategiak – Jardunbide egokiak aukeratzea eta aztertzea eta EAEko lurralde- eta plangintzan aplikatu beharreko irizpideak adieraztea. Horren helburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko irizpideak finkatzea da, EAEko plangintza espazialeko ereduetan txertatzeko, nazioarteko jardunbide egokiak azterketarekin bat etorritik.

Dokumentu horretan, lurraldearen arloko planetarako, oro har, helburuarekin bat datozen irizpideak zehaztea proposatzen da, hala arintzeko nola egokitzeko. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegiturari buruzko LAPen, zehazki, honako hau adierazten da arintzearen eta egokitzearen gainean: «hondakinak (biogasa) energia-aprobetxamenduak eta birziklapenak eragina izan dezakete klima-aldaketa arintzeko. Klimari egokitzeko, kontuan hartu behar da maila freatikoen (ur geza eta itsasoko ura) aldaketak kutsatzaileen hedapen posiblean izan dezakeen eragina». Nolanahi ere, hondakinak energia-aprobetxamendua LAPen irismentik at geratzen da, plangintza baita (GHHKO eta eguneraketak).

Klima-aldaketa dela-eta sor daitezkeen inpaktuak ebaluatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan azpiegitura bat kokatzeko hautabideak aztertzen direnean:

- Karbono-hustulekuek ahalmena galtzea, erabilera aldatzean landaredia murrizten delako, eta biomasan karbonoa egotearekin lotutako igorpenak.
- Igorpenak atmosferara, hondakinak ekoizteko grabitate-zentrotik aztertutako hautabideetara garraiatzeagatik.

Oharra: ez da kontuan hartu maila freatikoen aldaketak kutsatzaileen hedapen posiblean izan dezakeen eragina, ez baita alderdi kritikotzat jotzen LAP honetarako hautabideak aukeratzeko. Alderdi hori eraikitze-proiektuak idaztean hartu beharko aintzat, eta beharrezkoa bada, babes-neurriak hartuko dira.

3.2.3. Tekniko-ekonomikoak

3.2.3.1. Kokapenaren oinarrizko baldintzatzaileak

- **Ekonomikoki gehiegizko oztopo ez diren kokapenak**

- Instalazioak ipiniko diren tokiak ez dute ekonomikoki gehiegizko oztopo izango hondakinak kudeatzeko kostu osoari erreparatuta, hots, hondakinak transferitzeko, garraiatzeko eta tratatzeko. Besteren artean, aztertutako kokapenetako sarbideak eta urbanizazioa eraikitzeak kostuak barne hartuko dira, baita mankomunitateetatik kokapen horietara garraiatzeko kostuak ere.

3.3. Beharrezko aldaketak. Aurreikusitako jarduketak


3.3.1. Zaborrak ontzeko planta

GIG1 fasearen prozesua itxiko duen instalazioa denez, GIG1en aldamenean ezarri beharko da azpiegitura hau.

GIG1eko hondakinak ekoizpen-zikloa amaitzen dela ziurtatzeko, komenigarritzat jotzen da Eskuzaitzeta industrialdeko D lurzatian ezartzea. Hona hemen hautaketa hori justifikatzen duten premisak:

- GIG1etik gertu dago; hortaz, zaborra plantara garraiatzeko lana txikia da.
- Ingurunea industriala da; hartara, jarduera abian dagoenean, eragin txikia izango du ingurumenean eta gizartean.
- Erabilerak eta hirigintza-plangintza (Eskuzaitzetako Plan Partziala) bateragarriak dira, eta aukera dago lurzati horiek hondakinak tratatzeko egongo den plantarekin lotutako jardueretarako erabiltzea, GIG1etik gertu egonik (Arzabaleta).

Irudian eta O-02 planoan, zaborrak ontzeko planta kokatzeko proposamena ikusten da.



1. irudia. Zaborrak ontzeko planta kokatzeko proposamena.

Hori dela eta, ez da kokapen-hautabiderik aipatuko, eta zuzenean, Eskuzaitzetako D lurzatian (GIG1eko baskulekin mugakide) kokatzea egokia ote den aztertuko da.

Kokapena eta sarbideak


Planta berria kokatzea proposatzen den lur-eremuak Eskuzaitzeta industrialdean daude, D lurzatian.



2. irudia. Eskuzaitzeta industrialdeko D lurzatia.

Dokumentu grafikoaren artean, O-02 planoan lurzatia non dagoen ikusten da.

Sarbidea gaur egun gauzatzen ari diren bidea da; Merkabugatitik gora abiatzen da, N-I errepidearekin lotuta.



3. irudia. ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialean aurreikusi den antolamendua. Iturria: 6. planoa – ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partzialaren zonifikazio xehatua (2010eko azaroa)

Azalera

Lurzatiaren azalera 31.988 m²-koa da (datu hori lurzatiaren hirigintza-fitxatik hartu da).

Lurzoru-mota

Lurzoru naturala. Inbentarioen arabera, jarduketa-eremuan eta inguruan ez dago lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik.

Ibar bat da, industrialdearen kotara heldu arte bete dena.

Atxikitako zerbitzuak

Ez dago.

Errespetatu egin beharko da D lurzatiko ipar-mendebaldeko erpinaren gainean dagoen hegalezorra. W lurzatian egongo den azpiestazio elektriko berrira doan hargunearen 132 kV-eko aireko linea elektriko bat igarotzen da hortik. Orobat, urbanizazio-proiektuan edo xehetasun-azterlanean adierazitako beste edozein zortasun errespetatu beharko da.

Eskura dauden zerbitzuak

Industrialdea eraiki berria izango denez, enpresak egoteko behar diren zerbitzu guztiak izango ditu (hornidura elektrikoa, gasa, edateko ura, ur zikinak husteko sarea, etab.).

Distantzia biziguneetara

Aztertzen ari garen lur-eremuak herriguneetatik 1 km-era baino gehiagora daude (Lasarte Oria, 1,2 km-ra; Zubieta, 1,3 km-ra; Usurbil, 1,5 km-ra).

Jarduketa-eremuaren inguruan, 200 m-ra baino gehiagora, honako hauek daude: baserri bat, Merkabugati eta Zubieta XXI futbol-zelaiak. Dena den, lur-eremuaren konfigurazioaren eraginez (muinoak eta ibarrak), ez dira industrialdetik ikusten.

Aurreikusten diren erabilerak

Iturria: ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partziala (2010eko azaroa)

Hona hemen zer dioen lurzatiaren hirigintza-fitxak: «Lurzatia non dagoen kontuan hartuta, baliteke hiri-hondakinak balorizatzeko Arzabaletako plantako instalazioen plataforma osagarri gisa erabiltzea, edo baliteke lurzati txikiagoetan zatitzea, beharren arabera».

“b.10. Erabilera industrial”.

Lurzati hori erabiltzeko araubide orokorrak parametro hauek beteko ditu:

a) Erabilera bereizgarriak: erabilera industrialak, bateragarriak diren kategoria guztietan, xehetasun-azterlanean finkatutako antolamendu xehatuaren arabera, eta Plan Orokorreko hirigintza-arauetan xedatutako erregulazioarekin.

b) Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

* Erabilera tertziarioak.

- Merkataritza-erabilerak 3. kategoriara arteko merkataritza-erabilerak. Hala badagokio, xehetasun-azterlanean justifikatu beharko dira, eta Udalak onartu beharko lituzke sarbideen funtzionaltasun-baldintzak eta lurzatiaren barruan aparkatzeko eta zamalanetarako espazioen eskuragarritasuna.
- Hotel- eta ostalaritza-erabilera autonomoak, baldin eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea eragiten ez badute.
- Bulego-erabilerak, jarduera industrialekin loturarik ez duten eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea dakartenak izan ezik.
- Olgetarako erabilerak, baldin eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea ez badakarte.
- Beste erabilera tertziario batzuk, jarduera industrialekin loturarik ez duten eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea dakartenak izan ezik.

* Aparkatzeko erabilera.

* Ekipamendu komunitario gisako erabilera. Jarduera industrialekin loturarik ez duten pertsona-kopuru nabarmena egotea ez dakarten mota guztiak.

c) Erabilera debekatuak: aurreko erabilera-motetan adierazi ez direnak.


d) Erabilera bereizgarriak eta onargarriak finkatzeko, Plan Orokorreko hirigintza-arauetan xedatutako baldintzak beteko dira.

3.3.2. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan


3.3.2.1. Aurrekariak

2009ko uztailean behin betiko onartu zen LAPen, hiru hautabide proposatu ziren Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje eta/edo biometanizazio-plantarako, zerbitzu-eremuan banatuta:


1. hautabidea: Zubieta gaina, Zubieta administrazio-eremuan, Donostiako udalerrian.



2. hautabidea: Zaldunborda, Hondarribiko udalerrian.



3. hautabidea: Villabona-Donostialdea triangelua. Honako osagai hauek osatzen dute triangelua: A-8 autobidea, autobide hori eta N-I errepidea lotzen dituen bideak, eta bigarren gerrikoak ingurune horretan egiten duen ibilbideak. Bertan, Donostiako eta Usurbilgo udalerrietako lur-eremuak daude.



Azkenean, 2009 ko uztailean onartutako LAPen, **2. hautabidea** aukeratu zen: **Donostialdea-Bidasoa: Zaldunborda**. Aldatua izan den eremu bat da, eta bertan gerta daitekeen ingurumen- inpaktu globala erdi-mailakoa da. Obretan, aise ekidin daitezke ondarean eragina izan dezaketen arriskuak; zehazki, seinalizazio eta jarraipen egokiak eginez. Halaber, faunak jasan dezakeen eragina konpentsazio- eta hobekuntza-neurriekin apaldu daiteke, inguruan zuhaitz-espezieak landatuz, ingurunearen mesedetan.

Lurzatiaren neurriak bat datoz plantaren beharrekin, eta handitu ere egin liteke, etorkizunean beharrezkoa izanez gero.



4. irudia. Konpostaje eta/edo biometanizazio-plantarako irtenbidea Donostialdea-Bidasoan:
Zaldunborda. Hala ageri zen 2009ko uztailean onartutako LAPen.

Alabaina, 2.1.2 atalean (Plana aldatzeak ase behar dituen beharren justifikazioa; ikusi Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta Donostialdea-Bidasoa eremuan azpiatala) adierazitako arrazoiak direla eta, beste kokapen egoki bat bilatu behar da lehenbailehen, Gipuzkoan biohondakinak kudeatzeko egungo beharrei erantzuten diena.

3.3.2.2. Kokapen-hautabideak

Kokapen posibleak hautatzeko abiapuntuko premisak ziren, batetik, sinergiak izatea beste instalazio batzuekin eta garraio-kostua ahalik eta txikiena izatea (biohondakina ekoizteko grabitate-zentrotik gertu egotea), eta bestetik, herritarrei zerbitzua emango zaiela ziurtatzea hirigintzako baldintzatzaileak eta baldintzatzaile teknikoak aintzat hartuta, baita alderdi ekonomikoak eta denborarekin lotutakoak ere (Hondakinen Kontsortzioaren hasierako aurreikuspenak betetzea).


Hortik abiatuta, indarreko LAPen jasotako hautabideak eta GHHKPOko helburuak betetze aldera (hondakinen kudeaketa zentralizatzea, tratamendu-azpiegiturak multzokatuz), honako kokapen hauek hautatu dira aurretik:

1. hautabidea. Lasarte-Donostialdea triangelua: A-8 autobideak, autobide hori eta N-I errepidea lotzen dituen bideak, eta bigarren gerrikoak ingurune horretan egiten duen ibilbideak osatzen dute triangelua.

2. hautabidea. Eskuzaitzetako D lurzatia (San Markoko Mankomunitatea, Donostiako udalerrria), zaborrak ontzeko plantaren ondoan.

3. hautabidea. Loistegikogainako lurzatia (San Markoko Mankomunitatea, Donostiako udalerria).

Beheko irudian eta dokumentu grafikoen artean dagoen O-03 planoan, hautabideak non dauden ikusten da.



5. irudia. Kokapen-hautabideak Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostake- eta/edo biometanizazio-plantarako.


Hautabideak aztertzeke, 40.000 t/u-ko tratamendu-ahalmena duen planta bat hartu da abiapuntutzat, 60.000 t/u-ko ahalmena izan arte handitu daitekeena. Planta berriaren azalera 25.000 m²-koa izango dela jo da.

Aurreikusi da egunean 170 m³-ko hondakin-bolumena sartzea plantara. Biohondakina biltzeko kamioiek 5-24 m³ arteko edukiera izan dezaketela (biohondakinen behe- eta goi-hornidurarako batez besteko balioak) jakinik, egunean 10-21 ibilgailu arteko fluxua egongo dela uste da.

1. hautabidea. Lasarte-Donostialdea triangelua

Kokapena eta sarbideak

Aztertzen ari garen lur-eremuak Usurbilgo udalerrian eta Donostialdea artean daude. Hona hemen eremu horren mugak: A-8 autobidea, autobide hori eta N-I errepidea lotzen dituen bidea, eta bigarren gerrikoaren ibilbidea.



6. irudia. 1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea triangelua, Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostake- eta/edo biometanizazio-plantarako.

Dokumentu grafikoen artean, O-03A planoan lurzatia non dagoen ikusten da.

Jarduketa-eremura sartzeko, lotura bat egingo litzateke Aritzetako zerbitzugunetik abiatuta, GI-20 errepidean (garai bateko AP-8).

Azalera

Plantak, gutxi gorabehera, 25.000 m²-ko azalera behar du. Ez dago mugarik zentzu horretan; aldiz, lur-eremuko topografiak jartzen du muga bakarra, inguru horretan goraguneak eta ibarrak baitaude (hondeatze- eta betetze-lanak egin beharko dira), eta baliteke ubide txikiak aurkitzea kokapenean zehar.

Lurzoru-mota

Lurzoru naturala. Inbentarioen arabera, jarduketa-eremuan eta inguruan ez dago lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik.

Lur-eremuaren konfigurazioa

Ibar txikiak dauden inguru garaia denez gero, lurra mugitu beharko da, eta hondeatze-soberakinak eta betelanak konpentsatzeko ahalegina egingo da.

Atxikitako zerbitzuak

Intereseko eremuan, zenbait baserri daude, baita goi-tentsioko linea bat ere (30 kV).

Eskura dauden zerbitzuak

Arestian adierazi bezala, goi-tentsioko linea bat dago, baita edateko uraren hornidura ere, inguru horretako baserrientzat.

Distantzia biziguneetara

Gertuen dauden biziguneak aztergai dugun eremutik 1 km-era baino gehiagora dago. Kokapenaren inguruan, zenbait baserri daude.

Aurreikusten diren erabilerak

Donostiako Hiria Antolatzeko Plan Orokorren arabera (2010-06-25ean onartu zen behin betiko), lurzatia lurzoru ez-urbanizagarrian dago.

2. hautabidea. Eskuzaitzeta

Kokapena eta sarbideak


Planta berria kokatzea proposatzen den lur-eremuak Eskuzaitzeta industrialdean daude, D lurzatian, zaborrak ontzeko plantaren ondoan.



7. irudia. 2. hautabidea: Eskuzaitzeta, Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako.

Dokumentu grafikoen artean, O-03B planoan lurzatia non dagoen ikusten da.

Sarbidea gaur egun gauzatzen ari diren bidea da; Merkabugatitik gora abiatzen da, N-I errepidearekin lotuta.



8. irudia. ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alarreko Plan Partzialean aurreikusi den antolamendua.
 Iturria: 6. planoak – ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alarreko Plan Partzialaren zonifikazio xehatua
 (2010eko azaroa)

Azalera

Lurzatiaren azalera 31.988 m²-koa da (datu hori lurzatiaren hirigintza-fitxatik hartu da), nahikoa zaborrak ontzeko planta eta biometanizazio-planta ezartzeko, bi instalazioek zerbitzu orokor berak erabiliko lituzkete eta (bulegoen eraikina, aparkalekuak, baskulak, etab.).

Lurzoru-mota

Lurzoru naturala. Inbentarioen arabera, jarduketa-eremuan eta inguruan ez dago lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik.

Ibar bat da, industrialdearen kotara heldu arte bete dena.

Atxikitako zerbitzuak

Ez dago.

Errespetatu egin beharko da D lurzatiko ipar-mendebaldeko erpinaren gainean dagoen hegalezorra. W lurzatian egongo den azpiestazio elektriko berrira doan hargunearen 132 kV-eko aireko

linea elektriko bat igarotzen da hortik. Orobat, urbanizazio-proiektuan edo xehetasun-azterlanean adierazitako beste edozein zortasun errespetatu beharko da.

Eskura dauden zerbitzuak

Industrialdea eraiki berria izango denez, enpresak egoteko behar diren zerbitzu guztiak izango ditu (hornidura elektrikoa, edateko ura, ur zikinak husteko sarea, etab.).

Distantzia biziguneetara

Aztertzen ari garen lur-eremuak herriguneetatik 1 km-era baino gehiagora daude (Lasarte Oria, 1,2 km-ra; Zubieta, 1,3 km-ra; Usurbil, 1,5 km-ra).

Jarduketa-eremuaren inguruan, 200 m-ra baino gehiagora, honako hauek daude: baserri bat, Merkabugati eta Zubieta XXI futbol-zelaiak. Dena den, lur-eremuaren konfigurazioaren eraginez (muinoak eta ibarrak), ez dira industrialdetik ikusten.

Aurreikusten diren erabilerak

Iturria: ZU.08 Eskuzaitzeta hirigintza-alorreko Plan Partziala (2010eko azaroa)

“b.10. Erabilera industrial”.

Lurzati hori erabiltzeko araubide orokorrak parametro hauek beteko ditu:

a) Erabilera bereizgarriak: erabilera industrialak, bateragarriak diren kategoria guztietan, xehetasun-azterlanean finkatutako antolamendu xehatuaren arabera, eta Plan Orokorreko hirigintza-arauetan xedatutako erregulazioarekin.

b) Erabilera bateragarriak edo onargarriak:

* Erabilera tertziarioak.

- Merkataritza-erabilerak 3. kategoriarako arteko merkataritza-erabilerak. Hala badagokio, xehetasun-azterlanean justifikatu beharko dira, eta Udalak onartu beharko lituzke sarbideen funtzionaltasun-baldintzak eta lurzatiaren barruan aparkatzeko eta zamalanetarako espazioen eskuragarritasuna.
- Hotel- eta ostalaritza-erabilera autonomoak, baldin eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea eragiten ez badute.
- Bulego-erabilerak, jarduera industrialekin loturarik ez duten eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea dakartenak izan ezik.
- Olgetarako erabilerak, baldin eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea ez badakarte.
- Beste erabilera tertziario batzuk, jarduera industrialekin loturarik ez duten eta kanpoko pertsona-kopuru nabarmena egotea dakartenak izan ezik.

* Aparkatzeko erabilera.

* Ekipamendu komunitario gisako erabilera. Jarduera industrialekin loturarik ez duten pertsona-kopuru nabarmena egotea ez dakarten mota guztiak.


c) Erabilera debekatuak: aurreko erabilera-motetan adierazi ez direnak.

d) Erabilera bereizgarriak eta onargarriak finkatzeko, Plan Orokorreko hirigintza-arauetan xedatutako baldintzak beteko dira.

3. hautabidea. Loistegikogaina

Kokapena eta sarbideak

Planta berria Aingeru Guarda-Arrizetako zubiko ipar mazelako goiko zatian egongo litzateke, Igara errekaaren arroaren hegoaldeko ertzean. Horretarako, Donostiako Udalerrian kokatutako muinoaren zati bat induskatu eta aldameneko ibarraren zati bat bete beharko litzateke.



9. irudia. 3. Hautabidea: Loistegikogaina, Donostia-Bidasoako konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantarako kokapenerako.

Dokumentazio Grafikoko O-03C planoan lursail horren kokalekua ageri da.

Aritzeta Zerbitzugunearen maila berean egingo den bide berritik abiatuz sartu ahalko da.

Azalera

Ez dago baldintzatzailerik instalazio berriak eraikitze beharrezko espazioaren disponibilitateari dagokionez. Ezaugarri baldintzatzaile bakarra lursailaren beraren topografia da (muino eta ibarrak dituen orografia irregularreko eremua da).

Lurzoru-mota

Lurzoru naturala. Jarduketa-eremuan eta inguruan ez dago inbentariatuta jarduera kutsatzaileko kokapenik.

Lursailaren konfigurazioa

Biometanizazio-planta eraikiko den plataforma konfiguratu ahal izateko eta sarbideak eraikitze lurre mugitu beharko da. Komenigarria litzateke lur-mugimendu horiek orekatzea, hau da, betetzeko materialik ez ekartzen eta indusketetan gehiegizko materialik ez ateratzen saiatu behar da.

Atxikitako zerbitzuak

Kokapenaren arabera, baliteke bertatik igarotzen den aireko linea bat desbideratu behar izatea.

Eskura dauden zerbitzuak

Inolako jarduerarik gabeko mendi-eremua denez, ez du industria-planta bat ezartzeko beharrezko zerbitzurik eskuragarri. Biometanizazio-planta bertan instalatuz gero, kontuan hartu beharko da beharrezko hornikuntzen kostua, hala nola, planta ur edangarriz hornitzea, ur zikinen hustea...

Aztertu beharreko lurzatie 30 kv-ko linea elektriko batek zeharkatzen du.

Distantzia biziguneetara

Loistegikogaina lurzatiaren eta herriguneen artean 1 km baino gehiagoko tartea dago. Hala, Ibaeta-Igara 1,4 km-ra dago, Añorga-Rekalde 1,5 km-ra, Txikierdi 1,4 km-ra, Lasarte 1,6 km-ra eta Usurbil 2,2 km-ra.

Kokalekuan ez dago eragina jasan lezakeen eraikuntzarik. Inguruan baserri bakan batzuk daude (Intxaurzabal etxea eta Muñalegor baserria), baita Aritzetako restopa ere.

Aurreikusten diren erabilerak

Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorren arabera (2010/06/25ean behin betiko onartua), lurzatie Lurzoru Urbanizaezinean dago.

3.3.3. Sasieta Mankomunitateko Transferentzia-estazioa

3.3.3.1. Aurrekariak

2009ko uztailan behin betiko onartu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planak aipatzen zuen beharrezkoa zela Sasieta Mankomunitatean transferentzia-estazio bat eraikitzea Sasietako Zabortegiaren inguruko kokaleku egoki batean. Hori esateko, honako arrazoi hauek erabili ziren:

- Ingurumen aldetik kaltetuta dauden eremuak erabiliko lirateke, azpiegitura horren eraikuntzaren bidez eremu horiek berrezartzeko eta leheneratzeko.
- Sasietako zabortegiaren ondoko eremua egoera onean dago; ez da nabari kanpoko usainik, haizeak garraiatutako hondakinik, ezta sarbidean hondakinak isurketarik ere...
- Zabortegiaren egungo azpiegiturak, zerbitzuen hartuneak eta sarbideak erabiliko lirateke.



10. irudia. Sasietako Zabortegiaren kokalekua (Sasieta Mankomunitatea)

Azpiegitura hori eraikitzeko honako kokalekuak proposatu ziren:


- 1. hautabidea: Sasietako Zabortegia
- 2. hautabidea: Sasietako Zabortegiaren ondoko eremua
- 3. hautabidea: Sasietako Zabortegiaren ondoko ibarra



11. irudia. 1, 2 eta 3 kokalekuak, Sasietako Zabortegiaren barnean (Sasieta Mankomunitatea)

Aurrekoen artean, LAPEk 2. hautabidea: Sasietako Zabortegiaren ondoko eremua garatzeko proposamena egin zuen, honako arrazoi hauek zirela medio:

- Azpiegitura egiteko nahikoa handia zen
- Egokitzapen-lan gutxiago behar zuen
- Zabortegiaren egungo azpiegiturak, zerbitzuen hartuneak eta sarbideak baliatzeko aukera ematen zuen



12. irudia. Sasieta Mankomunitateko TE: 2009ko LAPen aukeratutako hautabidea – Sasieta
Zaborteziaren ondoko eremua

Hala eta guztiz ere, **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** atalean azaldutako arazoiengatik –laburbilduz, transferentzia-estazioa instalatzeko azalera handiagoa behar denez–, kokaleku berri baterako hautabideak bilatuko dira.

3.3.3.2. Proposatutako azpiegituraren deskribapen orokorra

Aztertuko den instalazioak hiru tobera izango ditu; horietako bik batera bildutako hiri-hondakinak (edukiontzi berdea) tratatuko dituzte, eta hirugarrena, aldiz, gaikako bilketaren bidez bildutako biohondakinak lekuz aldatzeko erabiliko da. Azpiegituraren estetikari dagokionez, egitura arin baten bidez erabat itxitako nabea izango da. Hiru deskarga-eremuetara sartzeko ate batzuk egongo dira, beraz inpaktu bisuala nabarmen murriztuko da.

Azpiegitura hau eraikitzeko gutxieneko azalera honako bi faktoreen arabera da: tolbak plantan izango duten kokapena eta bi plataformak bi maila desberdinetan edukitzeko aukera izatea. Hala ere, gutxienez 4.000 m²-ko azalera izatea jotzen da abiapuntutzat.

3.3.3.3. Kokapenerako hautabideak

Hautabide desberdinak bilatzeko garaian, errepide-saretik gertuko, industria-eremuetan kokatutako eta inpaktu gutxiko kokalekuek izan dute lehentasuna. Honako hiru lurzati hauek hautatu dira:

1. hautabidea: H lurzatia, Altune industrialdea (Olaberria)

2. hautabidea: Alegi auzoko lurzatia (Ormaiztegi)


3. hautabidea: Sasieta Zabortegiko lursaila

Erantsitako irudian eta Dokumentazio Grafikoko O-04 planoan lurzati horien kokapenak ageri dira.

1. hautabidea. H lurzatia, Altune industrialdea (Olaberria)

Kokapena eta sarbideak

Lurzatia Olaberriko Altune industrialdean dago eta H lurzatia izena du Olaberriko Arau Subsidiarioetako "Altune" 41. Industria Sektoreko Jardun Unitatean.



13. irudia. 1. hautabidea: Olaberria kokapena (Sasieta Mankomunitateko TE).

Dokumentazio Grafikoko O-04A planoan lurzati hori agertzen da.

Jarduera-eremurako sarbidea N-I errepidean egongo litzateke, Olaberritik igarotzen den tartean, industrialdeko sarbideak baliatuz. Horretaz, mesede egingo lioke etorkizuneko Gipuzkoako Ingurumen Gunera (GIG) emango duen Donostiarako koridoreari eta Sasieta Mankomunitateko tratamendu- eta bilketa-puntu desberdinekin izango lukeen komunikazioari.

Lurzatiak aukera ematen du bi sarbide izateko, bi maila desberdinetan.



Azalera

Lurzatiak 4.220 m²-ko azalera du, beraz ezarri den abiapuntuko baldintzatzailea betetzen du.

Lurzoruaen tipologia

Lurzatia ez dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan*. Lehen begiratuan badirudi ez dagoela betelan antropikorik, eta gainazalean lursail naturala azaleratzen dela ikus daiteke.



Lursailaren konfigurazioa

Hiruki formako lurzati da. Badirudi ez dela lur-mugimendu handirik egin behar, bi plataformak eraikitzeak salbu. Lan hori egiteko faktore mesedegarria da lurzatira bi mailetatik sartzeko aukera izatea (ikus Kokapenak eta sarbideak azpiatala).

Atxikitako zerbitzuak:

Lurzatiaren atzealdean industrialdea zeharkatzen duen bidegorria dago. Azpiegitura kokaleku horretan egiten bada, bidegorriaren trazatua aldatu beharko da zerbitzua trabarik gabe ematen jarrai dezan.

Lurzatiaren iparraldeko eremuan etxebizitza bat dago. Ekialdean eta hegoaldean bi pabiloi industrial daude.

Goi-tentsioko linea elektriko batek goitik zeharkatzen du lurzattia. Iskinetako batean gutxi gorabehera 13 kV-ko banaketa elektrikoko beste linea bat duen zutaina dago; tarte batean lurperatua dago eremu perimetralean, industrialdearen ondoan.

Eskura dauden zerbitzuak

Industrialdean kokatuta legokeenez, lurzatiak jarduerarako beharrezko zerbitzu guztiak ditu eskura (elektrizitatea, edateko uraren hornidura, ur zikinen kanporatzea...).

Herriguneetarako distantzia

Lurzatiaren iparraldean kokatutako etxebizitza salbu, gertueneko etxebizitza-multzoa 500 m-ra dago, gutxi gorabehera. Hala ere, jarduera industrialdearen barnean egingo litzateke.

Kamioiek ez lukete herrigunetik igaro beharrik izango, N-I errepidetik joango lirateke eta industrialdera zuzenean sartuko lirateke. Industrialdera iritsi aurreko azken zatian, aurretik aipatu etxebizitza-multzotik gertu zirkulatu beharko dute.



Aurreikusitako erabilerak

Indarrean dagoen planaren arabera, lurzatiak Merkataritza eta/edo Gizarte Ekipamendurako erabilera du, honako erabileren erregimen honekin:

Erabilera bultzatuak:

Herriaren zein gizartearen intereseko ekipamendu komunitarioa, "Altune" 41. Sektorearen zerbitzurako merkataritza- eta gizarte-ekipamenduarekin lotutako aldaeretan.

Erabilera onargarriak:

Etxebizitza, soil-soilik ekipamenduen erabileraren osagarri gisa (etxebizitza).


Garajea.

Erabilera debekatuak: bereziki baimendu ez diren guztiak.

2. hautabidea. Alegi auzoko lurzattia (Ormaiztegi)

Kokapena eta sarbideak

Lurzattia GI-632 errepideko 5. irteeraren ondoan dago.



14. irudia. 2. hautabidea: Ormaiztegi kokalekua (Sasieta Mankomunitatearen TE)

Dokumentazio Grafikoko O-04B planoan lurzati horren kokalekua ageri da.

Lurzatiarako sarbidea GI-632,errepideko 5. irteera litzateke eta egungo bidea egokitu beharko litzateke.



Azalera

Lurzatiak 13.900 m²-ko azalera du, beraz ezarri den abiapuntuko baldintzatzailea aski betetzen du.



Lurzoruaen tipologia

Lurzatia ez dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan*. Hala eta guztiz ere, betelana da eta, ondorioz, baliteke lur eta harkaitz naturaleko material desberdinak egotea, beraz, *ekainaren 25eko 4/2015 Legeak*, *lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak* xedatutakoari jarraitu beharko zaio.



Lursailaren konfigurazioa

Bi plataformek osatutako lurzati laua da. Badirudi ez dela lur-mugimendu handirik egin behar.

Atxikitako zerbitzuak:

Lurzatiaren inguruan ez dago eraginda suerta daitekeen instalazio/zerbitzurik. 300 m-ra, zuzen-zuzenean, pabiloi industrial batzuk daude, baina ez dute eraginik jasango.

Eskura dauden zerbitzuak


Kokalekutik gertu honako zerbitzu hauek daude: gasa, elektrizitatea, telefonoa.

Herriguneetarako distantzia

450 m-ra, Gabiriako Alegi auzoko etxebizitzak daude.

Aurreikusitako erabilerak

400 m-ra abiadura handiko trenaren trazatua dago, beraz azpiegituren arteko mugalerroak errespetatu beharko dira.



3. hautabidea. Sasietako Zabortegia

Mankomunitate horrek Sasietako Zabortegia duenez, transferentzia-estazioa bertatik gertu egotea egokitzen da.

Kokapena eta sarbideak

Lurzatia zabortegiaren mugen barnean dago eta bertarako sarbideak egoera onean daude. Zabortegia Beasaingo Salvatore auzoan dago.

Dokumentazio Grafikoko O-04C planoan lurzati horren kokalekua ageri da.

Lurzatira sartzeko GI-2632 errepidea erabiliko litzateke eta, ondoren, zabortegiaren beraren bideak.


Azalera

Ez dago mugarik azalerari dagokionez, baina kontuan hartu behar da azpiegitura lurzoru naturalean egingo dela eta ez duela zaborteziaren zigilatzean eraginik izango.

Lurzoruaren tipologia

Lurzatia zaborteziaren mugen barruan dago, baina azpiegitura ez da isurpen-masaren gainean eraikiko, lurzoru naturalean baizik; beraz, ezegonkortasun geoteknikoko arazoak baztertu dira. Egun, soilik zaborteziaren zati bat dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan* (eta ez da hautabide gisa proposatutako azalera). Hala ere, baliteke Inbentarioa eguneratzean azalera hori zabaltzea eta, beraz, *ekainaren 25eko 4/2015 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak* xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Hala ere, nabarmendu beharra dago proposatutako azpiegitura isurpen-masatik kanpo egongo dela eta ez diola eragingo kokapenaren zigilatzeari.



Lursailaren konfigurazioa

Lurzatia erabat laua da. Badirudi ez dela lur-mugimendu handirik egin behar.

Atxikitako zerbitzuak:

Lurzatiaren inguruan ez dago eraginda suerta daitekeen instalazio/zerbitzurik.

Eskura dauden zerbitzuak

Kokalekutik gertu honako zerbitzu hauek daude: gasa, elektrizitatea, telefonoa.

Herriguneetarako distantzia

Kokapenaren eta gertueneko herrigunearen artean (Beasain) 2 km baino gutxiagoko tarte dago.

Aurreikusitako erabilerak

Lurzatia sasietako zabortejiaren barnean dago. Zabortejiak 2015ean utzi zuen jarduera, eta egun zigilatze eta ixteko lanak prestatzen ari da. Azpiegitura lurzoru naturalaren gainean egongo litzateke, baina ez lioke eragingo isurpen-masaren zigilatzeari eta ez lieke oztoporik jarriko zaborteji itxi ondoreko kontrol- eta jarraipen-lanei.

3.3.4. Debabarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioa

3.3.4.1. Aurrekariak

2009ko uztailan behin betiko onartu zen LAP izapidetu bitartean, Debabarrena Mankomunitateari zerbitzua emateko transferentzia-estazioa ezartzeko hiru hautabide aztertu ziren:

1. hautabidea Elgoibar, Bilbo-Donostiako autobidearen sarreratik gertu, Ballibar industrialdean, Ego ibaiarekin eta N-634 errepidearekin muga, jarraian aurkezten den irudian ikus daitekeen moduan.



15. irudia. Debabarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 1.
hautabidea: Elgoibar, 2009ko uztailan onartutako LAPen

2. hautabidea: Eibar. Eibarko erdigunetik 2 km-ra, Elgetako errepidean, egungo TE eta haren lantegiak eta biltegia dauden lekutik 200 bat metrora. Kokapenak 3.774 m² ditu eta Eibarrekin ongi komunikatua dago, eskualde-errepidearen alboan baitago eta kokapenerako sarbide zuzena baitu.



16. irudia. Debabarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 2. hautabidea: Eibar, 2009ko uztailan onartutako LAPen

3. hautabidea: Urruzunoko Zabortegia Urruzuno auzoan dagoen eremua, Elgoibarko kanpoaldean. Mendiz eta baserriz inguraturiko eremu naturala da.



17. irudia. Debabarrena Mankomunitateko Transferentzia-estazioaren kokalekua - 3. hautabidea: Urruzunoko Zabortegia, 2009ko uztailan onartutako LAPen

LAPen Hasierako Onarpenerako hautaketa-fasean hiru hautabideak aztertu ondoren, hautabide gomendagarriena **2. hautabidea: Eibar** zela erabaki zen. Horretarako, honako arrazoi hauek erabili ziren:

- Debabarrena eskualdeko goiko eremuan sortutako hiri-hondakinen grabitate-zentroa da.
- Sarbidea du Eibarko eskualde-errepidera eta Bilbo-Behobia autobidera eta, beraz, garraioaren logistika erraza eta eraginkorra eskaintzen du.
- Ez da lanik edo errepiderik egin behar lurzatira sartzeko, errepide hori eskualde-errepidera lotuta baitago. Kokalekua TEko lantegitik gertu egoteak abantaila eskaintzen du hiri-hondakinak modu eraginkorragoan kudeatzeko.
- Kamioiak erraz igaro eta maniobratu dezakete kokapenean.

Kontrakoz, 1. hautabidea: Elgoibar lurzatiko azalera txikitzen eta mugatuz hartu zen, ibaiarekin, errekearekin eta N-634 errepidearekin mugatzen baitzuen. 3. hautabideko sarbideak zailak ziren, eremuak landaguneak zeharkatzen baitzituen eta bideen azpiegitura hobetu beharra baitzegoen.

Hasieran aipatu hautaketaren ostean, eta 2. hautabidearen kokapena egokiena zela are modu zehatzagoan berresteko asmoz, 2008ko azaroan azterketa geoteknikoa egin zen eremu hartan. Azterketaren arabera, hautatutako lursailak gabeziak zituen zimentazio egokiko soluzioei, betelan antropikoen egonkortasunei eta beharrezko bidezaintzarako duen gaitasunari dagokienez.

Hortaz, aldeko faktoreak eduki arren, lurzatiaren muga geoteknikoek eraginda, ez zen behin betiko hautatu eta 2. hautabidea ere baztertu egin zen.

LAPeko azken ondorioaren arabera, beharrezkoa zen azterketa berri bat egitea Debarrena Mankomunitateko TE eraikitzeko hautabideak bilatzeko. Horren hautaketa eta eraikitzea berretsi bitartean, Mankomunitateak Mutrikuko eta Eibarko Transferentzia-estazioen zerbitzuak izango zituen.

3.3.4.2. Elgoibarko Transferentzia-estazioa

Gaur egun arte, eta mankomunitatean hondakinak kudeatzeko azpiegitura baten behararen aurrean, 2011-2012an transferentzia-estazio bat eraiki zen Elgoibarko Arriaga industrialdean, 2013an abian jarri zena.

Kokapen hori hautatzean, honako aspektu hauek positiboki baloratu ziren:


- Industrialde batean eta bertako iparraldeko muturrean egotea eta, ondorioz, eragina txikiagoa izatea.
- Sarrera/irteera zuzena izatea bide nagusietara, herriguneak zeharkatu beharrik gabe. Kokapena Arriaga industrialdean dago, Elgoibarko erdigunetik 2 km-ra, gutxi gorabehera.
- Elgoibarko Udalak aurreikusia zuen Garbigune bat eraikitzea ondoan (dagoeneko eraikia da), beraz horrek udalerrian/mankomunitatean hondakinak kudeaketa zentralizatzeko aukera eskaintzen du.
- Lurzatia industrialde batean eta mankomunitateko Garbigunearen ondoan dagoenez, proiektatutako instalazioak eskura ditu funtzionatzeko behar dituen zerbitzuak.
- Lurzatia EZ dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan.*

Beraz, azpiegitura hori Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegituren mapan finkatu eta erantsi da.

3.3.5. Txingudiko Mankomunitateko Trukatze-plataforma

Txingudiko Mankomunitatearen baitan Irungo eta Hondarribiko udalerrak daude, GIG1etik 24 eta 27 km-ra, hurrenez hurren. 2002-2016ko GHHKPOren Aurrerapen Agiriko irizpide orientagarrien arabera, 30 km baino gutxiagoko distantzietan edo 25 minutu baino gutxiagoko garraio-denboretan posible da bazarako kamioiek hondakinak garraiatzea horiek sortutako lekutik tratatuko diren lekura arte. Hortaz, GIG1a abian jarri ostean, eta aipatu dokumentuko irizpideak jarraituz, Txingudiko Mankomunitateak ez du transferentzia-estaziorik beharko.

Egun, eta GIG1 abian jarri arte, kutxen trukatzeko-plataforma bat behar da etxeetako bajako bilketaren eta altako garraioaren artean. Plataforma hori Arason dago, mankomunitateko Garbiguneko mugen barruan.



18. irudia. Txingudiko Mankomunitateko Trukatze-plataforma

Beraz, azpiegitura hori Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko azpiegituren mapan finkatu eta erantsi da, Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG) abian jarri arte.

4. Ingurunearen deskribapena eta haren ezaugarriak

LAPen jarduketaren lurralde-eremua GHHKPOren eta haren Aurrerapen Agiri bera da, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikora mugatzen da, bertan honako zortzi mankomunitate hauek integratuta daudelarik: Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta, Debagoiena, Debabarrena, Tolosaldea, San Markos eta Txingudi; horiek guztiek, udalerriekin batera, hiri-hondakinak kudeatzen dituzte. Hala ere, kasu honetan, azaldutako aldaketak Txingudi, Debabarrena, Sasieta, Urola Kosta eta San Marko mankomunitateetara mugatzen dira.


4.1. Lurraldeko ingurumen- eta paisaia-unitate homogeneousen definizioa

Aztertutako hautabide bakoitzeko ingurumen-unitate bana definituko da. Ingurumen-unitate bakoitzerako ingurumen-inbentario eta inbentario kultural eta sozioekonomiko xehatu bat egingo da; horien bidez, planifikazio-dokumenturako ezarritako definizio-mailarekin baloratu ahalko dira proposatutako azpiegituraren eraginak.

4.2. Aztertutako hautabideen ingurumen-inbentarioa

4.2.1. Zepak heltzeko plantarako ingurumen-inbentarioa

3.3.1. atalean azaldutako arrazoiak medio, zepak heltzeko plantarako ez da kokalekuen hautabideen azterketarik egingo; horren ordez, GIG-1etik gertu eraikiko den Eskuzaitzeta industrialdean egitea proposatu da.



19. irudia. Zepak heltzeko planta kokatzeko proposamena

Jarraian, proposatutako eremuaren ingurumen-deskribapena aurkezten da, gaur egungo egoera oinarri hartuz; **hala ere, azpiegitura «ZU.08 Eskuzaitzeta» eremuko urbanizazio-proiektuan proposatutako industrialdea eraiki ostean egingo da. Proiektu horrek dagoeneko badu ALDEKO(*) emaitza Ingurumen Eraginaren Adierazpenean, beraz inguruneke aldaketek ez dute zerikusirik izango aztertutako azpiegitura eraikitzearekin.** Kasu honetan, espero diren inpaktuak dagokion lurzatian eraikiko den azpiegiturekin eta instalazioaren funtzionamenduarekin dute lotura.

(*) 2011ko martxoaren 18ko EBAZPENaren arabera, Ingurumen sailburuordearena, Donostiako udalerrian «ZU.08 Eskuzaitzeta» eremua urbanizatzeko egitasmoak Ingurumenean duen Eraginaren Adierazpena egiteko dena.

Ezaugarri klimatiko, geologiko, geomorfologiko, geologiko eta edafologikoak

Azterketa-eremutik gertuen dagoen meteorologia-estazio osatua “Igeldo” Donostiako Meteorologia Behatokia da. Aztertuko den eremua **Europar balio plubiometrikoko altuenetakoa duen zerrenda geografiko batean dago**, eta bertako prezipitazioa guztiak euri-formakoak dira.

Klimari dagokionez, aztertuko den eremua Usurbilgo eta Donostialdeko udalerrien artean dago. Lurralde klimatikoaren sailkapenean, udalerri horiek isurialde atlantikoan daude. Isurialde atlantikoak Bizkaia eta Gipuzkoako probintzia osoak eta Euskadi Kontinentalak eta Arabako iparraldeak hartzen ditu barne. Klima mesotermikoa da, tenperatura neurritsukoa eta oso euritsua. Klima horrek urte-sasoi lehorrik gabeko klima epel hezea edo klima atlantikoa du izena. Ozeano Atlantikoak eragin nabarmena du klima mota horretan; ozeanoko ur epelek aire-masen tenperaturak leundu egiten dituzte, eta horiek kostara iristean eragin nabarmena dute oszilazio termikoan, eguna eta gauaren edo uda eta neguaren arteko tenperaturen gorabeherak murrizten baitituzte. Faktore orografikoaren ondorioz, Euskal Herriko isurialde atlantiko guztian euri-kopuru handiak egoten dira, urtero batez beste 1.200 eta 2.000 mm baino gehiago bitarteko prezipitazioak daudelarik.

Eremu horretako batezbesteko tenperatura 13,5 °C-koa da. Hilabete beroenetan batezbesteko tenperatura 18,80 °C-koa da, eta hilabete hotzenetan 8,80 °C-koa. Urteko batezbesteko prezipitazioa 1.507 mm-koa da. Datu horiek guztiak 1981-2010 bitartekoak dira.

Kokalekua Donostialdean dago. Hainbat ikerketen arabera, ibilgailuen zirkulazioa da kutsadura atmosferiko gehien sortzen duen faktorea.

Azken urteotan, Donostialdeko **airearen kalitatearen indizearen** kalifikazioa Oso ona izan da.

Azterketa-eremuak hiru goi-ibar eta horien ibaiarteak hartzen ditu; **geologiari** dagokionez, Behe Kretazikoko pasada hareatsuak dituzten kareharrizko limolita beltzen gainean daude. Batik bat limolita beltzak dira, masiboak, eta zentimetro batzuko zenbait pasada hareatsurekin.

Eskuzaitzeta eremua “Estenaga mendiko terrazak” Interes Geologikoko Eremuan dago. 40, 80 eta 100 metroko altueran dauden terrazen gaineko metakinak dira, ibaiaren egungo thalwega 20 m-an delarik. Alubioizko jatorria duten metakin horiek lehen-mailako garrantzia dute erliebe Kuaternarioak behe Orian izandako eboluzioan. Terrazetako metakinek interes zientifiko eta didaktikoko eremua osatzen dute eskualde-mailan, irisgarritasun erregular eta hauskortasun handikoa.

Lursailaren morfologia eta ezaugarri litologikoak kontuan hartuta, esan beharra dago **jatorri geomorfologikoko arriskua badagoela**. Eskuzaitzeta eremua Oriaren gaineko terrazetako metakin-multzo batean dago. Erliebeari dagokionez, maldak ertainak dira eta proportzio buztintsua duen ingurune geologiko limolitikoan daude. Eremuaren egonkortasuna ertaina-baxua da, eta malda handieneko eremuetan higadura-prozesuak jasateko joera du, prozesu horiek bultzatzen dituzten baldintzen pean, hots, landaredia ezabatzean, oingabetzeak eta luerauzketak gertatzean... Babes naturalik gabe, jariatze-urek lurgaineko metakinak ezegonkortzeko moduko higadura eragin lezakete, eta faktore hori kontuan hartu beharra dago. Horrez gain, lurgaineko metakinek asentuko eta sostengu-ahalmen baxuko arazoak izan ditzakete, material geologiko kontsolidatuen sostengu-ahalmen desberdinek eraginda.

Azkenik, esan beharra dago azterketa-eremuan ez dagoela Gipuzkoako Espeleologia Katalogoan jasotako kobarik.

Edafologiari dagokionez, eta Gipuzkoako Agrologia Moten Mapa oinarri hartuta, azterketa-eremuan VI. eta VII. motako lurzoruak daude, biak laborantza onartzen ez duten lurzoru gisa sailkatuak. VI. motako lurzoruak VII. motakoak baino malda txikiagoko lursailetan daude.

Aurrenekoak ez dira nekazaritzarako egokiak, malda handiak, sakonera erabilgarri gutxi eta harri gehiegi dutelako. Egokiago litzateke lurzoru horiek belar edo zurezko landaredia mantentzeko erabiltzea. Bertako baldintza topoedafikoak ikusirik, posible da ekoizpen-prozesua hobetzea lurzoru ongarrirituz, berrereinez, etab. VII. motako lurzoruak erliebe irregularragoa eta malda handiagoak dituzten eremuetan daude eta baso-lurtzat hartzen dira. Lurralde honetan malda handiak eta prezipitazio altuak dira nagusi eta, ondorioz, oso garrantzitsua da egungo landare-estaldura mantentzea.


Iholbek egindako **Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioa** kontsultatu da, eta ikusi da eremu horretan ez dagoela inbentariatutako kokapenik.

Lurgaineko eta lurpeko hidrologia

Azterketa-eremuko sare hidrologikoa Oria ibaiaren arroan dago eta hainbat errekek osatzen dute. Oria ibaiaren arroa Gipuzkoako ibaietatik handiena da, 882,5 km² dituelarik, eta arroaren zati bat Nafarroako Foru Erkidegoan zehar zabaltzen da. Guztira, ur-ibilgua 82,7 km luze da. Ur-

korronteen zenbaketan eta kontaktetan oinarritutako Horton eta Strahlerren sailkapenaren arabera, ur-ibilgua 6. motakoa da.


Hasiera batean, azterketa-eremua hainbat errekek zeharkatzen dute: Latxaga eta haren bi adar: Urepel eta Añau. Horton eta Strahlerren sailkapenaren arabera, 1. edo 2. motako ur-ibilguak dira horiek. Nolanahi ere, emari gutxiko ur-ibilguak dira, 10 km² baino azalera txikiagoko azpi-ibarren parte direnak (EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana).



20. irudia. Eskuzaitzeta industrialdean egindako lur-mugimenduen aurretik zegoen Lurgaineko hidrologia

Industrialde berria² eraikitzeke egin ziren lur-mugimenduek lurpeko hidrologian eragin nabarmena izan zuten, hainbat ur-ibilguren geometria aldatu zutelako. Ondorengo irudian D lurzatiko eremuko hidrologia ebazteko irtenbidea aurkezten da (betelanak egin aurretik).

² 2011ko martxoaren 18ko EBAZPENA, Ingurumen sailburuordearena, Donostiako udalerrian «ZU.08 Eskuzaitzeta» eremua urbanizatzeko egitasmoak Ingurumenean duen Eraginaren Adierazpena egitearen aldeko dena.



21. irudia. D lurzatian egindako ibar-hondoaren drainatzea (Iturria: "ZU.08 Eskuzaitzeta" Hirigintzako Arloko Proiektuko 6. plano. B, R, W, C eta D lurzatiak berdintzeko lur-mugimenduen lanak, 2010eko azaroa, Ikaur)

Hidrogeologiaren ikuspuntutik, azterketa-eremua oso homogeneoa da eta ez du interes bereziko aspekturik, berau osatzen duten materialek ura biltzeko gaitasun txikia baitute. Bere osotasunean, eremuak bi unitate litologiko ditu. Lehenbizikoa lutitek eta limolitek osatzen dute, hareharritzko barretan indibidualizatzen diren hareharritzko bankuak dituztenak. Lutitek osatutako unitateak porositatearen ondoriozko iragazkortasun oso baxua du, eta ez da akuiferoak kutsatzeko arriskurik hauteman bertan. Bigarren unitate litologikoak Oria ibaiaren araneke ibai-metakin zaharrak hartzen ditu barne. Material horiek porositatearen ondoriozko iragazkortasun ertaina dute; hala ere, akuiferoak kutsatzeko arriskurik EZ da hauteman bertan.

Biozienosiari eta ekosistemei dagokionez, Eskuzaitzeta industrialdeko lurzatiak sortzeko egin zen "ZU.08 Eskuzaitzeta" Hirigintzako Arloko Hirigintza Proiektuaren ondorioz, kokapenean ez dago landaredirik, florarik edo interes komunitarioko habitatik edo animaliarik.

Era berean, azterketa-eremua ez dago Natura 2000 Sarean, ezta Babestutako Guneen sarean edota Korridore Ekologikoen Sarean ere.

Ondareari dagokionez, azterketa-eremuan ez dago Donostiako udalerriko Balizko Arkeologia Guneen Izendapenean (EHAA 62. zk - 97/09/29) jasotako elementu, gune arkeologiko edo ondasun higiezinik, ez eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak babestutakorik edo zerrendatutakorik ere. Hala ere, lurzatiaren ekialdean barnealdeko Done Jakue Bidea pasatzen da, Hernani - Bidania tartea, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak

definitutako Done Jakue Bidearen tarte horrek ez du D lurzatian egingo diren lanen eraginik jasango.

Egungo **paisaia** “ZU.08 Eskuzaitzeta” Hirigintzako Alorreko Hirigintza Proiektuaren gauzatzeak aldatutako paisaia da. Dagokion Plan Partziala oinarri hartuz, Eskuzaitzeta eremuko jarduketa honelaxe planteatzen da: «Administrazio publikorako interes bereziko esku-hartze gisa, interes publikorako ekipamendu komunitarioko bi hornidura-elementu ezartzeko beharrezko lurzoruen hirigintza modu koordinatu eta sinergikoan garatu ahal izateagatik: Gipuzkoako Espetxea eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Zentro berria³. Era berean, jarduketa interes orokorreko hirigintza-operazioa da, jarduera ekonomikorako lurzoru-multzo berri bat sustatuko baitu egun Donostiako hiri barnean dauden industria-instalazioak birkokatzeko eta zabaltzeko arazoak konpontzeko; horrez gain, eskaera berriak asetzeko ere balioko du, hala nola, hiriaren kanpoaldean jarduera logistikoak, kargen haustea eta merkantzien banaketarako plataforma zabalak edukitzeko beharrezkoak direnak eta kanpoko errepide-sare orokorrarekin lotura zuzena dutenak, jarduera horiek hiriko bizitegi- eta hornidura-sarearen barnean duen eragin kaltegarria murriztearren.»

Eskuzaitzeta eremua Zubietako eremu administratiboari dagokio. Zubietako Donostiako udalerrian kokatuta dago eta Lasarteko eta Usurbilgo udalerrietako lurak ere barne hartzen ditu. Hala ere, aztertuko den eremua Donostiaren parte da. Dentsitate baxuko eremua da eta bertan bi eremu bereiz daitezke:

- Erdiguneko eremua mazela eta ibarreko fisiografiak osatzen du eta bertan basogune zabal bat dago eraikin gutxi batzuekin (bordak eta abeltzaintza-ustiapenak), pista- eta bide-sare batek zeharkatzen duena.
- Eremu lauagoa, Oria ibaiaren ezker-ibarrean zehar. Bertan aurki daitezke, alde batetik, Zubietako bizitegi-auzoa, familia bakarreko etxebizitzek (baserriak eta txaletak), elkarri atxikitako etxeek eta etxe pareatuek osatua; eta, bestetik, kirol-instalazio garrantzitsuak, hala nola Donostiako Hipodromoa edo Real Sociedad futbol-taldearen kirol-zentroa (Zubietako XXI). Azken hori Oria ibaira isurtzen duten lehen mazeletan dago.

Era berean, Zubietan hezkuntza-arloko honako ekipamendu hauek daude: Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak (Zubietako LHI eta Garaikoetxea-Landaberri LHI) eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak (Usurbil GLHBI Usurbilgo Lanbide Heziketako Institutua). Horrez gain, N-1 errepidearen ondoan (Oria ibaiaren paralelo doana) garraioaren sektoreko hainbat enpresa garatu da, baita kamioientzako aparkaleku ugari ere. Arzabaletako plataforman, D lurzatiaren ondoan, Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 1. Fasea eraikitzea aurreikusi da.

³ Egungo Gipuzkoako Ingurumen Gunea – 1. Fasea (GIG-1) izena du.

EAEko Nekazaritza-Basozaintzako eta Natura Ingurune Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen dokumentua.

Aipatu LAP hori behin betiko onartzen duen dokumentuaren arabera, azterketa-eremua “bizitegi-lurzorua, industrial, ekipamendua” kategorian dago sailkatua.

4.2.2. Donostialdea-Bidasoa eremuko konpostaje-planaren ingurumen-inbentarioa


Donostialdea-Bidasoako konpostaje-planta eraikitzeko hautabideak 3.3.2. atalean daude:

1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea Triangelua: A-8 autobidea, autobide horren lotura-bidea eta N-I errepidea, eta eremu horretan egingo den bigarren ingurabidearen trazatua.

2. hautabidea: Eskuzaitzeta lurzatia (San Marko Mankomunitatea, Donostiako udalerrria), zepak heltzeko plantaren alboan.

3. hautabidea: Loistegikogaina lurzatia (San Marko Mankomunitatea, Donostiako udalerrria).

Ondorengo irudian eta memoria honetan erantsitako E-03 planoan hautabideen kokalekuak ageri dira.



22. irudia. Donostialdea-Bidasoako konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta eraikitzeko hautabideak.

4.2.2.1. 1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea Triangelua, ingurumen-inbentarioa

Ezaugarri klimatologiko, geomorfologiko, geologiko eta edafologikoak

Klimari eta airearen kalitateari buruzko informazioa 4.2.1 atalean aurki daiteke.

Geologiari dagokionez, azterketa-eremuak hiru goi-ibar eta horien ibaiarteak hartzen ditu; horiek, tuparri eta kareharri hareatsuen txandakatze baten gainean asentaturik, Goi Kretazikoko flyscharen eratzetara dute. Ez da aurkitu interes geologikoko puntu edo ibilbide osagarriak.

Geomorfologiari dagokionez, eremuak nolabaiteko arrisku geomorfologikoa du; izan ere, lursaila maldatsua da, higadura-fenomenoak jasateko joera duena, bereziki landaredirik ez badago eta prezipitazio handiko aldietan. Eremuaren egonkortasuna ertain-baxutzat hartzen da.

Ikuspuntu **edafologikotik**, eremuan kanbisor distrikua da nagusi, ekoizpen-gaitasun mugatuko lurzorua, alegia. Horrez gain, nekazaritzarako balio baxua du eta laborantza onartzen ez duten lurzoruek ditu (VI. eta VII. motakoak).

Lurgaineko eta lurpeko hidrologia

Lurgaineko hidrologiari dagokionez, azterketa-eremua Urumeako Unitate Hidrologikoan dago, hain zuzen ere Arpita erreka-eremuaren goi-ibarrean. Arpita erreka Muno erreka isurtzen du. Ez dago uholde-arriskurik eta arriskuko fenomeno hidrologikoak gertatzeko probabilitatea baxua da.

Hidrogeologiari dagokionez, akuiferoak kutsatzeko arrisku oso baxua du eremuak. Goi Kretazikoko jabari hidrogeologikoaren parte da eta iragazkortasun baxua du. Eremuan ez dago unitate edo sektore hidrogeologiko nabarmenik.

Eremu honetako biozenosi eta ekosistemak

Landaretzaren ikuspegitik begiratuta, aztergai dagoen eremuak sega-belardiak ditu malda suabeko muinoetan, eta hostozabalen baso mistoa malda biziko lursailetan eta Arpita erreka-eremuaren ibar hondotan. Aztergai dugun eremua batasunaren intereseko habitatek eta baso autoktonoek osatzen dute. Elementu horien kontserbazioa lehenetsi behar da, ahal den neurrian, honako araudi hauetan xedatutakoarekin bat: Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/42/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeko buruzkoa (11. art.); 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natura ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa (46.3 art.); 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko legearen testu bateratua onartzen duena (2.e art.); eta Lurraldea antolatze Zuzentarauak (5.2.b5 zuzentaraua).

Azpiegituraren kokapena eta **EAEko Arriskuen Mapako Baso Suteen Arriskuen** mapa gainjarritik, ikus daiteke eremuaren berezko arriskua Baxua dela, eta hostozabalen masena, aldez, Altua.

Faunari dagokionez, azterketa-eremuan jatorri atlantikoko eta Europako erdialdeko espezieak daude, baita mediterraneoko zenbait espezie ere. Eremu horren ezaugarri ekologikoez eragina, fauna-taxozenosa oparoa eta aberatsa da, eta nabarmentzekoa da hegazti-aniztasun ugaria udan. Horrez gain, azpimarratzekoa da landazabalak hegazti negutarrak hartzeko gaitasun handia duela. Azterketa-eremua ez dago muturluze piriniarra, bisoi europarra eta hegoaldeko zuhaitz-igela espezieentzako interes bereziko eremuen barnean; ikus E-05 planoa.

Natura-baliabideak eta habitat baliotsuak

EAEko, estatuko edo Europako espezie sentikorrenak kontuan hartuta, azterketa-eremuan ez dago horien populazioek eragina jasan dezaketen interes bereziko fauna-espezierik.

Era berean, azterketa-eremua ez dago Natura 2000 Sarean, ezta Babestutako Guneen sarean edoeta Korridore Ekologikoen Sarean ere; ikus E-05 planoa.

Paisaiaren deskribapena eta berariazko kalitatea

Paisaiari dagokionez, azterketa-eremua nekazaritza- nahiz baso-mosaiko batek osatzen du, mazela eta muinodun ibaiarteko ibai-jabarian dagoena; kalitate bisual handiko inguruan dago. Bertan, txandakatu egiten dira belardiak, malda txikiko muinoetan, eta hostozabalen basoak, aldapa handiko lursailetan eta ibar-hondoetan. Hauskortasun eta ikusgarritasun bisuala ertaintzat jotzen da; izan ere, mazelez osatutako eremua izan arren, eremuko fisiografiak eta zuhaitz-landarediak hauskortasun bisuala eta ikusgaitasuna murrizten dute. Era berean, zerbitzu-estazioa eta gasolindegia gertu egoteak hauskortasun bisuala murrizten du. Hala eta guztiz ere, AP-8 autobidearen, kamioentzako aparkalekuaren eta inguruko bideetan ibiltzen diren zikloturisten eraginaren ondorioz, ikusle gehiago erakartzeko aukera dago, beraz aurreko hautabideak baino hauskortasun bisual handiagoa du.

Kultura-ondarea

Ondareari dagokionez, azterketa-eremuan ez dago interes arkeologikoko elementuen kartografian edota Donostiako eta Usurbilgo udalerrietako Balizko Arkeologia Guneen Izendapenean jasotako elementu edo gune arkeologikorik. Bestalde, Donostiako eta Usurbilgo udalerrietako Ondare Historiko-Arkitetkonoen inbentarioan jasotako ondare historiko-arkitetkonoikoko elementurik ere ez dago.

Giza habitata


Eremu honetako **giza habitatari** dagokionez, gunea Donostiako eta Usurbilgo udalerrietan kokatuta dago. Landa-gunea da, eraikinik gabekoa eta iparraldean AP-8 autobideak mugatua. Azterketa-eremuaren ondoan honako elementuak daude: baserri batzuk, ukuilu bat, Aritzetako restopa eta gasolindegi bana AP-8 autobidearen bi aldeetara.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAP horren arabera, azterketa-eremuan dauden ur-ibilguak zonifikatu gabeko 00 mailako tarteetakoak dira (1 km² baino txikiagoak diren arroak). Hala ere, ur-ibilguei eragingo dieten betelanak eta ibarrak berdintzeko lanak egingo badira, eta ibilguen trazaketa edo haien estaldura aldatzea planteatzen bada, beharrezkoa izango da alternatiba hidraulikoen eta ingurumen-eraginaren zuzenketa inguruko azterketa bat egitea arro isurle guztian.

EAEko Nekazaritza-Basozaintzako eta Natura Ingurune Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen dokumentua.

Aipatu LAP behin betiko onartzen duen dokumentuaren arabera, azterketa-eremua honako kategoria hauetan sailkatutako guneetan dago: Nekazaritza eta Abeltzaintza–Balio Estrategiko Handia, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza–Trantsizioko Landa Paisaia.



23. irudia. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantaren 1. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)

Nekazaritza eta Abeltzaintza–Balio Estrategiko Handia kategoriaren kasuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LAPen arabera, erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan; salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LAPeko “Jardun-tresnak”).

Era berean, Nekazaritza eta Abeltzaintza-Trantsizioko Landa Paisaia kategoriaren kasuan, aipatu LAPEk ezartzen du konpostaje-planta ezartzea onargarria izango dela, baldin eta nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egiten bada eta neurri zuzentzaileak jasotzen badira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LAPEko "Jardun-tresnak").

Eragozpenak, sosegua eta osasun publikoa

Eragin-eremuan honako kutsadura-isurien iturri hauek identifikatu dira: AP-8 autobideko ibilgailuak, autobide horren lotura-bidea, N-I errepeidea eta 2. ingurabidea.

Inguruan eta jarduera-eremuan ez dago inbentariatuta lurzorua kutsa dezakeen jarduera duen kokapenik.

Prozesuak eta arriskuak

Eremuak nolabaiteko ezegonkortasun-arriskua du; izan ere, lursail maldatsua da, higadura-fenomenoak jasateko joera duena, bereziki landaredirik ez badago eta prezipitazio handiko aldietan.

Aurreikusitako erabilerak

Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorren arabera (2010/06/25ean behin betiko onartua), lurzatia Lurzoru Urbanizaezinean dago.

4.2.2.2. 2. hautabidea: Eskuzaitzeta, ingurumen-inbentarioa

Lurzati hori zepak heltzeko planta eraikitzeko aukeratutako lurzatiaren aldamenean dagoenez, ingurumen-inbentarioa 4.2.1 atalean ageri da.

4.2.2.3. 3. hautabidea: Loistegikogaina, ingurumen-inbentarioa

Ezaugarri klimatiko, geologiko, geomorfologiko, geologiko eta edafologikoak

Klimari eta airearen kalitateari buruzko informazioa 4.2.1 atalean aurki daiteke.

Azterketa-eremuak hiru goi-ibar eta horien ibaiarteak hartzen ditu; horiek, **geologiari** dagokionez, tuparri eta kareharri hareatsuen txandakatze baten gainean asentaturik daude eta Goi Kretazikoko flyscha eratzen dute.

Lursailaren morfologia eta ezaugarri litologikoak kontuan hartuta, jatorri geomorfologikoko arriskua badagoela esan beharra dago. Flyscharen gainean asentatutako lurzati maldatsuek higadura-fenomenoak jasateko joera dute, bereziki landaredirik ez badago eta prezipitazio handiko aldietan. Flyscha sedimentu-egitura bat da eta, azterketa-eremuaren kasuan, granulometria fineko materialez osatua dago. Flyschak hauskorak direla eta, orografiari

dagokionez, eremuak baliatutako goi-espazioa nahiko leuna dela kontuan izanda, eremuaren egonkortasuna ertain-txikitzat jotzen da.

Loistegikogaina eremuan ez da interes geologikoko eremu, puntu edo ibilbiderik aurkitu, ezta Gipuzkoako Katalogo Espeleologikoan jasotako kobarik ere.

Edafologiari dagokionez, eta Gipuzkoako Agrologia Moten Mapa oinarri hartuta, eremuan VI. eta VII. motako lurzoruak daude, biak laborantza onartzen ez duten lurzoru gisa sailkatuak. VI. motako lurzoruak VII. motakoak baino malda txikiagoko lursailetan daude.

Aurrenekoak ez dira nekazaritzarako egokiak, malda handiak, sakonera erabilgarri gutxi eta harri gehiegi dutelako. Egokiago litzateke lurzoru horiek belar edo zurezko landaredia mantentzeko erabiltzea. Bertako baldintza topoedafikoak ikusirik, ekoizpen-prozesua hobe daiteke lurzoru ongarrituz, berrereinez, etab. VII. motako lurzoruak erliebe irregularragoko eta malda handiagoko eremuetan daude eta baso-lurtzat hartzen dira. Lurralde honetan malda handiak eta prezipitazio altuak dira nagusi eta, ondorioz, oso garrantzitsua da egungo landare-estaldura mantentzea.

Iholbek egindako **Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten edo jasan dituzten kokapenen inbentarioa** kontsultatu da, eta ikusi da eremu horretan ez dagoela inbentariatutako kokapenik.

Lurgaineko eta lurpeko hidrologia

Lurgaineko hidrologiari dagokionez, azterketa-eremua Urumeako Unitate Hidrologikoan dago, hain zuzen ere Igara erreken azpi-arroaren goi-ibarrean.

Hiru errekek zeharkatzen dute eremua. Mendebaldeko bi errekek azterketa-eremua zeharkatzen dute eta ondoren Arpidegieta erreka osatzen dute. Ekialdeko erreka Muno erreken adarra da. Arpidegieta Arpitarekin bat egiten du, beherago Muno errekearekin ur-ibilgua osatzeko. Muno errekek Igara errekan isurtzen du eta Igara erreken arroa Urumea ibaiaren arroaren ondoan dago.

Urak hartzeko arriskuari dagokionez, uholde-arriskua minimotzat jotzen da.

Sare hidrologiko guztia “kostako ibai txikiak” izeneko ekoeskualdean dago. Igara erreka “EAEko gainazaleko ur kontinentalen karakterizazioa” izeneko lanean sartu da. Lan horren arabera, Igara erreka, goiko zatian, egoera ekologiko onean dago.

Azterketa-eremuan dauden hiru errekek emari ertainekoak edo gutxikoak dira, metro erdi eta metro arteko zabalerako ubidea dutenak eta ur-emari gutxikoak, goi-ibarrean daude eta. Uren kalitateari dagokionez, goi-ibarraren egoera ona dela uste da, ur argiak baititu eta kutsadura-gune nabarmenik aurkitu ez baita.

Muno erreken adarrak (eremuaren ekialdean) eskuin-aldean ibaiertzeko landaredia kontserbatzen du –haltzadi gazte bat–, baina ezker-aldean zegoen baso-landaredia moztu eta erreka bistan geratu da.

Beste bi errekek (mendebaldean) ibaiertzeko landaretza ugari dute eta egoera onean daude estaldurari eta egiturari dagokionez. Hala ere, sasiakazia ugari dago, espezie aloktonoa, alegia.

Laburbilduz, eremuan dauden errekek emari ertain-gutxikoak eta goi-ibarrekoak dira, eta egoera ona-neurritsua dute.

Hidrogeologiari dagokionez, eremua Goi Kretazikoko Eremu Hidrogeologikoaren parte da. Termino hidrogeologikoetan, eta kontaktua duen beste unitate hidrogeologikoei dagokionez, jabariak itxiturazko funtzionamendu orokorra du. Beraz, eremuan ez dago unitate edo sektore hidrogeologiko nabarmenik.

Azterketa-eremua Goi Kretazikoko **iragazkortasun baxuko** flysch baten gainean asentatua dago, eta, printzipioz, ez du akuiferorik eratzten.

Material litologikoei dagokionez, eremuak akuiferoak kutsatzeko arrisku oso txikia duela uste da. Lurpeko urak mugatuak dira, harrera-arroak orokorrean txikiak eta inguruko arroetatik independente dira, eta emari gutxiko iturriak dituzte.

Eremuko biozenosia eta ekosistemak

Azterketa-eremua honako **landarediak** osatzen du: sega-belardiak malda txikiko muinoetan, eta kontserbazio-egoera aldakorreko hostozabalen baso mistoak, aldiz, malda handiko lursailetan, Arpidegieta erreken ibar-hondoetan eta Munolegor baserritik gertu dagoen errekan. Lurzati batzuetan Monterreyko pinuen (*Pinus radiata*) landaketak eta sastraka heterogeneoak daude, duela gutxi baso-landaketa baten mozketatik eratorriak. Bere osotasunean, eremuak euskal landazabalaren ohiko landare-paisaia osatzen du. Sega-belardiak urte guztian berde diren belar-eraketak dira, gehienbat landare iraunkorrek osatuak, eta baserriko lanei (sega eta simaurketa) eta abereen hortzei egokituta daude.

Arpidegieta erreken goi-ibarreko eta Munolegor baserritik gertu pasatzen den erreka hostozabalen baso mistoa gehienbat haitz kandudunek (*Quercus robur*) osatzen dute, baina honako zuhaitz hauek ere aurki daitezke proportzio aldakorrean: astigarra (*Acer campestre*, A. *pseudoplatanus*), urkiak (*Betula alba*), haltzak (*Alnus glutinosa*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), zumarrak (*Ulmus glabra*) eta gaztainondoak (*Castanea sativa*). Landarediaren estratu guztietan aniztasun espezifiko handia izatea da baso honen bereizgarri nagusia. Ibar-hondoetan, hezetan edafikoak mesede egiten die espezie higrofiloenei eta, ondorioz, haltzek eta lizarrek protagonismo berezia dute bertan. Lurzati argiagotetan zuhaitz gazteak dira nagusi eta birgaitzen ari den hostozabalen baso misto gisa kartografiatuta daude.

Azterketa-eremuko hostozabalen baso mistoa berezia da duen flora-aniztasun handiagatik, heldutasun-mailagatik eta, baso autoktonoak orokorrean degradatzen ari diren testuinguruan, eremuko baso klimatikoen gotorleku izateagatik.

Ez da katalogatutako landararik ikusi. Hala ere, inguruko hostozabalen baso mistoetan ikus daitezke gorostiak (*Ilex aquifolium*) edo erratzak (*Ruscus aculeatus*); biak intereseko espeziek dira duten estatus juridikoagatik:

- gorostia, babestutako espezieen lege estatusa duelako Gipuzkoan, 4/1990 Foru Dekretuaren bidez, baita Euskal Autonomia Erkidego guztian, 167/1996 Dekretuaren eta 1998ko uztailaren 10eko Aginduaren bidez, Interes Bereziko kategorian sailkatuta.
- erratza, Interes Komunitarioko espeziea delako eta espezie hori naturan biltzeak eta ustiatzeak kudeaketa-neurriak ekar ditzakeelako, abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuak, Habitaten Zuzentaraua (92/43/CE Europako Zuzentaraua) iraultzen duenak ezarritakoaren arabera.

Horrela bada, aztergai dugun eremua batasunaren intereseko habitatek eta baso autoktonoek osatzen dute. Elementu horien kontserbazioa lehenetsi behar da, ahal den neurrian, honako araudi hauetan xedatutakoarekin bat: Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/42/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeko buruzkoa (11. art.); 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natura ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa (46.3 art.); 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko legearen testu bateratua onartzen duena (2.e art.); eta Lurraldea antolatzeke Zuzentarauak (5.2.b5 zuzentaraua).

Azpiegituraren kokapena eta **EAEko Arriskuen Mapako Baso Suteen Arriskuen** mapa gainjarritz, ikus daiteke eremuaren berezko arriskua Baxutik Altura doala.

Ornodunen **faunari** dagokionez, azterketa-eremuan jatorri atlantikoko eta Europako erdialdeko espezieak daude, baita mediterraneoko zenbait espezie ere.

Azterketa-eremua ongi kontserbatutako landazabalean dago eta bertan aurki daitezke belardiak, erreka txikiak eta haritziz eta hostozabaleko baso mistoez osatutako eremuak, faunarentzat intereseko habitat direnak. Eremu hauen ezaugarri ekologikoen eraginez, fauna-taxozenosisa oparoa eta aberatsa da eta nabarmentzekoa da hegazti-aniztasun ugaria udan. Horrez gain, azpimarratzekoa da landazabalak hegazti negutarrak hartzeko gaitasun handia duela. Hegazti horiek klima onberagatik hautatzen dituzte kostako tartearak, duten eskaintza trofikoagatik eta lehen eta bigarren mailako produktibitatea mantentzen dutelako (Galarza, 1987; Tellería, 1988).

Azterketa-eremua muturluze piriniarra, bisoi europarra eta zuhaitz-igelaren interes bereziko eremuetatik kanpo dago; ikus E-07 planoak.

Natura-baliabideak eta habitat baliotsuak

Faunarentzako intereseko espezie eta habitatei dagokienez, estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko espezie sentikorrenak kontuan hartu dira, hots, dagozkien katalogo eta zerrendetan

markatuak daudenak eta horiek babesteko neurri zehatzak eskatzen dituztenak –Espezie Mehatxatuen Katalogo Nazionala, martxoaren 30eko 439/90 Errege Dekretuak eta haren eguneraketek erregulatua, eta Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda, 167/1996 Dekretuak eta haren eguneraketek erregulatua. Kontuan hartu dira faunarentzako intereseko habitatak, espezie sentikorrek edo intereseko espezieek habitat horiek zenbateraino erabiltzen dituztenaren arabera.

Azterketa-eremuan aurkitutako ornodun-espezieen artean, azterketa-eremuari dagokionez, habitaten aldaketei bereziki sentiberak diren espezieetat hartu dira batzuk. Horiexek dira, hain zuzen ere, EAEko Katalogoan jasota dauden, eta bertan eta Euskal Herrian haien inguruko aldaketen eragina jasan dezaketen populazioak. Zehazki, hauexek dira espezie horiek:

ANFIBIOAK:

Hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla Meridionalis*): igel hori galtzeko arriskuan dauden espezieen kategorian dago katalogatuta, Euskal Herrian ezagutzen den populazio bakarra Mendizorrotzen baitu. Azterketa-eremuan ez dago espezie horren ugaltze-enklaberik, bai, ordea, inguruetan. Hazteko sasotik kanpo eremu hezeetatik urrun aurki daitezke, sarri landaredira igota.

NARRASTIAK:

Eskulapioren sugea (*Elaphe longissima*): narrasti higrofiloa. EAEn eskastzat jotzen da, eremu zehatz gutxi batzuetan salbu. Belar- edo zuhaitz-estaldura ongi garatuta duten enklabeak ongi hautatzen ditu (Bea, 1998). Azterketa-eremuak espezie hori egoteko baldintza ekologikoak betetzen ditu. Horrez gain, ezaugarri bereko ondoko eremuetan dagoela ere frogatu da. Hariztiak eta belardien arteko heskaletan egotea du gustuko.

HEGAZTIAK:

Kasu honetan bi talde bereiz daitezke: bata, azterketa-eremuan edo bertatik gertu habia egiten duten espezieena, eta, bestea, azterketa-eremua ehiza-gune edo pasagune gisa erabiltzen dutenena, ugalketa-eremua beste nonbait dutelarik.

Lehenbiziko taldean daude lepitzulia (*Jynx torquilla*), okil txikia (*Dendrocopos minor*) eta zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*). Lepitzulia eta okil txikia nahiko ongi kontserbatutako landazabalekako hegazti bereizgarriak dira, eta hostoerorkorreko zuhaizti-sailekin lotuak daude, sail horiek txikiak izanik ere. Zeta arrunta biotopo-mota ugaritan bizi da, horien artean zuhaiztietan eta baso-ertzak txandakatzen diren eremu irekietan (Galarza, 1997; Bea, 1998). Espezie horiek guztiak habiagile gisa aipatzen dira azterketa-eremua dagoen 10x10 km-ko UTM koadrikulan (Aierbe, et al., 2001) eta, uda-garaian, azterketa-eremuaren inguruko ezaugarri ekologiko antzekoko eremuetan egoten direla ikusi da (obs. perts.).

Bigarren taldean euli-txori beltza (*Ficedula hypoleuca*) dago, migrazio-paseetan presente dagoena. Garai horretan oso ugaria izaten da eta ez dago ezaugarri ekologiko zehatzen mende. Eremuan badira bertan ehizatzen duten beste hegazti batzuk, baina kasu horietan habiak edo babeslekuak beste leku batzuetan dituzte. Horixe da, hain zuzen ere, honako hauen kasua: arrano sugezalea (*Circus gallicus*), zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*), mirotz zuria (*Circus cyaneus*) eta, korbidoen artean, erroia (*Corvus corax*). Migrazio-garaian, miru gorriak (*Milvus milvus*) ere bertan ehizatzen du.

UGAZTUNAK

Ipurtatsa (*Mustela putorius*): mustelido hau orotariko habitatetan bizi da, baina eremu batzuetan gune irekiak eta zuhaitziak gustukoago dituela ikusi da. Izaera erdi-akuatikoa duela esaten da, baina lehentasun horren orokortasuna ez dago argi (Palomo & Gisbert, 2002). Euskal Autonomia Erkidegoan modu orokorrean banatuta dago, baina eskasa da (Alvarez, et al., 1985; Palomo & Gisbert, 2002). Azterketa-eremuan agertzea ez da baztertzeko, inguruko eremuetan ikusi baita.

Azterketa-eremu guztia faunarentzako interesekotzat hartzen da, inguruko aldaketen aurrean espezie sentikorrak eta babestuak daudelako bertan eta espezie bereziak direlako; izan ere, habitata etengabeko atzerakada jasaten ari da baso-landaketen eta hiri- eta industria-garapeneren ondorioz.

Katalogatutako espazioak. Azterketa-eremua ez dator bat bertako, autonomia-erkidegoko, estatuko, Europako edo munduko katalogatutako inongo naturgunerekin; ikus E-07 planoa.

Paisaiaren deskribapena eta berariazko kalitatea

Azterketa-eremua nekazaritza- nahiz baso-mosaikoak osatzen du, mazela eta muinodun ibaiarteko ibai-jabarian dagoena; kalitate bisual handiko inguruan dago. Bertan txandakatzen dira belardiak, malda txikiko muinoetan, eta hostozabaleko basoak, malda handiagoko lursailetan, Arpidegieta errearen ibar-hondoan, Munolegor baserritik gertu igaro den errekan eta egoera desberdineko pinuen baso-landaketen lurzatietan. Hostozabalen baso mistoak paisaiaren kalitatea handitzen du, izan ere, urte-sasoaren arabera kolorez aldatzen da, eta landarediak testura eta altura desberdinak ditu.

Hauskortasun bisuala eta ikusgaitasuna ertaintzat jotzen da. Mazelez osatutako eremua izan arren, ikusgarritasun bisuala murriztua da; izan ere, gertuko muinoko fisiografiak eta zuhaitz-landarediak ibar-hondoko eremuak ezkutatzeko dituzte. Era berean, zerbitzu-estazioa eta gasolindegia gertu egoteak hauskortasun bisuala murrizten du. Hala eta guztiz ere, AP-8 autobidearen, kamioientzako aparkalekuaren eta inguruko bideetan ibiltzen diren zikloturisten eraginaren ondorioz, ikusle gehiago erakartzeko aukera dago, beraz aurreko hautabideak baino hauskortasun bisual handiagoa du.

Kultura-ondarea

Azterketa-eremuan ez dago interes arkeologikoko elementuen kartografian edota ondare-katalogoetan jasotako elementu ezta gunerik ere.


Giza habitata

Eremua Donostiako eta Usurbilgo udalerrietan kokatuta dago. Landa-gunea da, eraikinik gabekoa, eta hegoaldean AP-8 autobideak mugatua. Azterketa-eremutik 200 m baino gertuago daude hiru baserri eta bere instalazioak, ukuilu bat AP-8 autobidearen beste aldean, Aritzetako restopa eta txabola edo borda bat. Ibilgailuak AP-8aren alde batean kokatutako Aritzetako restopan dagoen bide batetik sar daitezke eremura. Sarbidetik 100 m baino gertuago baserri bat, Aritzetako restopa eta A-8 autobidearen bi aldeetako gasolindegia daude.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAPen arabera, azterketa-eremuan dauden ubideak zonifikatu gabeko 00 mailako tarteetakoak dira (1 km² baino txikiagoak diren arroak). Hala ere, ur-ibilguei eragingo dieten betelanak eta ibarrak berdintzeko lanak egingo badira, eta ur-ibilguen trazaketa edo haien estaldura aldatzea planteatzen bada, beharrezkoa izango da alternatiba hidraulikoen eta ingurumen-eraginen zuzenketa inguruko azterketa bat egitea arro isurle guztian.

Aipatu **EAEko Nekazaritza-Basozaintzako eta Natura Ingurune Lurraldearen Arloko Plana** behin-behinean onartzen duen dokumentuaren arabera, azterketa-eremua honako antolamendu-kategoria hauetan sailkatutako guneeetan dago: Basoa-Mendia, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza-Trantsizioko Landa Paisaia.



24. irudia. Konpostaje- eta/edo biometanizazio-plantaren 3. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)

Basoa-Mendia kategoriaren kasuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LAPen arabera, erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan; salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LAPeko “Jardun-tresnak”).

Era berean, Nekazaritza eta Abeltzaintza-Trantsizioko Landa Paisaia kategoriaren kasuan, aipatu LAPek ezartzen du konpostaje-planta ezartzea onargarria izango dela, baldin eta nekazaritza- eta basozaintza-jardueran izandako eraginaren azterketa egiten bada eta neurri zuzentzaileak jasotzen badira sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LAPeko “Jardun-tresnak”).

Eragozpenak, sosegua eta osasun publikoa

Planta berria Aingeru Guarda-Arrizetako zubiko ipar mazelako goiko zatian egongo litzateke, Igara errearen arroaren hegoaldeko ertzean. Horretarako, muinoaren zati bat induskatu eta aldameneko ibarraren zati bat bete beharko litzateke, Donostiako Udalerrian.

Jarduketa-eremuan eta inguruan ez dago inbentariatuta jarduera kutsatzaileko kokapenik.

Loistegikogaina lurzatiaren eta herriguneen artean 1 km baino gehiagoko tartea dago: hala, Ibaeta-Igara 1,4 km-ra dago, Añorga-Rekalde 1,5 km-ra, Txikierdi 1,4 km-ra, Lasarte 1,6 km-ra eta Usurbil 2,2 km-ra.

Kokalekuan ez dago eragina jasan dezakeen eraikuntzarik. Inguruan baserri bakan batzuk daude (Intxaurzabal etxea eta Muñalegor baserria), baita Aritzetako restopa ere.

Konpostaje- eta/edo biometanizazio-planta eraikitzea aurreikusi den eremua ekoizpen- eta nekazaritza-balio eskaseko lurrek osatzen dute.

Ur-ibilgu garrantzitsurik ez dago bertan; eragin-eremuan ur-kopuru txikiko errekek (goi-ibarreko errekek) soilik daude, Urumearen arroko sare hidrologikoaren parte direnak.

Egun, jarduketa-eremuko airearen kalitatea ontzat jo daiteke, ez baitago hari eragin diezaiokeen isuri-iturririk. Kutsadura-iturri bakarrak AP-8 autobideko ibilgailuak lirateke.

Prozesuak eta arriskuak

Flyscharen gainean asentatutako lurzati maldatsuek higadura-fenomenoak jasateko joera dute, bereziki landaredirik ez badago eta prezipitazio handiko aldietan. Flyscha sedimentu-egitura bat da eta, azterketa-eremuaren kasuan, granulometria fineko materialez osatua dago. Flyschak hauskorrak direla eta inguruak orografiaren goiko espazioa nahiko leuna dela kontuan izanda, eremuaren egonkortasuna ertain-txikitat jotzen da.

Uholde-arriskua txikia da, jarduketa-eremuaren inguruan dauden errekek emari gutxikoak baitira.

Aurreikusitako erabilerak

Donostiako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren arabera (2010/06/25ean behin betiko onartua), lurzatia Lurzoru Urbanizaezinean dago.

4.2.3. Sasieta Mankomunitateko Transferentzia-estaziorako ingurumen-inbentarioa


Azpiegitura hau eraikitzeko hautabide desberdinak bilatzeko garaian, errepide-saretik gertuko, industria-eremuetan kokatutako eta inpaktu gutxiko kokalekuek izan dute lehentasuna. Honako hiru lurzati hauek hautatu dira:

1. hautabidea: H lurzatia, Altune industrialdea (Olaberria)

2. hautabidea: Alegi auzoko lurzatia (Ormaiztegi)

3. hautabidea: Sasietako Zabortegeko lursaila

Ondorengo irudian eta memoria honetan erantsitako E-04 planoan lurzatiaren kokapenak ageri dira.



25. irudia. Sasieta Mankomunitateko Transferentzia-estaziorako azertu diren hautabideen kokapenak.

4.2.3.1. 1. hautabidea: Altune industrialdea (Olaberria), ingurumen-inbentarioa Ezaugarri klimatiko, geologiko, geomorfologiko, geologiko eta edafologikoak

Klimari dagokionez, azterketa-eremua Olaberriko udalerrian dago. Lurralde klimatikoaren sailkapenean Olaberria isurialde atlantikoan dago. Isurialde atlantikoak Bizkaia eta Gipuzkoako probintzia osoak eta Euskadi Kontinentalak eta Arabako iparraldea hartzen ditu barne; klima mesotermikoa du, tenperatura neurritsukoa eta oso euritsua. Klima horrek urte-sasoi lehorrik gabeko klima epel hezea edo klima atlantikoa du izena. Ozeano Atlantikoak eragin nabarmena du klima mota horretan; ozeanoko ur epelek aire-masen tenperaturak leundu egiten dituzte, eta horiek kostara iristean eragin nabarmena dute oszilazio termikoan, eguna eta gauaren edo uda eta neguaren arteko tenperaturen gorabeherak murrizten baitituzte. Faktore orografikoaren ondorioz Euskal Herriko isurialde atlantiko guztian euri-kopuru handiak egoten dira, urtero batez beste 1.200 eta 2.000 mm baino gehiagoko bitarteko prezipitazioak daudelarik.

Olaberriko batezbesteko tenperatura 13,2 °C-koa da. Hilabete beroenetan batezbesteko tenperatura 25 °C-koa da, eta hilabete hotzenetan 3,4 °C-koa. Olaberrin urteko batezbesteko prezipitazioa 1.423 mm-koa da.

Olaberriko Altune industrialdeko H Lurzatiaren **topografia** kontuan hartuta, atmosferaren barreiatze-ahalmena egokia da, egun euritsuen kopuru handiak ere mesede egiten diolarik.

Eremu honetako **airearen kalitatea** Beasaingo kontrol-estazioak kontrolatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol- eta ikuskatze-sareak udalerri horretan duen estazioa, alegia. **Airearen kalitatearen** indizea Ona gisa sailkatuta dago, baina Olaberriko emaitzek PM10eko mailak dituzte, trafikoak eta inguruko siderometalurgiako jarduerak eraginda. Erregistratutako metal-mailak Beasainen eta inguruko beste herrietan baino altuagoak dira, eta horrek argi erakusten du jatorri dituztela inguruan metalak tratatzen dituzten enpresak.

Geologiari dagokionez, Olaberriko Altune industrialdeko H lurzatiko eremua karezko lutita beltzen eta Deva edo Flysch beltzeko eraketaren hareharrizko pasada supraurgoniarren gainean dago. Tarte horietan, material lutitikoak hareharrizko materialak baino ugariago dira. Eremuan ez da aurkitu interes geologikoko puntu edo ibilbide osagarriak.

Geomorfologiari dagokionez, lurzatia antzina mazelez osatutako eremuan dago, egun aldatua industrialdea egiteko. Horregatik, eremu laua da, maldarik gabekoa.

Edafologiaren ikuspuntutik, lursailean egindako esku-hartze antropikoek lurzorua erabilera-gaitasuna aldatu dute eta, egun, lurzatia industrialdearen barnean dago. Horregatik, lurzoruak ekoizpen- eta nekazaritza-balio eskasekoak dira.

Lurgaineko eta lurpeko hidrologia

Lurgaineko hidrologiari dagokionez, kokapena Estanda ibaiaren arroan dago. Gutxi gorabehera 300 m-ra Oria ibaiaren ubidea dago; ikus E-08 plano. Oriako Unitate Hidrologikoa 14 ur-masek osatzen dute; horietatik 13 Oria ibaiaren arroan daude, eta horietatik 5 nagusiak dira eta 8 bertara isurtzen duten adarrak. Beste ur-masa Inurritza ibaiaren arroan dago. Olaberriko Altune industrialdeko H lurzatia Oria-A masan dago, Iparraldea III demarkazioan. 37,38 km luze da eta lotutako arroko eta elikadura-arroko eremuak 82,81 km² ditu. 23. ekotipoa – Euskal-Pirinioetakoari dagokio. Oria-A masak estazio bakarra du, ORI122, eta maximoen kontrol operatiboen bidez kontrolatzen du ur-masa. Oria-A masak presio-maila orokor ertaina du eta honako arazo hauek ditu: isurpen kutsatzaile puntualak, abeltzaintzan jatorri duten isurpen zehaztugabeak (nitrogeno eta fosforo handikoak) eta alterazio morfologikoak.

Uren kalitateari dagokionez, eta ORI122 estazioaren bidez azterketa egin ondoren, Oria-A masak egoera ekologiko Neurritsua du. Diagnosi hori makroornogabeen komunitateak baldintzatzen du (egoera Neurritsua). Oria-A masak ez ditu ingurumen-helburuak betetzen, eragin gertagarria du eta, ondorioz, arrisku ertaineko masa da.

Hidrogeologiari dagokionez, Hego Antiklinorioko jabari hidrogeologikoaren parte da. Iragazkortasun baxua du eta akuiferoak kutsatzeko arrisku ia hautemanezina. Jabarian ez dago unitate edo sektore hidrogeologiko nabarmenik. Azterketa-eremuan ez da herriguneak hornitzeko urik hartzen.

Eremuko biozenosia eta ekosistemak

Landarediari dagokionez, egun ez dago landaredirik eremuan. Kokapenaren inguruan erruderal-nitrofiloak daude, aldatutako eremuetan ohiko direnak. Giza jarduerak asko baldintzatzen dituzte landare-komunitateak eta ez dute balio naturalistikorik.

Faunari dagokionez, azterketa-eremuan aurki daitezkeen espezieak landazabaleko ohikoak dira. Eremua antropizatutako gunen baten ondoan egotearen eta eremuko habitataren degradazioaren ondorioz, fauna-komunitatea ez da oso ugaria eta gehienbat espezie ubikistez osatua dago.

Natura-baliabideak eta habitat baliotsuak

EAEko, estatuko edo Europako espezie sentikorrenak kontuan hartuta, azterketa-eremuan ez dago horien populazioek eragina jasan dezaketen interes bereziko fauna-espezierik.

Era berean, azterketa-eremua ez dago Natura 2000 Sarean, ezta Babestutako Guneen sarean edota Korridore Ekologikoen Sarean ere; ikus E-08 plana.

Paisaiaren deskribapena eta berariazko kalitatea

Paisaiari dagokionez, azterketa-eremua “jabari antropogenikoko industria” paisaia-unitatean dago. Mazelan duen kokapenagatik, eremua erraz ikus daiteke GI-632 errepidetik. Paisaiaren kalitateari dagokionez, eremua industria-bideen ondoan dago eta horrek kalitatea murrizten dio.

Paisaia, industriagunea izanik, kalitate baxukoa da. Hala ere, iparraldean dagoen etxebizitza eta kokapena inguratzen duen bidegorria ikusirik, balizko eraginak murrizteko neurri zuzentzaile eta babesgarriak proposatu beharko dira.

Kultura-ondarea

Ondareari dagokionez, Olaberriko Altune industrialdeko H lurzatiaren barnean ez dago babes juridikoa duen elementu, arkeologia-esparrurik edo higiezinik, Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudiaren (EHHA 208. zk - 97/10/30) eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroko zerrenden eta Olaberriko Plangintzako Arau Subsidiarioen arabera.

Giza habitatari dagokionez, Olaberriko Altune industrialdeko H lurzatia Olaberriko udalerrian dago, N-I errepidearen bi aldeetara dagoen industria-ehunaren ondoan. Eremua herriguneetatik nahiko urrun dago, gertuenekoa Olaberriko Ihurre auzoa du. Eremitik gertuen dauden etxebizitzak lurzatira sartzeko bidearen ondoko etxebizitza-multzoa eta Txara-baztarra baserria dira.

EAEko ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana jarraiki, azterketa-eremua ez dagokio LAP honi, ez baitago ibai-ibilgu berean.

Nekazaritza-Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen dokumentuaren arabera Olaberriko Altune industrialdeko H lurzatia “bizitegi-lurzorua, industrial, ekipamenduak eta azpiegiturak” kategorian dago sailkatua.

Eragozpenak, sosegua eta osasun publikoa

Lurzatia ez dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan*. Lehen begiratuan badirudi ez dagoela betelan antropikorik, eta gainazalean lursail naturala azaleratzen dela ikus daiteke.

Lurzatiaren atzealdean industrialdea zeharkatzen duen bidegorria dago. Azpiegitura kokaleku horretan egiten bada, bidegorriaren trazatua aldatu beharko da zerbitzua trabarik gabe ematen jarrai dezan. Lurzatiaren iparraldeko eremuan etxebizitza bat dago. Ekialdean eta hegoaldean bi pabiloi industrial daude. Goi-tentsioko linea elektriko batek goitik zeharkatzen du lurzatia. Iskinetako batean gutxi gorabehera 13 kV-ko banaketa elektrikoko beste linea bat duen zutaina dago; tarte batean lurperatua dago eremu perimetralean, industrialdearen ondoan.

Lurzatiaren iparraldean kokatutako etxebizitza salbu, gertueneko etxebizitza-multzoa 500 m-ra dago, gutxi gorabehera. Hala ere, jarduera industrialdearen barnean egingo litzateke.

Kamioiek ez lukete herrigunetik igaro beharrik izango, N-I errepidetik joango lirateke eta industrialdera zuzenean sartuko lirateke. Industrialdera iritsi aurreko azken zatian, aurretik aipatu etxebizitza-multzotik gertu zirkulatu beharko dute.

Egun, eragin-eremuko soinuek jatorri dute jarduketa-eremua mugatzen duen errepidean (N-I) igaro diren ibilgailuetan eta inguruko industria-jarduera handian.

Prozesuak eta arriskuak

Azterketa-eremuaren eta Oria ibaiaren artean 300 m baino gehiagoko tarte dago, eta plataforma (goiko zatian kokatua) eta ubidearen artean 20 m baino gehiagoko desnibela. Ez dago uholde-arriskurik.

Aurreikusitako erabilerak

Indarrean dagoen planaren arabera, lurzatiak Merkataritza eta/edo Gizarte Ekipamendurako erabilera du, erabileren erregimen honekin:

Erabilera bultzatuak: Herriaren zein gizartearen intereseko ekipamendu komunitarioa, “Altune” 41 Sektorearen zerbitzurako merkataritza eta gizarte ekipamenduarekin lotutako aldaeretan.

Erabilera onargarriak: Etxebizitza, soil-soilik ekipamenduen erabileraren osagarri gisa (etxebizitza).
Garajea.

Erabilera debekatuak: bereziki baimendu ez diren guztiak.

4.2.3.2. 2. hautabidea: Alegi auzoko lurzatia (Ormaiztegi), ingurumen-inbentarioa

Ezaugarri klimatiko, geologiko, geomorfologiko, geologiko eta edafologikoak

Klimaren inguruko informazioa 4.2.3.1 atalean ageri da.

Eremu honetako **airearen kalitatea** Beasaingo kontrol-estazioak kontrolatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol- eta ikuskatze-sareak udalerrri horretan duen estazioa, alegia. **Airearen kalitatearen indizea** Onargarri gisa sailkatuta dago.

Geologiari dagokionez, kokapena karezko lutita beltzen eta Deva edo Flysch beltzeko eraketaren hareharritzko pasada supraurgoniarren gainean dago. Tarte horietan, material lutitikoak hareharritzko materialak baino ugariago dira. Eremuan ez da aurkitu interes geologikoko puntu edo ibilbiderik.

Geomorfologiari dagokionez, Alegi auzoko lurzatia betelan baten gainean dago. Betelanak morfologia laua du, bi plataformez osatutakoa, eta ibar batean dago kokaturik.

Edafologiaren ikuspuntutik, lurzatia aldaturik dago egindako betelanengatik eta, ondorioz, lurzoruak ekoizpen- eta nekazaritza-balio eskasekoak dira.

Lurgaineko eta lurpeko hidrologia

Lurgaineko hidrologiari dagokionez, lurzatiaren iparraldea Arana errekek zeharkatzen du, ondoren Estanda ibaian isurtzen duena. Estanda ibaia Oriako Unitate Hidrologikoaren parte da, 14 ur-masek osatzen dutena; horietatik 13 Oria ibaiaren arroan daude, eta horietatik 5 nagusiak dira eta 8 bertara isurtzen duten adarrak. Beste ur-masa Inurritza ibaiaren arroan dago. Alegi auzoko lurzatia Estanda-A masan dago, Iparraldea III demarkazioan. 20,64 km luze da, lotutako arroko eremuak 47,63 km² ditu eta elikadura-arroko eremuak 55,21 km². 23. ekotipoa – Euskal-Pirinioetakoari dagokio.

Estanda-A masak estazio bakarra du, OES116 –2000. urtetik funtzionatzen duena– eta minimoen kontrol operatiboen bidez kontrolatzen du ur-masa.

Estanda-A masak presio-maila orokor ertaina du eta honako arazoak ditu: isurpen puntualak (fosforo eta substantzia kutsatzaileen kontzentrazio handiak), abeltzaintzan jatorri duten isurpen zehaztugabeak, erregulazioak eragindako alterazio hidrologikoak, emarien kentzea eta alterazio morfologikoak (presa txikiak, defentsak eta estaldurak).

Uren kalitateari dagokionez, eta OES116 estazioaren bidez azterketa egin ondoren, Estanda-A masak egoera ekologiko Eskasa du eta, beraz, ez du ingurumen-helburua betetzen.

Hidrogeologiari dagokionez, Hego Antiklinorioko jabari hidrogeologikoaren parte da. Iragazkortasun baxua du eta akuiferoak kutsatzeko arrisku ia hautemanezina. Kokapena ez dago inongo unitate edo sektore hidrogeologiko nabarmenetan. Azterketa-eremuan ez da herriguneak hornitzeko urik hartzen.

Eremuko biozenosia eta ekosistemak

Landarediari dagokionez, eta landarediaren planoetan begiratuz gero, eremuan baso-landaketak ikusten dira. Hala ere, egun eremuan dagoen landaredia erruderal-nitrofiloa da, aldatutako eremuetako ohikoa. Eremuan ez da babestutako komunitaterik edo landarerik aurkitu.

Azterketa-eremuko **faunari** dagokionez, landazabal atlantikoko berezko ornodun-espezieak daude. Hala ere, habitataren kalitate baxuaren ondorioz –bereziki azpiegiturek eraikitzeagatik– inguru horretako espezie ohikoenak bakarrik aurki daitezke.

Natura-baliabideak eta habitat baliotsuak

EAEko, estatuko edo Europako espezie sentikorrenak kontuan hartuta, azterketa-eremuan ez dago horien populazioek eragina jasan dezaketen interes bereziko fauna-espezierik.

Era berean, azterketa-eremua ez dago Natura 2000 Sarean, ezta Babestutako Guneen sarean edota Korridore Ekologikoen Sarean ere; ikus E-09 plana.

Paisaiaren deskribapena eta berariazko kalitatea

Paisaiaren ikuspuntutik, lurzatia kokatuta dagoen eremua kalitate altukoa da inguruko landarediagatik. GI-632 errepidetik aise ikus daiteke. EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoaren arabera, kokapena ez dago inongo intereseko naturgunetan.

Kultura-ondarea


Ondareari dagokionez, ez dago Eusko Jaurlaritzaren inbentario ofizialetan jasotako interes kultural zein arkeologikoko elementurik eremuan.

Giza habitatari dagokionez, lurzatia Ormaiztegiko udalerrian dago, GI-632 errepideko 5. irteeraren ondoan. 450 m-ra, Gabiriako Alegi auzoko etxebizitzak daude. Ormaiztegi Estanda ibaiak sortutako haran txikian dago. Herrigunean bertan Santa Lutzia erreka Estanda ibaiari elkartzen zaio. Ormaiztegi 6,9 km²-ko azalera du, iparraldean Ezkio-Itsasorekin du muga, hegoaldean Mutiloako eta Idiazabalgo udalerriekin, ekialdean Beasainekin eta mendebaldean Gabiria eta Mutiloarekin. Itsas mailaren gainetik 200 metrora dago. Haranaren bi alboetara altuera hartzen du lursailak, eta Española mendiaren kasuan 433 m-ra eta Ukarreoren kasuan 365 m-ra iristen da.

Bide-sareko elementurik garrantzitsuen etorkizuneko GI-632 Beasain-Durango errepidea da. Lehenengo fasea (Beasain-Itsaso-Alegi) dagoeneko bukatua da udalerriak saihasbide gisa erabiltzeko. Gabiriara eta Mutiloara joateko bideak herrigunetik bertatik abiatzen dira. GI-632 zaharraren trazatua, egun GI-2632 errepidea, udalerri mugakideekin komunikatzeko barne-bide gisa erabiltzen da.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana jarraiki, azterketa-eremua ez dagokio LAP honi.

Nekazaritza-Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana behin-behinean onartzen duen dokumentuaren arabera, azterketa-eremua honako antolamendu-kategoria honetan dago sailkatua: Basoa-Mendia eta Ingurumenaren Hobekuntza



26. irudia. Sasetako TEren 2. hautabidea – Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (Iturria: GeoEuskadi Bisorea)

Basoa-Mendia kategoriaren kasuan, Nekazaritza eta Basozaintzako LAPen arabera, erabilera ez da egokia antolamendu-kategoria horretan; salbuespen gisa, onargarria izango da, nekazaritza-arloan eskumena duen organoaren txosten batek bermatzen badu. Txosten horrek berariaz hartu behar du aintzat nekazaritza- eta basozaintza-jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak biltzea sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LAPEko “Jardun-tresnak”).

Ingurumenaren hobekuntza kategoriari dagokionez, degradatutako eremuak, lurzoru urrikoak edo gaur egun higadura handia dutenak dira. Horietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira lehenbailehen, baliabidea galtzen ez jarraitzeko. Leheneratze-lan horien garapenak kasu bakoitzerako berariazko proiektua egitea eskatzen du. Proiektu horretan alderdi jakin batzuk jaso eta bermatuko dira, hala nola, espezie autoktonoen erabilera, hazien jatorria eta genetika bermatzea, luraren arabera espezieak aukeratzea, etab.

Eragozpenak, sosegua eta osasun publikoa

Lurzatia ez dago *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan*. Hala eta guztiz ere, betelana da eta, ondorioz, baliteke lur eta harkaitz naturaleko material desberdinak egotea, beraz, *ekainaren 25ekoa 4/2015 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak* xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Lurzatiaren inguruan ez dago eraginda suerta daitekeen instalazio/zerbitzurik. 300 m-ra, zuzen-zuzenean, pabiloi industrial batzuk daude, baina ez dute eraginik jasango. Iparraldean 400 m-ra, abiadura handiko trenaren trazatua dago, beraz azpiegituren arteko mugalerroak errespetatu beharko dira.

Eragin-eremuko balizko soinu-iturriak GI-632 errepideko ibilgailuak lirатеke.

Prozesuak eta arriskuak

Kokapenaren albo batean erreka txiki bat igaro da, baina ez dago uholde-arriskurik.

Lursail naturalean bi plataformetan eta bi ezpondetan egindako betelana dago. Lursailaren egonkortasuna ezagutzeko azterketa geotekniko bat eskuratu beharko da.

Aurreikusitako erabilerak

400 m-ra abiadura handiko trenaren trazatua dago, beraz azpiegituren arteko mugalerroak errespetatu beharko dira.

4.2.3.3. 3. hautabidea: Sasietako Zabortegiko lursaila, ingurumen-inbentarioa **Airearen kalitatea**

Klimari eta airearen kalitateari buruzko informazioa 4.2.3.2 atalean aurki daiteke.

Geologia eta geomorfologia

Azterketa-eremuak 325 m-ko mendixka baten gaina hartzen du, baita haren magalak ere, azken horiek sarbiderako erabiliko lirатеkeenak. Espazio hori limolitek eta hareharri supraurgoniarrek osatzen dute, iraulitako tolesturan, alderantzikatuko hegala antiklinala osatuz; azken horretan, estratu zaharrenak berrienen gainean egon ohi dira eta ardatza ipar-mendebalde - hegoalderantz orientatuta dago.

Lursailaren morfologia eta ezaugarri litologikoak kontuan hartuta, esan beharra dago jatorri geomorfologikoko arriskua badagoela. Limolitak harri detritikoak dira, eta buztinak haien deskonposizioaren parte garrantzitsu dira. Ur-kopuru aldakorrek xurgatzeko gai dira eta, ondorioz, plastikoak bilakatu eta lerradura-prozesuak eragin ditzakete, bereziki malda handiko

eremuetan. Mazelako azalerek % 20 eta % 30 bitarteko maldak dituzte, baina mendixka gaineko eremuen topografia leunagoa da; bertan maldak % 5 ingurukoak dira. Mazelako guneeetan, eremuak higadura-prozesuak jasateko gradu ertaina du (jariatze-urak arrasteagatik lurra galtzea, lerradurak...). Gradu hori are handiagoa da landare-estaldurarik ez dagoelako, eta bereziki aurreikusitako erabileretarako lursaila egokitzeko lanetan zehar.

Azkenik, Sasieta II eremuan ez da interes geologikoko eremu, puntu edo ibilbiderik aurkitu, ezta Gipuzkoako Katalogo Espeleologikoan jasotako kobarik ere.

Edafologia

Gipuzkoako Agrologia Moten Mapa oinarri hartuta, azterketa-eremuan IV, VI eta VII. motako lurzoruek daude.

IV. motako lurzoruek noizbehinkako laborantza onar dezakete, eta beste laboreekin batera errotazio zabalen belardi gisa erabiltzen dira nagusiki. Beren ezaugarri topografikoen ondorioz, lurzoru horiek higadura-arazo gutxi izan ohi dute eta nolabaiteko euri-ekarpena eta jariatze-ura jasotzen dute. Hala ere, udan ur-gabezia jasan dezakete.

VI eta VII. motako lurzoruek ez dute laborantza onartzen. Aurrenekoak ez dira nekazaritzarako egokiak, malda handiak, sakonera erabilgarri gutxi eta harri gehiegi dutelako. Egokiago litzateke lurzoru horiek belar edo zurezko landaredia mantentzeko erabiltzea. Bertako baldintza topoedafikoak ikusirik, ekoizpen-prozesua hobe daiteke lurzoru ongarrituz, berrereinez, etab. VII. motako lurzoruek erliebe irregularragoa eta malda handiagoak dituzten eremuetan daude eta baso-lurtzat hartzen dira. Lurralde honetan malda handiak eta prezipitazio altuak dira nagusi eta, ondorioz, oso garrantzitsua da egungo landare-estaldura mantentzea.

Iholbek egindako *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokapenen inbentarioa* kontsultatu da, eta ikusi da eremu horretan badagoela inbentariatutako kokapen bat, jarraian deskribatzen dena.

Kokalekuaren kodea: 20019-00087

Kokalekuaren izena: 2. zaborteia (48-G-C-1)

Azalera: 25.987 m²

Baimena: Baimenduna.

Berreskurapen-maila: Berreskuratu gabea

Operazio-egoera: Aktiboa

Egungo erabilera: Hiri-hondakin solidoen isurketa. Lurzoru industrial gisa kalifikatua.

Sasieta Mankomunitateko hiri-hondakin solidoen zabortegia azterketa-eremuaren barnean dago, bertako ibilgailu-sarbidea Sasieta II eremura sartzeko erabiltzen baita. Hala ere, jarduketak ez du eraginik izango zabortegiko eremuan.

Hidrogeologia

Euskal Herriko Mapa Hidrologikoaren (EVE) arabera, azterketa-eremua Hego Antiklinorioko Jabari Hidrogeologikoan dago. Hala ere, haren azpiko materialak iragazkortasun baxukoak direnez, jabarian definitutako Unitate Hidrologeogikoetatik kanpo geratzen da.

Era berean, eremuak akuiferoak kutsatzeko arriskua oso txikitat hartzen da.

Lurgaineko hidrologia eta sare hidrologikoaren kalitatea

Azterketa-eremua Oriako Unitate Hidrologikoaren barnean dago. Azterketa-eremuaren zati handienak Estanda ibaira drainatzen ditu urak. Hala ere, eremuaren zati txiki batek, Errezkarate eraikina dagoen gainaren ekialdean, urak zuzenean goi Orian drainatzen ditu.

Beheko zatian, sarbidetik gertu, hainbat ibar daude; goi-ibarrak dira eta lekuan bertan lan egin zen egunean ez zuten urik garraiatzen. Eremuaren mutur batean egungo Sasietako Zabortegia dago. Ibar nagusian dago, aurretik aipatu ibarretako urak jaso beharko lituzkeena, alegia. Eremu guztiko lurgaineko urak eremua zeharkatzen duten bideen bazterretan eraikitako drainen bidez bideratuak daude, eta, beraz, sare hidrologiko naturala ezabatu egin da. Hala ere, ibarretan oraindik ez da betelanik egin.

Urak hartzeko arriskuari dagokionez, eta eremuko ur-ibilguak emari gutxikoak izanik (1 km² baino txikiagoko arroekin), ez dira aztertu EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planean, ezta Uholdeei Aurre egiteko Osoko Planean ere. Beraz, ez dago informaziorik horren inguruan. Hala eta guztiz ere, goi-ibarreko eta emari gutxiko ur-ibilguak izanik, ez dago uholde-arriskurik.

Sare hidrologikoa "Euskal-Pirinioetako" ekoeskualdean dago, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egindako azterketen arabera, Estanda ibaiaren egoera eskasa-txarra da tarte horretan. Ibaiertzeko landaredia soilik goi-ibarretan mantentzen da, oso fase gazteetan, eta espezie autoktono desberdinak ditu (bereziki haltzak eta sahatsak). Hala ere, espezie aloktono ugari dago, hala nola sasiakaziak ibaiertz batean, eta platanondoak bestean. Era beran, landaredia ibaiertzaren lehen lerrora mugaturik dago, eta baso-landaketez inguratuta dago. Beraz, haren balioa baxua-ertaina da.

Landaredia eta lurzoruen erabilerak

Azterketa-eremuaren zati handiengan, jatorrizko landaredia honako landaredia hauekin ordezkatu da:

- landaredia erruderala motocrosseko pistan eta Sasietako Zabortegean,
- zabortegearen paisaia leheneratzeko erabilitako landaredia,
- Monterreyko pinuen (*Pinus radiata*) landaketak malda handiko lursailetan,
- sega-belardiak erliebe leunagoko lursailetan.

Bertako hostozabalen baso mistoko orbanek interes naturalistiko nabarmena dute. Horietan nagusi da haritza (*Quercus robur*), baina beste espezie batzuk ere aurki daitezke, hala nola lizarra (*Fraxinus excelsior*) eta gaztainondoa (*Castanea sativa*). Baso horiek haritzen inguruko baso-landare ugari oihanpea izan ohi dute. Zuhai-ka-itxurako orbainak, non orokorrean sasiakazien (*Robinia pseudoacacia*) proportzio nabarmena ikus daitekeen, birgaitzen ari den hostozabalen baso misto gisa kartografiatuta daude.

Nabarmenezkoak dira hostozabalen baso mistoko orbanak eta, neurri apalagoan, birgaitzen ari den hostozabalen baso mistokoak; izan ere, eremuko baso klimatikoaren azken hondarrak dira eta azterketa-eremurantz eboluziona daitezke.

Ez da aurkitu espezie bakana edo berezia izateagatik, edo bere lege-estatusagatik nabarmendu beharreko landaririk.

Katalogatutako espazioak

Azterketa-eremua ez dator bat bertako, autonomia-erkidegoko, estatuko, Europako edo munduko katalogatutako inongo naturagunerekin.

Fauna

Azterketa-eremuaren habitata oso degradatua dago zabortegearen eta koniferoen baso-landaketa zabalen ondorioz. Habitataren kalitate txikiak eremuko fauna-aberastasuna eta -aniztasuna baldintzatzen du; gehienbat espezie ubikista eta toleranteenak bizi dira bertan. Bi fauna-komunitate bereizten dira; bata baso-inguruneetako eta, bereziki konifera-landaketei loturikoa, eta bestea landazabal atlantikoari loturikoa.

Intereseko espezieak eta habitatak

Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko espezie sentikorrenak kontuan hartuta, hots, dagozkien katalogo eta zerrendetan markatuak daudenak eta horiek babesteko neurri zehatzak eskatzen dituztenak –Espezie Mehatxatuen Katalogo Nazionala, martxoaren 30eko 439/90 Errege Dekretuak eta haren eguneraketek erregulatua, eta Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda, 167/1996 Dekretuak eta haren eguneraketek erregulatua–, azterketa-eremuan ez dago horien populazioek eragin nabarmena jasan dezaketen ornodun-espezierik.

Hala eta guztiz ere, badira Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan dauden 3 hegazti (ikus. 4.9.8.3 atala), baina azterketa-eremuan soilik paseko hegaztiak edo elikagai bila dauden hegaztiak daude, hauexek, hain zuzen ere: euri-txori beltza (*Ficedula hypoleuca*), soilik migrazio-paseetan ageri da eta garai horretan zuhaitz-habitat ugari hartzen ditu; sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta erroia (*Corvus corax*), soilik noizbehinka ageri dira eta ez daude eremuko ezaugarri ekologikoen mende. Beste espezieekin batera, soilik elikagai bila doaz zabortegira.

Azkenik, eta bigarren mailako interesekoa izan arren, aipatu beharra dago abandonatutako baserriaren ondoko larre eta haritz helduen eremua, “oasi” bat baita baso-landaketen eta faunarentzat –bereziki hegaztientzat– oso degradatutako beste eremuen erdian.

Paisaia

Azpiegitura zabortegiaren mugen barnean egitean planteatu denez, paisaiaren kalitatea baxua da.

Ondare arkeologikoa eta historiko-arkitektonikoa

Azterketa-eremuan ez dago elementurik edo gune arkeologikorik Beasaingo udalerriko Balizko Arkeologia Guneen Izendapena (EHAA 62. zk - 97/09/29) bezalako arkeologia-intereseko elementuen kartografietan jasota dagoenik, ezta ondare historiko-arkitektonikoko elementurik ere Beasaingo udalerriko Ondare Historiko-Arkiektonikoen inbentarioan jasota dagoenik, izaera loteslekoa den uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen eta haren gomendioen arabera.

Giza habitata

Eremua Beasaingo udalerriko Antzizar auzoan dago, Ormaiztegiko udalerrriaren mugan. Eremua honakoek osatzen dute: belardiez estalitako muinoa, erortzekotan dagoen baserri baten inguruan, eremura sartzeko bidea, argindar linea baten dorrea eta motoentzako zirkuitu bat. Muinoan behera doazen goi-ibarretan pinuen eta hostozabalen baso txikiak daude. Herrigunetik urrun dago eremua, eta bertara iristeko GI-632 errepide zaharra hartu eta Sasietako Udal Hondakinen Zabortegiaren lursailak zeharkatzen dituen bidea jarraitu behar da. Hiri-hondakinen balorizazio energetikoko planta kokatzeko azterketa-eremutik 200 m baino gertuago bi txabola

daude. Ibilgailuak Sasietako Zabortegiaren sarbidea erabiliz sar daitezke plantara. Sarbide hori GI-632 errepide zaharretik abiatzen da eta RENFEko trenbidearen (Madril-Irun) azpitik igaro da.

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

LAP horren arabera, azterketa-eremuan dauden ur-ibilguak zonifikatu gabeko 00 mailako tarteetakoak dira (1 km² baino txikiagoak diren arroak). Hala ere, ur-ibilgu horiei eragingo dieten betelanak eta ibarrak berdintzeko lanak egingo badira, eta ubidearen trazaketa edo haren estaldura aldatzea planteatzen bada, beharrezkoa izango da alternatiba hidraulikoen eta ingurumen-eraginaren zuzenketa inguruko azterketa bat egitea arro isurle guztian.

EAEko Nekazaritza-Basozaintzako eta Natura Inguruneke Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen dokumentua

Aipatu LAP horren hasierako onarpen-dokumentuaren arabera, azterketa-eremua “bizitegi-lurzorua, industrial, ekipamenduena eta azpiegiturena” antolamendu-kategorian dago sailkatua.

5. Teknikoki zentzuzkoak diren hautabideen ingurumen azterketa. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

5.1. Sarrera

Atal honetan, honako kokapen hautabideak aztertuko dira: 3.3.2 apartatuan Donostialdea-Bidasoa esparruan konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta ezartzeko planteatu zirenak, eta 3.3.3 apartatuan Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioa ezartzeko planteatu zirenak, hain zuzen ere proposatutako hautabideen artean azpiegitura bakoitza ezartzeko egokiena dena aukeratzeko. Zepak heltzeko plantari gagozkiola, zehazki, planta hori kokatzeko hautabiderik ez dagoenez, eragin ditzakeen inpaktuak baloratu eta planteatutako kokalekua justifikatuko da. Elgoibarko transferentzia-estazioa (Debabarrena mankomunitatea) eta Arasoko trukatzeko-plataforma (Txingudi mankomunitatea) martxan daudenez, finkatu egin dira Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko azpiegituren mapan.

5.2. Hondakinak kudeatzeko azpiegituren LAPeko hautabideetan jasotako jarduketaren definizioa

LAParen aldaketa honen helburu nagusia da, kokalekurik aiposenak hautatzea, aurreikusitako horizontean Gipuzkoan sortuko diren hiri hondakinen kudeaketari erantzun ahal izateko beharrezko azpiegiturak ezartzeko.

Horrela bada, eta orain arte ikusitakoari jarraituz, aldaketa honetan aurkeztu eta aztertu diren hautabide guzti-guztiak, aldaketa bultzatu duten azpiegiturak kokatzeko hautabideak dira; izan ere, oraingo kudeaketa sistema osatzeko eraiki beharreko azpiegiturak baitira, Aurrerapen Agirian ezarritako helburuak beteko badira: zepak heltzeko planta, konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta Donostialdea-Bidasoalde esparruan, eta transferentzia-estazioa Sasieta mankomunitatean.

Beraz, hautabide batzuetan eta besteetan jaso diren eta lurraldean inpaktua eragin dezaketen jarduketak, azpiegitura berri horietako bakoitzaren eraikuntza fasearekin eta gerorako ustiapenarekin berariaz lotutako jarduketak izango dira batik bat.

Hori horrela, eraikuntza fasean honako jarduketak aipa ditzakegu, besteak beste:

- Lur mugimenduak.
- Sarbideak egitea, bidezkoa bada.
- Eraikinak egitea.
- Lursaila urbanizatzea.
- Lur soberakinak ezabatzea.
- Kamioien joan-etorria, obrak dirauen bitartean, eta abar.

Azpiegituren ustiapen faseari dagokionez, tratamendu-mota bakoitzaren –konpostatzea edota metanizatzea, transferentzia, eta abar– ezaugarri espezifikoaren arabera eraginak izango dira baina, oro har, honako hauek aipa ditzakegu, besteak beste:

- Atmosferarako emisioak.
- Hondakin urak sortzea.

- Kamioien joan-etorria.
- Usaina.
- Zaratak sortzea, eta abar.

Jarduketa horiek ingurunean sortuko duten inpaktu-mailan eragina izango dute, bai instalazio bakoitzaren berariazko ezaugarriek –tamaina, plantan garatuko diren prozesuak, eta abar– eta bai azken batean izango dituzten kokalekuen ezaugarriek –ingurumen balioak, topografia, hondakinak sortzen diren guneetarako distantziak, eta abar–. Hori horrela, atal honetan –inpaktuak prebenitzeari begira, argi eta garbi– planta bakoitza kokatzeko hautabide egokia definitu nahi da; hau da, plantaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa bermatzearekin batera, eraikuntza fasean eta ustiapen fasean jarduketa bakoitzak ingurunean eragin ditzakeen inpaktuak ahalik eta gehien murriztuko dituen hautabidea.

Hala ere kontuan hartu behar da, inpaktuen prebentziorako sistema hori, hau da, ikuspuntu tekniko-administratibotik eta ingurumen ikuspegitik begiratuta hautabiderik onuragarriena definituta lortuko den prebentzio hori, bidezko neurri babesgarri eta zuzentzaileekin osatuko dela. Neurri horiek, hondakinak kudeatzeko xedez Aurrerapen Agirian ezarritako plangintzaren hurrengo faseetan finkatuko dira –eraikuntza proiektuak idazteko fasean, obren fasean, planten ustiapen fasean, eta are ingurumeneko baimen integratua eta ingurumenaren gaineko inpaktuaren azterketa egiteko fasean, halakorik egin behar bada–; hau da, hautabideen azterketa honen emaitzaren argitan planta bakoitzaren kokalekua definitzen denean.

5.3. “0” hautabidea edo ez jarduteko hautabidea definitzea

“0” hautabidea, edo ez jarduteko hautabidea, oraingo egoerarekin jarraitzea izango litzateke; hau da, EZ aldatzea indarrean dagoen LAP. Hori horrela, “0” hautabideak honako ondorioak izango lituzke, besteak beste:

- Inpaktu ekonomiko handia, zeren eta gaingintza egingo bailirateke Donostialdea-Bidasoa esparruko konpostatze edota biometanizatze planta Zaldunbordan eraikitzeke, eta zepak heltzeko planta GIG-1eko +142 sestran eraikitzeke aurreikusita dagoen diru-kopurua. Eta, horrek, halaber, Arzabaleta esparruan duela gutxi onartutako plangintza aldatu beharra ekarriko luke, hau da: Arzabaletako Plan Berezia.
- Ez jakitea Donostialdea-Bidasoa esparruan bio-hondakinak kudeatzeko azpiegitura noiz jarriko den martxan, zeren eta aurreikusitako kokalekuko lurzoruaren egoerak eskatzen dituen neurri zuzentzaileak aplikatu beharko bailirateke (ikus 2.1.2.2 apartatua).
- Debabarreneko mankomunitatean sortutako hondakinak modu iraunkorrean kudeatzeko ezintasuna; izan ere, ez balioke erabilpenik emango, hondakinak azkeneko kudeaketa-puntura garraiatzeak eragiten dituen ingurumen efektuak eta inpaktu ekonomikoak murrizteko xedez eraikia den Elgoibarko transferentzia-estazioari.
- Sasietako mankomunitateari dagokionez, transferentzia-estazioa ezartzeko erabil daitekeen azalera ez dator bat bio-hondakina biltzeko eta garraiatzeko egin den esperientzia pilotuak agerian utzi dituen premia berriekin. Horregatik, transferentzia-estazioaren kokalekua aldatuko balitz, beste lekuren bat bilatu beharko litzateke horrelako hondakin mota aldi

baterako gordetzeko; eta horrela, inpaktuak bikoiztu egingo lirateke, hondakinak kudeatzeko bi azpiegitura izango bailirateke.

- Txingudiko mankomunitatean sortutako hondakinak modu iraunkorrean kudeatzeko ezintasuna; izan ere, plangintzan estaldurarik gabe utziko bailuke GIG-1 eraiki eta martxan jarri arte hondakinak garraiatzeak berarekin dakartzan ingurumen inpaktuak eta ondorio ekonomikoak murrizten dituen Arasoko trukatzeko-plataforma.

5.4. Aldaketa honen helburuetatik ondorioztatuko diren ingurumen efektuak baloratzea

Aipagai dugun azterketa honen helburuak honela laburbildu daitezke: indarrean dagoen LAPean proposatutako azpiegituren mapa aldatu eta plan hori onartu zenetik sortu diren premia berrietara egokitu beharra, Gipuzkoan sortutako hiri hondakinak kudeaketari erantzun ahal izateko, Europako, estatuko eta erkidego mailako araudietan proposatutako ingurumen helburuak betez.

Aldaketa honen ingurumen efektuak, hortaz, bi iturri hauetatik etor daitezke: lerrun handiagoko beste plan eta programa batzuekin izan ditzakeen elkarreraginetatik, eta aldaketa bultzatu duten azpiegituren eraikuntzak eta funtzionamenduak sortuko dituen inpaktuetatik.

Horrela bada, hurrengo apartatuetan xehetasun osoz aztertuko dira proposatutako azpiegiturak lurralde jakin batean kokatzeko –eraikuntza fasea eta ustiapena– ekarriko dituen ondorioak.

5.4.1. Hautabide desberdinak baloratzeko erabili diren irizpideen deskripzioa

Azpiegitura guztietarako hautabideak aztertzeko eta alderatzeko xedez hurrengo apartatuetan jarraituko den prozesuan, dokumentu honetako 3.1 eta 3.2 apartatuetan aipatu diren ingurumen eta lurralde irizpideak, hala nola tekniko-ekonomikoak, erabiliko dira.

5.4.2. Zepak heltzeko planta ezartzeko proposatu den hautabidearen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

Zepak tratatzeko eta heltzeko plantan, GIG-1eko energia balioztatzen plantatik datozen zepak tratatuko dira. Prozesua haxe izango da: zepak berez lehortzen utzi 5 egunez, gero metalak (burdinazkoak eta burdinazkoak ez direnak) bereizi, eta tamainaren arabera sailkatu, heltze prozesuari ekiteko.


3.3.1 apartatuan adierazi bezala, kasu honetan ez da proposatu azpiegitura hori kokatzeko hautabiderik, zeren eta hondakinak tratatzeko azken zikloa denez, GIG-1etik ahalik eta hurbilen egon behar baitu. Horregatik, Eskuzaitzetan egingo den industrialdearen eraikuntza baliatuz, planta hori GIG-1etik hurbilen geratzen den industrialdearen lurzorian kokatzea proposatzen da, baskulak ipiniko diren eremuan. Hauek dira hautaketa hori justifikatzen duten premisak:

- GIG-1etik hurbil; beraz, zepak plantara eramateko garraioa minimizatu egingo da, prozesua ingurumen inpakturik txikienarekin bukatzea bermatuz.
- Industri erabilerako ingurunea da; beraz, jarduera ezartzean, eragin minimoa izango du ingurumenean eta gizartean. Industrialdean ezartzeak ez du zerikusirik azpiegitura honen eraikuntzarekin; hau da, lehendik artifizializatua dagoen kokalekua aukeratu da.

- Erabilerak bat datoz hirigintza planarekin; gainera, lurzati hauetan, GIG-1 gunetik (Arzabaleta) hain hurbil daudenez, hondakinak tratatzeko eraikiko den plantarekin lotutako jarduerak ezartzea aurreikusi da,
- Industrialdea denez, obraren fasean pabilioia eraiki besterik ez da egingo.
- Zerbitzuak eta sarbideak eskura egotea.

Arrazoi horiek tarteko, eta azpiegiturak ezartzeko metodologian salbuespen bat eginez, ez da aurreikusi zepak heltzeko plantaren kokaleku izan daitezkeen hautabideak aztertzea.

Segidako irudian eta memoria honi atxikita doan E-02 planoan ikus daiteke zepak heltzeko planta ezartzeko proposatu den kokalekua.



27. figura. Zepak heltzeko planta ezartzeko proposatu den kokalekua

Kokalekua zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.1 apartatura.

• Ingurunearen azterketa

4.2.1 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunearen egungo egoera. Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da, inportantea baita, obraren ingurumen kostuak ez duela zerikusirik azpiegitura ezartzearekin, industrialdea bera eraikitzearekin baizik. **Azpiegitura hori «ZU.08 Eskuzaitzeta» areako urbanizazio proiektuan proposatutako industrialdea eraiki eta gero ezarriko da, eta horrek dagoeneko badu ALDEKO^(*) Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena.**

^(*) Ingurumeneko sailburuordeak 2011ko martxoaren 18an emandako EBAZPENaren arabera, «ZU.08 Eskuzaitzeta» arearen (Donostiako udalerria) urbanizazio proiektuari ebazpen horretan eman zitzaion Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena.

- **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Jarduketa eremuan gaur egun airearen kalitatea ona dela esan daiteke, ez baitago kalitate horretan eragin lezakeen igorpen-iturririk.

Behin poligonoa eraikitzen bukatuta, eta zepak heltzeko planta ezarrita, instalazio horiek eragin ditzaketen igorpenak ez dira aipatzeko modukoak izango, zeren eta azpiegituraren igorpen-iturriek bete egingo baitute indarrean dagoen araudiak gehieneko igorpen-mugei buruz ezarritakoa.

Tratatu beharreko materiala (zepak) berez hauts-itxurakoak denez, material hori airea xurgatzeko sistema batez hornitutako pabilioi baten barruan tratatu beharko da, eta araztu, isuri aurretik.

Horregatik, zepak heltzeko plantan sortutako igorpenak ez-aipagarriak izango dira.

Beste igorpen-iturri bat industrialdera eta GIG-1era datozen ibilgailuekin lotutakoa izango da. Azkeneko kasu horretan, zepak heltzeko plantara iristen diren ibilgailuek eragindako inpaktua, GIG-1etik datozen ibilgailuek sortutakoa izango da, beraz, ibilbide laburrak dira; eta, edozein kasutan ere, ez da aipagarria izango, GIG-1erako eta gunen kokatua dagoen poligonoaren gainerako eremurako aurreikusita dagoen joan-etorriarekin alderatzen badugu.

Igorpenek klima-aldaketan izan dezaketen eraginari gagozkiola, egia da alderdi horretan inpaktu bat eragingo duela, baina ez da beste kokapenetatik bereizten duen elementu bat; izan ere, jarduerak berak eragindako inpaktua baita, eta ez kokalekuak.

Isurpenak

Gorago adierazi bezala, instalazio berriek hiru sare mota izango dituzte ura biltzeko:

- Euri-urak, eraikinen estalkietatik datozenak, poligonoko ur garbien sarera joango dira zuzenean.
- Bideetako ur zikinak eta prozesuko hondakin urak (lixibatuak eta garbiketarik datozenak) plantan bertan araztuko dira, eta gero poligonoko sarera bidali (erabakitzen diren isurpen mugak errespetatu egingo dira).

Ur zikinak ez dira poligonoko sarera isuriko sekula; hortaz, isurpen horiek eragin dezaketen inpaktua ez-aipagarria izango da.

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Plantak berak eta langileek dituzten ur premiak Poligonoak berak hornituko ditu.

Zarata

Obren fasean, planta eraikitzen den bitartean alegia, eraikuntza horrek berariaz eragindako zarata izango da (instalazioak ezartzea eta ibilgailuen joan-etorria).

Behin eraikuntza-lanak bukatzean, hauek izango dira zarata-iturri nagusiak: zepak mugitzeko sistemak eragindakoa eta xurgatutako airea arazteko sistemak sortutakoa. Nolanahi ere, indarreko araudiak agindutakoa uneoro betetzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak izango ditu azpiegiturak.

Zarata-iturri finkoez gain, ez da ahaztu behar jarduerak berak eskatzen duen kamioien joan-etorria, baina jatorria eta helmuga GIG-1 izango denez, eragingo duten inpaktua ez-aipagarria izango da.

Hondakinak

Instalazio berrietan honako hauek identifika daitezke:

- Kanpoan (kudeatzaile baimendua) kudeatu beharreko hondakinak: airearen arazketa sistemako hondakinak, bereziki prestatutako lekuetan gordeko direnak, kanpoan kudeatzeko biltzen diren arte.
- Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak: hondakin motaren arabera kudeatuko dira, poligonoan egiten den kudeaketarekin bat.

Arestian adierazitakoaren arabera, sortuko diren hondakin horiek eragindako inpaktua ez-aipagarria izango da.

Ibilgailuen joan-etorria

Zepak heltzeko plantara etortzen diren kamioiak GIG1etik datozenak izango dira; beraz, bi norabideko ibilbidea izango da: zepak heltzeko planta – GIG1; beraz, poligonoko ibilgailuen zirkulazioan ez du eragingo.

Ikusizko inpaktua

Eraikiko den planta eraikin itxiez osatuko da (aire librean ez da inolako material-pilaketarik egingo); hortaz, instalazioen multzoan txertatuak geratuko dira begien bistarako (ez da ahaztu behar industrialde bat dela).

Gerta daitekeen ikusizko inpaktuak ez du zerikusirik GIG1ek sor dezakeenarekin; izan ere, jarduketa eremuaren topografia kontuan hartuta (muinoak eta ibarrak ditu), instalazio baten eta bestearen artean ez dago ikusizko loturarik.

Landare-estalduraren gaineko eragina

Landare-estaldura ez da inolaz ere ukituko, zeren eta planta industrialde batean ezarriko baita.

Landare-estaldura ezabatu beharrik izango ez denez, klima-aldaketan ez da gertatuko erabilera aldatzearen ondoriozko landaretza-murritzpenak ekar lezakeen karbono-xurgapenaren galerarik, ez eta biomasan karbonoa izateak eragin ditzakeen igorpenen gorakada puntualik ere.

• **Inpaktu ekonomikoa**

Lehendik ere industrialdea da, eta hor jada egin dira lurzatiak zabaltzeko egin beharreko lur mugimenduak. Sarbidea badu, eta beharrezko hartuneak ere eginak izango ditu (poligonoaren beraren hartuneak). Horrela bada, inpaktu ekonomiko bakarra planta eraikitzeak eta lurzatia erosteak eragindakoa izango da; kasu honetan industriarako lurzorua denez, garestiagoa da.

5.4.3. Donostialdea-Bidasoa esparruan konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta ezartzeko proposatu diren hautabideen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

Donostialdea-Bidasoa esparruan konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta ezartzeko aztertu diren hautabideak 3.3.2 apartatuak adierazitakoak berak dira; honako hauek:

- 1. hautabidea. Lasarte-Donostialdea triangelua: A-8 autobideak, autobide hori eta N-1 errepidea lotzen dituen bideak, eta ingurune horretako bigarren ingurabidearen trazatuak osatzen duten triangelua da.
- 2. hautabidea. Eskuzaitzetako D lurzatia (San Marko mankomunitatea, Donostiako udal barrutia), zepak heltzeko plantaren aldamenekoa.
- 3. hautabidea. Loistegikogaina lurzatia (San Marko mankomunitatea, Donostiako udal barrutia).

Aukerarik hoberena hautatzeko, hautabide horiek ikuspegi tekniko, ekonomiko eta ingurumenekotik aztertuko dira.

1. hautabidea: Lasarte-Donostialdea triangelua

Hautabide hau zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.2.2 apartatura.

• Ingurunearen azterketa

4.2.2.1 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunea. Nabarmendu beharreko alderdiak, besteak beste:

- Paisaia: Belar-soroek (malda suabeko eremuetan daude) eta malda biziagoko eremuetan eta ibar hondoetan dauden hostozabal-basoek osatzen duten mosaikoa dela-eta, paisaia kalitate onekoa dela esan daiteke.
- Fauna. Eremu honen ezaugarri ekologikoez fauna-taxozenosi oparoak eta aberatsak ahalbidetzen dituzte, eta uda-partean hegazti aniztasun handia ikus daiteke. Bestetik, garbi dago landazabalak hegazti negutarrak hartzeko duten gaitasun handia.
- Landaretza: azterketa-eremuak sega-belardiak ditu malda suabeko muinoetan, eta hostozabalen baso mistoa malda biziko lursailetan eta Arpita errearen ibar hondoetan. Eremu honetan ez da antzeman landare edo landare-multzo babesturik.
- Nekazaritza eta basogintza buruzko LAP: aztertutako esparru hau nekazaritza eta abeltzaintza arloko antolamendu kategorietan sailkatutako eremutan dago: Balio estrategiko eta nekazaritza zein abeltzaintzarako balio handikoa: Trantsizioko landa-paisaia. Nekazaritza eta abeltzaintza-Balio Estrategiko handia kategoriaren kasuan, nekazaritza eta abeltzaintzako LAPan ezarritakoaren arabera, erabilera hori ez da gomendagarria Antolamendu Kategorian; hala eta guztiz ere, aparteko kasuren batean onartu ahal izango da, baldin eta nekazaritza gaitan eskumena duen organoaren txostenak halakorik bermatzen badu, nekazaritzan eta basogintzan izango duen eragina bereziki aintzat hartuta eta, betiere, bidezko neurri zuzentzaileak ezartzen badira, Osasun Planean (PEAS) jasotako baldintzetan (D dokumentua, Nekazaritza eta basozaintzako LAParen I. eranskina "Jarduketa tresnak"). LAP horrek nekazaritza eta abeltzaintza-trantsizioko landa-paisaia kategoriari buruz ezarritakoaren arabera, konpostatzeko planta ezartzea onargarria izango da, baldin eta nekazaritzan eta basogintzan izango duen ondorioa aztertzen bada, eta bidezko neurri zuzentzaileak ezartzen badira Osasun Planean (PEAS) jasotako baldintzetan (D dokumentua, Nekazaritza eta basozaintzako LAParen I. eranskina "Jarduketa tresnak").
- Mendi-hegalaren ezegonkortasuna. Eremuak badu halako ezegonkortasun arrisku bat, zeren eta lursail maldatsu samarra baita, tartean ibarrak dituela, eta higadura fenomenoak sortzeko aproposa, landaretzarik ez dagoenean eta eurite-sasoitan batez ere.

- **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Planaren eraginpeko eremuan sorburu posible hauek identifika daitezke: AP-8 autobidetik iragaiten diren ibilgailuak, autobide hori eta N-1 errepidea lotzen dituen bidea, eta bigarren ingurabidearen trazatua.

Instalazio berriak martxan jartzeak ibilgailu kopuruaren gorakada ekarriko du berarekin (10-21 ibilgailu/egunean, zenbatespenen arabera); hala ere, airearen kalitatean ez dute ondorio nabarmenik eragingo noski (bide horiek trafiko handia jasaten baitute lehen ere).

Igorpenek klima-aldaketan izan dezaketen eraginari gagozkiola, egia da alderdi horretan inpaktu bat eragingo dutela, baina ez da beste kokapenetatik bereizten duen elementu bat; izan ere, jarduerak berak eragindako inpaktua baita, eta ez kokalekuak.

Isurpenak

Kontrolik gabeko ur zikinen isurpenik gertatuko ez den moduan diseinatu dira instalazio berriak.

Hasteko, hiru ur mota bilduko dira bereizita:

- Pabilioien estalkitik datozen euri-urak, kolektorera (oraindik eraiki gabea) bideratuko dira zuzenean.
- Bideetako ur zikinak eta prozesuko hondakin urak plantako bertako araztegira bidaliko dira, gero ur zikinen kolektorera bidaltzeko (berria, hau ere).

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Prozesuaren eta langileen ur premiak asetzeko, kolektore berria eraiki beharko da.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuetako zarata-iturriak, gaur egun, jarduketa eremua mugatzen duten errepideetatik (AP-8, 2. ingurabidea, N-I) iragaiten diren ibilgailuek sortutakoak dira.

Instalazio berrietan sortuko den zaratari dagokionez, obren faseko zarata ibilgailuen zirkulazioak eta instalazioak ezartzeko beharrezkoak diren makinaren joan-etorriak eragindakoa izango da.

Plantaren ustiapen fasean, instalazioa behar beste intsonorizatua egongo da, indarreko araudiak agindutakoa uneoro beteko den moduan. Kontuan hartu behar da, halaber, plantara iristen diren ibilgailuek eragingo duten zarata (gorago adierazi bezala, egunean 10-21 ibilgailuren joan-etorria aurreikusi da).

Hondakinak

Instalazio berrietan bi hondakin-fluxu bereiz daitezke, hain zuzen instalazioez kanpo kudeatu beharrekoak:

- Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak
- Prozesuaren hondakinak.
- GIG1en kudeatuko den plantako errefusa.

Usaina


Hasiera batean, hondakinak hartzeko eremua eta aurretratamendurako eremua izango dira usain-iturri nagusiak: bi eremu horiek, nahasketak egiteko eta egokigailua prestatzeko eremuarekin batera, eraikin itxi eta estankoan kokatuko dira (eraikin horrek, aireztapen sistema egokia izango du, usaina ezabatzea bezalaxe, hain zuzen ere aipatutako usain horiek atera ez daitezzen).

Ibilgailuen joan-etorria

Aztergai ditugun lursailetarako sarbidea, baldin eta biometanizatzeke planta ezartzen bada, Aritzeta zerbitzugunetik (GI-20 errepidea) eraikiko den bide berri batetik egingo litzateke.


ERaikiko den bide berri horrek, hasiera batean, planta hori bakarrik zerbitzatuko luke (zenbatespenen arabera, 10-21 ibilgailuren joan-etorria egunean).

Ibilgailu kopuru horrek planta inguratzen duten bide nagusietan eragingo lukeen ondorioa ez litzateke aipagarria izango; izan ere, AP-1/AP-8 bigarren ingurabidea, Aritzetako zatian (eraiki berria, hain zuzen) bidegurutze nagusia da, eta badu aipatutako kamioi kopurua hartzeko behar besteko gaitasuna.



Ikusizko inpaktua

Nahiz eta biometanizatzekeo planta diseinatu den prozesua pabilioi sail baten barruan egiteko, bai eraikuntzek eta bai aurreikusitako ibilgailuen joan-etorriak ikusizko inpaktu aipagarria eragingo dute (kokalekua gain batean dagoenez, jarduketa eremuan dauden baserrietatik bistan geratuko da, baita AP-1/AP-8 autobidetik eta GI-20 errepidetik ere).



Landare-estalduraren gaineko eragina

Gorago adierazi bezala, planta eraikitzeak eta sarbidea egiteak landare-estaldura ezabatu beharra ekarriko du; beraz, inpaktu hori aipagarritzat jo daiteke.

Azpiegitura ezartzeko landare-estaldura ezabatu beharrak klima-aldaketa bultzatuko du, zeren eta eremu honetako erabilera aldatu eta landaretza murriztearekin, karbonoa xurgatzeko gaitasuna galduko baita; eta gainera, biomasan karbonoa izateak eragindako igorpenen gorakada puntuala gerta daiteke.

• **Inpaktu ekonomikoa**

Aztergai dugun Lasarte-Donostialdea triangeluan, biometanizatzekeo plantak eragindako kostuari honako hauek erantsi beharko litzaizkioke: lurzatia bera egokitzeak (lur mugimenduak), bide nagusitik sarbideak egiteak, eta bidezko hartuneak egiteak (hornidura, uren hustubideak, argindar sarea) izango dituzten kostuak.

2. hautabidea: Eskuzaitzeta lurzatia

Hautabide hau zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.2.2 apartatura.

- **Ingurunearen azterketa**

4.2.1 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunearen egungo egoera. Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da, inportantea baita, obraren ingurumen kostuak ez duela zerikusirik azpiegitura ezartzearekin, industrialdea bera eraikitzearekin baizik. **Azpiegitura hori «ZU.08 Eskuzaitzeta» areako urbanizazio proiektuan proposatutako industrialdea eraiki eta gero ezarriko da, eta horrek dagoeneko badu ALDEKO^(*) Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena.**

(*) Ingurumeneko sailburuordeak 2011ko martxoaren 18an emandako EBAZPENaren arabera, «ZU.08 Eskuzaitzeta» arearen (Donostiako udalerria) urbanizazio proiektuari ebazpen horretan eman zitzaion Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena.

- **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Jarduketa eremuan gaur egun airearen kalitatea ona dela esan daiteke, ez baitago kalitate horretan eragin lezakeen igorpen-iturririk.

Behin poligonoa eraikitzen bukatuta, eta biometanizatzeko planta ezarrita, instalazio horiek eragin ditzaketen igorpenak ez dira aipatzeko modukoak izango, zeren eta azpiegituraren igorpen-iturriek bete egingo baitute indarrean dagoen araudiak gehieneko igorpen-mugei buruz ezarritakoa.

Biometanizatzeko plantak sortuko dituen igorpenak ez-aipagarriak izango dira, eta igorpen horiek ingurunean eragingo duten ondorioa, GIG1etik aterako diren igorpenak kontuan hartuta, hutsala izango da (airearen kalitatean eragin ditzaketen iturri nagusiak GIG1 berarekin lotutakoak izango dira).

Beste igorpen-iturri bat industrialdera eta GIG1era datozen ibilgailuekin lotutakoa izango da. Kasu honetan, biometanizatzeko plantara iristen diren ibilgailuek eragindako inpaktua ez-aipagarria izango da, GIG1ek mugituko duen ibilgailuen joan-etorriarekin alderatuta.

Igorpenek klima-aldaketan izan dezaketen eraginari gagozkiola, egia da alderdi horretan inpaktu bat eragingo dutela, baina ez da beste kokapenetatik bereizten duen elementu bat; izan ere, jarduerak berak eragindako inpaktua baita, eta ez kokalekuak.

Isurpenak

Gorago adierazi bezala, instalazio berriek hiru sare mota izango dituzte ura biltzeko:

- Euri-urak, eraikinen estalkietatik datozenak, poligonoko ur garbien sarera joango dira zuzenean.

- Bideetako ur zikinak eta prozesuko hondakin urak plantaren barruan egingo den araztegira joango dira, eta gero poligonoko sarera bidali (erabakitzen diren isurpen mugak errespetatu egingo dira).

Ur zikinak ez dira poligonoko sarera isuriko sekula; hortaz, isurpen horiek eragin dezaketen inpaktua ez-aipagarria izango da.

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Plantak berak eta langileek dituzten ur premiak Poligonoak berak hornituko ditu.

Zarata

Obren fasean, planta eraikitzen den bitartean alegia, eraikuntza horrek berariaz eragindako zarata izango da (instalazioak ezartzea eta ibilgailuen joan-etorria).

Behin eraikuntza-lanak bukatzean, zarata-iturri nagusia kogenerazioko motorrek eragindakoa izango da, baina horiek behar bezala intsonorizatuko dira, indarreko legeria uneoro beteko duten moduan.

Zarata-iturri finkoez gain, ez da ahaztu behar jarduerak berak eskatzen duen kamioien joan-etorria. Kasu honetan, bide bakarra erabiliko da bai GIG1era heltzeko eta bai poligonoan bertan kokatuko diren enpresetara sartzeko, nahiz eta GIG1ek ibilgailuen joan-etorri handiagoa eragingo duen.

Hondakinak

Instalazio berrietan honako hauek identifika daitezke:

- Kanpoan (kudeatzaile baimendua) kudeatu beharreko hondakinak: prozesuaren hondakinak, bereziki prestatutako lekuetan gordeko direnak, kanpoan kudeatzeko biltzen diren arte.
- Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak: hondakin motaren arabera kudeatuko dira, poligonoan egiten den kudeaketarekin bat.
- GIG1en kudeatuko den plantako errefusa.

Arestian adierazitakoaren arabera, sortuko diren hondakin horiek eragindako inpaktua ez-aipagarria izango da.

Usaina

Hondakinak hartzeko eremua eta aurretratatamendurako eremua izango dira usain-iturri nagusiak: gorago adierazi bezala, bi eremu horiek, nahasketak egiteko eta egokigailua prestatzeko eremuarekin batera, eraikin itxi eta estankotan kokatuko dira (eraikin horrek aireztapen sistema egokia izango du, usaina ezabatzea bezalaxe, hain zuzen ere aipatutako usain horiek atera ez daitezten).

Ibilgailuen joan-etorria

Biometanizatzeko plantara joango diren ibilgailuek bide berria erabiliko dute, hau da, GIG1 eta poligonoa bera zerbitzatzeko xedez eraikitako bidea, alegia. Bide hori N-I errepidetik abiatuko da, Mercabugatiren parean.

Aurreikuspenen arabera GIG1era iritsiko den ibilgailu kopurua kontuan hartuta (93 ibilgailu egunean), ez dirudi biometanizatzeko plantara doazen ibilgailuek bide hori itoko dutenik: gorago esan bezala, 10-21 ibilgailu izango baitira egunean. Gainera, pentsatzekoa da, bide hori industrialdea bere osotasunean zerbitzatzeko diseinatu dela.

Ikusizko inpaktua

Eraikiko den planta eraikin itxiez osatuko da (aire librean ez da inolako material-pilaketarik egingo); hortaz, instalazioen multzoan txertatuak geratuko dira begien bistarako (ez da ahaztu behar industrialde bat dela).

Gerta daitekeen ikusizko inpaktuak ez du zerikusirik GIG1ek sor dezakeenarekin; izan ere, jarduketa eremuaren topografia kontuan hartuta (muinoak eta ibarrak ditu), instalazio baten eta bestearen artean ez dago ikusizko loturarik.

Landare-estalduraren gainera eragina

Landare-estaldura ez da inolaz ere ukituko, zeren eta planta industrialde batean ezarriko baita.

Landare-estaldura ezabatu beharrik izango ez denez, klima-aldaketan ez da gertatuko erabilera aldatzearen ondoriozko landaretza-murritzpenak ekar dezakeen karbono-xurgapenaren galerarik, ez eta biomasen karbonoa izateak eragin ditzakeen igorpenen gorakada puntualik ere.

• **Inpaktu ekonomikoa**

Kasu honetan, beste bi hautabideetan ez bezala, kokalekua lehendik ere industrialdea da, eta hor jada egin dira lurzatiak zabaltzeko egin beharreko lur mugimenduak. Sarbidea badu, eta beharrezko hartuneak ere eginak izango ditu (poligonoaren beraren hartuneak). Horrela bada, inpaktu ekonomiko bakarra planta eraikitzeak eta lurzattia erosteak eragindakoa izango da; kasu honetan industriarako lurzorua denez, garestiagoa da.

3. hautabidea: Loistegikogaina lurzatia

Hautabide hau zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.2.2 apartatura.

• Ingurunearen azterketa

4.2.2.3 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunea. Nabarmendu beharreko alderdiak, besteak beste:

- Paisaia: Esan liteke paisaiaren kalitatea altua dela une honetan (nahiz eta inguruan AP-8 daukan). Dena den, gizakiak sortutako beste elementurik ez da identifikatu; beraz, biometanizatzekeo planta eraikitzeak balio baxu-ertainera jaitsiko luke paisaiaren kalitatea.
- Fauna. Landazabal atlantikoetan, bertan bizi diren edo ugaltzen diren espezie interesgarriak identifikatu ohi dira; esate baterako, hegoaldeko zuhaitz-igela eta lepitzulia. Eta eremu hau paserako edo bizi-eremu gisa erabiltzen duten espezieen artean, honakoak aipa ditzakegu: euli-txori beltza, erle-txoria, miru gorria edota belea. Hala eta guztiz ere, aztergai dugun eremua unitate horretan dagoen arren (landazabal atlantikoan), aztertu diren lursailetan ez da identifikatu espezie horietakorik (inguruan bai, ordea).
- Landaretza: Planaren eraginpeko eremuan honakoak daude: batetik, baso-landaketak eta hostozabalen baso mistoa (malda biziko lursailetan eta erreken ibar hondoetan); eta bestetik, sega-belardiak malda suabeko sailetan (esan daiteke nahiko ondo zaindutako landazabal guneak direla). Ez da antzeman beren izaeragatik berezizat jo daitekeen espezierik, ez eta babes bereziko naturgunerik ere.
- Nekazaritzari eta basogintzari buruzko LAP: aztertutako esparru hau Mendia antolamendu kategorietan sailkatutako eremutan dago: Basoa eta nekazaritza zein abeltzaintzarako eremua: Trantsizioko landa-paisaia. Mendia-Basoa kategoriaren kasuan, nekazaritza eta abeltzaintzako LAPan ezarritakoaren arabera, erabilera hori ez da gomendagarria Antolamendu Kategorian; hala eta guztiz ere, aparteko kasuren batean onartu ahal izango da, baldin eta nekazaritza gaietan eskumena duen organoaren txostenak halakorik bermatzen badu, nekazaritzan eta basogintzan izango duen eragina bereziki aintzat hartuta eta, betiere, bidezko neurri zuzentzaileak ezartzen badira, Osasun Planean (PEAS) jasotako baldintzetan (D dokumentua, Nekazaritza eta basozaintzako LAParen I. eranskina "Jarduketa tresnak"). LAP horrek nekazaritza eta abeltzaintza-trantsizioko landa-paisaia kategoriari buruz ezarritakoaren arabera, konpostatzeko planta ezartzea onargarria izango da, baldin eta nekazaritzan eta basogintzan izango duen ondorioa aztertzen bada, eta bidezko neurri zuzentzaileak ezartzen badira Osasun Planean (PEAS) jasotako baldintzetan (D dokumentua, Nekazaritza eta basozaintzako LAParen I. eranskina "Jarduketa tresnak").
- Mendi-hegalaren ezegonkortasuna. Flysch gainean dauden lursail maldatsuek higadura fenomenoak sortzeko joera erakusten dute, landaretzarik ez dagoenean eta eurite-

sasoitan batez ere. Flyscha sedimentuzko formazioa da, eta aztertutako eremuan granulometria fineko materialez osatua dago. Material horiek hain hauskorrak direnez, eta aztergai dugun esparrua orografia nahiko suabeko espazio baten gaina denez, esan daiteke mendi-hegalak egonkortasun ertaina-baxua erakusten duela.

- **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Jarduketa eremuan gaur egun airearen kalitatea ona dela esan daiteke, ez baitago kalitate horretan eragin lezakeen igorpen-ituririk. Airearen kutsa lezaketen sorburu bakarrak, AP-8 autobideko ibilgailuak direla esan daiteke.

Planta berria ezartzeak, hasiera batean ez du aldaketa aipagarrikerik eragingo airearen kalitatean; izan ere, igorpen-iturriek bete egingo baitute indarrean dagoen araudiak gehieneko igorpen-mugei buruz ezarritakoa.

Plantara heltzen den ibilgailu kopuruak eragindako igorpenak ez-aipagarriak izango dira, AP-8 autobideak sortzen dituenekin alderatuta (biometanizatzeko plantara 10-21 ibilgailu iritsiko dira egunean).

Igorpenek klima-aldaketan izan dezaketen eraginari gagozkiola, egia da alderdi horretan inpaktu bat eragingo dutela, baina ez da beste kokapenetatik bereizten duen elementu bat; izan ere, jarduerak berak eragindako inpaktua baita, eta ez kokalekuak.

Isurpenak

Planta berriak hiru sare bereiziak izango ditu: sare bat, eraikinetako estalkietatik datorren ur abiltzeko; beste bat, bideetako ur zikinak biltzeko; eta abestea, prozesuko hondakin urak biltzeko.

Eraikinen estalkietan jasotako urak ur garbitzat jotzen dira, beraz, zuzenean isurtze modukoak dira, aurrez tratamendurik eman gabe; beste bi fluxuak, aldiz, araztegitik pasako dira, instalazio berriak zerbitzatzeko egingo den araztegitik, hain zuzen.

Ur horiek, eraikiko den kolektore berrira bidaliko dira, eta kolektore hori Igarako saneamendu sareari lotuko zaio (1,5 km gutxi gorabehera).

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Plantaren premiei erantzuteko, kolektore berria eraiki beharko da.

Zarata

Jarduketa eremuan dauden zarata-iturri bakarrak, AP-8 autobidea (eremu honetatik bistan) eta GI-20 errepidea erabiltzen dituzten ibilgailuak dira.

Biometanizatzekeo planta martxan jartzean, zarata-maila hori areagotu egingo da, tratatu beharreko materiala instalazioetara ekarriko duten ibilgailuen joan-etorriaren eraginez, batik bat. Planta martxan jartzeak ez du zarata-maila aipagarririk sortuko, zeren eta instalazioa intsonorizatuko egingo baita, indarreko legeriak eskatzen duen eran.

Hondakinak

Instalazio berrietan honako hauek identifika daitezke:

- Kanpoan (kudeatzaile baimendua) kudeatu beharreko hondakinak: prozesuaren hondakinak, bereziki prestatutako lekuetan gordeko direnak, kanpoan kudeatzeko biltzen diren arte.
- Hiri hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak: hondakin motaren arabera kudeatuko dira, poligonoan egiten den kudeaketarekin bat.
- GIG1en kudeatuko den plantako errefusa.

Arestian adierazitakoaren arabera, sortuko diren hondakin horiek eragindako inpaktua ez-aipagarria izango da.


Usaina

Hondakinak hartzeko eremua eta aurretratamendurako eremua izango dira usain-iturri nagusiak: gorago adierazi bezala, bi eremu horiek, nahasketak egiteko eta egokigailua prestatzeko eremuarekin batera, eraikin itxi eta estankoa kokatuko dira (eraikin horrek aireztapen sistema egokia izango du, usaina ezabatzea bezalaxe, hain zuzen ere aipatutako usain horiek atera ez daitezke).

Ibilgailuen joan-etorria

Planta ezartzeko kokalekuari sarrera eman ahal izateko, sarbide berria egokitu beharko litzateke eta, horretarako, GI-20 errepideari adar berri bat egin beharko litzaioke (Aritzeta zerbitzugunetik abiatuta).


Aurreikuspenen arabera plantara iritsiko den ibilgailu kopurua kontuan hartuta (10-21 ibilgailu egunean), eta kokalekua inguratzen duten bideen gaitasunari erreparatuta, ez dirudi ibilgailuen joan-etorriaren gorakada horrek arazorik sortuko duenik.



Ikusizko inpaktua

Gorago adierazi bezala, paisaiaren kalitatea ona dela esan daiteke. GI-20 errepidea alde batera utzita, aztertutako lursailen inguruan ez da identifikatu gizakiak sortutako beste elementurik; beraz, biometanizatzeoko planta eraikitzeak nabarmen kaltetuko luke paisaiaren kalitate hori.

Nahiz eta biometanizatzeoko planta diseinatu den prozesua pabilioi sail baten barruan egiteko, bai eraikuntzek eta bai aurreikusitako ibilgailuen joan-etorriak ikus-inpaktu aipagarria eragingo dute (muino itxurako eremua izan arren, kokaleku horretatik Igeldo ikusten da).



Landare-estalduraren gaineko eragina

Gorago adierazi bezala, planta eraikitzeak eta sarbidea egiteak landare-estaldura ezabatu beharra ekarriko du; beraz, inpaktu hori aipagarritzat jo daiteke.

Azpiegitura ezartzeko landare-estaldura ezabatu beharrak klima-aldaketa bultzatuko du, zeren eta eremu honetako erabilera aldatu eta landaretza murriztearekin, karbonoa xurgatzeko gaitasuna galduko baita; eta gainera, biomasan karbonoa izateak eragindako igorpenen gorakada puntuala gerta daiteke.

• Inpaktu ekonomikoa

Kasu honetan, Lasarte-Donostialdea triangeluan bezalaxe, biometanizatzeko plantak eragindako kostuari honako hauek erantsi beharko litzaizkioke: lurzatia bera egokitzeak (lur mugimenduak), bide nagusitik sarbideak egiteak, eta bidezko hartuneak egiteak (hornidura, uren hustubideak, argindar sarea) izango dituzten kostuak.

Hautabideen analisiaren laburpen-matrizea

Aurreko apartatuetan jasotako informazioari jarraituz, hona segidan, Donostialdea-Bidasoa esparruan konpostatzeko edota biometanizatzeko planta ezartzeko aztertu diren hautabideen laburpen-matrizea:

HAUTABIDEAK	LURRALDE ETA HIRIGINTZA EGOKITASUNA	INGURUMEN ONDORIOA	EGOKITASUN TEKNIKO EKONOMIKOA	HAUTABIDEAREN EGOKITASUNA
Lasarte- Donostialdea triangelua	ERTAINA	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA
Eskuzaitzeta	HANDIA	TXIKIA	HANDIA	HANDIA
Loistegikogaina	ERTAINA	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA

5.4.3.1. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

Bio-hondakina sortzen den gune nagusitik hurbil daudela kontuan hartuta, hiru kokalekuak baliozkotzat jo daitezkeen arren, aurreko atalean zehaztutako azterketa ikusita honako ondorioa atera daiteke:

1. Kokalekua: Lasarte-Donostialdea triangelua

Berezko lurzorua da, belardiak eta ibar-hondoetan berariazkoak diren basoak dituen, nahasian; malda handiagoko sailak ere baditu baserri bakan batzuekin (kalitate handiko paisaia dela esan daiteke).

Hurbileneko populazio-guneak kilometro 1 baino gehiagora daude, gutxi gorabehera.

Kokaleku honek ez du inolako baldintzatzailerik naturaguneei, ondare arkeologikoari, interes geologikoko guneei eta antzekoei dagokienez.

Planta eraikitzeak eta sarbidea egiteak landare-estaldura ezabatu beharra ekarriko du; beraz, landaretzan eragingo duen zuzeneko inpaktua aipagarria dela esan daiteke; bestetik, klima-aldaketan ere eragingo du zeharka, karbono xurgatzaile bat ezabatuko baita.

Hirigintza plangintzari dagokionez, eremu hau Lurzoru Urbanizaezinean dago.

Planta berria eremu horretan eraikitzea erabakiko balitz, ikusizko inpaktua eragingo luke ingurune hurbilenean; baina horrez gain kontuan hartu behar da eremu horretan ez dagoela ezen zerbitzurik, beraz, hartune guztiak egin beharko lirateke. Eta eremua mugatzen duten bideak bide nagusiak diren arren, planta berrira heltzeko bide espezifiko bat eraiki beharko litzateke. Gainera, 25.000 m²-ko zabalgunek bat prestatu beharko litzateke, zeren eta eremu hau ez baita lursail laua (lur mugimenduak egin beharko lirateke lubetak eta lur-erazketak berdintzeko). Horrek guztiak obren eraikuntza-denboran eragingo luke (zerbitzu eta bide berriak, zabalgunea prestatzea); bai eta proiektuaren kostu ekonomikoan ere.

Planta martxan jartzean sortuko liratekeen inpaktuei dagokienez, esan daiteke ondorio nabarmenena zarata izango dela, ez plantako ekipoen funtzionamenduak eragindakoa (behar bezala intsonorizatuak egongo baitira), baizik eta plantara iristen diren ibilgailuen joan-etorriak sortuko duena, batez ere.

Sor daitezkeen beste inpaktu batzuek –atmosferaarako igorpenak, usaina, isurpenak– ez lukete ondorio nabarmenik eragingo, plantak normal funtzionatzen duen bitartean.

2. Eskuzaitzeta lurzatia

Kasu honetan, lehendik erabat aldatua dagoen eremua izango litzateke; izan ere planta berria industrialde baten barruan ezarriko litzateke, eta eremu horrek baditu bai sarbidea eta bai edonolako enpresak ezartzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak. Beraz, berezko habitata aldatzeak eragingo litzatekeen ondorioak ez dira gertatuko, habitat hori eraldatu baitzen poligonoa bera eraiki zenean (ez luke inpakturik eragingo, ez landaretzan –ez klima-aldaketan, landaretza ezabatzearen kariak, ez faunan, ez ibai edo erreketan, ...).

Eta poligono batean ezartzeagatik, hain zuzen ere, azpiegituraren kostu bakarra lurzatiaren erosketak eta planta eraikitzeak ekarriko luketen kostua izango litzateke. Hala ere esan behar da, industriarako lurzorua denez, lurzatia beste bi hautabideetan baino garestiagoa dela.

Hiri plangintzan xedatutakoari dagokionez, hauxe dio gaur egun izapidetze bidean dagoen eremu honi buruzko Plan Partzialak: “Lurzatiaren kokalekua kontuan hartuta, etorkizunari begira bi helburu hauetako batera bidera daiteke: zabalgunek bat egitea, Arzabaletako hiri hondakinen energia balioztatzeko plantaren instalazioen lagungarri; edota azpilurzatitan banatzea, sortzen diren eskari-premien arabera”; beraz, aurreikusitako erabilerarekin bateragarria da. Planta martxan jartzean sortuko liratekeen inpaktuei dagokienez, esan daiteke ondorioz nabarmenenetako bat zarata izango dela, ez plantako ekipoen funtzionamenduak eragindakoa (behar bezala intsonorizatuak egongo baitira), baizik eta plantara iristen diren ibilgailuen joan-etorriak sortuko duena, batez ere: dena den, esan behar da plantara iritsiko den kamioien ehunekoa (10-21 ibilgailu egunean), GIG1era joango diren zabor kamioien joan-etorria (93 ibilgailu egunean) baino askoz txikiagoa izango dela. Guztiek sarbide bera erabiliko dute.

Sor daitezkeen beste inpaktu batzuek –atmosfera-igorpenak, usaina eta isurpenak– ez lukete ondorio nabarmenik eragingo, plantak normal funtzionatzen duen bitartean.

3. Loistegikogaina lurzatia

Lasarte-Donostialdea triangulua bezala, berezko lurzorua da, belardiak eta ibar-hondoetan berriazkoak diren basoak dituen, malda handiagoko sailekin batera (kalitate handiko paisaia dela esan daiteke).

Lurzatitik gertu dagoen baserri bakan bat edo beste kenduta, hurbileneko populazio-guneak kilometro 1 baino gehiagora daude.

Kokaleku honek ez du inolako baldintzatzailek naturaguneei, ondare arkeologikoari, interes geologikoko guneei eta antzekoei dagokienez. Ingurunean identifikatu dira eremu hau paserako edo bizi-eremu gisa erabiltzen duten espezie interesgarriak.

Planta eraikitzeak eta sarbidea egiteak landare-estaldura ezabatu beharra ekarriko du; beraz, landaretzan eragingo duen zuzeneko inpaktua aipagarria dela esan daiteke; bestetik, klima-aldaketan ere eragingo du zeharka, karbono xurgatzaile bat ezabatuko baita.

Hirigintza plangintzari dagokionez, eremu hau Lurzoru Urbanizaezinean dago.

Eta Lasarte-Donostia kokalekuaren kasuan bezalaxe, planta berria eremu horretan eraikitzea erabakiko balitz, ikusizko inpaktua eragingo luke ingurune hurbilenean; baina horrez gain kontuan hartu behar da zabalgunek egokitzeak (25.000 m²), plantaraino sarbidea eraikitzeak eta egin beharreko hartune guztiak egiteak ekarriko luketen kostu ekonomikoa. Horrek guztiak obren eraikuntza-denboran eragingo luke (zerbitzu eta bide berriak, zabalgunek prestatzea); bai eta proiektuaren kostu ekonomikoa ere.

Planta martxan jartzean sortuko liratekeen inpaktuei dagokienez, esan daiteke ondorio nabarmenena zarata izango dela, ez plantako ekipoen funtzionamenduak eragindakoa (behar bezala intsonorizatuak egongo baitira), baizik eta plantara iristen diren ibilgailuen joan-etorriak sortuko duena, batez ere.

Sor daitezkeen beste inpaktu batzuek –atmosferaarako igorpenak, usaina, isurpenak– ez lukete ondorio nabarmenik eragingo, plantak normal funtzionatzen duen bitartean.

Ondoko taulan ageri dira, laburbilduta, kokaleku bakoitzari buruzko ondorio nagusiak.

	Lasarte-Donostialdea triangelua	Eskuzaitzeta	Loistegikogaina
Lursaila	Berezkoa. Prestatu beharra	Industrialdea	Berezkoa. Prestatu beharra
Ikusizko inpaktua	Aipagarria	Ez oso aipagarria	Aipagarria
Paisaiaren kalitate-galera	Handia	Ertaina	Handia
Egin beharreko obrak	Lur mugimenduak. Sarbideak Hartuneak Planta eraikitzea	Planta eraikitzea	Lur mugimendua Sarbideak Hartuneak Planta eraikitzea
Aurreikusitako kostua	Lurzatia + lursaila prestatzea+ bidea + hartuneak + planta	Lurzatia + planta	Lurzatia + lursaila prestatzea+ bidea + hartuneak + planta

Hitz bitan, egindako azterketari erreparatuta badirudi kokalekurik hoberena **2. hautabidea: Eskuzaitzeta** dela, zeren eta:

- Industrialde batean kokatuko litzateke (lehendik ere aldatua dagoen habitatean, eta beste bi aukerek baino ikus-eragin txikiagoa izango luke).
- Hirigintzaren ikuspegitik bateragarria da, A.U. “ZU.08 Eskuzaitzeta”ren Plan Partzialean xedatutakoaren arabera.
- Planta zerbitzatzeko behar diren sarbide eta hartune guztiak izango lituzke.
- Kostu ekonomikoa beste bi aukeretan baino txikiagoa izango litzateke; izan ere, lurketarik ez baita egin beharko, zabalgunea eratzeko, ez eta zerbitzuen hartuneak ezarri beharrik ere.

- Zepak heltzeko plantaren kokaleku berean ezartzearekin, instalazio lagungarriak eta zerbitzu komunak partekatzeko aukera izango litzateke. Zepak heltzeko plantak eta biometanizatze plantak osatuko duten multzoa honela izendatuko da: Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 2. fasea.

Oharra: Hondakinak garraiatzeak sortuko dituen igorpenek klima-aldaketa bultzatuko dute, baina hori ez da hautabide bat aukeratzeko elementu erabakigarria, zeren eta aztertu diren hautabide guztiak bio-hondakinen sorburuaren grabitate-zentroan baitaude.

5.4.4. Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioa ezartzeko proposatu diren hautabideen balorazio orokorra. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioaren kokaleku aztertu diren hautabideak 3.3.3. apartatuan adierazitakoak berak dira; honako hauek:

1. hautabidea: H lurzatia, Altune industrialdea (Olaberria)

2. hautabidea: Alegi auzoan (Ormaiztegi) dagoen lurzatia

3. hautabidea: Sasietako zabortegean dagoen lurzatia

Hona, segidan, hautabiderik egokiena aukeratzeko egin den azterketa, ikuspegi teknikitik eta ingurumen arlokitik begiratuta.

1. hautabidea. H lurzatia, Altune industrialdea (Olaberria)

Kokalekua zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.3.3 apartatura.

• Ingurunearen azterketa

4.2.3.1 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunea. Hala eta guztiz ere, lurzatiari lotutako ingurumen kostua ez da oso aipagarria, lehenik ere industrialdea baita.

• Sortutako ondorioak

Airearen kalitatea. Igorpenak

Planaren eraginpeko eremuan sorburu posible hauek identifika daitezke: N-I errepidetik iragaiten diren ibilgailuak eta zonalde honetako industri jarduera itzela.

Instalazio berriak martxan jartzeak ibilgailu kopuruaren gorakada ekarriko du berarekin; hala ere, airearen kalitatean ez dute ondorio nabarmenik eragingo noski (bide horiek trafiko handia jasaten baitute lehen ere).

Airearen kalitate-balioek ez dute aldaketa nabarmenik jasango.

Isurpenak

Instalazioa diseinatzerakoan, ur zikinen kontrolik gabeko isurpenik ez gertatzeko bidea bilatuko da. Hasteko, bi ur mota bilduko dira bereizita:

- Pabilioiaren estalkitik eta eremu garbietatik datozen euri urak, poligonoko euri uren sarera bideratuko dira zuzenean.
- Lixibatuez kutsatuak egon daitezkeen bideetako urak, garbitegitik datozen urak eta ur beltzak, berriz, poligonoko ur beltzen sarera bidaliko dira.

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Azpiegituraren funtzionamendurako behar den ura poligonoko saretik hartuko da.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuko zarata-iturriak, gaur egun, jarduketa eremua mugatzen duten errepidetik (N-I) iragaiten diren ibilgailuek sortutakoak, eta oraingo industri jarduera itzelak eragindakoak izango dira.

Instalazio berrietan sortuko den zaratari dagokionez, obren faseko zarata ibilgailuen zirkulazioak eta instalazioak ezartzeko beharrezkoak diren makinek eragindakoa izango da. Ustiapen fasean, hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira deskargatzeak eragingo du zarata nagusia. Nolanahi ere, indarreko araudiak ezarritako gehieneko zarata-mugak errespetatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak hartuko dira, eremuaren iparraldeko bizitegi-erabilera kontuan hartuta batez ere.

Gainera, kontuan hartu behar da plantara heltzen diren ibilgailuek sortuko duten zarata ere.

Hondakinak

Instalazio honetan egingo den transferentzia bakarra hiri hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira pasatzea izango da; beraz, plantako langileek sortutako hondakinak bakarrik izango dira: hiri hondakinekin parekagarriak direnak, hain zuzen. Dena den, instalazioen mantentze-lanetan ere sortuko dira hondakinak, eta horiek kanpoan kudeatu beharko dira.

Usaina

Hasiera batean, hondakinak plantan luzaroan edukitzeak sortuko luke usaina; horregatik, bidezko neurri guztiak hartu beharko dira hondakinak plantan behar-beharrezko denboraz bakarrik egon daitezen; era berean, instalazioak txukun edukiko dira beti.

Ibilgailuen joan-etorria

Plantak zerbitzatuko duen udalerri kopurua zehaztean zenbatetsi ahal izango da ibilgailuen joan-etorriak eragingo duen ondorioa. Dena den, plantara sartzeko errepidean (N-I) gaitasun arazorik ez da espero.

Ikusizko inpaktua

Pabilioi itxi bat ezarriko denez, industrialde batean, ikusizko inpaktua nabarmen murriztuko da. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dira kokalekuaren iparraldean dagoen etxebizitza eta kokalekua inguratzen duen bidegorria; horregatik, eremu hau paisaian txertatzeko neurriak hartu beharko dira, esate baterako, lurzatiaren buelta osoa zuhaitzez ixtea.

Landare-estalduraren gaineko eragina

Landare-estaldura ez da inolaz ere ukituko, zeren eta planta industrialde batean ezarriko baita.

Landare-estaldura ezabatu beharrik izango ez denez, klima-aldaketan ez da gertatuko erabilera aldatzearen ondoriozko landaretza-murrizpenak ekar lezakeen karbono-xurgapenaren galerarik, ez eta biomasan karbonoa izateak eragin ditzakeen igorpenen gorakada puntualik ere.

• **Inpaktu ekonomikoa**

Lehendik ere industrialdea da, eta hor jada egin dira lurzatiak zabaltzeko egin beharreko lur mugimenduak. Sarbidea badu, eta beharrezko hartuneak ere eginak izango ditu (poligonoaren beraren hartuneak). Horrela bada, inpaktu ekonomiko bakarra planta eraikitzeak eta lurzattia erosteak eragindakoa izango da; kasu honetan industriadako lurzorua denez, garestiagoa da.

2. hautabidea: Alegi auzoan (Ormaiztegi) dagoen lurzattia

Kokalekua zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.3.3 apartatura.

• **Ingurunearen azterketa**

4.2.3.2 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunea. Hona, segidan, alderdi aipagarrien laborpena:

- Paisaia: Paraje honetako paisaiaren kalitate-maila altua dela esan daiteke, nahiz eta gaur egun berezko lur eta haitzekin betelanak egiteko erabiltzen duten, baina baso-landaketez inguratua dago eta horiek nabarmen murriztuko duten azpiegitura honek begietara eragin dezakeen inpaktua.

- Fauna. Aztertutako eremuan, landazabal atlantikoan berariazkoak diren ugaztun espezieak ageri dira. Aztertutako lurzatian, hala ere, betelana ustiatzearen ondorioz kalitate baxuko habitata denez, ingurune honetan ohikoagoak diren espezieak bakarrik ikus daitezke.
- Landaretza: landaretza-planoetan baso-landaketak ageri diren arren, gaur egun kokaleku honetan dagoen landaretza bakarra erruderal-nitrofiloa da, aldatutako zonetan hain ezaguna dena. Eremu honetan ez da antzeman landare edo landare-multzo babesturik.
- Nekazaritzari eta basogintzari buruzko LAP: lurzati hau Basoa-Ingurumenaren hobekuntza antolamendu kategorian sailkatua dago. Mendia-Basoa kategoriaren kasuan, nekazaritza eta abeltzaintzako LAPan ezarritakoaren arabera, erabilera hori ez da gomendagarria Antolamendu Kategorian; hala eta guztiz ere, aparteko kasuren batean onartu ahal izango da, baldin eta nekazaritza gaietan eskumena duen organoaren txostenak halakorik bermatzen badu, nekazaritzan eta basogintzan izango duen eragina bereziki aintzat hartuta eta, betiere, bidezko neurri zuzentzaileak ezartzen badira, Osasun Planean (PEAS) jasotako baldintzetan (D dokumentua, nekazaritza eta basozaintzako LAParen I. eranskina "Jarduketa tresnak").

• **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Planaren eraginpeko eremuan identifika daitezkeen sorburu posibleak GI-632 errepidetik iragaiten diren ibilgailuak dira.

Instalazio berriak martxan jartzeak ibilgailu kopuruaren gorakada ekarriko du berarekin; hala ere, airearen kalitatean ez dute ondorio nabarmenik eragingo noski.

Airearen kalitate-balioek ez dute aldaketa nabarmenik jasango.

Isurpenak

Instalazioa diseinatzerakoan, ur zikinen kontrolik gabeko isurpenik ez gertatzeko bidea bilatuko da. Hasteko, bi ur mota bilduko dira bereizita:

- Pabilioiaren estalkitik eta eremu garbietatik datozen euri urak, inolako murrizpenik gabe isuriko dira.
- Lixibatuez kutsatuak egon daitezkeen bideetako urak, garbitegitik datozen urak eta ur beltzak, berriz, hurbileneko saneamendu sarera bideratu beharko dira.

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Azpiegituraren funtzionamendurako behar den ura poligonoko edateko ur-saretik hartuko da.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuetako zarata-iturriak, gaur egun, jarduketa eremua mugatzen duen GI-632 errepidetik iragaiten diren ibilgailuak dira.

Instalazio berrietan sortuko den zaratari dagokionez, obren faseko zarata ibilgailuen zirkulazioak eta instalazioak ezartzeko beharrezkoak diren makinek eragindakoa izango da. Ustiapen fasean, hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira deskargatzeak eragingo du zarata nagusia. Nolanahi ere, indarreko araudiak ezarritako gehieneko zarata-mugak errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

Gainera, kontuan hartu behar da plantara heltzen diren ibilgailuek sortuko duten zarata ere.

Hondakinak.

Instalazio honetan egingo den transferentzia bakarra hiri hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira pasatzea izango da; beraz, plantako langileek sortutako hondakinak bakarrik izango dira: hiri hondakinekin parekagarriak direnak, hain zuzen. Dena den, instalazioen mantentze-lanetan ere sortuko dira hondakinak, eta horiek kanpoan kudeatu beharko dira.

Usaina

Hasiera batean, hondakinak plantan luzaroan edukitzeak sortuko luke usaina; horregatik, bidezko neurri guztiak hartu beharko dira hondakinak plantan behar-beharrezko denboraz bakarrik egon daitezen; era berean, instalazioak txukun edukiko dira beti.

Ibilgailuen joan-etorria

Plantak zerbitzatuko duen udalerri kopurua zehaztean zenbatetsi ahal izango da ibilgailuen joan-etorriak eragingo duen ondorioa. Dena den, plantara sartzeko errepidean (GI-632) gaitasun arazorik ez da espero.

Ikusizko inpaktua

Kokaleku hau bistan-bistan dago GI-632 errepidetik, eta pabilioia baso-masa handi batez inguratutako zabalgunean ezarriko litzateke; horregatik, eremu hau paisaian txertatzeko neurriak hartu beharko dira, esate baterako, pabilioiaren bistako fatxada zuhaiztez ixtea.

Landare-estalduraren gaineko eragina

Landare-estaldura ez da inolaz ere ukituko, zeren eta planta industrialde batean ezarriko baita.

Landare-estaldura ezabatu beharrik izango ez denez, klima-aldaketan ez da gertatuko erabilera aldatzearen ondoriozko landaretza-murrizpenak ekar lezakeen karbono-xurgapenaren galerarik, ez eta biomasan karbonoa izateak eragin ditzakeen igorpenen gorakada puntualik ere.

• **Inpaktu ekonomikoa**

Kasu honetan, beste bi hautabideetan ez bezala, transferentzia-estazioak eragindako kostuari honako hauek erantsi beharko litzaizkioke: lurzatia bera egokitzeak (lur mugimenduak), bide nagusitik sarbideak egiteak, eta bidezko hartuneak egiteak (hornidura, uren hustubideak, argindar sarea) izango dituzten kostuak.

3. hautabidea: Sasietako zabortegeian dagoen lurzatia

Kokalekua zehaztasun handiagoz ikusteko, jo 3.3.3.3 apartatura.

Kokalekua eta sarbideak

Lurzatia zabortegeiaren mugen barruan dago, eta honen sarbideak primeran daude erabiltzeko. Zabortegeia Beasaingo Salbatore auzoan dago.

Lurzati honi GI-632 errepidetik egingo zaio sarbidea, eta gero zabortegeian bertan dauden bideak erabiliko dira.

Azalera

Ez dago azalera-mugarik baina, hala ere, kontuan hartu behar da azpiegitura berezko lurrian ezarri behar dela, eta zabortegeiaren zigilatzea ukitu gabe.

Lurzoru mota

Lurzatia zabortegeiaren mugen barruan dago baina, hala ere, azpiegitura ez da isurpen-.masaren gainean eraikiko, berezko lursailean baizik; hori horrela, ezegonkortasun geoteknikoak gerta litezke. Gaur egun, lursailaren zati bat bakarrik dago *lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan* jasota (eta hautabide gisa proposatu den azalera ez dago zati horretan sartua). Alabaina, gerta liteke Inbentarioa eguneratzean aipatutako azalera hori zabaltzea. Hala balitz, *lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, xedatutakoa bete beharko litzateke.*

Edozein kasutan ere azpimarratu behar da proposatutako azpiegitura isurpen-masaz kanpo ezarriko dela, eta kokaleku horretan egindako zigilatzea ukitu gabe.

Lursailaren egitura

Lurzatia ia-ia laua da. Ez dirudi garrantzizko lur mugimendurik egin beharko denik.

Ukitutako zerbitzuak

Lurzatiaren inguruan ez dugu antzeman ukitua gerta daitekeen instalazio edota zerbitzurik.

Zerbitzu erabilgarriak

Kokalekutik hurbil honako zerbitzuak daude: gasa, argindarra, telefonia.

Populazio-guneetarako distantzia

Kokaleku hau hurbileneko hiri-gunetik (Beasain) gutxienez 2 km-ra dago.

• **Ingurunearen azterketa**

4.2.2.3 apartatuan xehetasun osoz deskribatua dago eremu honetako natur ingurunea. Hautabide honi jarraituz, transferentzia-estazioa Sasietako zaborteziaren mugen barruan ezarriko litzateke; beraz, ukitutako eremuaren ingurumen kalitatea ez da handia, eta urrakortasun txikia erakusten du.

• **Sortutako ondorioak**

Airearen kalitatea. Igorpenak

Planaren eraginpeko eremuan identifika daitezkeen sorburu posibleak GI-2632 errepidetik iragaiten diren ibilgailuak dira.

Instalazio berriak martxan jartzeak ibilgailu kopuruaren gorakada ekarriko du berarekin; hala ere, airearen kalitatean ez dute ondorio nabarmenik eragingo noski.

Airearen kalitate-balioek ez dute aldaketa nabarmenik jasango.

Isurpenak

Instalazioa diseinatzerakoan, ur zikinen kontrolik gabeko isurpenik ez gertatzeko bidea bilatuko da. Hasteko, bi ur mota bilduko dira bereizita:

- Pabilioiaren estalkitik eta eremu garbietatik datozen euri urak, inolako murrizpenik gabe isuriko dira.
- Lixibatuez kutsatuak egon daitezkeen bideetako urak, garbitegitik datozen urak eta ur beltzak, berriz, hurbileneko saneamendu sarera bideratu beharko dira.

Ura hartzea.

Urik ez da hartuko ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Azpiegituraren funtzionamendurako behar den ura poligonoko edateko ur-saretik hartuko da.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuko zarata-iturriak, gaur egun, jarduketa eremua mugatzen duen GI-632 errepidetik iragaiten diren ibilgailuak dira.

Instalazio berrietan sortuko den zaratari dagokionez, obren faseko zarata ibilgailuen zirkulazioak eta instalazioak ezartzeko beharrezkoak diren makinek eragindakoa izango da. Ustiapen fasean, hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira deskargatzeak eragingo du zarata nagusia. Nolanahi ere, indarreko araudiak ezarritako gehieneko zarata-mugak errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

Gainera, kontuan hartu behar da plantara heltzen diren ibilgailuek sortuko duten zarata ere.

Hondakinak.

Instalazio honetan egingo den transferentzia bakarra hiri hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira pasatzea izango da; beraz, plantako langileek sortutako hondakinak bakarrik izango dira: hiri hondakinekin parekagarriak direnak, hain zuzen. Dena den, instalazioen mantentze-lanetan ere sortuko dira hondakinak, eta horiek kanpoan kudeatu beharko dira.

Usaina

Hasiera batean, hondakinak plantan luzaroan edukitzeak sortuko luke usaina; horregatik, bidezko neurri guztiak hartu beharko dira hondakinak plantan behar-beharrezko denboraz bakarrik egon daitezen; era berean, instalazioak txukun edukiko dira beti.

Ibilgailuen joan-etorria

Plantak zerbitzatuko duen udalerrri kopurua zehaztean zenbatetsi ahal izango da ibilgailuen joan-etorriak eragingo duen ondorioa. Dena den, plantara sartzeko errepidean (GI-2632) gaitasun arazorik ez da espero.

Ikusizko inpaktua

Lurzatia zaborteziaren mugen barruan dago; beraz, eragingo duen ondorioa onargarria izango da.

Landare-estalduraren gaineko eragina

Landare-estaldura ez da inolaz ere ukituko, zeren eta planta zaborteziaren barruan ezarriko baita.

Landare-estaldura ezabatu beharrik izango ez denez, klima-aldaketan ez da gertatuko erabilera aldatzearen ondoriozko landaretza-murrizpenak ekar lezakeen karbono-xurgapenaren galerarik, ez eta biomasan karbonoa izateak eragin ditzakeen igorpenen gorakada puntualik ere.

• Inpaktu ekonomikoa

Kasu honetan, lurzatia zaborteziaren mugen barruan dagoenez, lurketaren bat edo beste egin beharko da. Sarbidea badu, eta beharrezko hartuneak ere eginak izango ditu (poligonoaren beraren hartuneak). Horrela bada, inpaktu ekonomiko bakarra planta eraikitzeak eragindakoa izango da.

Hautabideen analisiaren laburpen-matrizea

Aurreko apartatuetan jasotako informazioari jarraituz, hona segidan, Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioa ezartzeko aztertu diren hautabideen laburpen-matrizea:

HAUTABIDEAK	LURRALDE ETA HIRIGINTZA EGOKITASUNA	INGURUMEN ONDORIOA	EGOKITASUN TEKNIKO EKONOMIKOA	HAUTABIDEAREN EGOKITASUNA
Altune industrialdea (Olaberria)	HANDIA	Txikia	HANDIA	HANDIA
Alegi auzoa (Ormaiztegi)	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA
Sasieta zabortezi	HANDIA	TXIKIA	HANDIA	HANDIA

5.4.4.1. Erabakitako hautabidearen justifikazioa

1. Altune industrialdea (Olaberria)

Industrialde batean kokatutako lurzatia da, eta industrialde horrek baditu zerbitzu-hartuneak, eta errepidez (N-1) ondo komunikatua GIG1ekin. Lurzatia ez da ageri *lurzorua kutsa lezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan*, eta baditu berezko lursailak. Erabilgarri dagoen azalera nahikoa litzateke oraingo premiei erantzuteko, baina handitzeko aukerarik ez luke emango.

Jardueraren ingurumen inpaktua bateragarria izango litzateke kokalekuarekin.

2. Alegi auzoa (Ormaiztegi)

Ez da industri erabilerako lurzatia, eta betelan bat egin da bertan; horregatik, *lurzorua kutsa lezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan* ez badago ere, ezin da esan lurzoru aldatuak ez duenik. Lurzatia eta kokalekurako sarrera egokitu egin beharko lirateke (lur mugimendua), eta zerbitzuen hartuneak egin.

Jardueraren ingurumen inpaktua bateragarria izango litzateke kokalekuarekin, baina aztertutako beste bi hautabideetan baino handiagoa.

3. Sasietako zabortegia

Kokaleku hau Sasietako zabortegiaren mugen barruan dago eta azpiegitura berezko lurrean egingo litzateke, isurpen-masaren zigilatzea ukitu gabe. Jardueran egin daitezke indarrean dagoen araudiak agindutako jarraipena eta itxi osteko kontrol-lanak. Kokalekuak baditu jarduerak behar dituen zerbitzu-hartuneak, eta eraiketa bakarrak azpiegitura bera eraikitzeak eskatzen dituenak izango lirateke.

Ondoko taulan ageri dira, laburbilduta, kokaleku bakoitzari buruzko ondorio nagusiak.

	Altune industrialdea (Olaberria)	Alegi auzoa (Ormaiztegi)	Sasietako zabortegia
Lursaila	Industrialdea	Prestatu beharra	Zabortegia
Ikusizko inpaktua	Ez oso aipagarria	Aipagarria	Ez oso aipagarria
Paisaiaren kalitate-galera	Txikia	Ertaina	Txikia
Obrak egitea	Planta eraikitzea	Lur mugimendua Sarbideak Hartuneak Planta eraikitzea	Planta eraikitzea
Aurreikusitako kostua	Lurzatia + planta	Lurzatia + lursaila prestatzea+ bidea + hartuneak + planta	Lurzatia + planta

Hitz bitan, egindako azterketari erreparatuta badirudi kokalekurik hoberena **3. hautabidea: Sasietako zabortegia** dela, zeren eta:

- Ingurumenaren ikuspegitik degradatuak dauden eremuak aprobetxatuko lirateke, lehen ere hondakinak kudeatzeko erabili izan direnak.

- Zabortelean lehendik dauden sinergiak eta azpiegiturak aprobatza daitezke: zerbitzuen hartuneak eta sarbideak.
- Egokitze lan gutxiago behar du.
- Jardueraren ingurumen inpaktuak bateragarria izango litzateke kokalekuarekin.

Oharra: Hondakinak garraiatzeak sortuko dituen igorpenek klima-aldaketa bultzatuko dute, baina hori ez da hautabide bat aukeratzeko elementu erabakigarria, zeren eta aztertu diren hautabide guztiak 4 km-ra baitaude lerro zuzenean.

5.4.5. Elgoibarko (Debabarrena mankomunitatea) transferentzia-estazioaren balorazio orokorra

Gorago adierazi bezala, jada eraikia eta martxan dagoen azpiegitura da. Hona, segidan, duen jarduerarekin lotutako inpaktuen balorazioa.

Airearen kalitatea. Igorpenak

Transferentzia-estazio ororen igorpenak, hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuek eragindakoak izaten dira nagusiki. Planaren eraginpeko eremuan sorburu posible hauek identifika daitezke: AP-8, N-634 eta GI-2634 errepideetatik iragaiten diren ibilgailuak eta zonalde honetako industri jardura itzela. Beraz, azpiegitura martxan jartzeak ez du ondorio nabarmenik eragingo airearen kalitatean.

Isurpenak

Instalazioan bi ur mota biltzen dira, bereizita:

- Euri-ur garbiak, poligonoko euri-uren sarera bideratzen direnak zuzenean.
- Bideetako urak, kutsatuak egon daitezkeenak; horiek, araztu ondoren, poligonoko industri uren sarera bidaltzen dira.

Ura hartzea.

Urik ez da hartzen ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik. Azpiegituraren funtzionamendurako behar den ura poligonoko saretik hartuko da.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuko zarata-iturri nagusiak, gaur egun, AP-8, N-634 eta GI-2634 errepideetatik iragaiten diren ibilgailuek sortutakoak, eta oraingo industri jardura itzelak eragindakoak izango dira.

Instalazioak sortutako zaratari dagokionez, hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira deskargatzeak eragingo du zarata nagusia. Nolanahi ere, indarreko araudiak ezarritako gehieneko zarata-mugak errespetatzen ditu instalazioak.

Hondakinak

Instalazio honetan egingo den transferentzia bakarra hiri hondakinak bilketa zerbitzuko kamioitik erdi-atoira pasatzea izango da; beraz, plantako langileek sortutako hondakinak bakarrik izango dira: hiri hondakinekin parekagarriak direnak, hain zuzen. Dena den, instalazioen mantentze-lanetan ere sortzen dira hondakinak, eta horiek kanpoan kudeatzen dira.

Usaina

Hasiera batean, hondakinak plantan luzaroan edukitzeak sortuko luke usaina; horregatik, azpiegituraren ustiapen eskuliburua behar bezala aplikatuta, usainak ez du arazorik sortuko.

Ibilgailuen joan-etorria

Trafikoari dagokionez, ez dago transferentzia-estazioa zerbitzatzeko duten kamioien joan-etorriak eragindako arazorik.

Ikusizko inpaktua

Azpiegituraren ikusizko inpaktua bateragarria da kokalekuarekin, zeren eta industrialdea baita, eta Udalaren Garbigunearen ondoan dago. Gainera, poligonoaren barruan, iparraldeko ertzean dago; hori dela-eta, inpaktua are txikiagoa da.

5.4.6. Arasoko (Txingudi mankomunitatea) trukatzeko-plataformaren balorazio orokorra

Gorago adierazi bezala, jada eraikia eta martxan dagoen azpiegitura da. Azpiegitura honetan ez dira hondakinak manipulatu: zabalgunek bat da (hormigoizko zoru laua), eta hemen, hondakin bilketako kamioiek body-a (hondakinez betetako kutxa itxia) deskargatzen dute, beste kamioi batek eraman ditzan (bi kutxa bidaia bakoitzean) hondakina kudeatzeko azken punturaino.

Sistema honek, batetik, zabalgunek lau eskatzen du aipatutako kutxak uzteko, eta bestetik, behar besteko eremua behar du bilketako kamioiek zama-lanak egin ditzaten, eta kutxa horiek hondakinak kudeatzeko azken punturaino eramango dituen errepide-trenak⁴ nahiko lekua izan dezan maniobrak behar bezala eta eroso egiteko.

Hona, segidan, duen jarduerarekin lotutako inpaktuen balorazioa.

⁴ Ohiko garraio-enpresek erabiltzen duten sistema da errepideko trena, ez da hondakinen sektoreak erabiltzen soilik. Atoidun kamioi arruntari beste kaxa bat lotzen zaio; hots, joan-etorri bakoitzean bi kaxa garraiatzen dira.

Airearen kalitatea. Igorpenak

Azpiegitura honen igorpenak, hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuek eragindakoak bakarrik izaten dira. Planaren eraginpeko eremuan sorburu posible hauek identifika daitezke: AP-8 eta GI-636 errepideetatik iragaiten diren ibilgailuak eta zonalde honetako industri jarduera itzela. Beraz, azpiegitura martxan jartzeak ez du ondorio nabarmenik eragingo airearen kalitatean.

Isurpenak

Ez dago jarduerarekin lotutako isurpenik.

Ura hartzea.

Urik ez da hartzen ez ur ibilguetatik eta ez iturrietatik.

Zarata

Planaren eraginpeko eremuko zarata-iturri nagusiak, gaur egun, AP-8 eta N-636 errepideetatik iragaiten diren ibilgailuek sortutakoak, eta oraingo industri jarduera itzelak eragindakoak izango dira. Instalazioak eragingo duen zarata bakarra kamioien joan-etorriak sortutakoa izango da, eta inpaktu hori ez da aipagarria.

Hondakinak

Azpiegituraren jarduerak ez du hondakinik sortuko.

Ibilgailuen joan-etorria

Trafikoari dagokionez, ez dago zabalgunera doazen kamioien joan-etorriak eragindako arazorik.

Ikusizko inpaktua

Zabalgunea Arasoko Garbigunearen barruan dago; beraz, ikusizko inpaktua bateragarria da ingurunearekin.

6. Aukeratutako hautabideen ingurumen eraginak identifikatzea eta baloratzea. Ingurumenean izan ditzaketen ondorio nabarmenak

Azterlan honetan zehar, Gipuzkoako lurralde historikoan hondakinak kudeatzeko azpiegituretan dauden premiaz azaldu dira; era berean, aztertutako hautabide ezberdinak eta azpiegiturentzako erabaki diren irtenbideak deskribatu dira.

Proiektatu diren azpiegiturak:

- Zepak heltzeko planta: Eskuzaitzeta poligonoko D lurzatia (Donostiako udal barrutia) (*).
- Konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta Donostialdea-Bidasoa esparruan: Eskuzaitzeta poligonoko D lurzatia (Donostiako udal barrutia) (*).
- Sasieta mankomunitateko transferentzia estazioa: Sasietako hondakindegia (Beasaingo udal barrutia).

(*) Azpiegitura berri hau zepak heltzeko plantak eta konpostatzeko edota biometanizatzeoko plantak osatzen dute, eta honela izendatu da: Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 2. Fasea (GIG2).

Gaur egun badauden eta finkatu egin diren azpiegiturak:

- Elgoibarko transferentzia estazioa (Elgoibarko udal barrutia).
- Arasoko trukatzeko-zabalunea (Irungo udal barrutia)

Indarrean dagoen LAParen planifikaziotik ezabatu diren azpiegiturak:

- Transferentzia estazioak:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Debagoiena: Akei (Arrasate) eta Epeleko (Bergara) hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
 - Sasieta: Sasietako (Beasain) hondakindegia ondo eremua.
 - Debarrena: Mutriku, Eibar eta Elgoibar
- Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak hartzeko plantak:
 - San Marko: Aizmendiko hondakindegia (Donostia)
- Hondakindegia:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Sasieta: Sasietako (Beasain) hondakindegia, transferentzia-estazioari dagokion azalera izan ezik.

Bestetik, badira bi azpiegitura –Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG) martxan jartzen denean– hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituretatik atera egingo direnak; izan ere, une horretan utziko diote LAParen araubide juridikoaren pean egoteari, eta kasuan kasuko lurzatieen titularren eskumena izango da dagokien hirigintza erregimenaren arabera lurzati horiek etorkizunean izango duten erabilera zehaztea. Azpiegitura hauek dira:

- San Marko: San Markoko transferentzia-estazioa (Donostia)
- Txingudi: Arasoko trukatzeko-zabalgunea (Irurrun)

Proiektuaren eta kokalekuaren arabera aztertuko dira proiektuak kasu bakoitzean izango dituen ondorioak; eta horretarako, bidezko baimen administratiboak eskuratuko dira. Gipuzkoako Ingurumen Gunea-2. fasea (GIG2) aurrera eramateko Ingurumeneko Baimen Integratua lortu beharko da. Gainerako azpiegituren kasuan, indarreko araudiak exijitzen ez duenez ingurumeneko baimen integratua lortzea edota ingurumen inpaktuaren azterlana egitea, Administrazio kontratatzailearen ardura izango da proiektuetan ingurumenearen azterketa eta sortutako eraginaren analisia sartzea, eraikuntza eta ustiapen faseetako zaintza eta kontrol programarekin batera. Planteatutako hondakinen azpiegitura guztien ingurumen analisian, azpiegitura bera ez ezik, beharrezkoak diren eta azpiegitura horiei lotuak dauden gainerako azpiegitura eta zerbitzu lagungarri guztiak sartuko dira (loturako argindar lineak, sarbideak, ur hornidurako eta saneamenduko hodieriak, arazketa instalazioak, eta abar).

6.1. Inpaktu kritikoak eta egoera ez-ohikoak ezabatzeko jarduketak

Inpaktu kritikorik ez da antzeman ez proiektatu diren azpiegituren azterketetan eta ez gaur egun daudenetan.

Ohiz kanpoko egoerak antzemanek gero, planta bakoitzaren funtzionamendu eta ustiapen fasean ezarri beharreko kontrol eta zaintza programetan xedatutako ingurumen irizpideak aplikatuz jardun beharko da.

Gipuzkoako Ingurumen Gunea-2. Faseari (GIG2) gagozkiola, programa bat izango du, izan ere instalazio horrek Ingurumeneko Baimen Integratua lortu beharko baitu. Ingurumeneko baimen integratua izapidetzea edota ingurumen inpaktuaren azterlana egitea beharrezkoa ez den kasuetan, ikuskatzeko eta kontrolatzeko programa baten diseinua eta idazkera jasoko da kontrataziorako baldintza-agirietan. Eta programa horretan kontuan hartuko dira bai antzemandako inpaktuak eta bai instalazioak behar bezala funtzionatzeko eta inpaktuak minimizatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak.

6.2. Kausa-efektu matrizeak

Aurrerapen Agirian exijitutakoari jarraituz, plangintzaren fase honetan identifikatutako ondorio bakoitzaren magnitudea eta garrantzia baloratuko dira. Horretarako, 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, III. eranskinean ezarritakoa erabili ahal izango da; edo bestela, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, VI. eranskinaren 8. atalean adierazitako terminologia. Hori horrela, inpaktuaren adierazleak zehaztuko dira aldezturik (adierazgarriak, garrantzizkoak, baztertzailak, zenbatu daitezkeenak eta erraz identifikatzeko modukoak). Adierazle horiek modu egokian azaldu behar dituzte bai ingurumen eragina eta bai lortu nahi diren kalitate helburuak, onar daitezkeen mugak ezarrita. Horretarako, indarrean

dagoen legeriak eta organo eskudunek kasu bakoitzerako emandako jarraibideak hartuko dira erreferentziatzat.

Dokumentu honen 5. Apartatuan egindako balorazioaren emaitzak segidan aurkeztuko diren tauletan jaso dira. Eskema horietan, bi mailatan ageri dira emaitzak:

- Inpaktuaren berezko larritasuna.
- Aurreko alderdi hori aldatua, berreskuragarritasun kontzeptua sartuta (inpaktu bakoitzaren eraginak arintzeko aplikatu daitezkeen neurri zuzentzaileen benetako eraginkortasuna. Hain zuzen ere 7. atalean “Ingurumenean txertatzeko neurriak. Proposatzen diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak” definitua).

Emaitzak kolore-kode baten bitartez adierazi dira (beltza: inpaktu kritikoa; gorria: inpaktu larria; horia: inpaktu moderatua; berdea: inpaktu bateragarria).

6.2.1. Sortutako inpaktuak aztertzeke erabili diren irizpideak

Babes bereziko lurzoruen gaineko eragina. Irizpide hau ez da aztertu sortutako inpaktuen artean, izan ere kokalekuak hautatzeko kontuan hartutako baldintzetan baztertu egin baita azpiegiturak era horretako lurzoruetan ezartzea.

Ingurune fisiko eta biologikoa

Airearen kalitatea. Osasun publikoa. Airearen kalitatean eragin daitezkeen afekzioa, azpiegiturak ustiatzeak berez sortuko dituen igorpenen ikuspegitik aztertu da, azpiegituren eraikuntza fasean ere eragingo direnak kontuan hartuta: ibilgailuen joan-etorria, atmosfera kutsa lezaketen elementuen igorpena (konposatu kimikoak, partikulak, eta abar). Ildo horretan, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko 34/2007 Legeak, azaroaren 15ekoak, IV. eranskinean jasotako atmosfera kutsa lezaketen jardueren zerrendan sartua dago Gipuzkoako Ingurumen Gunea - 2. fasearen jardura.

GHHKPOak eta Aurrerapen Agiriak, oro har, LAPean planteatutako azpiegitura guztietan teknologiarik aurreratuenak erabiltzea aurreikusten dute. GIG2ari dagokionez, zehazki, IAA eskuratzeko prozesua bete beharko du eta horrek, Eskura Dauden Teknika Hoberenak jarraituko direla bermatzen du.

Aztertutako kokaleketako airearen kalitateari buruzko baldintzatzaileak (dokumentu honetako 4. atala: atmosferaren kalitatea, klima-alderdiak, eta abar) hala nola baldintzatzaile horiek planteatutako azpiegiturekin duten erlazioa kontuan hartuta egin da segidako matrizeetan airearen kalitateari eta osasunari buruz erakutsiko dugun balorazioa. Dena den, uneoro kontuan hartu da LAParen zehaztasun-maila orokorra, eta hori osatu egin beharko da hautatutako azpiegiturako bakoitza garatzeko proiektuak izapidetzerakoan.

Geologia. Interes geologikoko puntuetan eragin daitezkeen afekzioa.

Lur gaineko eta lurpeko hidrologia. Lur gaineko ibilguetatik doan uraren, lurzorua eta lurpeko uraren kalitatea aldatzea, ur ibilgu interesgarrietatik, edota akuifero urrakorrak dituzten guneetatik eta abarretatik hurbil daudelako.

Hartzen den lurra. Azpiegitura ezartzeko beharrezkoa den lur eremuaren azalera eragindako inpaktuak planteatu dira.

Intereseko fauna eta landaretza. Habitata denboraldi batez aldatzea edo suntsitzea, eta babespeko fauna-komunitateei sor dakizkiekeen eragozpenak, oraingo landaretza eta fauna etorkizunean gera daitezkeenetatik bereizita. Inpaktu horien barruan arreta berezia jarriko zaio azpiegitura EAEko korridore ekologikoen Sareko moteltze eremuan egoteari, eragin lezakeen afekzio mota kontuan hartuta betiere (obrek eragin lezaketan afekzio zehatza, eremuaren gaur egungo egoera, eta abar).

Eragin daitezkeen arriskuak eta eragozpenak

Higadura. Grabitate-arriskuak edota higadura prozesuak.

Uhaldiak. Uhaldi arriskua, ibilguetan eta ibai bazterretan materialak pilatzeetatik, eta hori, azpiegitura lur gaineko ur ibilguetatik hurbil egoteetatik gertatzea.

Zaratak. Zaratak eragindako eragozpenak, bai azpiegituraren eraikuntza fasean eta bai ustiapen fasean.

Elementu estetiko-kulturalak

Arkeologia/kultura ondarea. Ondarearen gaineko afekzioak.

Paisaia. Azpiegiturak eragindako ikusizko inpaktua.

Elementu sozio-ekonomikoak

Inguruneko produktibitatearen eta garapen sozio-ekonomikoaren gaineko afekzioa.

Sortutako inpaktu soziala.

Gizarteari enplegua sortzea.

6.3. Zepak heltzeko plantak eta konpostatzeko edota biometanizatzeako plantak ingurumenean eragin ditzaketen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

5.4.1 eta 5.4.2 atalak irakurrita ondoriozta daitekeenez, zepak heltzeko planta eta konpostatzeko edota biometanizatzeako planta Eskuzaitzeta poligonoko D lurzatian kokatuko dira, Donostiako udal barrutian hain zuzen. Horrela bada, bi plantak lurzati berean kokatuko direnez, eragin ditzaketen inpaktuak ere batera baloratuko dira, bi jarduerak izan ditzaketen efektuak kontuan hartuta.

GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEA-2. FASEA –ESKUZAITZE TA (DONOSTIA)	Ingurune elementuak	Ingurumen inpaktuak	ERAIKUNTZA FASEA					USTIAPEN FASEA						
			Aldi baterako lur-hartzea: Kasetak, materiala obran biltzeak	Makineriaren zirkulazioa eta obrako ibilgailuen trafikoa Mantentze-lanak	Eraikinak eraikitzea	Elementu osagarrien instalazioa	Espazioak okupatzea. Zor iraunkorrak	Hartzen den lurra	Atmosferarako emisioak	Isurpen likidoak	Hondakinak sortzea	Zirkulazioa eta ibilgailu trafikoa	Ustiatzea	
Ingurune fisiko eta biologikoa	Klima	Alterazio mikroklimatikoak		☺	☺				☺					
	Atmosfera	Airearen kalitatearen alterazioa		☹ ^c	☹ ^c	☺			☹ ^c (2)			☹ ^c (3)	☺	
	Geologia	geologikoko puntuetan eragin daitekeen												
	Lur gaineko hidrologia	uraren kalitatearen alterazioa												
	Lurpeko hidrologia	Lurpeko uraren kalitatearen alterazioa												
	Lurra	Lurzorua okupatzea (azalera)	☺		☹ ^c	☺	☹ ^c	☹ ^c					☹ ^c	
	Lurzorua	Lurzoruaren kalitatearen alterazioa		☺ ⁽¹⁾	☺	☺		☹ ^c		☹ ^c (4)	☹ ^c (5)		☺	
	Fauna. Habitat eta ekosistemak	Habitata alt./suntitzea. Fauna kon. eragozpenak.												
	Landaretz. Habitat eta ekosistemak	Habitata alteratzea/suntitz ea												
Eragin daitezkeen arriskuak eta eragozpenak	Higadura	Grabitate- arriskuak edota higadura prozesuak												
	Zaratak	Zaratak sortzeagatiko eragozpenak		☹ ^c	☹ ^c	☹ ^c						☺	☺	
	Uhaldiak	Ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik												
Elementu estetiko- kulturalak	Arkeologia/k ultura ondarea	Ondarearen gaineko afekzioak (6)												
	Paisaia	Ikusizko inpaktua		☺	☹ ^c	☺		☹ ^c					☹ ^c	
Elementu sozio- ekonomikoak	Ingurune sozio- ekonomikoa	Ingurune produktibitatearen eta garapen sozio- ekonomikoaren		☺	☺							☺	☺	
Ingurumen kostua		Hondakin kanpo kudeaketa								☹ ^c (4)	☹ ^c (5)			
									☺	☺	☹ ^c	☹ ^m	☹ ^s	☹ ^{cr}
									Inpaktu positiboa	Inpaktu negatibo ez garrantzitsua	Bateragarria	Moderatua	Larria	Kritikoa

- (1) **Lurzoruaren kalitatea.** Obrako ibilgailuak eta makineria bertan dauden bitartean, hauen isurpenen ondorioz lurzorua kutsatzeko arriskua dago. Hala eta guztiz ere, neurri babesgarri eta

zuzentzaileak aplikatuta, arrisku hori nabarmen murriztu ahal izango da, inpaktu negatiboa ez-aipagarria izateraino.

- (2) **Airearen kalitatea / Atmosferarako igorpenak - Usainak** GIG2 fasean atmosferara egingo diren igorpen nagusiak, batetik, usainak izango dira, bio-hondakinak manipulatzeari; eta bestetik partikulak, zepak manipulatzeari. Hala ere, diseinuari eta igorpenen arazketari dagokionez, Eskura dauden Teknika Hoberenak izan beharko ditu azpiegiturak, IBlan exijitutako gehieneko balioak beteko direla bermatuko den moduan; esate baterako: karga-deskargarako eremuak, hondakinak nahasteko eta aurretratamenduko prestatzeko eremua pabilioi itxi eta erabat estankotan egongo dira. Pabilioi horrek inpaktuak minimizatzeko aireztapen sistema egokia izango du, usaina ezabatzeko bezalaxe.
- (3) **Airearen kalitatea / Ibilgailuen joan-etorria** Instalazio berriak martxan jartzeak ibilgailu kopuruaren gorakada ekarriko du berarekin. Dena den, poligono bertako eta GIG1eko jarduera dela eta, poligonoko sarbideek lehendik ere ibilgailuen joan-etorria jasango duenez, aldaketa ez da nabarmena izango.
- (4) **Isurpen likidoak.** Instalazioa diseinatzerakoan, ur zikinen kontrolik gabeko isurpenik ez gertatzeko bidea bilatuko da. A priori bi isurpen mota espero dira: batetik, euri urak, zuzenean poligonoko euri uren sarera bidaliko direnak; eta bestetik, prozesuko hondakin urak. Horiek, kolektorerara isurtzeko gehieneko balioak betetzen ez badituzte, instalazioan bertan araztu beharko dira, poligonoko saneamendu sarera bideratu aurretik.
- (5) **Hondakinak.** Instalazio berrietan hondakinak sortuko dira, eta horiek kudeatu egin beharko dira hondakin motaren arabera eta indarrean dagoen arau-esparruarekin bat etorritik.
- (6) **Kultura Ondarea / Donejakue Bidea** Aztergai den esparruan ez dago interes arkeologikoko elementu edo eremurik, edota Donostiako udalerrian Interes Arkeologikoa izan lezaketzen Guneen adierazpenean (EHAA 185 zk, 1997/09/29), ezta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentrok babestutako edo berorren zerrendatan jasotakorik ere. Hala eta guztiz ere, barnealdeko Donejakue Bidea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zentroak definitutako Hernani-Bidania zatia, azpiegituraren kokalekuaren mendebaldetik iragaiten da. Donejakue Bidea Kultur ondasun gisa izendatua dago urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren indarrez. Dekretu horrek (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2012ko urtarrilaren 27koa) Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia. Nolanahi ere, esku-hartzearen mugetatik kanpo dagoenez, eta sestra ezberdinetan gainera, aurreikuspenen arabera Donejakue Bideari ez zaio afekzio eragingo, ez azpiegituraren obren fasean eta ez utsiapen fasean.

6.4. Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

Sasieta mankomunitateko transferentzia-estazioa ezartzeko erabaki den kokalekua Sasieta hondakindegia barruan dago; hortaz, bateragarria da aurreikusitako zigitatze eta itxi-osteko lanekin.

SASIETA MANKO TRASNFER ENTZIA- ESTAZIOA - SASIETAKO ZABORTEG IKO LURSAILA (BEASAIN)	Inguruneko elementuak	Ingurumen inpaktuak	ERAIKUNTZA FASEA						USTIAPEN FASEA					
			Aldi baterako lur- hartzak: Kasetak, materiala obran biltzeak	Makinariaren zirkulazioa eta obrako ibilgailuen trafikoa Mantentze-lanak	Eraikinak eraikitzea	Elementu osagarrien instalazioa	Espazioak okupatzea. Zor iraunkorrak	Hartzen den lurra	Atmosferarako emisioak	Isurpen likidoak	Hondakinak sortzea	Zirkulazioa eta ibilgailu trafikoa	Ustiatzea	
Ingurune fisiko eta biologikoa	Klima	Alterazio mikroklimatikoak												
	Atmosfera	Airearen kalitatearen alterazioa		☹	☹ ^C	☹ ^C			☹ ⁽⁶⁾			☹	☹	
	Geologia	Interes geologikoko puntuetan eragin daitezkeen afekzioak												
	Lur gaineko hidrologia	Lur gaineko uraren kalitatearen alterazioa												
	Lurpeko hidrologia	Lurpeko uraren kalitatearen alterazioa							☹ ⁽⁷⁾					
	Lurra	Lurzorua okupatzea (azalera)	☹ ^C	☹	☹ ^C	☹ ^C	☹ ^C	☹ ^C						
	Lurzorua	Lurzorua kalitatearen alterazioa	☹	☹ ⁽²⁾	☹	☹		☹		☹ ⁽⁷⁾			☹	
	Fauna. Habitat eta ekosistemak	Habitata alt./suntitzea. Fauna kon. eragozpenak.												
	Landaretza. Habitat eta ekosistemak ⁽¹⁾	Habitata alteratzea/sunt itzea												
Eragin daitezkeen arrikuak eta eragozpena k	Higadura	Grabitate- arrikuak edota higadura prozesuak												
	Zaratak ⁽³⁾	Zaratak sortzeagatiko eragozpenak		☹ ^C	☹ ^C	☹ ^C						☹ ^C	☹ ^C	
	Uhaldiak	Ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik												
Elementu estetiko- kulturalak	Arkeologia/kult ura ondarea	Ondarearen gaineko afekzioak												
	Paisaia	Ikusizko inpaktuak ⁽⁴⁾		☹	☹ ^C	☹ ^C	☹ ^C	☹ ^C					☹ ^C	
Elementu sozio- ekonomiko ak	Ingurune sozio- ekonomikoa	Ingurune produktibitate aren eta garapen sozio- ekonomikoaren gaineko afekzioak.		☹	☹ ⁽⁵⁾	☹ ⁽⁵⁾			☹ ⁽⁶⁾				☺	
Ingurumen kostua		Hondakinen kanpo kudeaketa										☹ ⁽⁸⁾		
									☺	☹	☹ ^C	☹ ^m	☹ ^S	☹ ^C
									Inpaktu positiboa	Inpaktu negatibo ez	Bateragarria	Moderatua	Larria	Kritikoa

- (1) **Landaretza / Fauna** Azpiegitura Sasietako gaur egungo hondakindegiairen barruan ezarriko da; beraz, intereseko espezierik ez da ukituko.
- (2) **Lurzoruaren kalitatea.** Obrako ibilgailuak eta makineria bertan dauden bitartean, hauen isurpenen ondorioz lurzorua kutsatzeko arriskua dago. Hala eta guztiz ere, neurri babesgarri eta zuzentzaileak aplikatuta, arrisku hori nabarmen murriztu ahal izango da, inpaktu negatiboa ez-aipagarria izateraino.
- (3) **Zaratak.** Afekzio nagusia zarata izango da, kamioien joan-etorriak eragindakoa hain zuzen, baina ingurunearekin bateragarritzat jo da.
- (4) **Ikusizko inpaktua** Aukeratutako kokalekua Sasietako hondakindegiairen barruan badago ere, azpiegitura horren diseinuak, eraikuntzak eta ustiapenak bat etorri behar dute hondakindegia bizi dituen ixte, zigilatze eta ustiapen osteko segimendu lanekin.
- (5) **Ingurune sozio-ekonomikoa.** Aukeratutako kokalekua Sasietako hondakindegiairen barruan badago ere, azpiegitura horren diseinuak, eraikuntzak eta ustiapenak bat etorri behar dute hondakindegia bizi dituen ixte, zigilatze eta ustiapen osteko segimendu lanekin; beraz, eragin lezakeen inpaktua ez da adierazgarria izango.
- (6) **Atmosferarako igorpenak / Usainak** Aurreikusi daitekeen iturburu bakarra erdi-atoi motoreak martxan jartzekoa izan daiteke; beraz, inpaktu hori ez da adierazgarria izango. Usainei dagokienez, instalazioak behar bezain garbi eta baldintza egokitan mantentzera bideratutako neurri zuzentzaile eta babesgarriak hartuta, inpaktua nabarmen murriztuko da.
- (7) **Isurpen likidoak.** Instalazioa, kontrolik gabeko isurpen zikinik igorriko ez den moduan proiektatu eta eraiki behar da eta, nolahi ere, dokumentu honetako 7. atalean proposatutako jarraibideak errespetatuko dira beti.
- (8) **Hondakinak.** Instalazioan hiri hondakinen transferentzia egingo da; beraz, mantentze lanetan zehar sortutako hondakinez aparte eta plantako langileek eragindakoez gain (etxeko hondakinen parekoak), ez da espero beste hondakinik. Hondakinak kanpoan kudeatuko dira.

6.5. Elgoibarko (Debabarrena mankomunitatea) transferentzia-estazioak ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

Kasu honetan, jada eraikia eta martxan dagoen azpiegitura da, eta finkatu egingo da LAParen aldaketa honetan. Azpiegitura Elgoibarko Arriaga industrialdean dago, udalerrri horretako garbigunearen ondoan.

DEBABARRENA MANKO TRANSFERENTZIA-ESTAZIOA - ELGOIBARKO ARRIAGA INDUSTRIALDEAN	Inguruneko elementuak	Ingurumen inpaktuak	USTIAPEN FASEA					
			Hartzen den lurra	Atmosferarako emisioak	Isurpen likidoak	Hondakinak sortzea	Zirkulazioa eta ibilgailu trafikoa	Ustiatzea
Ingurune fisiko eta biologikoa	Klima	Alterazio mikroklimatikoak						
	Atmosfera	Airearen kalitatearen alterazioa		☺ ⁽³⁾			☺	☺
	Geologia	Interes geologikoko puntuetan eragin daitekeen afekzioa						
	Lur gaineko hidrologia	Lur gaineko uraren kalitatearen alterazioa	☹ ^{C (6)}					
	Lurpeko hidrologia	Lurpeko uraren kalitatearen alterazioa			☺ ⁽⁴⁾			
	Lurra	Lurzorua okupatzea (azalera)	☹ ^C					
	Lurzorua	Lurzoruaren kalitatearen alterazioa	☺ ⁽²⁾		☺ ⁽⁴⁾			☺
	Fauna. Habitat eta ekosistema k	Habitata alt./suntsitzea. Fauna kon. eragozpenak.	☺ ⁽¹⁾					☺
	Landaretza. Habitat eta ekosistema k	Habitata alteratzea/sunt sitzea	☺ ⁽¹⁾					☺
Eragin daitezkeen arriskuak eta eragozpenak	Higadura	Grabitate- arriskuak edota higadura prozesuak						
	Zaratak	Zaratak sortzeagatiko eragozpenak					☹ ^C	☹ ^C
	Uhaldiak	Ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik	☺ ⁽⁷⁾					
Elementu estetiko- kulturalak	Arkeologia/ kultura ondarea	Ondarearen gaineko afekzioak						
	Paisaia	Ikusizko inpaktua	☹ ^C					☹ ^C
Elementu sozio- ekonomikoak	Ingurune sozio- ekonomikoa	Ingurune produktibitatea ren eta garapen sozio- ekonomikoaren gaineko afekzioa.		☺				☺
Ingurumen kostua		Hondakinen kanpo kudeaketa				☺ ⁽⁵⁾		
			☺	☺	☹ ^C	☹ ^m	☹ ^S	☹ ^{CF}
			Inpaktu positiboa	Inpaktu negatibo ez garantziatua	Bateragarria	Moderatua	Larria	Kritikoa

- (1) **Landaretza / Fauna** Azpiegitura eraiki aurretik kokaleku horretan izan zitekeen landaretza "Belardi eta labore atlantikoak" eta "Baso-landaketak" baziren ere, kontua da eremua industrialde baten barruan zegoela; hortaz, lurzati horretan benetan zegoen landaretza "erruderal-nitrofiloa" zen (ikus erantsitako irudia) eta ondorioz inpaktu negatibo ez-adierazgarria eragingo du.



- (2) **Lurzoruaen kalitatea.** Ibilgailuak bertan dabiltzan bitartean, hauen isurpenen ondorioz lurzoria kutsatzeko arriskua dago. Hala eta guztiz ere, neurri babesgarri eta zuzentzaileak aplikatuta, arrisku hori nabarmen murriztu ahal izango da, inpaktu negatiboa ez-aipagarria izateraino.
- (3) **Atmosferarako igorpenak / Usainak** Aurreikusi daitekeen iturburu bakarra erdi-atoien motoreak martxan jartzekoa izan daiteke; beraz, inpaktu hori ez da adierazgarria izango. Usainei dagokienez, instalazioak behar bezain garbi eta baldintza egokitan mantentzera bideratutako neurri zuzentzaile eta babesgarriak hartuta, inpaktua nabarmen murriztuko da.
- (4) **Isurpen likidoak.** Instalazioa martxan dago jada; beraz, hondakin urak kudeatzeko sistema egokia izango du, isurketak egiteko bidezko baimenak bezalaxe.
- (5) **Hondakinak.** Instalazioan hiri hondakinen transferentzia egiten da; beraz, mantentze lanetan zehar sortutako hondakinez aparte eta plantako langileek eragindakoez gain (etxeko hondakinen parekoak), ez da bestelako hondakinik sortzen. Hondakinak beren tipologiaren arabera kudeatzen dira.
- (6) **Lur gaineko hidrologia** Kokalekuaren iparraldean Arriaga erreka dago. Hala eta guztiz ere, azpiegitura lurzatiaren ezartzen ez du ur horren kalitatean eragin behar.
- (7) **Uhaldiak ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik.** Kokalekuaren iparraldean Arriaga erreka dago. Hala ere, erreka horren tamaina ikusita, ez dirudi uhaldi arriskurik izango denik. Edonola ere, erreka toren ibilgua garbi mantendu beharko da, eta ur fluxua oztopa dezakeen trabarik gabe.

6.6. Trukatze-zabaluneak (Txingudi mankomunitatea) ingurumenean eragin ditzakeen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

Kasu honetan, jada eraikia eta martxan dagoen azpiegitura da, eta LAParen aldaketa honetan finkatu egingo da, harik eta Gipuzkoako Ingurumen Gunea martxan jartzen den arte. Azpiegitura Irungo Araso industrialdean dago, mankomunitateko garbigunearen mugen barruan.

TXINGUDIKO MANKOMUNITATEKO TRUKATZE-PLATAFORMA - ARASO (IRUN)	Ingurune elementuak	Ingurumen inpaktuak	USTIAPEN FASEA					
			Hartzen den lurra	Atmosferarako emisioak	Isurpen likidoak	Hondakinak sortzea	Zirkulazioa eta ibilgailu trafikoa	Ustiatzea
Ingurune fisiko eta biologikoa	Klima	Alterazio mikroklimatikoa						
	Atmosfera	Airearen kalitatearen alterazioa		☹️ ⁽²⁾			☹️	☹️
	Geologia	Interes geologikoko puntuetan eragin daitekeen afekzioa						
	Lur gaineko hidrologia	Lur gaineko uraren kalitatearen alterazioa	☹️ ⁽⁵⁾		☹️ ⁽⁵⁾			
	Lurpeko hidrologia	Lurpeko uraren kalitatearen alterazioa			☹️ ⁽³⁾			
	Lurra	Lurzorua okupatzea (azalera)	☹️ ^C					
	Lurzorua	Lurzoruaren kalitatearen alterazioa	☹️ ⁽¹⁾		☹️ ⁽³⁾			☹️
	Fauna. Habitat eta ekosistemak	Habitata alt./suntitzea. Fauna kon. eragozpenak.						
	Landareta. Habitat eta ekosistemak	Habitata alt./suntitzea/suntitzea						
Eragin daitezkeen arriskuak eta eragozpenak	Higadura	Grabitate-arriskuak edota higadura prozesuak						
	Zaratak	Zaratak sortzeagatik eragozpenak					☹️ ^C	☹️ ^C
	Uhaldiak	Ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik	☹️ ⁽⁶⁾					
Elementu estetiko-kulturalak	Arkeologia/kultura ondarea	Ondarearen gaineko afekzioak						
	Paisaia	Ikusizko inpaktua	☹️ ^C					☹️ ^C
Elementu sozio-ekonomikoak	Ingurune sozio-ekonomikoa	Ingurune produktibitatearen eta garapen sozio-ekonomikoaren gaineko afekzioa.		☹️				☹️
Ingurumen kostua		Hondakinen kanpo kudeaketa				☹️ ⁽⁴⁾		
			☺️	☹️	☹️ ^C	☹️ ^m	☹️ ^s	☹️ ^{cr}
			Inpaktu positiboa	Inpaktu negatibo ez garrantzitsua	Bateragarria	Moderatua	Larria	Kritikoa

- (1) **Lurzoruaren kalitatea.** Ibilgailuak bertan dabiltzan bitartean, hauen isurpenen ondorioz lurzoru kutsatzeko arriskua dago. Hala eta guztiz ere, neurri babesgarri eta zuzentzaileak aplikatuta, arrisku hori nabarmen murriztu ahal izango da, inpaktu negatiboa ez-aipagarria izateraino.
- (2) **Atmosferarako igorpenak / Usainak** Aurreikusi daitekeen iturburu bakarra erdi-atoien motorrak martxan jartzekoa izan daiteke; beraz, inpaktu hori ez da adierazgarria izango. Usainei dagokienez, instalazioak behar bezain garbi eta baldintza egokitan mantentzea bideratutako neurri zuzentzaile eta babesgarriak hartuta, inpaktua nabarmen murriztuko da.
- (3) **Isurpen likidoak.** Instalazioa martxan dago jada; beraz, hondakin urak kudeatzeko sistema egokia izango du, isurketak egiteko bidezko baimenak bezalaxe.
- (4) **Hondakinak.** Instalazioan hiri hondakinen transferentzia egiten da; beraz, mantentze lanetan zehar sortutako hondakinez aparte eta plantako langileek eragindakoez gain (etxeko hondakinen parekoak), ez da bestelako hondakinik sortzen. Hondakinak beren tipologiaren arabera kudeatzen dira.
- (5) **Lur gaineko hidrologia** Kokaleku honetan Araso eta Arteaga errekaak daude. Hala eta guztiz ere, azpiegitura lurzatian ezartzen ez du erreka horien kalitatean eragin behar.
- (6) **Uhaldiak ibilgu eta ertzetan materialak pilatzeagatik.** Kokaleku honetan Araso eta Arteaga errekaak daude. Hala ere, erreka horien tamaina ikusita, ez dirudi uhaldi arriskurik izango denik. Edonola ere, bi ibilguak garbi mantendu beharko dira, eta ur fluxua oztopa dezakeen trabarik gabe.

6.6.1. Donostiako Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoak

Kokapena Donostiako Aireportuko Zortasun Aeronautikoen Zonaldean barneratzen da. Horrenbestez, zortasun aeronautikoen ondoriozko eragina adieraztea komeniko litzateke, dagokion jabetza-erregistroan adieraziz Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 65. artikuluan eta Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartzeko, Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, modu honetan:

“Lursail hau Donostiako Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonaldean barneraturik dago, eta altuera baxuko aireontzien balizko hegaldien eraginpean, izan ere, aireportu-instalazioetatik hurbil dago eta aipatu Aireportuan jarduten duten aireontzien maniobretako ibilbideen eraginpean. Horrenbestez, bertan eraikinak, instalazioak edo landatzeak egiterakoan ezingo dira zortasun horiek aplikatzearen ondoriozko altuerak gainditu”.

6.7. Jada badauden edo indarreko LAPean aurreikusita dauden azpiegiturak ezabatzeak eragingo dituen inpaktuak baloratzea

GHHKPOeko Aurrerapen Agirian, transferentzia-estazioak aldi baterako ezartzeko gomendio tekniko batzuk eman ondoren, ildo horretan “irtenbiderik egokienak zehaztuko dituzten xehetasuneko azterketak egitea” agintzen du. Aurreikuspen arautzaile hori betetz, bada, aldaketa honetan aurreikusitako transferentzia-estazioak ezartzeko lurraldea proposatzerakoan azterlan logistikoa hartu da oinarritzat. Azterketa hori Gipuzkoako lurralde osoaren ikuspegitik egin da, hiri hondakinak tratatzeko instalazioen behin betiko sarea kontuan hartuta. Horrek esan nahi du aurreikusitako azpiegitura batzuk ezabatu egin behar direla, eta beste batzuk itxi, zaharkituak geratu direlako:

- Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
- Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
- Debagoiena: Akei (Arrasate) eta Epeleko (Bergara) hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
- Sasietako: Sasietako (Beasain) hondakindegia ondo eremua. Kasu honetan kokalekua aldatzea proposatzen da, azpiegitura hondakindegia barruan ezartzea hain zuzen.
- Debabarrena: Mutriku, Eibar eta Elgoibar.

Horrez gain, Gipuzkoako Ingurumen Gunea martxan jartzen denean, San Markoko eta Arasoko transferentzia-guneetako hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko jarduera bertan behera uztea proposatzen da aldaketa honetan.

Aldaketa honetan, bestetik, Aizmendiko hondakindegian eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak hartzeko planta bat ezartzeko aurreikuspena ezabatzea proposatzen da. Izan ere jada badaude lurraldean sortzen diren era horretako hondakinak tratatzeko ekimen pribatuko planta finkoak eta mugikorak, eta ez dago baliabide publikoak xede horretara bideratzea justifikatzen duen izaera horretako behar beste hondakinik.

LAParen aldaketa honek proposatzen du, azkenik, Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko interes publikoko azpiegituren mapatik ezabatzea, hiri hondakinak isurtzeko jarduera bukatutzat eman duten hondakin ez-arriskutsuen hondakindegia: Urteta, Sasieta eta Lapatx.

Horrek guztiak berarekin dakar:

- Azpiegituren kopurua nabarmen murriztea, hondakinak kudeatzeko proposatutako eskema zentralizatuaren ondorioz, LAParen aldaketarako proposatutako Ingurumen Helburuekin bat betiere (ikus 2.1 atala).
- Hiri hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegiturak erabili beharreko eremuak murriztea.
- Ezabatutako azpiegituren eraikuntzak eta ustiapenak berariaz eragiten dituzten inpaktuak ezabatzea.

Hiri hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegiturak eraikitzeak eta ustiatzeak eragindako inpaktu ekonomikoa murriztea.

7. Ingurumenean integratzeko neurriak

Neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak⁵ azpiegitura moten arabera eta horien behin betiko kokalekuaren arabera ezarri dira.

Dokumentu honetan kontuan hartu beharreko oinarritzko proposamenak eman dira; hala ere, azterketa sakonagoa egin beharko da kokaleku bakoitzari eta azpiegitura bakoitzari buruzko dokumentuak eratzerakoan. GIG2ri dagokionez, ingurumen azterketa, inpaktuen balorazioa, neurri babesgarri eta zuzentzaileen proposamena eta ingurumena zaintzeko programa Ingurumeneko Baimen Integratua lortzeko prozesuan garatuko dira, izan ere gune horren jardura honako araudi hauetan xedatutakoaren mende baitago: *kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, aldatzen duen ekainaren 11ko 5/2013 Legearen 1. Eranskineko 5. artikuluen 4.a) eta 4.c) apartatuak; hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea, uztailaren 28koa; eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. Eranskina:*

5.4 Arriskutsuak ez diren hondakinak balorizatzeko instalazioak, edo balorizatu eta ezabatu biak batera egiten dituzten instalazioak, eguneko 75 tonatik gorako ahalmena badute, baldin eta jarraian zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago hartzen badituzte beren barruan (hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan jasotzen direnak izan ezik):

a) tratamendu biologikoa;

b) errausketa edo baterako errausketa aurreko tratamendua;

c) zepen eta errautsen tratamendua;

d) hondakin metalikoen birringailuetan egiten den tratamendua, honako hauek barne: hondakin elektrikoak eta elektronikoak, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta haien osagarriak.

Beste batetik, GIG2ak Done Jakue bideko trazatuan sor litzakeen eraginak ekidite aldera, zepak heltzeko planta eta konpostatze eta/edo biometanizazio planta garatzeko dagozkion proiektuek arintze neurriak ezarri beharko dituzte aipatutako trazatuan sortutako eragina arintzeko; era berean, kontuan hartuko dira 2012ko urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren eranskinean bideak babesteko erregimenari buruz egiten diren zehaztapenak, dekretu horrek kultur ondare kalifikatu izendatzen baitu, monumentu-multzoaren kategoriarekin, Euskadiko Autonomia Erkidegotik igarotzen den Done Jakue bidea. Kontuan hartuko dira, halaber, Bidearen jarraipena bermatzeko Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin erabakitzen diren neurri zuzentzaileak.

⁵ LAParen aldaketa honi neurri konpentsatzaileak ez zaizkio ezartzen, lurraldearen zehaztasuna proposatutako jarduerarekin bateragarriak diren artifizializatutako kokalekuetan egiten baita.

Gainera, Kokapena Donostiako Aireportuko Zortasun Aeronautikoen Zonaldean barneratzen da. Horrenbestez, zortasun aeronautikoen ondoriozko eragina adieraztea komeniko litzateke, dagokion jabetza-erregistroan adieraziz Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 65. artikuluan eta Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartzeko, Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, modu honetan:

“Lursail hau Donostiako Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonaldean barneraturik dago, eta altuera baxuko aireontzien balizko hegaldien eraginpean, izan ere, aireportu-instalazioetatik hurbil dago eta aipatu Aireportuan jarduten duten aireontzien maniobretako ibilbideen eraginpean. Horrenbestez, bertan eraikinak, instalazioak edo landatzeak egiterakoan ezingo dira zortasun horiek aplikatzearen ondoriozko altuerak gainditu”.

Azkenik, eta oro har, planteatutako azpiegitura guztietan aplikatu egin beharko dira honako neurri hauek:

- Nahiz eta, aurreikuspenen arabera, proposatutako jarduera bat berak ere afekzio handirik sortuko ez duen ez uren jabari publikoan eta ez jabari horren zorpen eta kontrol eremuetan (zorpeneko eremua, 5 metro, eta kontrolerakoa, 100 metro), kontrol eremuan garatuko diren edota ur ibilgu publikora isurketak egingo dituzten azpiegitura guztiek ur gaietako baimen guztiak izan beharko dituzte. Baimen horiek URA-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroetako Bulegoan tramitatuko dira, eta hain zuzen ere baimen horietan aztertuko dira, banan-banan, sor daitezkeen afekzioak eta horien ezaugarriak; baita bete beharreko aginduak ezarri ere, halakorik egokitzuz gero.
- Ur hornidurari dagokionez, LAParen aldaketa honetan proposatutako jarduerak direla-eta garatu beharko diren proiektu espezifikoek jaso egin beharko dute gai honetan aurreikusitako irtenbidea; hau da, ur eskari berriei eta ur hori oraingo sare orokorren bitartez hornitzeari buruz erabakitako irtenbidea.
- Bestetik, hondakin uren saneamendu eta isurketari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak (2015-2021) 56.4 artikuluan xedatutakora jo behar da. Eta artikulua horren arabera, industria-poligonoen isuriak saneamendu publikoko sareetara konektatzea lehenetsiko da, jabari publiko hidraulikora zuzenean isurita banaka arazteko aukeraren aurrean, baldin eta, isuri horiek, biodegradagarriak izateagatik, administrazio autonomikoek edo tokikoek nahiz horien mendeko bestelako erakundeek kudeatutako saneamendu-sistema baten instalazioetan onar badaitezke.

Era berean, eskatzaileak (azpiegitura baten proiektu espezifikoak izapidetzean) bere isuriak lehendik dagoen sare batera konektatu nahi baditu, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat lortu beharko du. Txosten horretan, proposatutako konexioa eremuan dagoen saneamendu-soluzioarekin bateragarria dela ziurtatuko da, eta konexiorako puntu egokia zehaztuko da.

Saneamenduari dagokionez, gogorazi nahi dugu LPSaren berrikuspenaren ondorioz kolektorerara konektatu eta HUAetan araztuko diren isurketa berriek HUAen isurketa baimenean ezarritako baldintzen funtsezko aldaketa eraginez gero, baimen hauek berrikustea beharrezkoa izango dela.

- LAParen aldaketa honetan aurreikusitako azpiegituren proiektuek, atal bereizi batean jasoko dituzte azpiegituraren eraikuntzak eta kokalekuak ukitutako esparruak paisaian integratzeko, eta ingurumen nahiz paisaia arloko baldintzak leheneratzeko jarduketak. Jarduketa horiek beste helburu bat ere izan behar dute azpiegituren irisgarritasuna eta begietarako inpaktua murrizteaz gain: ukitutako esparruetako espazio libreetan, kokatuta dauden eremuetako ekosistemak erreproduzitzea, hain zuzen. Horretarako, habitat horietako berezko espezieak erabiliko dira, eta bioingeniaritzako teknikak planteatuko dira ukituak gerta litezkeen ur ibilguak eta ezpondak leheneratzeko.
- Azpiegituren eta azpiegitura horiei lotutako elementu eta zerbitzuen (garraioa eta abar) proiektuak, iraunkortasun irizpide hauetatik begiratuta planteatuko dira: gehieneko efizientzia energetikoa, materialak eta espazioak baliatzeko eta berreskuratzeko gaitasun handia, eta berotegi efektuko gasen eta bestelako kutsatzaileen igorpenak minimizatzea. Hori horrela, proiektuak planteatzeko garaian oso kontuan hartuko dira eskura dauden eta honako helburuak lortzen lagunduko duten teknika hoberenak: berrikuntza eta prozesuen optimizazioa; eraikuntzan egoki isolatutako materialak erabiltzea, ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak; azpiegiturak ezartzeko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik erabiltzea eta okupatzea; errekuntza sistema eraginkorrak ezartzea eta gutxi kutsatzen duten erregaiak erabiltzea, energia berriztagarrien erabilera bultzatuz; azpiegiturarako behar den ura kontrolatzeko, aurrezteko eta berrerabiltzeko programak ezartzea; isurketak pixkaka-pixkaka murrizten joatea, eta abar.
- Lurraldearen Arloko Plana garatzeko plan eta proiektuetan jaso behar diren neurri babesgarri eta zuzentzaile guztiak, eta ikuskapen programako jarduketak behar hainbateko xehetasun mailan finkatuko dira, erabat eraginkorrak izan daitezen, dagokien definizio eskalaren arabera. Ildo horretan, neurri horien aurrekontua egin daitekeen kasuetan, obra-unitate gisa jasoko dira, plan eta proiektuetan bakoitzari dagokion zenbatespen ekonomikoa adieraziz. Eta aurrekontua egitea ezinezkoa den kasuetan, berriz, baldintza teknikoen agirian sartuko dira.

7.1. Obren fasea

7.1.1. Obrako jarduketa egoki orokorrak

Obren fasean, antolakuntzaren aldetik neurri eta jarduketa egokiak aplikatuko dira, airearen eta lurzorua/uraren kalitatean eragin daitezkeen ondorioak mugatzearren. Funtsean, honako hauek aipa daitezke:

- Obrak irauten duen denbora guztian lan eremua behar bezala seinaleztatzea, eta lan eremu horretatik kanpo jarduketa oro debekatzea. Obrako eremu lagungarriak eta obrarako behar diren azpiegiturak, eremu edo habitat interesgarrietan eragingo ez duten lekuetan diseinatu eta kokatuko dira. Obrara sartzeko pistak ere seinaleztatu egingo dira, eta obraren berariazko premietarako bakarrik erabiliko dira. Obrara sartzeko pistak aukeratzeko, ahal dela behintzat, lehendik badauden azpiegiturak baliatzera joko da.
- Obrako makinerian prebentziozko mekanika egitea, erregai edo olio isurketarik gerta ez dadin. Ahal dela behintzat, ibilgailuen garbiketak eta mantentze-lanak obran bertan ez egitea. Lan horiek tailerretan, gasolindegietan edo behar bezala prestatutako (zoru iragazgaiztua) lekuetan egingo dira; hau da, sortzen diren hondakinak edo isurketak behar bezala kudeatuko diren lekuetan.
- Materialen karga-deskargak, hondeaketa lanak eta, oro har, hautsa edo partikulak sortu edo zabaldu ditzaketen jarduera guztiak, haizearen abiadura (sakabanatze-bektorea) 10 km/h-tik beherakoa den garaietara mugatzea. Obrako zuzendaritzak, hortaz, eguraldi-iragarpenera kontuan hartu beharreko faktore gisa sartu beharko luke jarduera horien egunez eguneko planifikazioa egiterakoan. Oro har, jarduera horiek saihesten saiatu behar da ezegonkortasun handiko egun edo denboraldietan.
- Beste ohitura on bat, batez ere karga-deskargako lanetan hautsaren dispersioa ekiditeko ohikoan egiten dena, materialak aldeztu aurretik pittin bat ureztatzea da, baldin eta isurketa likidorrak eragingo ez badu behintzat. Kamioiek olanaz edo bestelako babes sistemez babestuak ibili behar dute beti.
- Ibilgailu eta makina astunen igorpenak murriztu daitezke, beroriek baldintza tekniko egokitan edukita eta, ahal dela behintzat, material berriak edo berriki egindakoak erabilia. Alderdi hori, kontratistak baloratzeko irizpide gehigarri gisa sartzeko aukera izan lezake lizitatzailerak.
- Jarduketak behar-beharrezko eremuetan bakarrik egingo dira, eta horrez gain, eremu sentikorrek mugarriztatu egingo dira, zaindu beharreko zuhaitzak eta ibaiadarren ur ibilguak, esaterako.

7.1.2. Babestu beharreko elementuak aldeztu aurretik baliztatzea

Prebentzio gisa, azterketa honetan identifikatutako elementu fisiko interesgarrietan, edo gerora identifika daitekeenetan afekzio oro ekiditeko, elementu horiek balizatu egin beharko dira obrei ekin aurretik (zinta malgua ipinita edo prebentziozko seinaleztatze horretarako egokia izan daitekeen beste edozein sistema erabilia). Balizatu beharreko eremuak kasuan kasuko elementuaren babes perimetro bat hartuko du, Ingurumen Zaintzak zehaztuko duen neurrikoa.

7.1.3. Lurrak eta berezko landaretza babestea eta zaintzea

Eraikinek eta beharrezko sarbideek alterazioak eragingo dituzte, bai obren fasean eta bai martxan jartzen direnean, zeren eta zorpen iraunkorrak izango baitituzte, eta lurzorua erabiltzeko mugak.

Lehen-lehenik hartu beharreko prebentziozko neurria eraikinen kokalekua ondo aukeratzea da; zehazki, eraikinen sestrak eta orientazioa ondo hautatzea.

Lurraren okupazioa minimizatzeko eta obren ondorioz landare-estalkian eragin daitekeen afekzioa gutxitzeko, jarduerak hartuko duen eremua mugarritatu egingo da, makinaren zirkulazioa mugarritatutako eremura muga dadin aginduz.

7.1.4. Fauna babestea

Obrei ekin baino hilabete lehenago, lan batzuek eta besteek uki ditzaketen fauna-espezie babestuen inbentarioa egiaztatzea komeni da, kontsulta bibliografikoak eginda eta lekuan bertan egin beharreko jarduketak eginda. Arreta berezia jarriko zaie Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieei.

Komenigarria izango litzateke, makinak obran sartu aurretik Jabetzak ingurumen arloko aholkularitza teknikoaren laguntza izatea; horrek ezagutza egokiak izan behar ditu faunaren intereseko guneak lekuan bertan antzemateko gai izan dadin eta, hala egokituz gero, ingurumen arloko erakunde eskudunari berorren berri emateko.

Gainera, obrek dirauten bitartean, bueltako itxitura sistemak egokitu egingo dira.

7.1.5. Jarduketaren egutegia

Oro har, obraren iraunaldia murriztera jo behar da; hau da, obrako elementu ezberdinek leku horretan egon behar duten benetako denbora murriztu egingo da, ahal den neurrian.

Jakinda xede hori lortzeko baldintzatzaile nagusiak baimenen izapideetan gertatzen diren luzapenak direla, obra ezarri aurretik izapide gehienak eginak eta baimenak eskuratuak egon daitezen ahalegindu beharko da.

Bestetik, ahal dela behintzat lanak saihestu egingo dira faunaren bizi-zikloetan gehien eragin daitekeen garaietan (ernaldia eta umealdia).

7.1.6. Zarata minimizatzea

Eraikuntza fasean zaratak eragindako afekzioak minimizatzeko jarraibide orokorren artean, makina guztien prebentziozko mekanika egitea dago, horrek saihestu baitezake egoera txarrean dauden piezek alferrikako zarata sortzea.

Era berean, obraren eremuan trafikoa ahalik eta arinena izan dadin saiatu behar da, eta ibilgailuen abiadura mugatu, obraren eremuko sarrera-irteerak kontrolatzearekin batera.

Bestelako neurriak hartzeko premia aztertuko da kasuz kasu; besteak beste, zarata gutxi sortzen duten konpresoreak eta zulagailuak erabiltzea, motor isilgailuak aldika-aldika aztertzea eta kontrolatzea, edota tobera zein iraulki kutxetan estalki elastikoak erabiltzea.

Ildo horretan har litekeen beste neurri bat buelta osoan soinu-hesiak jartzea litzateke, zarata gogaigarriak zabal daitezen saihesteko eta unitate gogaigarrien (makineria astuna eta soinu-mailak areagotu ditzaketen gainerako ibilgailu eta ekipoak) funtzionamendu-denbora ahalik eta gehien minimizatzeko, eta horiekin egin beharreko lana egunez bakarrik eginda.

7.1.7. Ukitutako eremuak leheneratzea

Proiektuko edozein eragiketak (sarbideak eraikitzea, zangak irekitzea, lehengaiak pilatzea, eta abar) aldatutako azalera guztiak lehengo egoerara itzuli beharko dira. Hauek dira leheneratze horretan jarraitu beharreko irizpideak:

Afekzioa	Leheneratze irizpidea
Landaretza moztea (zorpen iraunkorreko eremuetan izan ezik)	Ezabatutako landaretza berriro ezartzea hidroereinketa edo landaketa bidez
Landaretza moztea zorpen iraunkorreko eremuetan	Ezabatutako landaretza berriro ezartzea, baldin eta hori zorpen iraunkorreko eremuan bideragarria bada.
Lursail nabarmen lauak trinkotzea	Lur-azala harrotzea edo aitzurtzea. Halakorik behar izanez gero, landare-lurra zabaltzea (30-50 cm-ko geruza). Hidroereinketa edo landaketa, erabileraren arabera.
Obrako edozein soberakin egotea (lehengai hondarrak, landare hondarrak, hormigoi zatiak, eta abar)	Berehala kentzea eta behar bezala kudeatzea
Gune soilak edo higadura-ildoak agertzea	Estalki geotestila finkatzea eta belarkiak eta zuhaixkak hidroereitea.
Estalki edafikoa ezabatzea	Estalki edafikoa lehen bezala jartzea, lurzorua horizontalizatuz.

Hidroereinketa edo landaketa egiteko, eremuko berariazko landaretzari begira egokiak izan daitezkeen landare espezieak aukeratuko dira. Landareztatze lanak obra amaitu bezain laster egingo dira, espezie bakoitza ereiteko edo landatzeko garairik egokienean.

Ustiapen fasean, landareztatutako eremuak zaindu egingo dira.

7.1.8. Makinen eta obrako etxolen kokalekua

Makinak eta obrako etxolak kokatzeko guneak aukeratzekoan, irizpide teknikoak, ekonomikoak eta paisaia arlokoak hartuko dira kontuan. Ahal dela behintzat proiektuaren eraginpeko eremuaren barruan kokatuko dira, eta ur ibilguen hurbilean ez, inondik ere.

7.1.9. Hautsa ez barreiatzeko neurriak

Kamioiak, pistak eta azalera soilak ureztatze sistemaren bat ipiniko da, hautsa ahalik eta gutxien barreia dadin. Eta behar izanez gero, gurpilak garbitzeko sistema bat ezarriko da kamioien irteeran.

7.1.10. Hondakinen kudeaketa

Eraikuntza fasean sortzen diren hondakinak Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak Kudeatzeko Azterketan eta Planean xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Izan ere agiri horiek nahitaez idatzi beharko dira eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen 105/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak ezarritakoa betez, eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, agindutakoari jarraituz.

Obran sortzen diren hondakin guztiak kudeatzeko sistemak ezarriko dira, indarreko araudiak agindutakoa uneoro betez eta iraunkortasun irizpideak kontuan hartuz. Hori horrela, obran agertzen diren materialak ahalik eta gehien berrerabili edota birziklatuko dira.

Erregaien biltegietatik, makinen olio-aldaketatik eta abarretik etor daitezkeen kontrolik gabeko isurkinak saihestu egin behar dira. Ibilgailuen eta makinen mantentze-lanetan sortutako olioak kudeatzaile baimendu batek kudeatu behar ditu, araudiak ezarritako prozedurari jarraituz.

7.1.11. Paisaia leheneratzea

Ukitutako sailen paisaia leheneratzeko lanak, azpiegituren eraikuntzarekin batera hasiko dira.

Paisaia leheneratzeko lan horiek, aldeztu aurretik egingo den landareztatze proiektuan zehaztutako egitura eta paisaia arloko irizpideen arabera egingo dira.

Azpiegituren kanpoaldeko eremuak tratatzeko, paisaia irizpideak eta ezpondak egonkortzeko irizpideak erabiliko dira lur-erazketetan eta betelanean; eta barruko berdeguneak tratatzeko, berriz, lorezaintza irizpideak.

Habitaten berariazko espezie autoktonoak erabiliko dira kanpoaldeko eremuan, eta lorategi espezieak, barnealdean.

7.2. Ustiapen fasea

7.2.1. Kudeatu behar diren Hiri Hondakin Solidoen konposizioaren kontrola

Hondakinak kudeatzeko instalazioen funtzionamenduan zehar, kudeatzen diren hondakinen erregistro bat eramango da, hain zuzen ere hondakin horiek onargarritzat jotzen direnen artean daudela kontrolatzearren.

Hori horrela, hondakinak jaso aurretik hondakin horien kontrola eramango da, eta horretarako, plantetan onar daitezkeen hondakinak onartzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko protokolo bat aplikatuko da, honakoa bermatuz:

- Etxeko hondakinak udal bilketatik datozela.
- Etxeko hondakinekin asimilagarriak diren industri, denda eta instituzioetako hondakinak udal bilketetatik edo aurrez baimenduta dauden kudeatzaile pribatuek zertutako bilketetatik datozela.

- Kalebide, berdegune, aisialdiko eremu eta hondartzak garbitzetiko hondakinak udal bilketetatik edo aurrez baimenduta dauden kudeatzaile pribatuek zertutako bilketetatik datozela.
- Altzariak, tresnak, erabiltzen ez diren pneumatikoak eta bolumen handiko beste batzuk gaikako bilketetatik datozela, eta aurrez bereiziak izan direla, hain zuzen hondakin arriskutsurik gabeak direla ziurtatzearren.

7.2.2. Instalazioetan sortutako hondakinen kudeaketa

Ustiapen fasean instalazioetan sortzen diren hondakinetarako, instalazioaren titularrak horietarako Kudeaketa eta Kontrol Plan bat prestatuko du, horien bolumena ahalik eta gehien minimizatzearren eta deuseztatzeko unean kalterik ez eragitea lortzeko. Hondakin mota bakoitzaren ezaugarriak eta kudeaketa legeria aplikagarriaren arabera izango dira.

Proiektuaren titularrak Hondakin Arriskutsuaren Produktorearentzako Baimena eskatu beharko du, eta industri hondakin geldoen produktoreen erregistroan eman beharko du izena.

7.2.3. Lur gaineko urak babestea

Hauek dira, funtsean, urak kudeatzeko irizpideak:

- Isurkin kutsatuak lur gaineko ur sistema naturaletan sar daitezen ekiditea.
- Uren berrerabilera maximizatzea.
- Ur isurketa minimizatzea.
- Edateko uraren kontsumoa minimizatzea.

Hori lortzeko, neurri hauek hartu ahal izango dira:

- Ura kontrolatzeko, aurrezteko eta berrerabiltzeko programak ezartzea.
- Ur isurkin ezberdinak bereiztea.
- Ekoizpen prozesuetan sortutako isurkinak biltzea eta kolektorera eramatea (aurrez tratatuta, bidezkoa denean).
- Bildutako urak araztegi batean tratatuko dira.
- Laginak hartzeko kutxetak ipiniko dira isurketa-puntuetan.

Kolektorera bideratuko diren isurkin likidoek bete egin behar dituzte kasuan kasuko isurketa baimenean ezarritako baldintzak.

7.2.4. Lurpeko urak babestea

Lurpeko urak babesteko, beharrezko prebentzio eta zuzentze neurriak hartuko dira:

- Azpiegiturek drainatze sistema eta hustubideak izango dituzte, ur isurkin ezberdinen arabera bereiziak; hau da, prozesuko ohiko isurkinak, garbiketako urak eta ezustean sortutako isurketak biltzea ahalbidetu behar dute, kutsadurarik gabeko urak bezalaxe.
- Erregaiak, produktuak eta gehigarriak gordetzeko andelak sistema estankokoak izango dira beti, eta bidezko segurtasun sistemez hornituak egongo dira.

7.2.5. Zarata maila handiko instalazioetan hartu beharreko neurriak

Zarata sortzen duten iturri nagusien zarata maila murrizteko ahalegina egingo da. Horretarako, makineria estankoa erabiliko da, bibrazioen aurkako ainguratze egokia duena eta, behar denean, pantaila akustikoez hornitua.

7.2.6. Erregai ezberdinak eta, oro har, produktuak gordetzea

Prozesuan beharrezkoak diren erregaiak eta gainerako produktuak, ingurunera barreiatuko ez diren moduan gordeko dira. Hori horrela, produktu kimikoak biltegitratzeko araudia aplikatuko da, beharrezkoa den kasuetan, 2001eko apirilaren 6ko 379/2001 Errege Dekretuari jarraituz.

7.2.7. Atmosferarako igorpenak kontrolatzea. Efizientzia energetikoa

Atmosferaren kutsadura ekiditeko, prebentziozko neurri hauek hartuko dira kontuan:

- Elementuak eta horiei lotutako zerbitzuak diseinatzerakoan, gehieneko efizientzia energetikoa lortzeko eta erabilerak optimizatzeko irizpideak erabiltzea.
- Azpiegituren funtzionamendu fasean erregai fosilen ordeztasun erregai berriztagarriak erabiltzea, hau da, berotegi efektuko gas gutxiago eta atmosfera kutsatzen duten bestelako elementu gutxiago sortzen dituztenak, alegia.
- Hondakinen garraioan ibilbideak optimizatzeko azterketak egitea. Errepideaz bestelako garraio-bideak erabiltzeko aukera aztertzea.
- Gas arazketako sistemen mantentze-lanak egitea, hala dagokionean.
- Igorpenak neurraketa-ekipoen bitartez kontrolatzea, jarraipen egokia eginez bai parametro kutsatzaileei dagokienez, eta bai errausketa prozesuekin zerikusia duten kontzentrazio eta baldintza egokiei dagokienez. Kontrolatu beharreko parametroak, gai honen inguruan indarrean dagoen araudian zehaztutakoak izango dira.

7.3. Oraingo hondakindegia zigilatze eta ixteko proiektua

Zigilatze proiektua prestatzerakoan aintzat hartuko da indarrean dagoen araudia; bereziki, 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

Proiektuak honako kapituluak izango ditu gutxienez:

1. Proiektuaren helburua

1.1 Proiektuaren eskatzailea

2. Lege-esparrua

3. Kokalekua

4. Egin beharreko lanak

4.1 Hondakinak berriro zehaztea

4.2 Drainatzeak

4.3 Gasak biltzea

4.4 Lur gaina zigilatzea

4.5 Paisaian integratzea eta hau leheneratzea

5. Segimendua eta kontrola

5.1 Zigilatze-estalkiaren egoera egiaztatzea.

5.2 Lur gaineko urak husteko sistemaren eraginkortasuna.

5.3 Lixibatuak biltzeko sarearen eraginkortasuna.

5.4 Inguruko lur gaineko ur ibilguetako uraren kalitatea kontrolatzea.

5.5 Lurpeko uraren kalitatea kontrolatzea.

5.6 Landare-geruza berria kontrolatzea.

6. Segurtasuna eta osasuna

7. Obraren planifikazioa

8. Aurrekontuen laburpena

7.4. Kokalekuak xehetasunez ikertzea eta arakatzea

Bai obra berriak egiterakoan eta bai beste jarduera batzuk eten eta ixterakoan, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, bete beharko da.

Bidezko kontsultak egingo dira lurzorua kutsa lezaketen jarduerak hartzen dituzten edo hartu izan dituzten lurzoruen inbentarioan, eta legeria nola aplikatu jakiteko, kokaleku horien lehengo edo etorkizuneko jardueren CNAE begiratuko da.

Emaitzen arabera bidezkoak diren arakatze-lanak edo ikerketa xehatuak egingo dira, lurzoruak baldintza egokitan uzteko zertu beharreko jardueretarako.

8. Ingurumen arloko ikuskapen programa

8.1. Kontrolatu beharreko helburuak zehaztea

Programa honen helburua da Plana behar bezala aplikatzeko kontrol sistema bat ezartzea, eta plan hori martxan jartzeak, aurreikusitako edo onartutakoez aparte ingurumen inpaktu aipagarririk ez duela eragingo bermatzea.

Hori horrela, eta zehatzago esanda, programa horrek honako helburuak erdietsiko ditu:

- Legez ezarritako ingurumen izapideak betetzen direla kontrolatzea, bai azpiegitura berriei dagokienez, eta bai LAParen eta aldaketa honen indarraldian zehar ixteko aurreikusita dauden azpiegiturei dagokienez.
- Proposatutako azpiegitura bakoitzaren eraikuntza, ustiapen eta ixte proiektuetan ingurumen arloko betekizun guztiak jaso direla kontrolatzea, bai ingurumen dokumentazioan ezarritakoak (ingurumeneko baimen integratua, ingurumen eranskinak, eta bar), eta bai funtzionamendurako edo ingurumen arloko baimenetan ezarritakoak (Ingurumen eraginari buruzko adierazpena, azpiegitura irekitzeko lizentzia, eta abar).
- Planaren eraginpeko azpiegituren obra fasean, ustiapen fasean eta itxieran LAPan eta aldaketa honetan ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak erabiltzen direla kontrolatzea, azpiegitura horiei lotutako gainerako ingurumen agirietan (ingurumeneko baimen integratua, jarduera-lizentzia eskuratzeko proiektuak, ingurumen kudeaketako sistemak, etab.) ezarritakoak bezalaxe.

Gipuzkoako hondakinetarako azpiegituren LPSaren eta beronen jarraipen programa abian jartzearen ondorioz detektatuz gero egindako ingurumen ebaluazio estrategikoan aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak, organo sustatzaileak ingurumen organoari jakinarazi beharko dizkio hori minimizatzeke proposatzen diren neurriak, 211/2012 Dekretuaren 16. artikulua xedatzen duena betez.

8.2. Ukituko diren eta segimendua beharko duten ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea

Esan daiteke kontuan hartu beharreko ingurumen aldaerak, oro har, kokalekuen azterlan xehatua egiteko Ingurumen Azterketa Estrategikoan (3.2.2.2 azpiatala) jada aurreikusi zirenak berak direla; hau da: atmosfera, airearen kalitatea, klima-aldaketa, geologia, geomorfologia, edafologia, hidrogeologia, lur gaineko hidrologia, landaretza eta lurzoruaren erabilerak, fauna, paisaia, ondarea, eragozpenak, lasaitasuna eta osasun publikoa.

Alabaina, kontrolatu beharreko ingurumen aldaeren zerrenda horrek gorabeherak izan ditzake, honako faktore hauen ondorioz:

- Kasuan kasuko azpiegitura, eta zein fasetan dagoen —obra, ustiapen edo ixte fasea—.
- Azpiegitura lekutzen den kokalekuan inpaktuak jasateko probabilitate gehien dituzten ingurumen aldaerak. Ildo horretan kontuan hartu beharko dira ingurumen inbentarioa eta aldaketa honetan jaso den inpaktuen analisia; bai eta azpiegitura horrekin zerikusia duen ingurumen dokumentazioan jaso daitezkeenak ere.
- Kontrolatu beharreko ingurumen aldaerak, ingurumen arloko baimenetan edota azpiegitura bakoitza ukitzen duten ingurumen kudeaketarako sistemetan ezarritakoaren arabera, betiere.

8.3. Ikuskapen metodologia

LAPean bertan islatu bezala, LAParen eraginpeko azpiegituren kudeaketaz arduratzen diren erakundeek ikuskatuko dute aldaketa honetan aurreikusitako neurri babesgarri eta zuzentzaileen betetze-maila.

Ikuskatze-lan hori aipatutako erakundeetako teknikariek egin dezakete zuzenean; edo bestela, entitate independente bati azpikontratatzeko aukera egongo da, oso-osorik edo planaren garapeneko fase zehatzetan.

Segimenduko egiaztapenak arintzearen, LAPan eta aldaketa honetan sartutako azpiegitura bakoitzaren ikuskatze-lanak kontrol fitxa baten bitartez egingo dira. Fitxa hori kudeaketaz arduratzen den organoak idatziko du, eta azpiegituraren faseetako bakoitzean bete beharko da: jarduketei ekin aurretik (proiektuak idazteko eta baimenak eskuratzeko garaian), hala nola obra, ustiapen eta ixte faseetan.

Fitxa horien edukia kasuan kasuko azpiegituraren eta honek bizi duen fasearen arabera zehaztuko da baina, edozein kasutan ere, ahalbidetu behar du gutxienez item hauek bete direla egiaztatzea:

- Jarduketei ekin aurreko fasean:
 - Kasuan kasuko azpiegiturarekin zerikusia duten baimen eta lizentzia guztiak eskatzea
 - Instalazioa edo honen eraikuntza baimentzeko proiektuetan sartzea baimen ezberdinetan eta baimen horiek izapidetzeko beharrezkoa den ingurumen dokumentazioan ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak.
 - Instalazioa edo honen eraikuntza baimentzeko proiektuetan zaintza programa bat sartzea.
- Obren fasean:
 - Obrek dirauten bitartean ingurumen arloko ikuskapen bat izatea, kudeaketaz arduratzen den erakundeak berak ezarria, edo azpikontratatua.
 - Obrek dirauten bitartean martxan jartzea baimen ezberdinetan eta baimen horiek izapidetzeko beharrezkoa den ingurumen dokumentazioan ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak eta zaintza programa.
 - Baimenetan eta ingurumen dokumentazioan ezarritako aldizkako zaintza-txostenak idaztea eta entregatzea.
- Ustiapen fasean:
 - Zaintza kontrolak egitea, bai ingurumen arloko baimen eta lizentzian ezarritakoak, eta bai ingurumen kudeaketarako sistemetan ezarritakoak, instalazioak halakorik izanez gero behintzat.
 - Kasuan kasuko ingurumen aldaerei buruz (ura, airea, etab.) plantari dagokion ingurumen legerian ezarritako mugak errespetatzea.
- Ixte fasean:

- Instalazioa ixteko bete behar diren lege-izapideak betetzea.
- Instalazioa ixteko baimenetan ezarritako zaintza kontrolak egitea.
- Kasuan kasuko ingurumen aldaerei buruz (ura, airea, etab.) plantari dagokion ingurumen legerian ezarritako mugak errespetatzea.

Kontrol fitxa horiekin batera *Ingurumen arloko Ez-Adostasunen Erregistroa* eramango da. Kontrol fitxak betetzerakoan antzemandako ingurumen arloko ez-betetzeak erregistro horretan jasoko dira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko *Ez-Adostasun* horrek ukitutako plantaren proiektuan edo kudeaketan.

8.4. Adierazleak definitzea eta horien segimendua egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea. Gehieneko edo erreferentziako mailak ezartzea

Bi adierazle maila ezarri dira; honako hauek:

- Orokorrak. Aldaketa honetan aurreikusitako planifikazioa ezartzeak era martxan jartzeak eragingo dituen ingurumen inpaktuak bere osotasunean baloratzeko aukera emango dute. Adierazle horien artean, honako hauek egongo dira:

Lurzoruaren zentzuzko erabilera:

- Lurzorua zenbat artifizializatuko den: azpiegiturek hartzen duten azalera portzentajea, aldaketa garatu aurretik eta ondoren.
- Berreskuratu diren espazio degradatuen portzentajea eta hektarea kopurua.
- Nekazaritzarako gaitasun handia duen lurzorua azalera, aurreikusitako jarduerak gauzatu aurretik eta ondoren.

Ura:

- Guztizko ur eskaria: edateko uraren urteko kontsumoaren aldaketaren %, kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- Ur kontinentaletara egindako isurpenak, eta uraren erabileran zein hondakin uren sorreran antzeman daitekeen eragimena eta intentsitatea.

Airea:

- Espero daitezkeen kutsatzaile garrantzitsuenen indizea (berotegi efektuko gasei dagozkienak barne hartuta).
- Azpiegituretatik etorritako berotegi efektuko gasen isurpenak urtean (CO₂ tona baliokideak), kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- Azpiegituretatik etorritako atmosfera-kutsatzaileen isurpenak urtean (kg./urte), kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- OMEak gomendatutako mugez gaindiko arriskua jasaten duen biztanle portzentajea.

Energia:

- Azpiegituren argindar kontsumoa, urtean.

Biodibertsitatea:

- Planaren eragina nozituko duten batasunaren intereseko habitatek hartzen duten azalera, edota intereseko landaretzak hartzen duena.

Adierazle hauentzako muga edo erreferentziarik ez da jarriko; izan ere, interesgarriena, adierazle horien urteko bilakaera izango baita. Bilakaera horrek, hain zuzen ere, aurreko urteko balioak mantentzera jo beharko du, edota LAParen aldaketaren iraunaldi osoan zehar jaistera.

- Espezifikoak. Planta bakoitzari zehazki dagozkionak izango dira, kontrol-fitxetatik ateratakoak, hain zuzen. Horietan sartuko dira, besteak beste:
 - Urtean zehar mota bakoitzerako erregistratu den ez-adostasun kopurua (neurri zuzentzaileak ez sartzea, kontrolak ez sartzea, baimenak ez eskuratzea, eta abar).
 - Ingurumen arloko baimenetan eta dokumentazioan jasotako neurri babesgarri eta zuzentzaile guztietatik benetan hartu direnen %.
 - Baimenetan eta ingurumen dokumentazioan ezarritako zaintza programetan jasotako kontrol guztietatik benetan garatu direnen %.

Erreferentzia maila 0 izango da lehen adierazlean, eta % 100 beste bietan.

Urtero txosten bat idatziko da eta, horretan, LAPko azpiegituren multzo osoko inpaktu orokorren adierazleetan izandako gorabeherak, eta planta bakoitzaren adierazle espezifikoetan izandakoak, adieraziko dira. Urteroko txosten hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak idatziko du.

Era berean, LAParen aldaketa jasotako ingurumen alderdien segimendua behar bezala aurreikusteko, atal honetan ezarri den Ikuskapen Programa aintzat hartu eta txertatu egingo da LAParen araudiko 7. artikuluan aipatzen den Memorian.

8.5. Plangintzaren gerorako faseetan edo plana garatzeko ingurumen arloko izapideetan xehetasunez aztertzeke utzi behar diren alderdiak

LAParen aldaketa honetan zein planifikazio mailatan gauden ikusita, eta kontuan izanik sor daitezkeen inpaktuak, hartu beharko diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak, eta hori guztia kontrolatzeko zaintza programak, egiaz, eraikuntza eta ixte proiektuak egiteko garaian, edo bestela ingurumen baimenak lortzeko egiten diren proiektuetan zehaztuko direla, LAParen aldaketa honetan egingo den gauza bakarra, fase bakoitzean oinarritzko ingurumen bermeak kontuan hartu direla egiaztatzea izango da, eta horretarako, proposatutako kontrol fitxak beteko dira. Baina xehetasunezko segimendua ingurumen arloko dokumentu espezifikoetan egingo da, hau da, LAPeko eta aldaketa honetako aurreikuspenak garatzen dituen planta bakoitzari buruzko ingurumen agiri espezifikoetan.

Gainera, LAPan, aldaketa honetan eta foru arau gisa onartutako Aurrerapen Agirian ezarritako ikuskapen programak koordinatu egin beharko dira, bi agirietan –bai kudeaketa helburuak betetzeari dagokionez, eta bai lurralde inpaktuei dagokienez– ezarritako jarraibideen arabera garatzen den hondakinen kudeaketak ingurumenean duen benetako eragina bere osotasunean ikusi ahal izateko.

9. Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

LAParen aldaketaren definizio maila kontuan hartuta, LAParen aldaketan proposatutako azpiegitura bakoitzak eragingo duen kostuaren gutxi gorabeherako zenbatespena aurkeztuko dugu segidan. Kasu batean zein bestean, neurri prebentibo eta zuzentzaileei zenbatetsitako kopurua aurrekontuen diru-sail propioetan sartu dira (neurri konpentsatzaileak ezarri beharrik ez dago, jada artifizializatuak dauden lurrak baitira).

LAParen aldaketaren IV. dokumentuan ageri da aurreikusitako jarduketaren azterketa ekonomiko eta finantzarioa.

- **Gipuzkoako Ingurumen Gunea – 2. Fasea:**

Kasu honetan, inpaktuak identifikatzeko lana eta inpaktu horiek arintzeko neurri espezifikoaren proposamenak Ingurumeneko Baimen Integratua lortzeko izapideetan egingo badira ere, hondakinak manipulatzekeko pabilioiak sakonunean ezarri beharko dira, eta airea araztu, igorri aurretik. Horregatik, aireztatzeke eta gasak arazteko sistema egokiak izan beharko ditu azpiegiturak, hau da, usaina neutralizatzeko (biometanizatzekeko plantan) eta partikulak ezabatzeke (zepak tratatzeko eta heltzeko plantan) pentsatuak. Era berean, planifikazioaren fase honetan, prozesuko urak araztekeko planta bat ezartzea aurreikusi behar da, kolektorerara isuriko diren urek gehieneko balioak errespetatuko dituztela bermatuko den moduan.

Gainerako neurriak edozein azpiegiturak bete beharreko berak dira: ur mota ezberdinak (euri urak, kutsadura eraman dezaketen euri urak, eta prozesuko urak) biltzeko sare banatzaileak; intsonorizazio neurriak, indarreko legeriak ezarritako muga akustikoak betetzeko beharrezkoak diren kasuetan; prozesuan zehar sortutako hondakinak bolada batean gordetzeko biltegia; zoru iragazgaiztuak, lurzorura eta lurpeko uretara elementu kutsatzailerik sar ez dadin,... Neurri horiek guztiak aurrekontuko diru-sailetan sartuak daude, batez ere Lur mugimendu orokorrak eta obra zibila, egitura eta itxiturak, eta Estaldurak eta akaberak sailetan.

Jarraian, obra kontrataz gauzatzearen aurrekontua ageri da. Horretan, arestian aipatutako partidez gain, beste partida bat jaso da obren fasean egin beharreko ingurumen zaintzarako:

OBRA KONTRATA BIDEZ EGITEKO AURREKONTUA		ZENBATEKOA (€)
1	LUR MUGIMENDU OROKORRA ETA OBRA ZIBILA	4.488.252
2	EGITURA ETA ITXITURAK	3.557.329
3	ESTALDURAK ETA AKABERAK	764.887
4	BIOMETANIZATZEKO PLANTA	15.900.000
5	ZEPAK TRATATZEKO ETA HELTZEKO PLANTA	3.410.000
6	INSTALAZIOAK	5.410.956
	Argindar instalazioa (Goi eta Behe tentsioa)	1.258.765

OBRA KONTRATA BIDEZ EGITEKO AURREKONTUA		ZENBATEKOA (€)
	PCI instalatzea	651.295
	I&C instalatzea	623.795
	Telebista-zirkuitu itxia, eta ahotsa eta datuak instalatzea.	123.295
	Airezatzea eta usaingabetzea (bio-iragazkia, scrubber, mauka-iragazkiak)	1.280.715
	Aire-girotzea	156.295
	Instalazio/ekipo lagungarriak	1.316.796
	<i>Hondakin urak tratatzea</i>	1.001.574
	<i>Baskulak</i>	99.574
	<i>Errekuntza lagungarriko sistema</i>	94.074
	<i>Aire konprimatuko sistema</i>	121.574
7	USTIATZEKO MAKINAK ETA ELIKATZE EKIPOAK	1.113.292
	pala kargatzaileak (1)	125.000
	Errazteko makina industrialak (1)	125.000
	Garabi-zubiak eta polipastoak	863.292
8	BESTE BATZUK	264.000
	Tailer elektromekanikoa	66.000
	Altzariak	33.000
	Laborategia	66.000
	Ingurumen zaintza (obren fasea)	99.000
9	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	210.972,41
10	KALITATE-KONTROLA	105.485,78
11	HONDAKINEN KUDEAKETA	70.705,75
	GUZTIRA	35.295.879,94

Zifra horri tasak, zergak eta bisatuak erantsi behar zaizkio: 590.569,86 €.

Etorkizuneko premien arabera eta bio-hondakina tratatzeko sistemaren bilakaera teknologikoaren arabera, azpiegitura handitu beharko balitz ere, 7,36 M€ inguruko zenbateko/aurrekontu gehigarria aurreikusi da.

- **Sasietako transferentzia-estazioa:**

Kasu honetan, azpiegitura sinplea denez, ez du eskatzen proiektuaren berariazko neurri babesgarri edota zuzentzaileak aplikatzea. Hain zuzen ere, edozein proiektutan bete beharreko neurriak ezarriko dira, lurzoruan eta lur gaineko nahiz lurpeko uretan (infiltrazioz) inpakturik ez eragitera bideratuak batez ere; esate baterako: ur mota ezberdinak (euri urak, kutsadura eraman dezaketen euri urak, eta prozesuko urak, bidezko denean) biltzeko sare banatzaileak; intsonorizazio neurriak, indarreko legeriak ezarritako muga akustikoak betetzeko beharrezkoak diren kasuetan; zoru iragazgaiztuak, lurzorura eta lurpeko uretara elementu kutsatzailerik sar ez dadin,...

OBRA KONTRATA BIDEZ EGITEKO AURREKONTUA		ZENBATEKOA (€)
1	LUR MUGIMENDUA	190.400
2	ERAIKINAK	333.200
3	URBANIZATZE LANAK ETA ZERBITZUAK	249.900
	GUZTIRA	773.500

10. Laburpen ez-teknikoa

10.1. Aurrekariak

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko azpiegiturei buruzko Lurraldearen Arloko Plana (aurrerantzean LAP) 2009ko uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen, Gipuzkoako hiri hondakinak etorkizunean kudeatu ahal izateko beharrezkoak diren azpiegituren kokalekuak aurreikusteko helburu orokorrearekin, betiere Europako, estatuko eta erkidegoko araudietan ezarritako iraunkortasun irizpideei jarraituz, eta halaber, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean (GHHKPO) eta honen Aurrerapen Agirian ezarritako helburuei erantzuna emateko xedearekin.

Laburbilduz, honela geratu zen azpiegitura horien kokapena:

- Transferentzia-estazioak
 - Urola Kosta mankomunitatea: 1. hautabidea – Sasietako hondakindegia
 - Urola Erdia mankomunitatea: 2. hautabidea – Lapatxeko hondakindegian, ibilgailuen mantentze-lanak egiteko eraikinaren aurrean.
 - Debagoiena mankomunitatea: 3. hautabidea – Epeleko hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
 - Debabarrena mankomunitatea: Eibar eta Mutriku. Kokaleku berria zehazteko dago; izan ere, arazo teknikoak direla tarteko, Eibarren transferentzia-gune berria ezartzeko aukera (2. hautabidea) baztertu egin baita.
 - Sasieta mankomunitatea: 2. hautabidea – Sasietako hondakindegia ondo-ondoko eremua.
- Konpostatze plantak
 - Konpostatze planta Lapatxeko hondakindegia esparruan: 3. hautabidea – Lapatxeko hondakindegian inausketako materialak pilatzeko erabiltzen den gunea, baserriaren aurrean.
 - Konpostatze planta Debagoiena mankomunitatean: 3. hautabidea – Epeleko hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
 - Konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta Donostialdea-Bidasoa esparruan: 2. hautabidea – Zaldunborda (Hondarribia)
- Eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko azpiegitura, Aizmendiko (Donostia) hondakin geldoen hondakindegian.
- Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa, Artzabaletan (Zubietako gainean).
- Hondakindegia:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatxeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Sasieta: Sasietako hondakindegia (Beasain)

- Ontziak bereizteko plantak:
 - Sasieta: Legazpiko planta
 - San Marko: Urnietako planta

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2012. urtean, 50/2012 zenbakiko epaia eman zuen 1.352/2009 zenbakiko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan. Errekurtso horretan, Aizarnazabal, Lezo eta Oiartzungo udalak ageri dira demandatzaile gisa, eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak demandatu gisa. Errekurtso hori 2009ko uztailaren 21eko 24/2009 Dekretuaren aurka jarri zen, hau da, Gipuzkoako hiri hondakinen azpiegituri buruzko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu zuen dekretuaren aurka, alegia; eta, gainera, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (GHHKPO) 2002/2016 eta GHHKPOren Aurrerapen Agiria (2008-2016) onartu zuen 7/2008 Foru Araua, abenduaren 23koa, aurkatu ziren, zeharka bada ere. Errekurtso hori hein batean onartu izanak indargabetuta utzi zuen LAPean jasotako Artzabaleta esparruaren antolamendua; hori dela-eta, Plan Berezi bat onartu beharra zegoen, esparrua antolatzeko. Plan Berezi hori 2016ko abenduaren 20an onartu zen, behin betiko, Donostiako Udalbatzaren osoko bilkuran (BOG, 2017ko urtarrilaren 17koa). Eta hala, urbanistikoki antolatuta geratu ziren tratamendu mekaniko eta biologikorako planta eta energia balioztatzeako planta.

LAP eta GHHKPO onartu zirenetik igarotako denboran zehar, kokaleku batzuk aldatzeko premia antzeman da; izan ere, lekuan bertan xehetasunezko azterketak egiterakoan agerian geratu da kokaleku batzuk ez direla egokiak irizpide geotekniko-geologiko, ekonomiko, ingurumeneko eta kudeaketa arlokoak oinarritzat hartuta.

Hori horrela, Hondakinen Kontsortzioak (aurrerantzean, Kontsortzioa) indarreko LAP hori aldatzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari; zehazki, indarreko GHHKPOean aurreikusitako azpiegiturak ezartzen bukatzeko eta aurreikusitako beste batzuk aldatzeko.

Bestetik, Gipuzkoako lurralde historikoaren 2017. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 8/2016 Foru Arauak, abenduaren 23koak, haxe dio Zortzigarren Xedapen Gehigarrian:

“2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren bitartez onartutako Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra eta honen Aurrerapen Agiria 2008-2016, erabat aplikagarriak izango dira harik eta bi dokumentu horietan aurreikusitako azpiegiturak guztiz gauzatzen diren arte.”

Xedapen hori betez, bada, LAParen aldaketa honek osatu egin du aipatutako GHHKPOean aurreikusitako azpiegituren multzoa.

10.2. Azpiegiturek ezartzeko lurraldea zehazteko irizpide orokorrak

LAParen helburu orokorra da Gipuzkoako lurralde historikoaren interes orokorrekoak diren eta GHHKPOean aurreikusita dagoen hiri hondakinak kudeatzeko ereduaren definituak dauden azpiegiturek ezartzeko lekua zehaztea, Europa mailako, estatuko eta Autonomia Erkidego mailako dokumentu arauemaileetan ezarritako iraunkortasun irizpideei jarraituz, betiere; eta, erkidego nahiz foru mailan indarrean dagoen planifikazio sektorialean ezarritako helburuei erantzuna ematea”.

LAParen aldaketa hau bultzatu duten azpiegiturek ezartzeko kokalekuak erabakitzeak garaian kontuan hartu diren irizpideak, honako hauetan oinarrituak daude: Lurraldearen Zatiko eta Arloko Planen azterketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeako Artezpideak, eta EAEko Hondakinak Prebentzio eta Kudeaketarako Plana 2020.

Gipuzkoan sortutako hondakinak kudeatzeko beharrezkoak diren azpiegitura publikoak ezartzeko lekua erabakitzerakoan, honako irizpide orokor hau hartuko da aintzat: **azpiegiturek eta hauei lotutako garraioak izan lezaketen eragina murriztea, eremu babestuetan edo flora zein faunaren intereseko habitat naturaletan, ingurumen arloan ahulak diren eremuetan, kalitate paisajistiko handiko eremuetan, kultur ondareko guneetan, uholdeak jasateko arriskua duten eremuetan, malda biziko lekuetan eta antzekoetan gutxien eragingo duten lekuak eta diseinuak aukeratuz. Hau da, giza osasunarentzako eta ingurumenerako baldintza egokiak betetzen dituzten lekuak aukeratu dira, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea bermatzearekin batera, aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak ziurtatuz. Era berean, aintzat hartuko dira elementu horien guztien arteko elkarreraginak ere.**

Azpiegiturek ezartzeko hautabideetako bakoitza, zentralizazioaren eta homogeneotasunaren ikuspegitik aztertu da, hondakinak kudeatzeko planifikazioari ordena eta egonkortasuna ematea bilatuz betiere. Aldaketako ingurumen arloko helburu estrategikoak ezartzerakoan, honako irizpideak hartu dira oinarritzat: Garapen Iraunkorrerako 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategian, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen arloko Esparru Programetan, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta beste hainbat garapen agiritan bermatutako antolaketa iraunkorreko irizpideak. Honela labur daitezke:

1. Azpiegiturek ezartzeko kokalekuak hautatzeko ikuspegi orokor gisa, azpiegituren eraikuntzak eta funtzionamenduak, hala nola azpiegituren lotutako garraioak, izan lezaketen eragina minimizatzeko ahalegina egingo da. Eta horretarako, honako irizpideak erabiliko dira:

- Hondakinak kudeatzeko eskema zentralizatu, eta azpiegituren kokalekua tratatu beharreko hondakinak sortzen diren grabitate zentroetan ezartzea. Hondakinak garraiatzeko distantziak murriztea.
- Maila orokorreko plangintza esparruak lurralde mailako xedapenetara egokitzea.

- Azpiegituretatik herriguneetara distantzia egokiak eta nahikoak egotea, gizartean eragin daitekeen inpaktua minimizatzeko. Hiri garapeneko esparruetatik kanpo kokatzea. Giza osasunerako baldintza egokiak bermatuko dituzten eta bizitokien ingurumen kalitatea ziurtatuko duten kokalekuak hautatzea, instalazioen funtzionamenduak biztanleriari ekar diezazkiokeen kalteak minimizatuz: trafikoa, zarata, usaina...
 - Hondakinak kudeatzeko beste azpiegiturekin zerbitzuak eta sinergiak izatea, azpiegitura berriak sortzeko premia minimizatuz betiere.
 - Ahal dela jada artifizializatuak dauden lurzoruak erabiltzea, degradatuak edo kutsatuak dauden lurzoruak berreskuratzen eta berrerabiltzen saiatuz, baldin eta jarduketa horren ondorioz azpiegituraren eraikuntzan denbora, teknika edo ekonomia alorreko ziurgabetasunik sortzen ez bada behintzat.
 - Kokaleku eta diseinu egokiak erabakitzea, hau da, ahalik eta afekziorik txikiena izango dutenak eremu babestuetan, floraren eta faunaren intereseko habitat naturaletan, horien arteko lotura-guneetan, paisaiaren kalitatean eta kultur ondarean. Ur ibilguak errespetatzea, eta nekazaritzarako lurraren eta berezko lurraren zaintza lehenestea.
 - Natur arriskuak jasan ditzaketen kokalekuak saihestea (urak har ditzakeen eremuak, malda biziko sailak), arrisku teknologikoak erakusten dituztenak bezalaxe (suteak, ihesak eta abar eragin ditzaketen jarduerak).
 - Bete behar diren premiak zorrotasun osoz aztertzea, aurreikusitako plantak gaindimentsionatu gabe eta lurzorua baliabidea behar bezala ez aprobetxatzea saihestuz.
2. Hondakinak kudeatzeko instalazioak eraikitze eta urbanizatzeko arauak eta irizpideak ezartzerakoan, iraunkortasun irizpideei jarraituko zaie. LAParen xehetasun mailak horrelako garapen mailara iristeko aukerarik ematen ez badu ere, hurrengo faseetan (oinarriko proiektua, eraikuntza proiektua eta abar) aintzat hartu beharko dira honako alderdi hauek:
- Plantak diseinatzeko lehen faseetan bertan bidezko neurri babesgarri eta zuzentzaileak sartzea, planta horien funtzionamenduak eragin ditzakeen ingurumen inpaktuak murrizteko.
 - Plantak diseinatzerakoan trinkotasuna bilatzea. Erabilerarik izango ez duten espazio libre gehiegi ez antolatzea; batez ere, lur gaineko aparkaleku masiboak ekiditea.
 - Eraikinen eta instalazioen efizientzia energetikoa bultzatuko duten diseinu-neurriak hartzea.
 - Eraikinetan edo espazio libreetan energia berriztagarria sortzeko sistemak bultzatzea.

- Euri ura berez iragaz dadin bultzatzea, bere ingurunera itzul dadin, berrerabili ahal izan dadin, eta uholderik gerta ez dadin.
- Euri urak eraikinetan bertan biltzea, gero berrerabili ahal izateko; ura biltzeko urmaelak edo andelak sortzea ureztatze lanetarako eta abarrerako; sare bereizleak erabiltzea; edatekoa ez den ura biltzeko sare espezifikoak sortzea, ur hori industrian erabiltzeko.
- Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatzeko lanak, eta abar) eta bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
- Zentzuzko eraikuntza sustatzea.
- Azpiegitura diseinatzerakoan paisaia faktorea kontuan hartzea.
- Lur eta landare-lurren soberakinak eta, halakorik denean, eraisketako materialak behar bezala kudeatzea, berrerabiltzeko bidea bilatuz betiere.
- Birziklatutako edota lehen erabilitako materialak erabiltzea.
- Sareen diseinuan gaitasunak ekiditea.

10.3. Jarduketa esparrua. LAParen aldagakaren helmena aukeratu diren hautabideak

Aldaketa honetan ukituko diren bakarrak Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauek izango dira:

- Zepak heltzeko planta. Eskuzaitzeta poligonoko D lurzatian ezartzea proposatzen da. Kasu honetan ez da aztertu kokatzeko hautabide ezberdinak; izan ere, prozesuko zikloa itxiko duenez (zepak tratatzea eta heltzea) GIG1 gunetik hurbil ezarri behar da nahitaez.
- Konpostatzeko edota biometanizatzeoko planta Donostialdea-Bidasoa esparruan. 3 hautabide aztertu ondoren, Eskuzaitzeta poligonoko D lurzatian ezartzea proposatzen da, zepak tratatzeko eta heltzeko plantaren ondoan. Bi azpiegitura horien multzoari Gipuzkoako Ingurumen Gunea-2. fasea esango zaio.
- Transferentzia-estazioak:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz). Eraikitze aurreikuspena ezabatu egin da.
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia). Eraikitze aurreikuspena ezabatu egin da.

- Debagoiena: Akei (Arrasate): hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapatik kendu egin da; eta Epeleko (Bergara) hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila: eraikitze aurreikuspena ezabatu egin da.
 - Sasieta: Sasietako (Beasain) hondakindegia ondo-ondoko eremua. Kokalekua lurzati handiago batera aldatu beharra ikusi da; horregatik, 3 hautabide aztertu ondoren, Sasietako hondakindegia barruan ezartzea proposatzen da.
 - Debabarrena: Mutriku eta Eibar: hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapatik kendu egin dira; eta Elgoibar: finkatu egin da, eta hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapan sartu.
 - San Marko: San Markoko transferentzia-estazioa. Hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapan mantentzea proposatzen da, harik eta Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG) martxan jartzen den arte.
 - Txingudi: Arasoko trukatzeko-zabalgunea. Finkatu egin da, eta hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapan mantentzea proposatzen da, harik eta Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG) martxan jartzen den arte.
- Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak hartzeko plantak:
 - San Marko: Aizmendiko hondakindegia (Donostia). Hondakindegia eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak hartzeko planta eraikitze aurreikuspena ezabatzea proposatzen da.
 - Hondakindegia:
 - Urola Kosta: Urtetako hondakindegia (Zarautz)
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Sasieta: Sasietako hondakindegia (Beasain)

Hondakindegia horietan jada isurpen jarduerarik egitez ez denez, hondakinak bideraketa-sarean kudeatzeko azpiegituren mapatik kentzea proposatzen da.
- Aldaketa honek ez du inolako eraginik izango indarreko LAPan jada finkatuak dauden azpiegituretan:
- Artzabaleko tratamendu mekaniko eta biologikorako eta energia balioztatzeko planta (GIG-1). Artzabaleko antolamendua, Donostiako Udalbatzak 2016ko abenduaren 20an behin betiko onartutako Artzabaleko Plan Berezia definitua dago.
 - Konpostatze plantak:
 - Urola Erdia: Lapatzeko hondakindegia (Azpeitia)
 - Debagoiena (Bergara): Epeleko hondakin geldoen hondakindegia aldameneko lursaila.
 - Ontziak bereizteko plantak:
 - Sasieta: Legazpiko planta
 - San Marko: Urnietako planta

LAP Aldaketaren jarduketa esparrua, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak –lehendik badaudenak edo aurreikusitakoak– aldatuko dituzten mankomunitateetara mugatu da.

10.4. Ingurumenean integratzeko neurriak

Neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaileak⁶ azpiegitura moten arabera eta horien behin betiko kokalekuaren arabera ezarri dira.

Dokumentu honetan, kontuan hartu beharreko oinarritzko proposamenak eman dira; hala ere, azterketa sakonagoa egin beharko da kokaleku bakoitzari eta azpiegitura bakoitzari buruzko dokumentuak eratzerakoan. GIG2ri dagokionez, ingurumen azterketa, inpaktuen balorazioa, neurri babesgarri eta zuzentzaileen proposamena eta ingurumena zaintzeko programa Ingurumeneko Baimen Integratua lortzeko prozesuan garatuko dira, izan ere gune horren jardura honako araudi hauetan xedatutakoaren mende baitago: kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, aldatzen duen ekainaren 11ko 5/2013 Legearen 1. Eranskineko 5. artikuluen 4.a) eta 4.c) apartatuak; hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea, uztailaren 28koa; eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. Eranskina:

5.4 Arriskutsuak ez diren hondakinak balorizatzeko instalazioak, edo balorizatu eta ezabatu biak batera egiten dituzten instalazioak, eguneko 75 tonatik gorako ahalmena badute, baldin eta jarraian zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago hartzen badituzte beren barruan (hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan jasotzen direnak izan ezik):

a) tratamendu biologikoa;

b) errausketa edo baterako errausketa aurreko tratamendua;

c) zepen eta errautsen tratamendua;

d) hondakin metalikoak birringailutan tratatzea, baita hondakin elektriko eta elektronikoak, eta balio-bizitzaren bukaeran dauden ibilgailuak eta hauen osagaiak ere.

Beste batetik, GIG2ak Done Jakue bideko trazatuan sor litzakeen eraginak ekidite aldera, zepak heltzeko planta eta konpostatze eta/edo biometanizazio planta garatzeko dagozkion proiektuek arintze neurriak ezarri beharko dituzte aipatutako trazatuan sortutako eragina arintzeko; era berean, kontuan hartuko dira 2012ko urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren eranskinean bideak babesteko erregimenari buruz egiten diren zehaztapenak, dekretu horrek kultur ondare kalifikatu

⁶ LAParen aldaketa honi neurri konpentsatzaileak ez zaizkio ezartzen, lurraldearen zehaztasuna proposatutako jarduerarekin bateragarriak diren artifizializatutako kokalekuetan egiten baita.

izendatzen baitu, monumentu-multzoaren kategoriarekin, Euskadiko Autonomia Erkidegotik igarotzen den Done Jakue bidea. Kontuan hartuko dira, halaber, Bidearen jarraipena bermatzeko Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin erabakitzen diren neurri zuzentzaileak.

Gainera, Kokapena Donostiako Aireportuko Zortasun Aeronautikoen Zonaldetan barneratzen da. Horrenbestez, zortasun aeronautikoen ondoriozko eragina adieraztea komeniko litzateke, dagokion jabetza-erregistroan adieraziz Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 65. artikuluan eta Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartzeko, Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, modu honetan:

“Lursail hau Donostiako Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonaldetan barneraturik dago, eta altuera baxuko aireontzien balizko hegaldien eraginpean, izan ere, aireportu-instalazioetatik hurbil dago eta aipatu Aireportuan jarduten duten aireontzien maniobretako ibilbideen eraginpean. Horrenbestez, bertan eraikinak, instalazioak edo landatzeak egiterakoan ezingo dira zortasun horiek aplikatzearen ondoriozko altuerak gainditu”.

Azkenik, eta oro har, planteatutako azpiegitura guztietan aplikatu egin beharko dira honako neurri hauek:

- Nahiz eta, aurreikuspenen arabera, proposatutako jarduera bat berak ere afekzio handirik sortuko ez duen ez uren jabari publikoan eta ez jabari horren zorpen eta kontrol eremuetan (zorpeneko eremua, 5 metro, eta kontrolerakoa, 100 metro), kontrol eremuan garatuko diren edota ur ibilgu publikora isurketak egingo dituzten azpiegitura guztiek ur gaitako baimen guztiak izan beharko dituzte. Baimen horiek URA-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Arroetako Bulegoan tramitatuko dira, eta hain zuzen ere baimen horietan aztertuko dira, banan-banan, sor daitezkeen afekzioak eta horien ezaugarriak; baita bete beharreko aginduak ezarri ere, halakorik egokitz gero.
- Ur hornidurari dagokionez, LAParen aldaketa honetan proposatutako jarduerak direla-eta garatu beharko diren proiektu espezifikoek jaso egin beharko dute gai honetan aurreikusitako irtenbidea; hau da, ur eskari berriei eta ur hori oraingo sare orokorren bitartez hornitzeari buruz erabakitako irtenbidea.
- Bestetik, hondakin uren saneamendu eta isurketari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak (2015-2021) 56.4 artikuluan xedatutakora jo behar da. Eta artikulua horren arabera, industria-poligonoen isuriak saneamendu publikoko sareetara konektatzea lehenetsiko da, jabari publiko hidraulikora zuzenean isurita banaka arazteko aukeraren aurrean, baldin eta, isuri horiek, biodegradagarriak izateagatik, administrazio autonomikoek edo tokikoek nahiz horien mendeko bestelako erakundeek kudeatutako saneamendu-sistema baten instalazioetan onar badaitezke.

Era berean, eskatzaileak (azpiegitura baten proiektu espezifikoak izapidetzean) bere isuriak lehendik dagoen sare batera konektatu nahi baditu, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat lortu beharko du. Txosten horretan, proposatutako konexioa eremuan dagoen saneamendu-soluzioarekin bateragarria dela ziurtatuko da, eta konexiorako puntu egokia zehaztuko da.

Saneamenduari dagokionez, gogorazi nahi dugu LPSaren berrikuspenaren ondorioz kolektorerara konektatu eta HUAetan araztuko diren isurketa berriek HUAen isurketa baimenean ezarritako baldintzen funtsezko aldaketa eraginez gero, baimen hauek berrikustea beharrezkoa izango dela.

- LAParen aldaketa honetan aurreikusitako azpiegituren proiektuek, atal bereizi batean jasoko dituzte azpiegituraren eraikuntzak eta kokalekuak ukitutako esparruak paisaian integratzeko, eta ingurumen nahiz paisaia arloko baldintzak leheneratzeko jarduketak. Jarduketa horiek beste helburu bat ere izan behar dute azpiegituren irisgarritasuna eta begietarako inaktua murrizteaz gain: ukitutako esparruetako espazio libreetan, kokatuta dauden eremuetako ekosistemak erreproduzitzea, hain zuzen. Horretarako, habitat horietako berezko espezieak erabiliko dira, eta bioingeniaritzako teknikak planteatuko dira ukituak gerta litezkeen ur ibilguak eta ezpondak leheneratzeko.
- Azpiegituren eta azpiegitura horiei lotutako elementu eta zerbitzuen (garraioa eta abar) proiektuak, iraunkortasun irizpide hauetatik begiratuta planteatuko dira: gehieneko efizientzia energetikoa, materialak eta espazioak baliatzeko eta berreskuratzeko gaitasun handia, eta berotegi efektuko gasen eta bestelako kutsatzaileen igorpenak minimizatzea. Hori horrela, proiektuak planteatzeko garaian oso kontuan hartuko dira eskura dauden eta honako helburuak lortzen lagunduko duten teknika hoberenak: berrikuntza eta prozesuen optimizazioa; eraikuntzan egoki isolatutako materialak erabiltzea, ahalik eta iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak; azpiegiturak ezartzeko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik erabiltzea eta okupatzea; errekontua sistema eraginkorrak ezartzea eta gutxi kutsatzen duten erregaiak erabiltzea, energia berriztagarrien erabilera bultzatuz; azpiegiturarako behar den ura kontrolatzeko, aurrezteko eta berrerabiltzeko programak ezartzea; isurketak pixkaka-pixkaka murrizten joatea, eta abar.
- Lurraldearen Arloko Plana garatzeko plan eta proiektuetan jaso behar diren neurri babesgarri eta zuzentzaile guztiak, eta ikuskapen programako jarduketak behar hainbateko xehetasun mailan finkatuko dira, erabat eraginkorrak izan daitezen, dagokien definizio eskalaren arabera. Ildo horretan, neurri horien aurrekontua egin daitekeen kasuetan, obra-unitate gisa jasoko dira, plan eta proiektuetan bakoitzari dagokion zenbatespen ekonomikoa adieraziz. Eta aurrekontua egitea ezinezkoa den kasuetan, berriz, baldintza teknikoaren agirian sartuko dira.

10.4.1. Obren fasea

Obrako jarduketa egoki orokorrak

Obren fasean, antolakuntzaren aldetik neurri eta jarduketa egokiak aplikatuko dira, airearen eta lurozuaren/uraren kalitatean eragin daitezkeen ondorioak mugatzearren. Funtsean, honako hauek aipa daitezke:

- Obrak irauten duen denbora guztian lan eremua behar bezala seinaleztatzea, eta lan eremu horretatik kanpo jarduketa oro debekatzea.
- Obrako makinerian prebentziozko mekanika egitea, erregai edo olio isurketarik gerta ez dadin.
- Materialen karga-deskargak, hondeaketa lanak eta, oro har, hautsa edo partikulak sortu edo zabaldu ditzaketen jardura guztiak, haizearen abiadura (sakabanatze-bektorea) 10 km/h-tik beherakoa den garaietara mugatzea.
- Materialak aldezturik pittin bat ureztatu egin beharko dira, baldin eta isurketa likidorik eragingo ez bada behintzat. Kamioiek olanaz edo bestelako babes sistemez babestuen ibili behar dute beti.
- Jarduketak behar-beharrezko eremuetan bakarrik egingo dira, eta horrez gain, eremu sentikorak mugarriztatu egingo dira, zaindu beharreko zuhaitziak eta ibaiadarren ur ibilguak, esaterako.

Babestu beharreko elementuak aldezturik aurretik baliztatzea

Prebentzio gisa, azterketa honetan identifikatutako elementu fisiko interesgarrietan, edo gerora identifika daitezkeenetan afekzio oro ekiditeko, elementu horiek balizatu egin beharko dira obrei ekin aurretik (zinta malgua ipinita edo prebentziozko seinaleztatze horretarako egokia izan daitezkeen beste edozein sistema erabilita). Balizatu beharreko eremuak kasuan kasuko elementuaren babes perimetro bat hartuko du, Ingurumen Zaintzak zehaztuko duen neurrikoa.

Lurrak eta berezko landaretza babestea eta zaintzea

Eraikinek eta beharrezko sarbideek alterazioak eragingo dituzte, bai obren fasean eta bai martxan jartzen direnean, zeren eta zorpen iraunkorrak izango baitituzte, eta lurzorua erabiltzeko mugak.

Lehen-lehenik hartu beharreko prebentziozko neurria eraikinen kokalekua ondo aukeratzea da; zehazki, eraikinen sestrak eta orientazioa ondo hautatzea.

Lurraren okupazioa minimizatzeko eta obren ondorioz landare-estalkian eragin daitezkeen afekzioa gutxitzeko, jarduerak hartuko duen eremua mugarriztatu egingo da, makinen zirkulazioa mugarriztatutako eremura muga dadin aginduz.

Fauna babestea

Obrei ekin baino hilabete lehenago, lan batzuek eta besteek uki ditzaketen fauna-espezie babestuen inbentarioa egiaztatzea komeni da, kontsulta bibliografikoak eginda eta lekuan bertan egin beharreko jarduketak eginda. Arreta berezia jarriko zaie Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden espezieei.

Zarata minimizatzea

Eraikuntza fasean zaratak eragindako afekzioak minimizatzeko jarraibide orokorren artean, makina guztien prebentziozko mekanika egitea dago, horrek saihestu baitezake egoera txarrean dauden piezek alferrikako zarata sortzea.

Era berean, obraren eremuan trafikoa ahalik eta arinena izan dadin saiatu behar da, eta ibilgailuen abiadura mugatu, obraren eremuko sarrera-irteerak kontrolatzearekin batera.

Ildo horretan har litekeen beste neurri bat buelta osoan soinu-hesiak jartzea litzateke, zarata gogaigarriak zabal daitezen saihesteko eta unitate gogaigarrien (makineria astuna eta soinu-mailak areagotu ditzaketen gainerako ibilgailu eta ekipoak) funtzionamendu-denbora ahalik eta gehien minimizatzeko, eta horiekin egin beharreko lana egunez bakarrik eginda.

Ukitutako eremuak leheneratzea

Proiektuko edozein eragiketak (sarbideak eraikitzea, zangak irekitzea, lehengaiak pilatzea, eta abar) aldatutako azalera guztiak lehengo egoerara itzuli beharko dira.

Hidroereinketa edo landaketa egiteko, eremuko berariazko landaretzari begira egokiak izan daitezkeen landare espezieak aukeratuko dira. Landareztatze lanak obra amaitu bezain laster egingo dira, espezie bakoitza ereiteko edo landatzeko garairik egokienean.

Ustiapen fasean, landareztatu diren eremuak zaindu egingo dira.

Makinen eta obrako etxolen kokalekua

Makinak eta obrako etxolak kokatzeko guneak aukeratzekoan, irizpide teknikoak, ekonomikoak eta paisaia arlokoak hartuko dira kontuan. Ahal dela behintzat proiektuaren eraginpeko eremuaren barruan kokatuko dira, eta ur ibilguen hurbilean ez, inondik ere.

Hondakinen kudeaketa

Eraikuntza fasean sortzen diren hondakinak Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak Kudeatzeko Azterketan eta Planean xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Izan ere agiri horiek nahitaez idatzi beharko dira eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen 105/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak ezarritakoa betez, eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koak, agindutakoari jarraituz.

Obran sortzen diren hondakin guztiak kudeatzeko sistemak ezarriko dira, indarreko araudiak agindutakoa uneoro betez eta iraunkortasun irizpideak kontuan hartuz. Hori horrela, obran agertzen diren materialak ahalik eta gehien berrerabili edota birziklatuko dira.

Erregaien biltegietatik, makinen olio-aldaketatik eta abarretik etor daitezkeen kontrolik gabeko isurkinak saihestu egin behar dira. Ibilgailuen eta makinen mantentze-lanetan sortutako olioak kudeatzaile baimendu batek kudeatu behar ditu, araudiak ezarritako prozedurari jarraituz.

Paisaia leheneratzea

Ukitutako sailen paisaia leheneratzeko lanak, azpiegituren eraikuntzarekin batera hasiko dira.

Paisaia leheneratzeko lan horiek, aldezturik egingo den landareztatze proiektuan zehaztutako egitura eta paisaia arloko irizpideen arabera egingo dira.

Azpiegituren kanpoaldeko eremuak tratatzeko, paisaia irizpideak eta ezpondak egonkortzeko irizpideak erabiliko dira lur-erazketetan eta betelanetan; eta barruko berdeguneak tratatzeko, berriz, lorezaintza irizpideak.

Habitaten berariazko espezie autoktonoak erabiliko dira kanpoaldeko eremuan, eta lorategi espezieak, barnealdean.

10.4.2. Ustiapen fasea

Kudeatu behar diren hiri hondakin solidoen konposizioa kontrolatzea

Hondakinak kudeatzeko instalazioen funtzionamenduan zehar, kudeatzen diren hondakinen erregistro bat eramango da, hain zuzen ere hondakin horiek onargarritzat jotzen direnen artean daudela kontrolatzearen.

Instalazioetan sortutako hondakinen kudeaketa

Ustiapen fasean instalazioetan sortzen diren hondakinetarako, instalazioaren titularrak horietarako Kudeaketa eta Kontrol Plan bat prestatuko du, horien bolumena ahalik eta gehien minimizatzearen eta deuseztatzeko unean kalterik ez eragitea lortzeko. Hondakin mota bakoitzaren ezaugarriak eta kudeaketa legeria aplikagarriaren arabera izango dira.

Proiektuaren titularrak Hondakin Arriskutsuaren Produktorearentzako Baimena eskatu beharko du, eta industri hondakin geldoen produktoreen erregistroan eman beharko du izena.

Lur gaineko urak babestea

Hauek dira, funtsean, urak kudeatzeko irizpideak:

- Isurkin kutsatuak lur gaineko ur sistema naturaletan sar daitezkeen ekiditea.
- Uren berrerabilera maximizatzea.
- Ur isurketa minimizatzea.
- Edateko uraren kontsumoa minimizatzea.

Hori lortzeko, neurri hauek hartu ahal izango dira:

- Ura kontrolatzeko, aurrezteko eta berrerabiltzeko programak ezartzea.
- Ur isurkin ezberdinak bereiztea.
- Ekoizpen prozesuetan sortutako isurkinak biltzea eta kolektorerara eramatea (aurrez tratatuta, bidezkoa denean).
- Bildutako urak araztegi batean tratatuko dira.

- Laginak hartzeko kutxetak ipiniko dira isurketa-puntuetan.

Kolektorerara bideratuko diren isurkin likidoek bete egin behar dituzte kasuan kasuko isurketa baimenean ezarritako baldintzak.

Lurpeko urak babestea

Lurpeko urak babesteko, beharrezko prebentzio eta zuzentze neurriak hartuko dira:

- Azpiegiturek drainatze sistema eta hustubideak izango dituzte, ur isurkin ezberdinen arabera bereizirik; hau da, prozesuko ohiko isurkinak, garbiketako urak eta ezustean sortutako isurketak biltzea ahalbidetu behar dute, kutsadurarik gabeko urak bezalaxe.
- Erregaiak, produktuak eta gehigarriak gordetzeko andelak sistema estankokoak izango dira beti, eta bidezko segurtasun sistemez hornituak egongo dira.

Zarata maila handiko instalazioetan hartu beharreko neurriak

Zarata sortzen duten iturri nagusien zarata maila murrizteko ahalegina egingo da. Horretarako, makineria estankoa erabiliko da, bibrazioen aurkako ainguratze egokia duena eta, behar denean, pantaila akustikoez hornitua.

Erregai ezberdinak eta, oro har, produktuak gordetzea

Prozesuan beharrezkoak diren erregaiak eta gainerako produktuak, ingurunera barreiatuko ez diren moduan gordeko dira. Hori horrela, produktu kimikoak biltegitratzeko araudia aplikatuko da, beharrezkoa den kasuetan, 2001eko apirilaren 6ko 379/2001 Errege Dekretuari jarraituz.

Atmosferarako igorpenak kontrolatzea. Efizientzia energetikoa

Atmosferaren kutsadura ekiditeko, prebentziozko neurri hauek hartuko dira kontuan:

- Elementuak eta horiei lotutako zerbitzuak diseinatzerakoan, gehieneko efizientzia energetikoa lortzeko eta erabilerak optimizatzeko irizpideak erabiltzea.
- Azpiegituren funtzionamendu fasean erregai fosilen ordeztu erregai berriztagarriak erabiltzea, hau da, berotegi efektuko gas gutxiago eta atmosfera kutsatzen duten bestelako elementu gutxiago sortzen dituztenak, alegia.
- Hondakinen garraioan ibilbideak optimizatzeko azterketak egitea. Errepideaz bestelako garraio-bideak erabiltzeko aukera aztertzea.
- Gas arazketako sistemen mantentze-lanak egitea, hala dagokionean.
- Igorpenak neurtzeko ekipoen bitartez kontrolatzea, jarraipen egokia eginez bai parametro kutsatzaileei dagokienez, eta bai errausketa prozesuekin zerikusia duten kontzentrazio eta baldintza egokiei dagokienez. Kontrolatu beharreko parametroak, gai honen inguruan indarrean dagoen araudian zehaztutakoak izango dira.

10.4.3. Oraingo hondakindegia zigilatze eta ixteko proiektua

Zigilatze proiektua prestatzerakoan aintzat hartuko da indarrean dagoen araudia; bereziki, 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

10.4.4. Kokalekuak xehetasunez ikertzea eta arakatzea

Bai obra berriak egiterakoan eta bai beste jarduera batzuk eten eta ixterakoan, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, bete beharko da.

Bidezko kontsultak egingo dira lurzorua kutsa lezaketen jarduerak hartzen dituzten edo hartu izan dituzten lurzoruen inbentarioan, eta legeria nola aplikatu jakiteko, kokaleku horien lehengo edo etorkizuneko jardueren CNAE begiratuko da.

Emaitzen arabera bidezkoak diren arakatzeko lanak edo ikerketa xehatuak egingo dira, lurzoruak baldintza egokitan uzteko zertu beharreko jardueretarako.

10.5. Ingurumen arloko ikuskapen programa

LAPean bertan islatu bezala, LAParen eraginpeko azpiegituren kudeaketaz arduratzen diren erakundeek ikuskatuko dute aldaketa honetan aurreikusitako neurri babesgarri eta zuzentzaileen betetze-maila.

Ikuskatze-lan hori aipatutako erakundeetako teknikariek egin dezakete zuzenean; edo bestela, entitate independente bati azpikontratatzeko aukera egongo da, oso-osorik edo planaren garapeneko fase zehatzetan.

Segimenduko egiaztapenak arintzearen, LAPan eta aldaketa honetan sartutako azpiegitura bakoitzaren ikuskatze-lanak kontrol fitxa baten bitartez egingo dira. Fitxa hori kudeaketaz arduratzen den organoak idatziko du, eta azpiegituraren faseetako bakoitzean bete beharko da: jarduketei ekin aurretik (proiektuak idatzeko eta baimenak eskuratzeko garaian), hala nola obra, ustiapen eta ixte faseetan.

Fitxa horien edukia kasuan kasuko azpiegituraren eta honek bizi duen fasearen arabera zehaztuko da baina, edozein kasutan ere, ahalbidetu behar du gutxienez item hauek bete direla egiaztatzea:

- Jarduketei ekin aurreko fasean:
 - Kasuan kasuko azpiegiturarekin zerikusia duten baimen eta lizentzia guztiak eskatzea
 - Instalazioa edo honen eraikuntza baimentzeko proiektuetan sartzea baimen ezberdinetan eta baimen horiek izapidetzeko beharrezkoa den ingurumen dokumentazioan ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak.
 - Instalazioa edo honen eraikuntza baimentzeko proiektuetan zaintza programa bat sartzea.
- Obren fasean:
 - Obrek dirauten bitartean ingurumen arloko ikuskapen bat izatea, kudeaketaz arduratzen den erakundeak berak ezarria, edo azpikontratatua.

- Obrek dirauten bitartean martxan jartzea baimen ezberdinetan eta baimen horiek izapidetzeko beharrezkoa den ingurumen dokumentazioan ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak eta zaintza programa.
 - Baimenetan eta ingurumen dokumentazioan ezarritako aldizkako zaintza-txostenak idaztea eta entregatzea.
- Ustiapen fasean:
 - Zaintza kontrolak egitea, bai ingurumen arloko baimen eta lizentzian ezarritakoak, eta bai ingurumen kudeaketarako sistemetan ezarritakoak, instalazioak halakorik izanez gero behintzat.
 - Kasuan kasuko ingurumen aldaerei buruz (ura, airea, etab.) plantari dagokion ingurumen legerian ezarritako mugak errespetatzea.
 - Ixte fasean:
 - Instalazioa ixteko bete behar diren lege-izapideak betetzea.
 - Instalazioa ixteko baimenetan ezarritako zaintza kontrolak egitea.
 - Kasuan kasuko ingurumen aldaerei buruz (ura, airea, etab.) plantari dagokion ingurumen legerian ezarritako mugak errespetatzea.

Kontrol fitxa horiekin batera *Ingurumen arloko Ez-Adostasunen Erregistroa* eramango da. Kontrol fitxak betetzerakoan antzemandako ingurumen arloko ez-betetzeak erregistro horretan jasoko dira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko *Ez-Adostasun* horrek ukitutako plantaren proiektuan edo kudeaketan.

10.5.1. Adierazleak definitzea eta horien segimendua egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea. Gehieneko edo erreferentziako mailak ezartzea

Bi adierazle maila ezarri dira; honako hauek:

- Orokorrak. Aldaketa honetan aurreikusitako planifikazioa ezartzeak era martxan jartzeak eragingo dituen ingurumen inpaktuak bere osotasunean baloratzeko aukera emango dute. Adierazle horien artean, honako hauek egongo dira:

Lurzoruaren zentzuzko erabilera:

- Lurzorua zenbat artifizializatuko den: azpiegiturek hartzen duten azalera portzentajea, aldaketa garatu aurretik eta ondoren.
- Berreskuratu diren espazio degradatuen portzentajea eta hektarea kopurua.
- Nekazaritzarako gaitasun handia duen lurzoruaren azalera, aurreikusitako jarduerak gauzatu aurretik eta ondoren.

Ura:

- Guztizko ur eskaria: edateko uraren urteko kontsumoaren aldaketaren %, kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- Ur kontinentaletara egindako isurpenak, eta uraren erabileran zein hondakin uren sorreran antzeman daitekeen eragimena eta intentsitatea.

Airea:

- Espero daitezkeen kutsatzaile garrantzitsuenen indizea (berotegi efektuko gasei dagozkienak barne hartuta).
- Azpiegituretatik etorritako negutegi efektuko gasen isurpenak urtean (CO₂ tona baliokideak), kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- Azpiegituretatik etorritako atmosfera-kutsatzaileen isurpenak urtean (kg./urte), kudeatutako hondakin tonei dagokienez.
- OMEak gomendatutako mugez gaindiko arriskua jasaten duen biztanle portzentajea.

Energia:

- Azpiegituren argindar kontsumoa, urtean.

Biodibertsitatea:

- Planaren eragina nozituko duten batasunaren intereseko habitatek hartzen duten azalera, edota intereseko landaretzak hartzen duena.

Adierazle hauentzako muga edo erreferentziarik ez da jarriko; izan ere, interesgarriena, adierazle horien urteko bilakaera izango baita. Bilakaera horrek, hain zuzen ere, aurreko urteko balioak mantentzera jo beharko du, edota LAParen aldaketaren iraunaldi osoan zehar jaistera.

- Espezifikokoak. Planta bakoitzari zehazki dagozkionak izango dira, kontrol-fitxetatik ateratakoak, hain zuzen. Horietan sartuko dira, besteak beste:
 - Urtean zehar mota bakoitzerako erregistratu den ez-adostasun kopurua (neurri zuzentzaileak ez sartzea, kontrolak ez sartzea, baimenak ez eskuratzea, eta abar).
 - Ingurumen arloko baimenetan eta dokumentazioan jasotako neurri babesgarri eta zuzentzaile guztietatik benetan hartu direnen %.
 - Baimenetan eta ingurumen dokumentazioan ezarritako zaintza programetan jasotako kontrol guztietatik benetan garatu direnen %.

Erreferentzia maila 0 izango da lehen adierazlean, eta % 100 beste bietan.

Urtero txosten bat idatziko da eta, horretan, LAPko azpiegituren multzo osoko inpaktu orokorren adierazleetan izandako gorabeherak, eta planta bakoitzaren adierazle espezifikoetan izandakoak, adieraziko dira. Urteroko txosten hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak idatziko du.

Era berean, LAParen aldaketan jasotako ingurumen alderdien segimendua behar bezala aurreikusteko, LAParen aldaketa honetan ezarri den Ikusapen Programa aintzat hartu eta txertatu egingo da LAParen araudiko 7. artikuluan aipatzen den Memorian.

10.5.2. Plangintzaren gerorako faseetan edo plana garatzeko ingurumen arloko izapideetan xehetasunez aztertzeke utzi behar diren alderdiak

LAParen aldaketa honetan zein planifikazio mailatan gauden ikusita, eta kontuan izanik sor daitezkeen inpaktuak, hartu beharko diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak, eta hori guztia kontrolatzeko zaintza programak, egiaz, eraikuntza eta ixte proiektuak egiteko garaian, edo bestela ingurumen baimenak lortzeko egiten diren proiektuetan zehaztuko direla, LAParen aldaketa honetan egingo den gauza bakarra, fase bakoitzean oinarrizko ingurumen bermeak kontuan hartu direla egiaztatzea izango da, eta horretarako, proposatutako kontrol fitxak beteko dira. Baina xehetasunezko segimendua ingurumen arloko dokumentu espezifikoetan egingo da, hau da, LAPeko eta aldaketa honetako aurreikuspenak garatzen dituen planta bakoitzari buruzko ingurumen agiri espezifikoetan.

Gainera, LAPan, aldaketa honetan eta foru arau gisa onartutako Aurrerapen Agirian ezarritako ikuskapen programak koordinatu egin beharko dira, bi agirietan –bai kudeaketa helburuak betetzeari dagokionez, eta bai lurralde inpaktuei dagokienez– ezarritako jarraibideen arabera garatzen den hondakinen kudeaketak ingurumenean duen benetako eragina bere osotasunean ikusi ahal izateko.






Nerea Zapirain

ingeniaria

IDOM

I. Eranskina - Dokumentu grafikoak



testua:
leyenda:

- MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA
- MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DEL TXINGUDI
- MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA
- MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA
- MANCOMUNIDAD MUNICIPAL DE SAN MARCOS
- MANCOMUNIDAD SASIETA
- MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA
- MANCOMUNIDAD UROLA ERDIA

planoa:
plano:

eskala:
escala:

data:
fecha:

e.zk:
n°e:

agindu:
encargo:

bezera:
cliente:

berrikuspena:
revisión:

plano zk:
n° plano:

E-01

0

1/250.000 A3

**INFORMAZIOA: LURRALDE
EREMU ALDAKETEN AURRERAPENA**

INFORMACIÓN: AVANCE DEL ÁMBITO
TERRITORIAL DE LA MODIFICACIÓN

**APIRILA 2018
ABRIL 2018**

19605



**GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA**

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas





Emplazamientos

RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD

Ríos

Ríos componente urbanística

Avenida de inundación 500 años

FAUNA

Desmán del Pirineo

Visón Europeo

Ranita Meridional

ESPACIOS PROTEGIDOS

Red Natura 2000 LIC

Red Natura 2000 ZEPA

PAISAJES SINGULARES

Cuencas visuales con elevado valor paisajístico

Espacios de interés natural

CORREDORES ECOLÓGICOS

Corredores ecológicos área de amortiguación

Corredores ecológicos áreas de enlace

Corredores ecológicos fluvial

Corredores ecológicos de enlace

Corredores ecológicos núcleo

planoa: | eskala: | berrikuspena: | plano zk: | n° plano: |

plano: | escala: | revisión: |

data: | fecha: |

e zk: | n°e: |

agindu: | encargo: |

bezera: | cliente: |

E-02

0

1/5.000 A3

HONDAKINEN HELTZETEGIAREN
KOKAPENAREN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE LOCALIZACIÓN DE LA
PLANTA DE MADURACIÓN DE ESCORIAS

APIRILA 2018
ABRIL 2018

19605



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

N



testua:
leyenda:

- ☐ Alternativa 1
- ☐ Alternativa 2
- ☐ Alternativa 3


RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD

- Ríos
- Ríos componente urbanística
- Avenida de inundación 500 años


FAUNA

-  Desmán del Pirineo
-  Visón Europeo
-  Ranita Meridional






ESPACIOS PROTEGIDOS

-  Red Natura 2000 LIC
 Red Natura 2000 ZEPA

PAISAJES SINGULARES

- Cuencas visuales con elevado valor paisajístico
-  Espacios de interés natural

CORREDORES ECOLÓGICOS

- | | |
|--|---|
|  | Corredores ecológicos área de amortiguación |
|  | Corredores ecológicos áreas de enlace |
|  | Corredores ecológicos fluvial |
|  | Corredores ecológicos de enlace |
|  | Corredores ecológicos núcleo |

planoa:	eskala:	berrikuspena:	plano zk:
plano:	escala:	revisión:	nº plano:

E-03

0

1/250.000 A3

SASIETA TRANSFERENTZI ESTAZIOA ALTERNATIBAK

ESTACIÓN DE TRANSFERENCIA SASIETA ALTERNATIVAS

APIRILA 2018
ABRIL 2018

19605




**GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA**

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas





- Emplazamiento
- RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD**
 - Ríos
 - Ríos componente urbanística
 - Avenida de inundación 500 años
- FAUNA**
 - Desmán del Pirineo
 - Visón Europeo
 - Ranita Meridional
- ESPACIOS PROTEGIDOS**
 - Red Natura 2000 LIC
 - Red Natura 2000 ZEPA
- PAISAJES SINGULARES**
 - Cuencas visuales con elevado valor paisajístico
 - Espacios de interés natural
- CORREDORES ECOLÓGICOS**
 - Corredores ecológicos área de amortiguación
 - Corredores ecológicos áreas de enlace
 - Corredores ecológicos fluvial
 - Corredores ecológicos de enlace
 - Corredores ecológicos núcleo

plano: | eskala: | berrikuspena: | plano zk: | n° plano: |
plano: | escala: | revisión: |
data: | fecha: |
ezk: | n°e: |
agindu: | encargo: |
bezeroa: | cliente: |

E-05

0

1/5.000 A3

DONOSTIALDEA-BIDASOA KONPOSTAJE EDO BIOMETANIZAZIO PLANTA - ALTERNATIBA 1

PLANTA DE COMPOSTAJE Y/O BIOMETANIZACIÓN DONOSTIALDEA-BIDASOA - ALTERNATIVA 1



APIRILA 2018
ABRIL 2018

19605

GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARPENA

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL (PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA





Emplazamiento

RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD

Ríos

Ríos componente urbanística

Avenida de inundación 500 años

FAUNA

Desmán del Pirineo

Visión Europeo

Ranita Meridional

ESPACIOS PROTEGIDOS

Red Natura 2000 LIC

Red Natura 2000 ZEPA

PAISAJES SINGULARES

Cuencas visuales con elevado valor paisajístico

Espacios de interés natural

CORREDORES ECOLÓGICOS

Corredores ecológicos área de amortiguación

Corredores ecológicos áreas de enlace

Corredores ecológicos fluvial

Corredores ecológicos de enlace

Corredores ecológicos núcleo

planoa: | eskala: | berrikuspena: | plano zk: |

plano: | escala: | revision: | n° plano: |

data: |

fecha: |

agindu: | e zk: |

encargo: | n°e: |

bezeroa: |

cliente: |

E-06

0

1/5.000 A3

DONOSTIALDEA-BIDASOA KONPOSTAJE EDO BIOMETANIZAZIO PLANTA - ALTERNATIBA 2

PLANTA DE COMPOSTAJE Y/O BIOMETANIZACIÓN DONOSTIALDEA-BIDASOA - ALTERNATIVA 2

APIRILA 2018

ABRIL 2018

19605

GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARPENA




MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL (PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

N



Emplazamiento

RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD

- Ríos
- Ríos componente urbanística
- Avenida de inundación 500 años

FAUNA

- Desmán del Pirineo
- Visón Europeo
- Ranita Meridional

ESPACIOS PROTEGIDOS

- Red Natura 2000 LIC
- Red Natura 2000 ZEPA

PAISAJES SINGULARES

- Cuencas visuales con elevado valor paisajístico
- Espacios de interés natural

CORREDORES ECOLÓGICOS

- Corredores ecológicos área de amortiguación
- Corredores ecológicos áreas de enlace
- Corredores ecológicos fluvial
- Corredores ecológicos de enlace
- Corredores ecológicos núcleo

plano: | escala: | berrikuspena: | plano zk: | n° plano: |

revisión: |

data: | fecha: |

e.zk: | n°e: |

agindu: | encargo: |

bezeroa: | cliente: |

E-07

0

1/5.000 A3

DONOSTIALDEA-BIDASOA KONPOSTAJE EDO BIOMETANIZAZIO PLANTA - ALTERNATIBA 3

PLANTA DE COMPOSTAJE Y/O BIOMETANIZACIÓN DONOSTIALDEA-BIDASOA - ALTERNATIVA 3

APIRILA 2018 ABRIL 2018

19605



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARPENA



MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL (PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas










 Emplazamiento


RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD


 Ríos


 Ríos componente urbanística

 Avenida de inundación 500 años


FAUNA


 Desmán del Pirineo

 Visón Europeo


 Ranita Meridional


ESPACIOS PROTEGIDOS

 Red Natura 2000 LIC


 Red Natura 2000 ZEPA


PAISAJES SINGULARES


 Cuencas visuales con elevado valor paisajístico


 Espacios de interés natural


CORREDORES ECOLÓGICOS

 Corredores ecológicos área de amortiguación

 Corredores ecológicos áreas de enlace

 Corredores ecológicos fluvial

 Corredores ecológicos de enlace

 Corredores ecológicos núcleo

plano: | eskala: | berrikuspena: | plano zk: | n° plano:

plano: | escala: | revisión:

data: | fecha:

e.zk: | n°e:

agindu: | encargo:

bezeroa: | cliente:

E-08

0

1/5.000 A3

ALTERNATIBA 1
SASIETA TRANSFERENTZI ESTAZIOA


ALTERNATIVA 1
ESTACIÓN DE TRANSFERENCIA SASIETA

APIRILA 2018
ABRIL 2018


19605



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA



MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas







Emplazamiento

RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD

Ríos

Ríos componente urbanística

Avenida de inundación 500 años

FAUNA

Desmán del Pirineo

Visión Europeo

Ranita Meridional

ESPACIOS PROTEGIDOS

Red Natura 2000 LIC

Red Natura 2000 ZEPA

PAISAJES SINGULARES

Cuencas visuales con elevado valor paisajístico

Espacios de interés natural

CORREDORES ECOLÓGICOS

Corredores ecológicos área de amortiguación

Corredores ecológicos áreas de enlace

Corredores ecológicos fluvial

Corredores ecológicos de enlace

Corredores ecológicos núcleo

planoa: | eskala: | berrikuspena: | plano zk: | n° plano: |

data: | fecha: |

e zk: | n°: |

agindu: | encargo: |

bezera: | cliente: |

E-09

0

1/5.000 A3

ALTERNATIVA 2
SASIETA TRANSFERENTZI ESTAZIOA


ALTERNATIVA 2
ESTACIÓN DE TRANSFERENCIA SASIETA

APIRILA 2018
ABRIL 2018


19605



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas





- Emplazamiento
- RED HIDROLÓGICA INUNDABILIDAD**
 - Ríos
 - Ríos componente urbanística
 - Avenida de inundación 500 años
- FAUNA**
 - Desmán del Pirineo
 - Visión Europeo
 - Ranita Meridional
- ESPACIOS PROTEGIDOS**
 - Red Natura 2000 LIC
 - Red Natura 2000 ZEPA
- PAISAJES SINGULARES**
 - Cuencas visuales con elevado valor paisajístico
 - Espacios de interés natural
- CORREDORES ECOLÓGICOS**
 - Corredores ecológicos área de amortiguación
 - Corredores ecológicos áreas de enlace
 - Corredores ecológicos fluvial
 - Corredores ecológicos de enlace
 - Corredores ecológicos núcleo

E-10

0

1/5.000 A3

**ALTERNATIBA 3
SASIETA TRANSFERENTZI ESTAZIOA**

ALTERNATIVA 3
ESTACIÓN DE TRANSFERENCIA SASIETA

**APIRILA 2018
ABRIL 2018**

19605

**GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINEN AZPIEGITUREN
LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN ALDAKETA
BEHIN BETIKO ONARPENA**

MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
(PTS) DE INFRAESTRUCTURAS DE RESIDUOS
URBANOS DE GIPUZKOA APROBACIÓN DEFINITIVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas



II. Ingurumen-adierazpen estrategikoko zehaztapenak txertatzea

2017ko apirilaren 6ko idazkiaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudea tzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketako ohiko ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura abia tzea eskatu zion ingurumen organoari, aldaketa horren aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa eran tsita.

2017ko uztailaren 4an, ingurumen organoak irismeneko dokumentua eman zuen, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua betez. Dokumentu horretan, egindako kon tsul ten eran tzu nak ematen ziren, ingurumen irizpide estrategikoak adierazten, planaren aplikazio esparruaren barnean zeuden ingurumen arlo eta alderdi garrantzitsuak identifika tzen, eta ingurumen azterketa estrategikoak izan behar zuen edukia eta irismena aipa tzen.

Ondoren, 2017ko abenduaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak ingurumen adierazpen estrategikoa egitea eskatu dio ingurumen organoari, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25. artikulua jaso tzen duen moduan –211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ingurumen memoria deitua da–, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudea tzeko Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketaren (aurrerantzean LPSaren aldaketa) behin-behineko onarpenaren espediente administratibo eta dokumentazioaren kopia eran tsita.

Gipuzkoako Hiri-hondakinak Azpiegituretako Lurralde Arloko Planaren aldaketako espedientean dauden agiri teknikoak txostenak berrikusi ostean, eta ingurumen-ikerketa estrategikoa zuzena dela eta indarreko araudian aurreikusitako alderdiekin bat datorrela ikusirik, Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Sailak, Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren arabera eta Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuaren arabera eskumena duen organo modura, ingurumen-adierazpen estrategikoa eman du, zera adieraziz:

- Plana behin betiko onartu ondoren, organo sustatzaileak, bitarteko elektronikoak erabiliz, erabilgarri jarriko du 211/2012 Dekretuaren 15. artikuluan jasotzen den dokumentazioa.
- Gipuzkoako hondakinatarako azpiegituren LPSaren eta beronen jarraipen programa abian jartzearen ondorioz detektatuz gero egindako ingurumen ebaluazio estrategikoan aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak, organo sustatzaileak ingurumen organoari jakinarazi beharko dizkio hori minimizatzeko proposatzen diren neurriak, 211/2012 Dekretuaren 16. artikulua xedatzen duena betez.